



Basaurin matxismoari PLANto

*Basauriko indarkeria matxistaren
kontrako plana 2017-2020*



MARIENEA
basauriko Emakumeen etxea
casa de las Mujeres de basauri



BASAURI



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Argitaratzen du
Basauriko Udala
Berdintasun Atala
Kareaga Goikoa 54, 48970 Basauri (Bizkaia)

Egileak
Berdintasun Atala del Ayuntamiento de Basauri
Anabel Sanz del Pozo
Raquel de la Calle Gonzalez
Leire Groven Hernández

Lankidetzak
Amaia Galindez, Iratxe Uriarte, Joaquina Lozano,
Ixone Collado, Estibaliz Etxebarria

Eskerrak
Indarkeria Matxistaren Kontrako Planean eta horren
diagnostikokoa parte hartu duten Basauriko herritarrei

Itzulpena
Basauriko Udala, Itzulpen Zerbitzua

Finantzatzen du
Emakunde Emakumearen Euskal Erakundea
Basauriko Udala

Diseinua eta maketazioa
Higinia Garay – Higi Vandis

Inprimatzen du
Guregraf Industria de Artes Gráficas

Emakumeok -eta herritarrek, oro har-, emakume eta gizonen arteko berdintasun ezari aurre egiteko baliabideak behar ditugu. Bereziki, gizonak emakumeak menderatzeko darabilten mekanismoetako bati; horien artean, larriena indarkeria matxista da.

Ezinbestekoa da erakundeok esku hartzea, berdintasun horretara eramango gaituzten aldaketa sozialak sustatzerakoan. Eredugarri izan behar dugu, eskubide- eta aukera-berdintasuna lortzeari dagokionez.

Basauriko Udalak ibilbide luzea du gizartea eraldatzea ekarriko duten aldaketak sustatzeari dagokionean. Izan ere, baliabide ekonomiko eta giza baliabide ugari bideratu ditu Udalak xede horretara, besteak beste: 2000. urtean Berdintasun Atala sortu zen; hiru urte beranduago, Jabekuntza Eskola; eta 2012an Marienea abiatu zen (Basauriko emakumeen eta feministen aspaldiko aldarrikapenei erantzuteko).

Orain, Indarkeria Matxistaren Aurkako Basauriko Plan Lokal honekin, konpromiso politiko handiagoa hartzen du Udalak, beste erakundeekin, emakumeen elkarteekin eta gizarte-eragileekin batera. Emakumeentzako bidezkoagoa izango den gizartea lortzeko beste aletxo bat da Plan hau. Gizarte horretan ez dago tokirik indarkeria matxistarako: hura desagerrarazteko tresnak eta irtenbide transbertsalak sortu behar dira.

Bestalde, Plan bizia da hau, Basauriko emakumeen, gizarte-eragileen, norbanakoen eta Udalaren ekarpenen, ikuspegiaren eta elkarlanaren emaitza.

Malgua izateko eta beharizan berrietara egokitzeko helburuarekin jaio da, eta garatu ahala moldatzen joango da, berau aberastu nahi duten eragile guztien parte-hartze eta hausnarketekin, indarkeria matxistaren aurkako tresna eraginkorra izateko une oro.

Asier Irigorri

Berdintasun zinegotzia

Andoni Busquet

Basauriko alkatea

Aurkibidea

05 Oinarriak

- 1.1 Justifikazioa
- 1-2. Aurrekariak

12 Marko juridikoa

- 2.1. Marko kontzeptuala
- 2.2. Lege-markoa
- 2.3. Printzipio gidariak

24 Diagnostikoa

3.1. INDARKERIA MATXISTAREN ANALISI Kuantitatiboa

Estatu espainiarreko indarkeria motei buruzko datuak

EAEko indarkeria motei buruzko datuak

Espainiar estatuan genero-indarkeriaren ondorioz izandako erailketei buruzko datuak

EAEko genero-indarkeriaren ondorioz izandako erailketei buruzko datuak

Genero-indarkeriagatiko prozesu judizialei buruzko datuak

Indarkeria matxistaren biktima izandako emakumeei Basaurin emandako arretari buruzko datuak

3.2. PARTE-HARTZE PROZESUEN ANALISI KUALITATIBOA

Eztabaida taldeak

Elkarrizketak sakonean

Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeen taldea

Parte-hartze prozesuen ondorioak

75 Helburu orokorrak

76 Metodologia

83 Indarkeria matxistaren kontrako Basauriko tokiko plana: Basaurin matxismoari planto!

Sentiberatzea, prebenitzea eta kontzientzia harraraztea

Arreta integrala, suspertzea eta ahalduntzea

Salaketa publikoa, memoria eta erreparazioa

Ekintza gehigarriak

139 Bibliografia

141 Eranskinak

Oinarriak

1 Justifikazioa

Indarkeria matxista da emakumeen eta gizonen arteko berdintasun ezaren adierazpiderik gordinena, eta, oraindik ere, gure gizarteak konpontzeko duen arazo handienetako bat. Indarkeria matxistaren ondorioak pairatzen dituzten emakumeek, neskatoek eta mutikoek, zailtasun handiak izaten dituzte gainerakoon eskubide eta aukera berdinak erdiesteko.

Nazio Batuen Erakundearen Asanblada Orokorrak, **emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteari buruzko Adierazpenean** (48/104 Ebazpena, 1993ko abenduaren 20koa), honelaxe definitzen du emakumeen kontrako indarkeria: «*historian zehar gizon eta emakumeen artean izandako berdintasun ezaren ondorioz eraturako botere-harremanen adierazpenetako bat, zeinaren ondorioz gizonak emakumea menderatua eta diskriminatua izan baitu, eta emakumearen garapen osoa oztopatua izan baita. (...) Gizartearen oinarritzko mekanismoetako bat da, emakumea gizonarekiko menderakuntza-egoeran jarraitzera behartzen duena*» (NBE, 1993:2).

Gerora ere, Adierazpena berretsi egin zuten Emakumeei buruzko **Munduko IV. Konferentzian** (Pekin, 1995), eta emakumeenganako indarkeriari buruz ondoko definizio hau eman zuten: «*generoan oinarritutako edozein egintza biolento, zeinaren ondorioz kalte fisikoak, sexualak edo psikologikoak eragiten diren (edo eragin daitezkeen); mehatxuak, hertsapena eta askatasun-gabetze arbitrarioa ere emakumeen aurkako indarkeria dira, berdin bizitza publikoan zein pribatuan ematen badira*» (NBE, 1995:51).

Estatuan, bestalde, **Genero-indarkeriaren aurkako babes integralerako neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak** dio genero-indarkeria dela «*diskriminazioa, berdintasun eza eta gizonak emakumeen gain dituzten botere-harremanak baliatuta, emakumeei haien bikotekoek, bikoteko ohiek, edota emakumeekin harremanak izandako gizonak eragindako indarkeria*» (EAO, 2004:3).

Nazioartean aitortutako arazo soziala da indarkeria matxistarena, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun ezaren, botere-gehiegikeriaren eta menderakuntzaren adierazpenik latzena.

Autonomia Erkidegoan, berriz, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea** aipatu dezakegu. Emakumeen aurkako indarkeria honelaxe definitzen da bertan: «*sexuagatiko edozein egintza, zeinaren ondorioz emakumeari kalte fisikoak, sexualak edo psikologikoak, edota sufrimendua eragiten zaizkion edota eragin ahal zaizkion; definizio honek barne hartzen ditu egintzok aurrera eramateko mehatxuak, koakzioa edota bizitza publiko zein pribatuan emandako askatasun-gabetze arbitrarioak*» (EHAA, 2005:33). Mundu osoan sarrien ematen den, eta pertsona-kopuru handienari eragiten dion giza eskubideen bortxaketaz ari gara, beraz. Indarkeria hori are agerikoagoa da bere muturreko adierazpenean: erailketan. Baina, berez, emakumeen aurkako indarkeria askoz lehenago hasten da, zenbait modu eta gradutan azalaratzen da, eta emakumeen garapen pertsonalerako muga oso larria da —eragotzi egiten die familian, lanean eta gizartean normaltasunez bizitzea—.

Urte hauetan guztietan zehar, emakumeen mugimenduak eta mugimendu feministak oso lan garrantzitsua egin dute indarkeria matxistaren aurkako borrokan: gaia agenda politikotik txertatzen lagundu dute, eta lortu dute indarkeriaren biktima diren emakumeek behar duten arreta integral eta espezializaturako baliabideak areagotzea. Hala eta guztiz ere, datuek alarma gorria pitzen jarraitzen dute, oraindik ere.

Joan den 2015eko udan, CEDAW erakundeak zalantzarako tarterik uzten ez duen txostena plazaratu zuen. Emakumeek espainiar estatuan bizi duten egoera salatzen du dokumentuak, eta adierazten du Espainiak ez dituela gutxieneko parametroak betetzen, ez dituelako ezarri indarkeria matxistaren aurkako beharrezko berdintasun-politikak eta neurriak. Giza Eskubideen Europako Agentziaren azken azterlanaren arabera (2014), berriz, EBko emakumeen artean, hirutik batek, hau da, 62 milioi emakumek, indarkeria fisiko edota sexuala pairatu du 15 urtetik aurrera. Beste datu bat: bikote-harremanak izandako emakumeen % 22k indarkeria fisiko edota sexuala jasan du, eta, horien artean, hirutik batek baino ez du salatu. Gainera, Europako emakumeen % 43ri nolako edo halako indarkeria psikologikoa eragin dio bere bikotekoak (umiliazio publikoa, mehatxuak, intimitatea bortxatzea edota kalera irteteko debekua).

Bizi dugun egoera larria islatzen dute datuok (gehiago ere badaude), eta agerian uzten dute behar-beharrezkoa dela indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko estrategia berriak bultzatzea. Errespetuan eta norbanakoen arteko berdintasunean oinarritutako gizarteek ezin dituzte onartu giza eskubideen bortxaketa horiek. Behar-beharrezkoa da administrazio publikoek, erakundeek eta gizarteak batera jardutea, jarraitutasuna izango duten ekintzak abiarazteko.

Ildo horretan, indarkeria matxistari buruz hitz egiten dugunean, diskriminazioan oinarritutako gizarte-antolamendu bati buruz ari gara: dimentsio anitzeko egitura da, gizarteak eraikitako identitatea eta genero-sozializazioa gako dituen. Sozializazio prozesu horrek emakumeen eta gizonen identitateak eraikitzen ditu, batzuentzako eta besteentzako rola eta estereotipoak bereizita: hierarkia eta berdintasun eza ezartzen ditu. Berdintasun eza hori muturreraino eramaten denean, indarkeria sortzen da. Azpimarratu beharra dago, gainera, indarkeria hori eremu guzti-guztietan ematen dela.

Beraz, indarkeria matxistari aurre egiteko neurriek arazoaren muinari heldu behar diote: gizartearen baloreak aldatzen jarri behar dute arreta. Horrela egin ezean, ez da benetako eraldatze soziala gertatuko. **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako EAren VI. Planak** dio balore-aldaketa landu behar dela «*bizitza ekonomikoaren, politikoaren, sozialaren eta kulturalaren arlo guztietan, berdintasuneranzko gizarte-eraldaketa sustatzeko. Norbanakoen uste sendoetan eragin behar da, eta gizartearen ordena sinbolikoan ere bai; zeregin konplexua bada ere, ezinbestekoa da, aldaketak eta eraldaketak eragiteko*» (Emakunde, 2014:12). Xede horri jarraiki, Emakunde balore-aldaketa eragiteko ardatz transbertsal gisa ezartzen ditu berdintasun planak, eta programa espezifikoak esleitzen die. Plan horien oinarri estrategikoen artean indarkeria matxista desagerraraztea badago ere, ezinbestekoa da arazoari aurre egiteko plan espezifikoak garatzea, horien bidez aurrerapen errealak ahalbidetzea eta biktimei benetako arreta integrala eman ahal izateko neurri zehatzak arautzea.

Zenbait ildo estrategiko landu behar dira aurrean ditugun erronkei heltzeko. Indarkeria matxistari aurre egiteko, ezinbestekoa da, besteak beste, gizartea eraldatzea, baloreak iraultzea. Indarkeria matxista arazo soziala da, eta gizartea jabetu egin behar da arazo horrek duen garrantziaz. Gizarteak ezin du indarkeria matxista bidezkotu edo onartu, eta gaituztu egin behar ditu indarkeria hori gizarte-talde jakin batzuekin lotzen duten mitoak. Hori dela eta, Tokiko Plan honek garrantzi berezia ematen dio herritarrek, udalerriko gizarte-eragileek eta emakumeen elkarteek bertan esku hartzea sustatzeari. Ez dugu ahaztu behar indarkeria matxista gizarte osoari dagokion kontu publikoa dela eta, beraz, gizarte osoari dagozkiola hari aurre egiteko neurriak ere. Indarkeria Matxistaren Aurkako Tokiko Plana, beraz, dinamikoa eta malgua da: eragindako sektore guztien ekarpenak jaso nahi ditu, eta etengabe aldatzen den errealitate batera moldatzen joan nahi du. Planak ildo estrategiko argiak ditu, baina, aldi berean, «laborategi» ere izan nahi du, laguntzeko tresna. Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeen beharrezkoak hartu nahi ditu ardatz.

Alde horretatik, funtsezkoa da emakumeek parte hartzea, bai aitortza eta justizia sozialaren ikuspuntutik, bai Planaren beraren eraginkortasunari begira. Egiaztatu ahal izan da emakumeen **ahalduntze** prozesuek aurrerapen handiagoak ekarri dituztela, erakundeen politikak eta erantzunak baino.

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko azterlan baten berri eman zuen Cambridge University Press-ek, American Political Science Association (APSA) elkartearentzat argitaratutako American Political Science (APSR) aldizkariaren azken zenbakian (2012ko iraila). Gaiari buruz munduan egindako azterlanik handiena da: lau hamarkadatan zehar garatu dute, 70 herrialdetan. Bertan azpimarratzen da mugimendu feministak duela aldaketarako giltza, eta zera dio testuak, hitzez hitz: «*egoera aldatzeko, mugimendu feministaren mobilizazioa garrantzitsuagoa da nazioen aberastasuna, ezkerre, alderdi politikoak edota emakume politikarien kopurua baino*».

Hori bai: gizonak ere esandako guztiaren parte izatea nahi dugu, modu esanguratsuan bilakatu ere. Oraindik oso urria da gizonak alor horretan duten parte-hartzea, eta uste dugu hori dela, hain zuzen ere, indarkeria matxistari aurre egiteko hartuko diren neurrien erronka handienetako bat. Emakundek denbora darama gizonekin lanean —«Gizonduz» programatik—, eta, aurrekariaren atalean azaldu bezalaxe, guk ere ildo hori jorratzeko zenbait programa bultzatu ditugu. Erakundeok argi eta garbi daukagu lan horrekin aurrera jarraitu beharra dagoela, herritar guztiak mamitu dezaten indarkeria matxista guzti-guztion ardura dela (are gehiago, indarkeria hori egikaritzen dutenena).

Laburbilduz, indarkeria matxistaren aurkako lehen Plan honen xedea da toki administratibotik esku-hartze estrategikoa planteatzeko bidea urratzea —toki administratibotik eskumenak aintzat hartuta, betiere—, eta uztartzea prebentzioa, sentiberatzea eta kontzientzia harraraztea, batetik; arreta integrala, suspertzea eta ahalduntzea, bestetik; eta salaketa, memoria eta erreparazioa, bestetik. Horiek guztiak dira Plana diseinatzerakoan erabilitako ardatz estrategikoak.

1.2 Aurrekariak

Urteak dira indarkeria matxistaren aurkako borroka berdintasun politiken xedeetako bat dela Basauriko Udalean. Toki administratiboa da herritarrengandik hurbilen dagoena, baliabide eta zerbitzuetarako sarbide nagusia. Beste alde batetik, Udalak baditu indarreko legeriak ezarritako erantzukizunak, bai prebentzioaren alorrean, bai indarkeria matxista antzemateari buruz, bai biktimei arreta emateari dagokionean. Beraz, ezinbestekoa da Udalak baliabideak, politikak, planak eta proiektuak izatea, alor horretako bere jarduna gidatzeko.

Basaurin betidanik egon da mugimendu feminista kritiko eta eraikitzailea. Mobilizatzeko gaitasun handia izan du, eta lortu du udal politikaren ardatzean jartzea emakumeen beharrezkoak eta horiei arreta emateko proposamenak. Beraz, legatu oparora utziko die gure herriak datozen belaunaldiak, duela hamarkada asko mobilizatzen eta beren eskubideak aldarrikatzen hasi ziren emakumeen lanari esker.

2000. urtean Berdintasun Atala sortu, eta ofizialki txertatu ziren berdintasun-politika publikoak udal agenda politikoan. Horrekin batera, zenbait proiektu sustatzeko dinamikari ekin zion erakundeak, eta, hori, jauzi kualitatibo esanguratsua izan zen, bitartekoei eta baliabideei zegokienez. Fenismoak historian zehar lortutakoak ikusita, eta udalerrian berdintasuna sustatzeko aurrera eramandako lana aztertuta, esan daiteke Basauriko Udala erreferente bilakatu dela berdintasun-politika publikoen alorrean, bai EAEn, baita estatu mailan ere.

Berdintasun Atala

Nahiko berria da Basauriko Udaleko **Berdintasun Atala**. Hori bai: etenik gabe aritu da berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka lanean, 2000. urtean martxan hasi zenetik. Hainbat ekintza, kanpaina eta proiektu eraman ditu aurrera.

Atala sortu zenetik, helburu nagusia izan da emakumeen eta gizonen arteko haremanak eraldatzea, berdintasuna lortzeko. Xedea hori izanda, norbanakoen ahalduntzea eta emakumeek gizartean eta politikan parte hartzea landu da.

2001eko abenduan **Emakumeen eta Gizonen aukera-berdintasunerako I Berdintasun Plana** onetsi zuen Udalak, gizarte, ekonomia eta kultura arloan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eza lantzeko. Plan horren helburu nagusia izan zen traba erreala baztertzeko, emakumeek gizonen maila berean parte hartu dezaten eremu guztietan. Berdintasun eza eragiten zuten egoerei erantzun nahi izan zien I. Berdintasun Plan hark: emakumeen lan-egoera hobetzea bultzatu zuen; emakumeek ordaindutako lanerako sarbidea izatea sustatu zuen, gizonen baldintza berdinekin; baliabideak emakumeen eskaera eta beharrezkoak egokitu nahi izan zituen; espazio publikoa

planifikatzerakoan emakumeen parte-hartzeak zuten garrantzia azpimarratu zuten; eta emakumeek gizartean eta politikan gehiago parte hartzea aldarrikatu zuten.

Plan hartan, gizarte-ekitzaren eta baliabide soziokomunitarioen arlo barruan zegoen indarkeria matxista. Bakar-bakarrik aurreikusi zuten Tratu Txarren Biktimei Arreta emateko Erakundearteko Protokoloari jarraipena egiteko Batzordea abiaraztea, eta prebentzio-izaera zuten kontzientziazio eta sentiberatze kanpainak egitea. Gerora, 2005ean onetsitako **emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako II. Planak**, indarkeria matxistaren eremuan berriaz lan egiteko arloa sortu zuten. Planeko neurriak bi ardatz nagusiren inguruan garatu ziren: herritarrei, oro har, kontzientzia harrarazteko lana; eta biktimei arreta emateko zerbitzuak hobetzea.

Biktimeen arretari dagokionez, **Basaurin sexu-erasoak eta tratu txarrak pairatu dituzten emakumeei arreta emateko erakundearteko koordinaziorako Udal Protokoloari** (2004 amaierakoa) segida eman zion II. Berdintasun Planak. Protokolo horrek koordinatu egin zituen indarkeria matxistaren biktimeen arretan parte hartzen zuten erakundeen parte-hartzea, eta biktimizazio bikoitza ekiditeko ibilbidea diseinatu zuten. Praktikan aplikatu bada ere, ez da guztiz garatu.

Udal Protokoloaren Sarrerak aurreratzen du bere helburua dela «*Basaurin sexu-erasoak eta tratu txarrak pairatu dituzten emakumeei arreta ematen dieten zerbitzuen jarduera koordinatzea, udalerririk dituen baliabide zehatzetatik abiatuta. Koordinaziorako aurreikusitako mekanismoek barne hartzen dituzte Udaleko arreta-ibilbidea osatzen duten zerbitzuak —dagozkion jardute-eremuetakoak—, hala nola: osasuna (Osakidatzaren anbulatorioak); polizia (Ertzaintza eta Udaltzaingoa); oinarritzko gizarte-zerbitzuak; eta Emakumeentzako Informazio Zentroa (Basauri)».*

Urte hauetan guztietan zehar, Udalaren oinarritzko gizarte-zerbitzuek informazioa, balorazioa eta orientazioa eskaini diete emakume guztiei, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baliabide eta zerbitzuei buruz; indarkeria matxista antzemateko eta biktimei arreta emateko programak ezarri dituzte; eta seme-alabak beren ardurapean izan, eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku-hartze psikosozioedukatiboa garatzeko programak abiarazi dituzte. Udaltzaingoa ere arreta- eta laguntza-zerbitzua eskaintzen die indarkeria pairatzen duten emakumeei. Protokoloa diseinatu eta martxan jartzeak hobekuntza nabariak ekarri zituen indarkeria jasaten zuten emakumeen arretan. Ordea, gaur egun, behar-beharrezkoa da hasitako lanari berriro ekitea, eta politika publikoak indarreko araudiari egokitzea (adibidez, Istanbuleko Protokoloari)¹.

Beste alde batetik, **Berdintasunaren II. Planak** proposatu zuten gizonen ere esku hartzea indarkeria matxistaren aurkako borrokan. Horretarako, programa bat garatu zuten Planak —gizonen konpromisoa bilatzeko—, eta zenbait ekimen abiarazi zituen. Urte hauetan guztietan zehar, herritarrei, oro har, zuzendutako kontzientziazio-jarduerak ere bultzatu dira, data esanguratsuen inguruko urteko kanpainak, esaterako: azaroak 25, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna; martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna; edo ekainak 28, Sexu-askapenerako Nazioarteko Eguna. Herriko jaietan ere zenbait ekintza sustatu dira, Atala sortu zenetik.

Aurrera egin, eta, 2006an, «Berdinsarea» eratu zen, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako euskal udalerrien Sarea. Basauri izan zen Sarearen sustatzaile aktiboenetako bat, eta esan beharra dago jauzi kualitatibo garrantzitsua ekarri zuela organo horren sorrerak. «Berdinsarea»ren ildoan, aipatzekoa da ere «Beldur Barik» programa: zenbait erakunderen kanpainak bateratu, eta eraso matxisten zein sexu-indarkeriaren aurkako jarrera sustatzen du gazteen artean. Programa sortu zenetik, berau bultzatzeko Talde Eragilearen kide da Basauriko Udala.

Jabekuntza Eskola izan zen beste mugarrietako bat. 2003an sortu zen Basaurin, emakumeek politikan parte hartzea ahalbidetu, eta beren ahalduntzea sustatzeko eta sendotzeko. Lan-ildo estrategikoa da. Hari esker, irauli egin da emakumeen ahalduntzea lantzeko modua: «*proiektua estrategikoa bilakatu zen Udalak berdintasunaren eremuan aurrera eramandako jardueraren barruan; gainera, komunikazio eta koordinazio zuzena sortu zen herriko elkarten sarearen eta Basauriko Udalaren*

¹ Ikus «Lege-markoa» atala, 24. or.

Berdintasun Atalaren artean. Beste alde batetik, Eskola sortu izana inflexio-puntua izan zen hezkuntza ez-formalean ere, emakumeen astialdirako eredu alternatiboa eskaintzen duelako»².

Urte hauetan guztietan zehar, udalerrian erreferente bilakatu da Eskola. Gainera, sarea eratu da, Getxoko, Ondarroako eta Ermuko eskolekin batera. Proiektuak aurreikusten du ikasleek bizipenak partekatzea. Hamar urtetik gorako ibilbidea dute aipatutako eskolek, eta aukera eman dute berdintasunaren eta indarkeria matxistaren prebentzioaren alorrean aurrerapausoak emateko. Horrela, bada, Eskolen Sarearen jarduna «jardunbide egokia» bilakatu da, eta eredugarria beste udalerrientzat. Gipuzkoan jabeakuntza eskolen beste sare bat eratu dute, eta, gaur egun, hogeï jabeakuntza eskola baino gehiago daude EAEn. Are gehiago: Emakunderen III. Berdintasun Planak gomendatutako ekintza da jabeakuntza eskolak eratzea.

Indarkeria matxistari aurre egiteko duten eraginkortasunari dagokionez, berriz, indarkeria antzemateko «sarbide» aparta dira jabeakuntza eskolak (gunea; bertan ematen diren ikastaroak; proiektuak sustatutako emakumeen arteko harremana), eta indarkeria pairatzen duten emakumeen suspertze prozesurako oso erabilgarri suertatzen dira.

Eredu horretatik abiatu zen **Marienea, Basauriko Emakumeen Etxearen** proiektua. 2012an inauguratu zuten, berdintasunaren alde lan egin nahi duten Basauriko emakume eta gizonentzako gune ireki, plural, feminista eta parekidea izateko xedez. Marienea martxan hasi zenetik, basauriarrek badute toki bat berdintasunaren eta aukera-berdintasunaren alde udalerrian aurrera eramandako zerbitzuak, ekimenak eta proiektuak zentralizatzeko eta koordinatzeko. Era berean, Marieneari esker, prestakuntza-eskaintza areagotu, eta errazagoa bihurtu da Berdintasun Ataletik sustatutako baliabideak koordinatzea. Udalerriko emakume eta elkarteentzako topagunea ere bada Marienea: biltzeko eta lan egiteko berezko lekua eskaintzen du.

Guneak lau urte daramatza martxan eta, dagoeneko, uzta oparoa ekarri du; bereziki, beharrian bereziak dituzten emakumeen taldeei laguntza emateko prozesuak finkatu eta sendotzeari dagokionez (gaixotasun mentalak dituzten emakumeen talde bati, esaterako) —izan ere, horrelako taldeek, ohiko baliabideekin, nekez aseko lituzkete beren beharrianak—. Talde berriak identifikatu ere egin dira, adibidez: Emakumeentzako Informazio Zentroko erabiltzaile ohiena. Horrelakoak ez ziratekeen posible izango Marienea egon ez balitz. Proiektua bera biderkatzailea da: aukera ematen du emakumeekin esku hartzeko laguntza-prozesuetatik, ahalduntzetik, suspertzetik eta elkartasunetik.

Marienea, Basauriko Emakumeen Etxea

Gaur egun, honako zerbitzu hauek ematen ditu MARIENEAk:

- **Berdintasun Atala.**
- **Emakumeentzako Informazio Zentroa.**
- **«1ERA 2KAIN», baloreetan hezteko programa. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan garatzen da.**
- **Sexu Informaziorako Bulegoa.**
- **Equitruke, Basauriko Denbora Bankua.**
- **Elkargune, herriko emakumeen taldeentzako eta talde feministentzako gunea.**
- **Emakumeentzako Jabeakuntza Eskola.**

² Marienearen 2015eko proposamen teknikoak, Berdintasun Atalaren barruan jarduerak programatzeko, 1. or.

Emakumeentzako Informazio Zentroa, Basauriko Emakumeen Elkarteak sortu zuen 1989an, garai hartan emakumeenganako indarkeriaren alorrean zegoen lege- eta erakunde-hutsuneari erantzuteko. Espainiar Estatuko beste toki batzuetan bezalaxe, Basaurin ere mugimendu feministaren ekimena izan zen, eta lortu zuen emakume haiei babesa ematea: arreta- eta aholkularitza-zerbitzuak ospe handia eskuratu zuen. Gaur egun, informazioa, aholkularitza, laguntza juridikoa eta laguntza psikologikoa eskaintzen ditu Zentroak, honako hauei buruz: erasoak; tratu txarrak; banantzeak eta dibortzioak; izatezko bikoteak; etxeko langileen eskubideak; laneko diskriminazioa; sexu-jazarpena; eta abar. 2001ean, Basauriko Udalak erabaki zuen Bulegoa arautzea eta udal zerbitzu bihurtzea.

«**1ERA 2KAIN**» programak bilatzen du emakumeen eta gizonen arteko berdintasun baloreak zabalitzea, eta nerabe zein gazteen artean jarrera ez-sexistenganako aldaketa bultzatzea. Izaera integraleko prebentzio-programa estrategikoa da, eta, esku-hartze puntualez gandi, Basauriko nerabe eta gazteen artean errotu nahi du, epe ertain eta luzera. Finean, gazte eta nerabeek berdintasunean eta errespetuan oinarritutako harremanak eraikitzeke prozesuan parte hartzea bilatzen du «1ERA 2KAIN»ek, inguruan nagusi den sexismoarekin haustea. Esku hartzeko zenbait ildo jorratzen ditu: erantzukidetasuna, sexu-heziketa, indarkeria matxista... Era berean, «1ERA 2KAIN»etik sustatzen da «Beldur Barik» programa ere.

Sexu Informaziorako Bulegoak, bere aldetik, hiru aholkularitza mota eskaintzen ditu: arreta sexologikoa; sexu-heziketa; eta prebentzioa. Arreta sexologiko espezializatua zuzenduta dago sexuaren alorrean zailtasunak dituztenei, dela informazio-faltagatik, dela heziketa zein sozializazio sexistarengatik. Era berean, udalerriko ikastetxei aholku ematen die Zentroak, sexu-heziketaren eremuan: informazioa helarazten die irakasleei. Prebentzioa ere lantzen da, askotariko kanpainen bitartez eta baliabide eta programei buruzko aholkularitza zerbitzua eskaintzen duen blog baten bitartez. Esandako guztiaz gain, hausnarketa eta bestelako ekimenak bultzatzeko gunea ere bada Sexu Informaziorako Bulegoa. Azken urteotan garrantzia hartu du «Anitzera» proiektuak: arrakasta handia lortu dute, zenbait fasetan, desirari buruzko emakume eta gizonentzako tailerrek. Gaur egun, aniztasun funtzionala lantzen ari dira.

Equitruke, Basauriko Denbora Bankua da: esperientzia, jakintza eta zerbitzuak trukatzeko gunea, non denbora baita trukerako unitate bakarra. Basauriar guztiei zuzendutako zerbitzu hori izaten da Marienearako sarbideetako bat, feminismoan eta berdintasunean interesa duten gizon batzuentzat. Equitrukeren helburua da jendearen beharizan puntualei erantzutea, dirua bazter uzten duen sistema baten bitartez: denbora da balioa duen bakarra, eta pertsona guztien denborak balio bera du. Denboraren kontzeptuaren inguruan hausnartzeko aukera ere ematen du Equitrukek: denbora zertan ematen dugun, zer-nolako garrantzia duen gure gizartearen antolakuntzan... Hausnarketa horri esker ageri-agerian geratzen da emakumeen eta gizonen arteko denboraren banaketa ez dela parekidea. Era berean, ardurakidetasuna bultzatzen da eremu pribatuan, eta kontziliazio-politikak eremu publikoan. Esandako guztiaz gain, herritarren arteko sareak eta elkartasuna sendotzen dira.

Azkenik, **Elkargune** dago: ibilbide luzeko emakumeen elkarteei eta feministei eskaintzen zaie, eta proiektuak lantzen ari diren Basauriko talde sortu berriei ere bai. Batzuei eta besteei biltzeko berezko eremu edo topagunea eskaini nahi zaie. Haien arteko askorentzat, gainera, egoitza ere bada Elkargune, gizartearen feminismoa eta berdintasunaren aldeko lana aurrera eramateko tokia.

Berdintasun Atalaren beste ekimen batzuk

Hamasei urteko ibilbidean zehar, proiektu asko garatu dira indarkeria matxistari aurre egiteko eta emakumeen parte-hartzea sustatzeko.

2002an, Emakumeentzako **Hiri Debekatuaren Mapa** egin zen, indarkeria matxistaren prebentziorako ekitzen barruan. Proiektua ez zen sortu Basauri beste udalerriri batzuk baino arriskutsuagoa zelako edo herria txartoago eraikita zegoelako, baizik eta pentsatu zutelako herritarrei kontzientzia harrarazteko modu erakargarria izango zela (indarkeria matxistari buruz eta emakumeentzako gune seguruak izateko garrantziari buruz); emakumeek, gaeuz, kaletik ibiltzeko duten beldurrari oihartzuna emateko balioko zuela (zeina isilarazitako arazoa baita); eta, azken horri lotuta, ikusgarritasun txikia duten, edota abandonatuta dauden eremuetan hirigintzaren alorreko hobekuntzak aldarrikatzeko tresna ezin hobea izango zela. Ildo horretatik, emakume gazteak Berdintasun Atalak antolatutako

jardueretara erakartzeko gogoia eta beharrezana sortu zen. Horixe izan zen, hain zuzen ere, Berdintasun Kontseilua osatzen duten elkarteek hasiera-hasieratik agerrarazitako arduretako bat.

Gizonekin lan egitea da gaur egungo beste proiektu garrantzitsu bat, eta berdintasunaren aldeko borrokaren erronka handietako bat. 2003an, «**Gizonak, emakumeenganako indarkeria-
ren aurrean**» izeneko proiektua sustatu zuen Berdintasun Atalak, gizonek esku-hartze aktiboa izan zezaten indarkeria matxistaren aurkako borrokan. Sentsibilizazio-jarduera ugari egin ziren; maskulinitateari eta indarkeria matxistari buruz hausnartzeko tailerrak antolatu ziren; eta «Gizonak, emakumeenganako indarkeriaren aurrean» jardunaldiak burutu ziren.

Emaitza esanguratsuenetako bat izan zen **Sindikatuarteko Foroa**, non parte hartu baitzuten udalerriko sindikatu guztiek. 2004ko abenduan sortu zen ekimena, sindikalista batek bere emaztea erail zuenean. Gertakari latz hartaz geroztik, gizonengana eta sindikatuengana jo zuen Berdintasun Kontseiluak —gizonen esparru izan dira biak ala biak, betidanik—, errealitate horren aurka ager zitezten. Handik aurrera, indarkeria matxistaren alorrean lan egiteko konpromiso sendoa hartu zuten sindikatuek, eta Berdintasunaren aldeko Sindikatuarteko Foroa sortu zen. Sindikatuen arteko elkartasuna mantendu nahi izan zuten, gutxieneko irizpide batzuekin. Horren harira, 2005ean, «Berdintasunaren aldeko Basauriko Sindikatuarteko Foroaren Adierazpena» egin zuten CCOOk, CNTk, ELAk, ESK-k, LABek, LSV-USOk, STEE-EILASEk eta UGTk. Lehen ekintza gisa, sindikatuek indarkeria matxistaren aurrean jarduteko prozedura ezartzen du Adierazpenak: Basaurin emakume bat erailtzen dutenean, hamar minutuko lan-utzialdia egiteko konpromisoa hartzen dute, bai eta horri lotuta aurrera eramango diren bestelako ekimenei babesa ematekoa ere. Horrez gainera, udalerriko lau enpresa hautatu, eta ekintza positiboak zein berdintasun planak bultzatzeko jarduera plana ere diseinatu zuen Foroak. Azkenik, sindikatuko kideei prestakuntza eskaini zitzaie, berdintasunaren alorrean jardun zitezten, eta enpresetan diagnostikoak egiteko beharra ezarri zuten.

Marko juridikoa

2.1 Marko kontzeptuala

Diagnostiko honetan zehar erabilitako kontzeptuak argitu eta definitzen dira atal honetan. Kontzeptuok ondo ulertuz gero, ez da beharrezkoa izango behin eta berriro horiek azaltzea.

Oinarri kontzeptualak finkatu dira, bestalde, honako hauek aintzat hartzeko:

- Eskarmentuak (batez ere, mugimendu feministarenak) argi eta garbi erakutsi duela errealitatea izendatzeko moduak, errealitate hori ulertzeko eta bertan jarduteko era ere barne biltzen duela.
- Gaur egun eztabaida sakona dagoela errealitatea nola izendatu finkatzerako orduan, bai mugimendu feministaren barruan, baita erakundeetan ere.
- Gizartearen eraldatze eta aldaketek indarkeria mota berriak eragin dituztela, eta, hortik, indarkeria horiek izendatzeko modu berriak ere sortu direla.
- Kontuan izan beharra dagoela kontzeptu batzuk legez finkatuta eta legeetan aurreikusita daudela eta, beraz, horiek aintzat hartu beharra dagoela, erakundeetako maila guztietan koordinazioa mantentzeko.
- EAEn badagoela proposamen terminologiko bat: Erakundearteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak egin zuen 2005ean. Horrez gain, emakumeenganako indarkeriaren alorreko jokabidea ulertzeko modua sistematizatzen duen legeria ere badaukagu. Delitutzat har daitezkeen indarkeria matxistaren adierazpideak izendatzeko moduak aldatuz joan direla administrazioak, aipatutako Hitzarmena aldatu gabe. Ondorioz, gaur egun, kontzeptu berak zenbait izendapen ditu.
- Proposamen terminologikoen eta kontzeptualizazioen aniztasunak islatzen duela arazoa zein konplexua den.

Gauzak horrela, oso garrantzitsua da terminoak definitzea, eta zehaztea zein den, gure ustez, izendapen egokiena.

- Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak dio **genero-indarkeria** dela emakumeen aurkako «indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere», hain zuzen ere, emakumeen aurka erabiltzen dutena emakume horien ezkontide direnek edo izan direnek, edota haiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek —nahiz eta elkarbizitzarik izan ez—.

Beraz, genero-indarkeria aipatzen dugunean, Lege horrek emandako definizioan jasotakoari buruz ari gara.

- **Etxeko indarkeria** edo **familia barruko indarkeria**, erakundeen jardueran, dira «senideek eta familiako kide ahulenek (haurrek, emakumeek eta adinekoek) pairatu ohi dituzten tratu txarrak, eraso fisiko edo psikologikoak, sexu-erasoak edo horien parekoak» (Osasun eta Kontsumo Ministerioa, 2003:11).

- NBEren Batzar Nagusiak honelaxe definitu zuen **emakumeen aurkako indarkeria**: «emakume izatean oinarritutako edozein indarkeria-egintza (dela emakumeari gaitz edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa eragiten diona; dela horren mehatxua; dela koakzioa edo askatasungabetze arbitrarioa), bizitza publikoan zein pribatuan ematen dena». Terminoa zabaldua bada ere, sektore batzuen iritziz «emakume» kategoriak ikusezin egiten du biktimen heterogeneotasuna, eta ez dio arretarik jartzen indarkeria egikaritzen duenari.
- **Indarkeria matxista** terminoa nahiko berria da, eta, beraz, ez dago definituta, ez formalki, ez legez. Ordea, gero eta sarriago erabiltzen da, «argi eta garbi islatzen duelako matxismoak berezkoa duen botere-harreman ez-parekidea; horrekin batera, aukera ematen du aintzat hartzeko indarkeria matxista, gehienbat, emakumeek pairatzen badute ere, sistema heteropatriarkalak gizonei eta emakumeei ezarritako eredu hegemonikoak hautsi edo zalantzan jartzen dituzten beste pertsona batzuei ere eragin ahal diela. Izan ere, eredu honek ezarritako aginduak betetzen ez dituen oro zigortzen du indarkeria horrek. Zentzu horretan, lesbianak, gayak, transexualak edo bisexualak ere indarkeria matxistaren “jomuga” izan daitezke, indarreko heteroeredutik at daudelako» (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2013.17).
- **Indarkeria sexista** terminoak, sexu arteko hierarkia-harremanak jasotzen ditu; zenbait indarkeria-adierazpen barne biltzen ditu; baina kanpoan uzten du LGBTBI kolektiboko kideek pairatzen duten indarkeria homofobia.

Definizio horiek guztiak aztertu eta gero, Plan honetan **«indarkeria matxista»** terminoa erabiltzea erabaki dugu. Hori bai: batzuetan, bigarren mailako kontzeptu edo iturriei buruz ari garenean, kontsultatutako iturri horretan ageri den definizioa eman dugu. Era berean, Plana irakurterazagoa izan dadin, eta terminoak behin eta berriro errepika ez daitezzen, «emakumeen aurkako indarkeria» eta «indarkeria sexista» txandakatu ditugu.

Ordea, aintzat hartuta esandako guztia, hobetsi dugu «indarkeria matxista» izatea termino nagusi eta erreferentea, honako arrazoi hauek tarteko:

- Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Legeak, ezkontza barruko indarkeria, edota biktima den emakumeari lotutakoek hari eragindakoa baino ez du aurreikusten.
- Etxeko indarkeria edo familia barruko indarkeria, berriz, indarkeria egikaritzen den eremuan oinarritzen da, baina ez du zehazten emakumeak direla horren biktima nagusiak; emakumeak bereziki zaurgarriak direla adierazten badu ere, familiako kide guztiak aipatzen ditu, aintzat hartu gabe gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanen osagai estrukturala.
- «Emakumeen aurkako indarkeria» terminoak arreta jartzen dio indarkeria pairatzen duen subjektuari, eta, itxura batean, adituen arteko adostasuna handia da, kontzeptu honen inguruan. Emakumeek pairatzen duten indarkeria espezifikoa, hau da, generoan oinarritutakoa, izendatzeko sortu zen, baina, aldiz, kanpoan uzten ditu menderakuntza patriarkalean oinarritutako indarkeria paira dezaketen beste subjektu batzuk.
- «Indarkeria sexista» kontzeptuak ere, eskema tradizionalen emakumeen aurka egikaritutako indarkeriari buruzkoa denez, bazter uzten ditu indarkeria jasan dezaketen beste subjektu batzuk.

Beraz, adierazi bezalaxe, **«indarkeria matxista»** izango da oinarritzko terminoa, Plan honen filosofiatik hurbilen dagoena delako. Kontzeptu horrek barne biltzen ditu indarkeria mota guztiak, hau da, «maskulinoak» «femeninoaren» gainean duen ustezko nagusitasunetik abiatzen direnak, eta emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman desorekatuak islatzen dutenak. Horrez gain, indarkeria paira dezaketen beste subjektu batzuk ere hartzen ditu aintzat.

Puntu honetan, erabat beharrezkoa eta garrantzitsua da aipatzea indarkeria pairatzen duten emakumeen seme-alabak, haiek ere indarkeria horren biktima zuzenak dira-eta. Urteak daramatzate adituek

eta gizarte-mugimenduek babesa eskatzen adin txikiko horientzat, aldarrikatzen ez direla indarkeria horren lekuko soilak, biktima zuzenak baizik. 8/2015 Legeak aldaketak jasotzen ditu haurtzaro eta nerabezaro arloan: adin txikikoak biktima zuzen gisa tratatzen ditu. Aldaketa hori aintzat hartuko da Planaren ekintzak diseinatzerakoan.

Beste alde batetik, asko dira indarkeria matxistaren adierazpideak. Planean, honako hauek hartu ditugu kontuan:

Indarkeria zuzena errazen antzematen dena da. Pertsona batek beste bati nahita eragindakoa da; ikusten diren eta ikusten ez diren ondorioak ditu; eta, muturrera joanez gero, eraso den pertsonaren heriotza ekar lezake.

Zehazkiago, hauexek dira indarkeria zuzen motak:

- **Indarkeria fisikoa:** nahita egindako edozein ekintza, jasotzailearen osotasun fisikokoari kaltea edo arriskua ekar diezaiokena. Eraso arma edo substantzia bidez egin daiteke, edota erasotzaileak berak egin dezake, bere gorputzarekin.
- **Indarkeria psikologikoa:** nahita egindako edozein ekintza, jasotzailearen osotasun psikikoari kaltea edo arriskua ekar diezaiokena. Eraso jasaten duen pertsona gutxiesten bilatzen du, eta zenbait adierazpide ditu: irainak; umiliazioak; mehatxuak; mespretxua; askatasun eta intimitate gabetzea; eta abar. Horiek guztiak modu irekian edo sotilki egikaritu ahal dira. Indarkeria psikologikoa ez du aztarna fisikorik uzten, baina biktimaren bizitzaren zenbait alor hondatzen ditu. Hori dela-eta, zailagoa da berau antzeman, eta bere ondorioak ebaluatzea. «Mikromatxismoak» ere identifikatu dira: ohiko bizimoduan gertatutako menderatze eta indarkeria maskulinoaren adierazpenak. Menderatze-jokaera «soilak» edo «intentsitate baxukoak» dira: egunerokoan errotutako eta ukatutako gehiegikeria eta inposaketa modu eta moldeak, emakumeen bizimoduan eragin suntsitzailea dutenak [...]; gizonen etengabe darabiltzaten menderakuntza-amarruak, portaera sotil edo maltzurak, errepikatuak eta ia ikusezinak (Luis Bonino, Los Micromachismos aldizkaria, 2004:1).
- **Indarkeria ekonomikoa:** biktimaren ekintzak eta erabakiak baliabide ekonomiko eta materialen kontrolaren bidez menderatzeko xedea duen egintza edo ez-egite oro. Helburua da emakumeei ukatzea baliabideei buruzko informazioa, edota ez uztea dirua zein bestelako ondasun ekonomikoak kudeatzen. Indarkeria ekonomikoa, indarkeria psikologikoa lagunduta egoten da beti.
- **Sexu-indarkeria:** biktima sexu-harreman behartuak izatera behartzeko ekintza oro. Indarkeria psikologikoa lagunduta egon daiteke, eta larderia, koakzioa, xantaia, mehatxua edota biktimaren borondatea baliogabetzen duen beste edozein mekanismo egoten da tartean. Nagusiki, hiru dira sexu-indarkeria motak:
 - **Sexu-erasoa** (Zigor Kodearen 178-180 art.): baimendu gabeko sexu-harremana, indarkeria edo larderia erabilita izandakoa. Bortxaketa (edozein motatakoa) da indarkeria mota honen kasu paradigmaticoena.
 - **Sexu-abusua** (Zigor Kodearen 181-183 art.): Indarkeria edo larderia erabili gabe, sexu-edukia duten portaerak izatea. Zigor Kodeak bereizi egiten ditu adostasunik gabeko sexu-abusuak, eta engainu edo nagusitasun-egoera erabiliz eragindakoak³

³ Norbaitek «bere onurarako» «zerbait baliatzen» duenean ematen da. Zigor Kodeak sexu-abusutzat zigortzen ditu 13-18 urte bitarteko pertsonekin izandako harremanak, baldin eta adin txikikoaren adostasunik ez badago eta nagusitasun-egoera baliatzen badu adin nagusikoak, harreman horiek izateko. Gaia epaituko duen auzitegiaren zeregin nagusia izango da argitzea eta zehaztea ea adostasuna eta nagusitasun-egoeraz baliatzea gertatu ote diren..

- **Sexu-jazarpena** (Zigor Kodearen 184. art.): Sexu-mesedeak eskatzea, norberarentzat zein hirugarren batentzat, indarreko lan-harreman baten barruan, zerbitzu-eskaintzako harreman batean edo irakaskuntzan; eta biktimia jartzea larderia, etsaigo edo umiliazio egoera objektibo eta larrian. Horrek zenbait aldaketa eragin ahal ditu biktimek lan-arloan duten portaeran, hala nola: ekar dezake biktimak saihestea akosatzailearekin bakarrik geratzea; esaten denaren zelatan egotea; modu jakin batean janztea; ekitaldi edo bilera batzuetara ez joatea; eta abar. Ekar dezake biktimia kanporatua izatea, gora ez egitea, edota bi horietako baten mehatxua jasatea. Azkenik, eremu psikologikoan, desoreka psikosomatikoak eragin ahal dizkio biktimari.

Indarkeria zuzen horren atzean zenbait egitura daude, zuzenean indarkeria eragin ez, baina hari sostengua eman, eta hura ahalbidetzen dutenak. **Zeharkako indarkeria** bezala ezagutzen dira, eta, beren barruan, indarkeria mota bi dira aipatzekoak:

- **Indarkeria estrukturala**: ez dago indarkeria eragiten duen pertsona bat eta hura jasaten duen pertsona bat; egitura batean txertatuta dago indarkeria, eta botere desorekatu gisa agertzen da. Gizarte-egituraren ondoriozko bidegabekeriak eta berdintasun ezak islatutako indarkeria da. Istanbulko Hitzarmenaren oinarri diren giza-eskubideen ikuspuntutik, biktimia diren emakumeei behar bezalako arreta ez ematea, haien eskubideak bortxatzea da. Beharrezkoa den babesa ez ematea, emakumeei haien eskubideei eta eskura dituzten baliabideei buruzko informaziorik ez helarazteak, emakumeen testigantzak epaitu eta zalantzan jartzeak, edota arreta ematen dutenek gaiari buruzko behar bezalako prestakuntza ez izateak, zaildu egiten du indarkeria matxistari aurre egitea.
- **Indarkeria kultural edo sinbolikoa**: indarkeria zuzena eta indarkeria estrukturala existitzea bidezkatzen, legitimatzen eta posible egiten duen adierazpen oro. Adierazpen horiek zilegi, beharrezko eta ezinbestekotzat hartzen ditu sistema patriarkalak. Indarkeria hau eremu guztietatik eraikitzen da: menderakuntza, berdintasun eza eta diskriminazioa transmititu eta islatzen dituzten mezuak, ikonoak edo zeinuak kaleratzen dira, eta, horiek, emakumeek gizartean pairatzen duten menderakuntza eta indarkeria naturalizatu edo zuritzen dute.

Indarkeriaren azken mota horretatik helduko gara **«bortxaketaren kultura»** delakora. Sexu-indarkeria gizartearen arlo guztietatik naturalizatu eta bidezkotzeko joera islatzen du termino horrek. Sinesmen, jarrera eta portaera multzo bat da, eredu sozial bat, non sexu-indarkeria maskulinoa zerbait erakargarria dela jotzen baita. Gainera, bortxaketaren kultura betikotu egiten da hizkuntza misoginoaren bitartez, emakumeen gorputza objektu bihurtuta edota sexu-indarkeria ederra den zerbait gisa aurkeztuta. Gizarteak, hala, muzin egiten die emakumeen eskubideei eta segurtasunari, emakumeen zeregin nagusia delako besteen gurariak asetzea. Egunero-egunero bizi dugu aipatutako hori, eta, molde horiek onartzearen ondorioz, arinki hartzen dugu bortxaketaren gaia. Horrela, bortxaketa gertatzen denean, alderantzikatu egiten da erantzukizuna: biktimia da erruduna.

Bortxaketaren kultura sendotu egin dela adierazten dute gizarteak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun ezari buruz, edota indarkeria matxistari buruz duten hautematea islatzen duten datuek⁴. Azterlan guztiek islatzen dute indarkeria matxistak eta bortxaketaren kulturak onarpen-maila altua dutela.

Egia da «bortxaketaren kulturaz» hitz egiten dela sarri, baina Plan honek marko zabalago bat hartu du abiapuntutzat: **«indarkeriaren kultura»** izan beharko genuke hizpide, gizartearen oinarri den egitura patriarkalak bestelako indarkeria motak ere bidezkatzen dituelako (ez bakarrik sexu-indarkeria). Bizitzaren eremu guztietan ematen den indarkeria matxista arindu, naturalizatu eta bidezkatzen duen ideologia, pentsamoldea da «indarkeriaren kultura».

⁴ Osasun, Gizarte-politika eta Berdintasun Ministerioa (2011, «Actitudes de la población ante la violencia de género en España», IOE kolektiboak egina).

Justa Montero ekintzaile feministak adierazi bezalaxe, indarkeriaren naturalizazioa da erasotzaile eta hiltzaileen inpunitatearen eta haienganako konplizitatearen oinarria. Horren ondorio zuzena da emakumeek behin eta berriro eskatu, baina aurkitzen ez duten laguntza, elkartasuna eta segurtasuna.

Komunikabideek, publizitateak, sare sozialek eta mundu digitalean harremanak izateko molde berriek leundu egiten diote bidea bortxaketaren kulturari —batez ere, gazteen artean—. IKTak gure egunerokoaren parte dira jada; gazteak Internetekin hazi dira; eta sare sozialak, komunikatzeko eta identitateak eraikitzeko beste bide batzuk ekarri dizkiote gizarteari. Indarkeria matxista arazo estrukturala da, eta, horren eraginez, sare sozialetara eta mundu birtualera igaro dira maitasun erromantikoaren eredutik eratorritako jokamoldeak (kontrolatzeko grina, adibidez). Emakumeen aurkako ziber-indarkeriari buruz ari gara.

Eztabaida pizten duen beste gai bat da ea aproposa den «**biktima**» terminoa erabiltzea ala ez, eta, bestela, zelan izendatu indarkeria matxista pairatzen duten emakumeak. Hori dela eta, Plan eta diagnostiko honetan erabilitako definizioa argitu beharrean gaude, eta azaldu zergatik egin dugun horren alde. Alde batetik, itxura batean, «biktima» kontzeptuak baztertu egiten du indarkeria pairatzen duten emakumeek erresistentziarako eta asaldurarako duten gaitasuna: emakume pasibo eta zaurgarriaren irudi estereotipatua eskaintzen du terminoak. Aitzitik, patriarkatuak emakumeei eman ohi dien erantzukizunetik salbuesten ditu kategoria horrek. Gainera, oraindik ere ezinbestekoa da horretara jotzea, «biktima»ren estatusetik ondorioztatutako eskubideak egikaritu ahal izateko (jasandako kalteagatiko indemnitazioa, esaterako), zerbitzuak edo babes-neurriak baliatu ahal izateko, eta abar.

Plan honen beste ardatzetako bat da salaketa publikoa, memoria eta erreparazioa kudeatzeko modua. Zentzu horretan, emakume askori —emakume izate hutsagatik— eragiten dien errealitate baten definizio kolektiboa izendatzeko «biktima» kategoria berreskuratzeak, emakumeek subjektu aktibo gisa duten indarra eta balioa sendotu, eta lagungarri suertatu ahal zaie beren suspertze eta erreparazio prozesuetan.

Horregatik guztiagatik, Plan honetan eta diagnostikoan, batzuetan, «biktima» kontzeptua erabili dugu, baina definizio horretan sartuta emakumeek beren egoerari aurre egiteko, eta beren bizitzaren jabe berriro izateko garatutako estrategiak; eta, betiere, azpimarratuta emakumeak ez direla «errudunak», baizik eta beren eskubideak bortxatuak izan direla, eta aitortza behar dutela. Finean, **indarkeria matxista pairatzen duten emakume biktimei** buruz hitz egin genezake.

2.2 Lege-markoa

2.2.1 Nazioarteko araudia

1979. urtean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak CEDAW (**emakumeen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko Hitzarmena**) egin zuen, oinarrizko giza eskubideetan, pertsonen duintasun eta balioan, eta emakumeen eta gizonen arteko eskubide berdintasunean sinesmen sendoa berresteko. Ildo horri jarraiki, 34/180 Ebazpena eman zuen erakundeak, eta, horren bitartez, estatu kideei eskatu zien emakumeek jasaten duten edozein diskriminazio deuseztatzeko neurriak har zitzatela. Espainiako Estatuak 1983ko abenduaren 16an berretsi zuen aipatutako Hitzarmena. Harrezkero, ildo beretik doazen ebazpen eta gomendio ugari egin ditu aipatu erakundeak. Berrienen artean, azpimarratu beharra dago Nazio Batuetako Giza Eskubideetarako Batzordearen ebazpena, 2003ko apirilaren 23koa, emakumeen aurkako indarkeria deuseztatzeari buruzkoa⁵.

⁵ Nazio Batuetako giza eskubideen nazioarteko itunik eraginkorrenetarikoa da, emakumeen eta gizonen artean aukera eta tratu berdintasuna lortzeko. Hala, emakumeen giza eskubideen nazioarteko gutuntzat jotzen da. Emakumeen Lege eta Gizarte Batzordearen 30 urte baino gehiagoko lanaren emaitza da, eta, zenbait eremutan, emakumeen eskubideen araudi osoa jasotzen du: legeak, kultura, ugalketa, ekonomia... (Iturria: http://www.mssi.gov.es/ssi/igualdadOportunidades/internacional/onu/cedaw_2.htm)

Lege esparru horrek guztiak argi eta garbi uzten du indarkeria matxista gizartearen arazoa dela, eta nazioartek ere hala hartzen duela. Dena den, lege-babesa izateko eta, bide batez, horri eusteko, onartzea funtsezkoa izan arren, ez da nahikoa. Izan ere, normalean, nazioarteko arau horiek ez dira lotesleak, hau da, estatu kideek ez dituzte zertan bete. Ebazpenek eskatu egiten diete estatu kideei arauok betetzeko, baina ez dira nahitaez bete behar, hau da, «eskubide ahulak» izeneko barruan sartzen dira: borondatez betetzekoak dira, eta betetzea ezin da legez inposatu. Hala eta guztiz ere, ebazpen asko egoteak, nazioartean ohitura sortzen laguntzen du. Zuzenbide iturri da, baita ere, nazioarteko aitortpenak, itunak eta hitzarmenak interpretatzeko praktika, eta arauok ezinbestean bete beharreko izatea ekartzen du.

2.2.2 Europar araudia

Europar Parlamentuak zenbait araudi onartu ditu azkeneko hamarraldian, emakumeen aurkako indarkeria prebenitu eta desagerrarazteko. Berrienen artean, honako hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Europar Parlamentuaren Ebazpena, 2006ko otsailaren 2koa, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako borrokaren gaur egungo egoerari, eta etorkizunerako ekintzei buruzkoa (2004/2220 (INI)).
- Haur, nerabe eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako borrokan estatu kideen ekintzak laguntzeko programa: Daphné III (2007- 2013).
- Europar Parlamentuaren Ebazpena, 2011ko martxoaren 8koa, Europar Batasuneko gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzkoa – 2010 (2010/2138 (INI)).
- Europar Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen kontrako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurka borrokatu, eta indarkeria horiek prebenitzeari buruzkoa. «Istanbulko Hitzarmena» bezala ezagutzen da, eta 2014ko ekainaren 6ko EAOan argitaratuta dago.

Arlo horretan, Europar Batasunak hasitako lana azpimarragarria izan arren, zera hartu behar dugu kontuan: lege-egintza lotesleen (araudiak, zuzentarauak eta erabakiak) eta ez-lotesleen (ebazpena, gomendioak eta irizpenak) artean, ez-lotesleak direla nagusi, hau da, estatu kideek borondatez berrets ditzaketela araudiok. NBERen ebazpenekin gertatzen den bezalaxe, nazioan lege berriak bidezko eta sortzeko erreferentzia eta laguntza modura erabil ditzakegu. Horrez gain, jardueretarako laguntza ekonomikoak aurreikusten dituzten programekin, indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko programa edo kanpainekin (besteak beste, DAPHNE), legeria bultzatzea sustatzen da, baita egiten lagundu ere.

Nahiz eta ebazpen ez-lotesleak nagusi izan, **Istanbulko Hitzarmenak** urrats handia eman du, Europan «emakumeen kontrako indarkeriaren modu oro babestu, prebenitu, jazarri eta deuseztatzeko» lehenengo tresna bihurtu baita. Estatuak behartzen ditu administrazio maila guztietan, eta Hitzarmenaren eskumen-eremu guztietan.

Emakumeen kontrako indarkeria berariaz lantzen duen lehenengo itun europarra da. Hala, indarkeria sexuala, fisikoa, psikologikoa eta ekonomikoa kontuan hartzen ditu, baita genitalen mutilazioa eta jazarpena ere. Gainera, indarkeria matxista giza eskubideen urraduratzat jotzen du, eta hura prebenitzeko, zigortzeko, harengandik babesteko eta zerbitzuetarako gutxieneko estandarrak zehazten ditu. Behar bezala erantzun ezean, Hitzarmena berretsi duten estatu kideena izango da erantzukizuna. Espainian 2014ko abuztuan sartu zen indarrean (onartu eta hiru urte pasatxo geroago), eta oraindik asko dago egiteke, estatu gehienek ez baitute berretsi.

Hitzarmenak oinarritzko zenbait puntu ditu, berau berretsi duten herrialdeetan indarkeria matxistaren aurrean erantzun hobea ematea bilatzen dutenak. Aurrekoaren harira, ardatz hauexek jorratzen ditu:

- Indarkeria errotik desagerrarazteko berdintasuna sustatu behar da (4-6. artikulua). Hitzarmenak abiapuntutzat du legezko eta egiazko berdintasuna dela «emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko oinarritzko elementua». Horri esker, estatu kideek onartzen dute berdintasunean inbertitu behar dutela.

- Indarkeria matxistaren beste molde batzuk ere hartzen ditu aintzat (36. artikulutik 42. artikulura). Hitzarmenak emakumeen kontrako indarkeria mota gehiago aurreikusten ditu. Orain, honako hauek ere txertatu dira: sexu-indarkeria; nahitaezko ezkontzak; emakumeen genitalen mutilazioak; nahitaezko abortu eta esterilizazioa (lagundu eta saiatzea); eta kultura-, erlijio- edo ohore-ohituren esparruan erabilitako indarkeria. Gainera, indarkeria matxista zehazterako orduan, alde batera utzi da biktimaren eta erasotzailearen arteko harremana.
- Diskriminazio anitzaren kontra borrokatzen du (4. artikulua).
- Hezkuntzaren bidez prebenitzeko sistema da. Hitzarmenak asko azpimarratzen du hezkuntza-sistema sendotu behar dela: batetik, berdintasuna sustatzeko; eta bestetik, indarkeria prebenitzeko. Ildo horri jarraiki, 14. artikuluan ikasketa programa ofizial guztietan eta irakaskuntzaren maila guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sartzearen konpromisoa xedatzen du, genero estereotipoen, nahiz genero-indarkeriaren kontra borrokatu, elkar errespetatu, eta segurtasun pertsonala lortzearekin batera.
- Salaketa alde batera utzita, indarkeria matxistaren egoerei erantzun ere egin behar zaie (18.4. artikulua).
- Adin txikikoak zuzeneko biktimatza jo behar dira. Zehazki, 31. artikulua «indarkeriaren egoerak kontuan hartuta, seme-alaben (tratu txarren emailearena) zaintza eta bisita eskubideak arautzean lege neurriak eta bestelakoak» hartzera bideratzen du. Nolanahi ere, «bisita edo zaintza eskubideak ez ditu biktimaren eta bere seme-alaben eskubideak eta segurtasuna arriskuan jarriko».
- Biktimak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea du (30. artikulua).

Horra hor Hitzarmenaren arau batzuk. Dena dela, esparrua zabalagoa izan arren, Plan honetan indarra izango duen hainbat da.

2.2.3 Estatuko araudia

Estatuko araudiari erreparatuz, Espainiako Konstituzioan⁶—zehazkiago, 9.2. eta 14. artikuluetan—, aurkituko dugu emakumeenganako edozein diskriminazio mota debekatzeko adierazpenik sendoena. Era berean, indarkeria matxista errotik desagerrarazteko lege arauak egiteko lege esparrua da. Ildo horri jarraiki, azken hamarkadetan berrikuntzak izan dira Zigor Kodean, Prozedura Kriminalaren legean eta abarrean, eta legeria berria duela gutxikoa da.

Beste arlo batzuetan gertatutakoaren aldean, hemen araudia erabat loteslea da: lege-oinarria sendoa da. Indarrean dauden lege guztien artean, honako hauen garrantzia azpimarratu nahi dugu: **1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurkako babes neurri integralei buruzkoa, eta 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerakoa.**

Lehenengoak, Zioen Adierazpenean dioen bezala, erantzuna eman nahi die arlo horretako nazioarteko erakundeen gomendioei, eta prebentzio, hezkuntza, gizarte, laguntza eta osteko arretaren alderdiak lantzen ditu. Halaber, araudi zibila kontuan hartzen du, eta familiaren edo bizikidetasunaren eremuan eragiten du —batez ere, ingurune horretan gertatzen baitira erasoak—. Azkenik, herri administrazioen ordezkari printzipioa garatzen du, horrelako jarduera oldarkorrek izan behar duten zigor-erantzuna baztertu gabe. Aldi berean, genero-indarkeria definitzen du. Indarkeria fisiko eta psikologikoko ekintza oro dira, sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, bortxak edo askatasun-gabetzea barne. Horrez gain, zenbait organo sortzen ditu: Emakumeenganako Indarke-

⁶ Espainiako Konstituzioa. 311. EAO, 1978ko abenduaren 29koa. Honako honetan argitaratua: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-1978-31229.

riaren aurkako Gobernu Ordezkaritza Berezia; emakumeenganako indarkeriaren arloko auzitegiak; eta Emakumeenganako Indarkeriari buruzko Estatuko Behatokia. Nahiz eta legea mugarri izan, ezin daiteke espero lege aldaketarekin gizarte aldaketa automatikoki eta trantsiziorik gabe iristea. Gizartearen pentsamoldea ez da egun batetik bestera aldatzen, zuzenbidea aldatu izanagatik ere.

Aurrekoari eutsiz, indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak ez dira indarkeriaren zuzeneko biktima modura onartu joan den uztailaren 16ra arte. Orduantxe onartu zen 8/2015 Lege Organikoa⁷, 2015eko uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena, eta, azken xedapenetako hirugarrenean jaso zen 1/2004 Lege Organikoa aldatzen zela. Horren bidez, adin txikikoak egoera horretan zuzeneko kaltetutzat jotzearen beharrari erantzuten zaio: amen eskubide berak dituzte dituzte adin txikikoek, eta arreta bermatzen zaie. Nahiz eta aldaketak egin, agerikoak⁸ egoera horri buruz egindako analisia kontuan hartzen badugu, Legea abian jarri eta hamar urte geroago, oraindik alderdi asko dago hobetzeke. Kezkagarria da, esaterako, salaketa kopurua gutxitu izana; lege-prozeduraren erdian uko egiten duten emakumeen kopurua hazi izana; eta salaketak artxibatzeko, zein babes-aginduak ukatzeko lege-ebazpenak ere hazi izana. Hori guztia gertatu da, gainera, orain arte ebaluazio publiko eta gardenik egin gabe, kaltetuen nahiz emakumeen erakundeek parte hartu gabe.

Bigarrenak (3/2007 Legeak)⁹ zenbait neurri proposatzen ditu, maila guztietan, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna sustatzeko: indarkeriaren aurka borrokatzeko zuzeneko eta zeharkako bitartekoak jasotzen ditu.

Gogora dezagun Espainiako Estatuak joan den urtean berretsi zuela Istanbulerako Hitzarmena, eta hura garatzera bideratutako politikak abian jartzen ari dela. Hala eta guztiz ere, oraindik neurri gutxi hartu da, batez ere, Espainia bezalako estatuan. Batetik, soiltasun politiketan murgilduak gaudela; eta, bestetik, gizarte babeserako sistema suntsitzen ari da eta, beraz, indarkeria matxistaren kontrako borroka arriskuan dago (azkeneko 3 urteetan % 23 gutxitu da berdintasuna sustatzera eta genero-indarkeria prebenitzera bideratutako aurrekontua).

2.2.4 Autonomia Erkidegoko, probintziako eta tokiko araudia

Euskal Autonomia Erkidegoan, **Emakunde Emakumearen Euskal Erakundea** da gure erreferentziarik garrantzitsuenak. Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa da, eta honako zeregin hauek ditu: Euskal Autonomia Erkidegoan **berdintasun politikak diseinatu, bultzatu, aholkatu, koordinatu eta ebaluatzea, baita gizarte sentsibilizatzea ere, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasun eraginkorra lortzeko.**

Erakundearen bi jardueraren eremu nagusiak dira, batetik, herri administrazioekin lankidetzan jardutea, berdintasunaren aldeko egiturak finkatzeko eta generoaren ikuspegia politika publikoetan sartu izateko neurriak abiarazteko; eta, bestetik, gizartearekin, oro har, lanean aritzea, emakumeen jabetasuna, enpresetan berdintasuna eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako prebentzioa bultzatzeko. Ildo horri eutsiz, diskriminazio kasuetan aholkuak eta defentsa eskaintzen ditu erakundeak, eta gizarte berdintasunaren alde sentsibilizatzen du.

⁷ 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena. 175. EAO, 2.537. or., 2015eko uztailaren 23koa. Hemen argitaratua: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-8222.

⁸ Naredo, Maria (2012), María Naredo, hiri-segurtasunaren, genero-indarkeriaren eta kriminalitatea babestean gaitan abokatua, ikertzailea eta aholkularia; Hiri Segurtasunerako tokiko koordinatzailea, berdintasun agentea eta segurtasun, genero eta giza eskubideei buruzko gaitan aditua. Gaur egun, Amnistía Internacional erakundearekin lankidetzan dihardu, emakumeenganako indarkeriaren aurkako kanpaina laguntzeko aditu bezala (<http://www.gea21.com/equipo/mna>).

⁹ 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunerako. 71. EAO, 2007ko martxoaren 23koa. Hemen argitaratua: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2007-6115>.

4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako denak, berdintasunerako planak egiteko lege agindua jasotzen du 15. artikuluan. Helburua da bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialaren eremu guztietan, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasun eraginkorra lortzen eragitea. Ildo horri jarraiki, Emakundek **VI. Plana** egin du eta, bertan, lan-ibilbidea zehaztu du. Halaber, aplikatzeko orduan, Euskal Autonomia Erkidegoko aginte eta herri administrazio guztiak nahasi ditu zeregin horretan: esku-hartze lerroak, eta berdintasunaren arloko jarduera-planak eta programak gauzatu beharko dituzte.

VII. kapituluan, berriz, indarkeriaren biktimak diren emakumeenganako arreta, babesa eta prebentzioa lantzen dira. Zehazkiago, 52. eta 53. artikuluek prebentzioa eta prestakuntza aurreikusten dute, hurrenez hurren. Sentsibilizatzerako orduan, Euskadiko administrazio publikoen zeregina azpimarratzen da. Gainera, prestakuntza programak jarri behar dira abian, pertsona adituen beharretara moldatu ostean.

Kapitulu bereko 2. atalak, etxean tratu txarrak edo sexu-erasoak jaso dituzten biktimei arreta eskaini eta babesteko prozedurak xedatzen ditu: poliziaren babesa, polizia-gorputzen prestakuntza eta baliabide egokiak (54. artikulua), lege-aholkularitza (55. artikulua), laguntza psikologikoa (56. artikulua), larrialdiko harrera-etxebizitzak eta zerbitzuak (57. artikulua), prestazio ekonomikoak —orokorrak eta bereziak— (58. artikulua), herri administrazioak finantzatutako etxebizitzak esleitzean lehentasuna (59. artikulua), eta prestakuntza baliabideetara iristeko nahiz lanean kontratatzeko lehentasuna (60. artikulua).

Horrez gain, gizarte zerbitzuen prestazio eta zerbitzuetarako eskubide unibertsala sustatu eta bermatzeko tresna den neurrian, **12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak**, berriaz aurreikusten du genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei bigarren mailako arreta zerbitzuak eskaintzea (22. artikulua).

12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzko legearen ostean, **185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari dagokion prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzkoak**, modu praktikoan zehaztu zuen gizarte zerbitzu eta prestazioetarako eskubidea. Hala, kokatu egiten du genero-indarkeriaren biktima diren emakumei ordainketa bakarraren bidezko prestazio ekonomikoa (1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak, genero indarkeriaren aurkako babes neurri integralei buruzkoak, aurreikusitakoa). Gainera, emakume biktimak informazio eta arreta zerbitzura iristea arautzen du Dekretu horrek, egoitza-zentrotan sartzeko baldintza (egonaldi labur-ertaina eta premiazkoa), arreta sozio-juridiko eta psikosozial zerbitzua, eta gizarte-larrialdiak koordinatzeko zerbitzuarekin batera.

Azkenik, **2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak**, EAEko tokiko herri-aginteak onartu, eta aginpidea eman nahi die berezko aginte politikoa izateko eta, bide batez, kalitatezko zerbitzua eskaintzeko. Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko printzipioa eta zerbitzu publikoetara iristeko berdintasuna xedatzen ditu Legeak (4. artikulua); genero-berdintasunaren politikak antolatu eta kudeatzen ditu; eta ekitatea sustatzen du (17. artikulua). Tokiko erakundeen Jarraibide Kodeari erreparatzen dio (35. artikulua), eta azpimarratzen du emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa bermatu behar duela (35.6. artikulua).

Legeria guztia (nazioartekoa, Europakoa, Estatukoa eta Autonomia Erkidegokoa) kontuan hartuta, zenbait ondorio atera daitezke:

- Indarkeria matxistari buruzko lege-esparrua oso zabala da, eta zenbait lege-mailatan ageri da. Borondate politikoa abiapuntutzat hartuta, araudia eta lege-esparrua aplikatzea nahikoa litzateke diziplina anitzetatik indarkeria matxistari aurre egiteko lana bermatzeko.
- Lege-mailarik altuenak, arloan jarduera berriak justifikatzeko oinarritzkoak izan arren, ez dira eraginkorrak, estatuek borondate argirik ez badute.
- Indarkeria matxistaren aurka ekiterakoan, prebenitzeko eta jarduteko, hobe tokiko administrazioa gune egoki bihurtzea, indarkeria matxista jasan duten emakumeekin esku hartzeko: herritarrengandik oso hurbil dagoen erakundea da, eta modu egokiagoan molda daiteke, herritarren beharrak kontuan hartuta.

- Horregatik guztirengatik, Plan hau egin eta ezartzerakoan, Udalak, bere esparruan, lege-marko hori errespetatuko du.

3 Printzipio gidariak

Indarkeria Matxistaren Aurkako Basauriko Tokiko Planak honako printzipio gidari hauek ditu:

- **Transbertsalitatea.** Indarkeria matxista gizartearen arazo estrukturala da, eta ez arazo isolatua: adin eta jatorri guztietako emakumeak dira biktimak, eta adin nahiz jatorri guztietako gizonak dira erasotzaileak. Hartara, zenbait eremutatik landu behar dute erakundeek arazoa, ez bakarrik biktimari eman beharreko arretaren ikuspuntutik. Hala, beharrezkoa eta estrategikoa da transbertsalitatea sartzea Plan honek aurreikusten dituen esku-hartze fase guztietan (sentiberatzea, prebentzioa eta kontzientzia harraraztea; arreta integrala, suspertzea eta ahalduntzea; eta jendaurreko salaketa, memoria eta erreparazioa). Emakundek 2012an argitaratutako adierazleen gidak azaltzen duen modura, 4/2005 Legeak erakundeak behartuta daude genero-ikuspegiarekin lan egitera. Gainera, transbertsalitateak maila guztietan eraginez aldeko aldaketak dakartza planak eta politikak antolatu, hobetu, garatu eta ebaluatzeko orduan eta baliabideak optimizatzen ditu.
- **Sentiberatzea eta prebentzioa.** Kontzeptu osagarriak izan arren, sentiberatzeak eta prebentzioak helburu desberdinak dituzte.

Sentiberatzeak indarkeria matxista ikusarazi nahi du; horren arrazoiak aditzera ematen eta ulertzen saiatzen da, eta errotik desagerrarazteko norbanako ororengan eragin nahi du, eraginkortasunez, jendeak konpromisoa har dezan.

Prebentzioak arrazoiaren gainean jardutea bilatzen du, ondorioei erreparatzeak duen garrantzia ahaztu gabe. Indarkeria gertatzea saihestu nahi du. Horregatik, prebenitzeko, kontuan hartu behar dira, halabeharrez, hezkuntzaren eta prestakuntzaren jarduerak, eta etorkizuneko indarkeria saihesten saiatu behar da (Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa, 2007:27,28).

Prebentzioa kontzeptu zabala da, eta hiru ikuspuntu barne biltzen ditu:

Lehen mailako prebentzioa edo orokorra: egiturazko aldaketak (politikoak, sozialak eta kulturak) lortu behar dira, emakumeen kontrako indarkeriarik ez duen bizimodua bermatzeko. Lehen mailako prebentzioaren oinarri bat da haurtzaroen eta nerabezaroen prestakuntza jorratzea, baina, era berean, oro har, gizartearekin lan egin behar da, eta aldaketaren kontrako diskurtsoei aurre egin.

Bigarren mailako prebentzioa: indarkeria emanez gero, prebentzioaren beste zereginetako bat da hautemate goiztiarra egitea eta indarkeria hori geldiaraztea. Horretarako, biztanleek eta, nagusiki, herri erakundeek (baina ez bakarrik horiek), harberak izan behar dute, eta interesa agertu. Indarkeriari aurrez aurre begiratu behar diote, eta behar bezalako erantzuna eman behar diote.

Hirugarren mailako prebentzioa: indarkeria antzeman eta salatu ostean, gehiegikeriak errepikatzea prebenitu behar da. Hori guztia erreparazioari lotzen zaio, indarkeria «ez-errepikatzea» oinarritzeko baldintza baita emakumeak suspertzeko; horrekin batera, indarkeriaren aurrean gizarteak eta erakundeek duten jarreraren sendotasunaren adierazlea ere bada.

- **Koordinazioa eta jarraipena.** Erantzun eraginkor, azkar eta osoa emateko, indarkeria matxista diziplina aniztatetik landu beharra dago; esku-hartzeak koordinatua izan behar du, eta ezinbestekoa du herri-administrazioek, nahiz nahasiak dauden eragile guztiek batera ekitea. Xede horrez, adituek elkarri informatzeko, eta ezagutzaren

gardentasunerako eta lankidetzarako tresnak behar dira. Hala, «emakumeen bigarren biktimizazioa» izenekoa saihestuko dugu, emakumeok indarkeriari aurre egin behar diotenean. Koordinazioak presente egon beharko du ez bakarrik arretan, baizik eta prebentzioan eta beste lerro estrategiko batzuk abian jartzen direnean ere bai, ekintzek etengabeko jarraipena izan dezaten.

- **Parte-hartzea.** Biktimen lankidetzeta eta parte-hartzea, zuzena edo zeharkakoa, nahitaezkoak dira, suspertze eta konpontze ibilbideak eta arreta diseinatzerakoan. Ezinbestekoa da emakume horien beharrak zuzenean ezagutzea: alde batera utzi behar dira estereotipoen profilak, eta horien arabera arreta eskaintzeko eta baliabideak lortzeko joera. Halaber, oinarritzkoa da mugimendu feministek parte hartzea, Oinarrien atalean azaldu den bezalaxe, «aldaketarako giltza» haiek dutelako¹⁰. Emakumeek gizartean eta politikan parte hartzeko mekanismoetan arreta jarriz gero, ikusiko dugu frogatuta dagoela tresna ezin hobekak direla indarkeria matxistari aurre egiteko. Erakunde publikoen (Basauriko Udalaren) bultzada eta babesa jaso ondoren, jabeak eskolak eta emakumeen egoitzak berezko parte-hartze guneak dira emakumeentzat, eta agerian utzi dituzte lortutako aurrerapenak eta emaitza positiboak. Bai hausnarketarako guneak eta ikastaroak, bai talde feministetan antolatzen diren aukerak, indarkeria matxistaren aurkako «txertoak» dira; horrez gain, indarkeria jasan duten emakume batzuentzat sendabide ere bihurtzen dira, «biktima izatetik ekintzaile izatera» heltzeko bidea egin baitezakete. Gainera, antzeko egoerak bizi dituzten beste emakume batzuk laguntzen dituztenean, suspertze prozesua amaitutzat jotzen dute.
- **Ahalduntzea eta autonomia.** Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeekin egin beharreko lana ez da berehalako arretara mugatzen. Diziiplina anitzeko esku-hartze prozesuari ekin behar zaio, eta emakumeak gizarteratzeko eta suspertzeko baliabideak eta tresnak sustatu behar dira. Helburua zera da: nortasuna berreskuratzea, eta indarkeriaren gorpil zorotik kanpo bizi-proiektua garatzea. Xede horrekin, emakumeek beren erabakiak hartu eta gaitasunak erabil ditzaten, emakumeen ahalmena onartu eta babestu behar da. Emakumeak arreta-zerbitzuetara doazenean berariazko eskaerekin, bestelako eskaera batzuk ere identifika daitezke, hain zuzen ere, autonomia eta autoestimua berreskuratzen dituzten prozesuekin zerikusia dutenak. Banakako prozesuak taldean egindako lanarekin sendotu eta osatzen dira.
- **Pluraltasuna eta aniztasunarekiko errespetua.** Esku hartzeko orduan, biktimen nortasun-pluraltasunari erreparatuko zaio, batez ere, emakume ahulen kasuan: emakume adindunak, etorkinak, prostituzioan diharduten emakumeak, desgaitasun fisiko-motorrak, adimenezkoak edo psikosozialak dituzten emakumeak, behar bereziak dituztenak... Nahiz eta lege esparruak, inolako diskriminaziorik gabe, emakume guztienganako arreta bermatu, errealitateak erakusten digu emakume asko eta asko ezin daitezkeela baliabide eta zerbitzuetara iritsi. Gainera, behar bereziak dituzten emakumeek informazioa eta baliabideak lortzen dituztela bermatzeko, ezinbestekoa da zerbitzuak moldatzea: garraiorako laguntzak, konpainiak, ikurren mintzairan interpreteak, dokumentuak braillean, aldibereko itzulpena, etab.

Pluraltasuna eta aniztasuna errespetatuz gero, kontuan hartuko dira erabiltzaileen ezagutza pertsonalak eta haren egoera berezia.

- **Adingabeen interesak defendatzea.** Haurrak Babesteko Legeak aldaketak izan ditu: haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 Legeak xedatutakoaren bidez islatzen dira aldaketak. Horrela, bada, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaba adin txikikoak zuzeneko biktimak direla onartzen du Legeak, eta, horren harira, amek jasotako arreta eta baliabide berdinak berenganatzeko eskubide osoa dute. Modu horretan, haur horiek behar bezala garatzea, ongizatea izatea eta babes osoz hornitzea bilatzen da. Beraz, beharrezko

¹⁰ Ikus «Oinarriak» atala (2. or.).

neurriak hartu beharko dira, hairrei eta nerabeei arreta eta babesa eskaintzeari buruzko otsailaren 19ko 3/2005 Legeak aurreikusitakoa betetzeko.

- **Segurtasuna eta babesa.** Ogibidean jardutean sortutako lege-betebeharrak oinarrizko konpromiso etikoak dira, baita babes bermea ere. Emakumeek bi horietarako eskubidea badute. Esku-hartzeak gidatzerakoan, emakumeen segurtasuna izango da nagusi. Esku-hartze guztietan ziurtatu beharko da konfidentziasuna, eta datuak babesteko eskubidearen eta datuon erabileraren berri emango da, helburu nagusia biktima babestea dela ahaztu gabe.

Diagnostikoa

3.1 Indarkeria matxistaren analisi kuantitatiboa

Indarkeria matxistaren errealitatea jasotzen du diagnostikoaren lehen kapitulu honek. Bigarren mailako iturrien analisietan oinarritutako lana da —batez ere, izaera kuantitatiboa duen iturrietan—, eta bere xedea da testuinguruan jartzea pairatzen dugun arazo sozial eta estruktural larri hori. Bigarren mailako iturriez gain, Basauriko Udalaren Berdintasun Atalaren barne-memoriak ere kontsultatu dira: beharrezkoa da egoera globalaren berri izatea, baina ezinbestekoa da, era berean, tokiko errealitatea ezagutzeta (indarkeria matxistaren aurkako Plan hau Basaurirako diseinatuta dagoelako).

Esan beharra dago Berdintasun Atalak «indarkeria matxista» darabilela, termino horrek barne hartzen dituelako emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eza eta botere-harreman desorekatuak baliatuta eragindako indarkeria mota guztiak; eta aintzat hartzen dituelako indarkeria matxista jasan dezaketen pertsona guztiak, indarkeria horren iturria edozein dela ere (adibidez: eredu hegemoniko heteropatriarkalarekin hautsi izana). Kapitulu honetan, «genero-indarkeria»z hitz egingo dugu, batez ere. Hori da, hain zuzen ere, indarreko legeriak erabiltzen duen terminoa, eta, beraz, kontsultatutako bigarren mailako iturri ofizialetan ere halaxe ageri da. Ordea, eskema horrek emakumeak baino ez ditu kontabilizatzen biktima gisa, ez erasotako edo eraildako gainerako pertsonak; eta, gainera, bikotean edo bikote ohiaren testuinguruan emandako indarkeria baino ez du islatzen.


Indarkeria matxistak gure gizartean duen munta erakusteko xedez, eta, betiere, analisi kuantitatibotik abiatuta, zenbait datu jasoko ditugu jarraian: pairatutako indarkeria motak; erailketa matxistak; prozesu judizialak; salaketak; egindako babes-eskaerak eta emandako babes-aginduak; ezarritako neurri juridikoen eraginkortasuna; eta indarkeria matxista pairatu duten adin txikikoen babesei buruzko xehetasunak.

3.1.1. Estatu espainiarreko indarkeria motei buruzko datuak

Grafiko honek erakusten ditu emakumeek pairatutako indarkeriei buruzko datuak, bai Estatuan, bai Autonomia Erkidegoan, bai tokiko mailan. Datu horiek, gainera, adina edo jatorria bezalako alda-gaiekin gurutzatu dira.

1. GRAFIKOA

Indarkeria motak, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko makroinkestaren arabera (2015).



Emakumeek pairatutako indarkeria motak islatzen ditu Osasun, Gizarte-zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak emakumeen aurkako indarkeriari buruz egindako makroinkestak, eta aztertzen du azken 12 hilabeteotan eta bizitzan zehar tratatu txarrak jasan dituzten emakume elkarrizketatuen ehunekoa. Indarkeria psikologikoa da emakume gehienek jasaten dutena, eta, eremu horretan, «kontrolaren psikologia» eta «psikologia emozionala» bereizi dituzte¹¹. Datu horrek agerian uzten du zein garrantzitsua den genero-indarkeriaren definizioa indarkeria fisikora ez mugatzea. Tratu txar fisikoak agerikoagoak dira (are gehiago mutur-muturrekoak izan, eta heriotza dakartenean), baina indarkeria fisiko ororen aurretik (eta indarkeria horrekin batera) kontrol- eta menderatze-mekanismoak ere erabiltzen dira, emakumeei kalte psikologiko esanguratsua eragiten dietenak.

3.1.2. EAEko indarkeria motei buruzko datuak

Emakundek urtero egiten duen «emakumeen aurkako indarkeriari buruzko EAEko estatistika-datuen analisi eta interpretazioa» lanetik atera ditugu EAEko datuak. Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria pairatu dituzten emakumeen artea hobetzeko Erakundearteko II. Hitzarmenean jasotako hiru eremuen inguruko analisia egiten da, batez ere: emakumeek bikotekoarengandik edo bikoteko ohiarengandik jasandako indarkeria; etxeko indarkeria; eta sexu-indarkeria. Txostena egiteko, Azterlanen eta Analisisien Arloak eta Ertzaintzak (Eusko Jaurlaritza, Herrizaingo Saila) urtero emandako datu esanguratsuenak jaso ditu Emakundek.

Datu orokorra: 2015ean, emakumeen aurkako indarkeria (lehen aipatutako hiru mota horietako bat) pairatu zuten 3.999 emakume erregistratu zituen Ertzaintzak. Haietako batzuk, gainera, behin baino gehiago izan ziren erasoak, eta, guztira, 5.097 biktimizazio egon ziren¹².

1. TAULA

Biktimizazioak eta biktimak, indarkeria motaren arabera¹³. EAE, 2015.

	Biktimizazioak	Biktimak
	5.097 eraso	3.999 emakume
Bikotekoaren edo bikoteko ohiaren indarkeria	3.845 eraso / 75%	2.899 emakume / 72%
Familia barruko indarkeria	993 eraso / 20%	845 emakume / 21%
Sexu-indarkeria	259 eraso / 5%	255 emakume / 7%

Iturria: taula guk egin dugu, Emakundek urtero egiten duen «emakumeen aurkako indarkeriari buruzko EAEko estatistika-datuen analisi eta interpretazioa» lanetik ateratutako datuetan oinarrituta.

Taulan ikus daitekeenez, indarkeria-kasu gehienak bikotekoak edo bikoteko ohiak eragindakoak izan ziren (% 75: Ertzaintzak erregistratutako lau indarkeria kasutik, hiru, gutxi gorabehera). Kasuen % 20, berriz, familia barruko indarkeria kasuak izan ziren, hau da, elkarbizitza-unitateko edo familiako

¹¹ Kontrolaren psikologiak honako hauek barne biltzen ditu: ez uztea lagunak ikusten; etengabe jakin nahi izatea emakumea non dagoen; ez-jakintasuna eta axolagabekeria; desleialtasun susmoa. Psikologia emozionalak, bere aldetik, honako hauek darabiltza: irainak; mespretxuak; beldurraraztea; eta mehatxuak.


¹² Biktimizazioa: aldi batean zehar emakume batek jasandako zigor arloko arau-hauste kopurua. Emakume batek biktimizazio bat baino gehiago jasan ditzake.

¹³ Bigarren mailako iturrietako datuetan, izendapen bat baino gehiago erabiltzen dira. Kasu honetan, Emakundek «indarkeria»tzat hartzen du bikotekoak edo bikoteko ohiak eragindakoak, familia barruan ematen dena eta sexu-indarkeria. Ordea, marko kontzeptualean azaldu beza-laxe, Plan honek indarkeria motak sailkatzen ditu hura ematen den modua aintzat hartuta, zuzenean zein zeharka.

kide batek emakumeari eragindakoa (bikotekoa edo bikoteko ohia aparte utzita). Sexu-indarkeria, berriz, erregistratutako kasuen % 5ean agertu zen.

2. GRAFIKOA.

Indarkeria pairatzen duten emakumeak, lurraldeka




Iturria: grafikoa guk egin dugu, Emakundek urtero egiten duen «emakumeen aurkako indarkeriari buruzko EAEko estatistika-datuen analisi eta interpretazioa» lanetik ateratako datuetan oinarrituta.

Lurralde historikoak aintzat hartuta, azpimarratzekoa da EAEn erasotako emakumeen erdia baino gehiago Bizkaian bizi zirela (kontuan hartu beharra dago, ordea, Bizkaia dela biztanle gehien dituen probintzia).

2015eko biktimizazioei dagokienez, % 46 Bizkaian eman ziren; hamarretik hiru, Gipuzkoan (% 31,10); eta % 14,44, Araban. EAEn, 10.000 emakumetik 45ekoa, hau da, % 37koa da emakumeen biktimizazioa, batez bestean. Bizkaian, apur bat handiagoa da: 46,74.

3. GRAFIKOA.

Emakumeen aurkako indarkeriagatiko biktimizazioaren bilakaera EAEn..




Iturria: taula guk egin dugu, Emakundek urtero egiten duen «emakumeen aurkako indarkeriari buruzko EAEko estatistika-datuen analisi eta interpretazioa» lanetik ateratako datuetan oinarrituta

Azken urteko kopurua 2014koa baino apur bat txikiagoa bada ere, emakumeen aurkako indarkeriagatiko biktimizazioak goranzko joera hartu du azken urteotan: 2010ean baino 812 biktimizazio gehiago erregistratu ziren 2015ean. Horrek esan nahi du azken bost urteotan % 18.95 hazi dela biktimizazioa, hau da, % 5 urtean, batez bestean.

Jarraian, indarkeria-moten, eta aldagai sozio-demografikoen arteko harremana (zehazkiago, adina eta jatorria).

4. GRAFIKOA.

Indarkeria pairatu duten emakumeak, adin-tarteka.




Iturria: grafikoa guk egin dugu, Emakunde urtero egiten duen «emakumeen aurkako indarkeriari buruzko EAEko estatistika-datuaren analisi eta interpretazioa» lanetik ateratako datuetan oinarrituta.

Adina da aintzat hartu beharreko aldagai garrantzitsuenetakoa. Jendeak pentsatu ohi duenaren kontra, indarkeria matxistak adin guztietako emakumeak kolpatzen ditu. Areago: azken urteotan gora egin du gazteen arteko indarkeriak. Teknologia berriek eta sare sozialek gazteen artean izandako arrakastek eragin dute indarkeria forma berriak garatzea. Horrela, bada, aurreko grafikoak islatzen du 30 urtetik beherakoak zirela 2015ean zehar indarkeria jasan zuten emakumeen % 33,08; % 9,06, berriz, adin txikikoak ziren.

5. GRAFIKOA.

Indarkeria pairatu duten emakumeak, adin-tarteka eta indarkeria motaka




Iturria: grafikoa guk egin dugu, Emakunde urtero egiten duen «emakumeen aurkako indarkeriari buruzko EAEko estatistika-datuaren analisi eta interpretazioa» lanetik ateratako datuetan oinarrituta.

Adin-tartearen arabera jasandako indarkeria motari dagokionez, aipatzekoa da familia barruko indarkeria dela nagusi, bai zaharrenean, bai gazteen artean. Oso altua da sexu-indarkeria pairatu duten adin txikikoen ehunekoa: % 34,5. Datua esanguratsua da: islatzen du zein larria den neska-toenganako sexu-erasoen gaur egungo egoera. Azken urteotan egiaztatu da salaketa gehiago daukela, eta hautematen da areagotu egin direla horrelako erasoak (bereziki herrietako, auzoetako eta hirietako jaietan, edota gaueko aisialdian). Beste alde batetik, 10 adin txikikotik 2k, ia, bikotekoaren edo bikoteko ohiaren erasoak jasan du.

Osteko adin-tarteetan, bikotekoak edo bikoteko ohiak eragindako indarkeria da nagusi.

6. GRAFIKOA.

Indarkeria pairatu duten emakumeak, jatorriaren arabera. EAEko %, 2015

Emakumeen jatorria ere, aintzat hartu beharreko datua da. Indarkeria matxistari buruzko zenbait mito daude gizartean errotuta, adibidez: errealitate hori lotzea drogen eta alkoholaren kontsumoari, erasotzaileen gaixotasun mentaletan eta immigrazioari. Azken horri helduta, esan daiteke hautemate orokorra dela indarkeria matxista pairatzen duten emakume gehienak etorkinak direla (erasotzaile gehienak bezalaxe). Horrek arras zailtzen du egoera aztertzea eta emakumeei behar bezalako arreta ematea, eta, aitzitik, gizarte orotan ageri den arazo honen larritasuna estaltzen du. EAEn ere, herritarrek gai horri buruz duten hautemateari buruzko azterlan batek¹⁴ dio biztanleen % 27k hala uste duela.

Ordea, grafikoa irudikatzen du indarkeria matxista jasan duten emakume gehienak bertokoak zirela (% 55, EAEkoak; eta % 12, beste autonomia erkidegoetakoak). Beraz, indarkeria matxista jasan duten hamar emakumetik ia zazpi, EAEn edo Estatuko beste autonomia erkidego baten jaiotakoak ziren.

3.1.3. Espainiar estatuan genero-indarkeriaren ondorioz izandako erailketei buruzko datuak

Lehenago adierazi bezalaxe, Estatuko kopuru ofizialek Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriari buruzko 1/2004 Legeari erantzuten diote¹⁵. Datuak, beraz, bikotekoek, bikoteko ohiek edota (elkarbizitza egon ala ez) emakume biktimekin pareko harremana zutenek egindako erailketak islatzen dituzte.

¹⁴ Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Emakumeen aurkako indarkeria Euskadin. Herritarren hautematea eta iritziak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurjaritza. Lehendakaritza. 2015.

¹⁵ Genero Indarkeriaren Estatuko Ordezkaritza Bereziak (237/2005 ED) ematen ditu datuak, 2006tik. Aldi berean, datuok Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Salaren Fiskaltzarekin eta Botere Orokorraren Kontseilu Orokorraren barruko Etxeko Indarkeriaren eta Genero Indarkeriaren Behatokiarekin erkatu, eta irizpideak bateratzen ditu.

7. GRAFIKOA.

Estatu espainiarrean bikotekoek edo bikoteko ohiek eraildako emakumeen kopuruaren bilakaera (2005-2015).

Iturria: grafikoa guk egin dugu, Osasun, Gizarte-politika eta Berdintasun Ministerioak emandako datuetan oinarrituta.

Azken hamarkadetan indarkeria matxistak eraildako emakumeen kopuruaren bilakaera irudikatzen du grafikoa. Argi eta garbi ikusten da egoera larri hori errepikatu egiten dela gure gizartean, eta mantendu egiten dela denboran zehar. Urte batzuetan nabarmen altuagoak dira eraildako emakumeen zenbakiak (2007an, 71; 2008an, 76; eta 2010ean, 73), baina, edozelan ere, urtero-urtero berrogeita hamar emakumetik gora hiltzen dituzte Espainiar Estatuan. Joan den urteko datuak, gainera, duela 10 urtekoak baino are altuagoak dira. Kontuan izanda erailteza dela indarkeria matxistaren mutur-muturreko adierazpena, esan dezakegu egoera, onera baino, txarrera doala urterik urte.

Azken hamarkadan, ia 700 emakume erail dituzte Estatu osoan. Horri gehitu behar litzaizkioke erasotzailearekin harreman afektiborik ez zuten eraildako guztiak, eta emakumeen lagun edo bikoteko berriak (indarreko legeriak ez baititu aintzat hartzen).

Eraildako adin txikikoak emakumeengandik bereizita zenbatu dira (2013an, 6; 2014an, 4; eta 2015ean, 5). Beste alde batetik, 2014an 41 adin txikiko geratu ziren umezurtz indarkeria matxistaren ondorioz, eta 2015ean, berriz, 51.


Datu horiek paradigma-aldaketa irudikatzen dute, adin txikikoak biktima zuzen gisa hartzeari dagokionez. Legeetan jasotako azken aldaketak ere ildo horretatik doaz; horra hor haurtzarora eta nerabezarora babesteko sistema aldatzeari buruzko uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoan egindakoak; haurrei eta nerabezarora babesteko sistema aldatzeari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legean izandakoak; eta delitu-biktimaren estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legean jasotakoak.

Arauen ikuspuntutik, aipatutako hiru arauak bermatu egiten dute joera-aldaketa, adin txikioen subjektibotasun juridikoa aitortzeari dagokionez. Genero-indarkeriaren biktima direla aitortzen da berariaz; «adin txikioen hobe beharrez aritzea» mugatzen dute arauak; eta adin txikikoak entzunak edota adituak izateko eskubidea dutela aurreikusten da. Hala eta guztiz, haurrek eta nerabeek jasotzen duten babesa urria da, ez hainbeste arauari dagokionez, horren aplikazio praktikoari dagokionez baizik.

Erailketak eta beste aldagai soziodemografikoak


8. GRAFIKOA.

Bikotekoak edo bikoteko ohiak eraildako emakumeak, jatorriaren arabera. 2014-2015.



9. GRAFIKOA.


Gizon erasotzaileak, jatorriaren arabera. 2014-2015.




Biktimizazioekin gertatzen den bezalaxe, biktimen jatorria ez da datu esanguratsua, kausalitateari dagokionean. Areago: bai 2014an, bai 2015ean, askoz altuagoa da bertako emakumeen kopurua, atzerritarrena baino, eraildako emakumeen artean. Gauza bera gertatzen da bikotekoak edo bikoteko ohiak erailtzen dituzten gizonen jatorriarekin ere. Datu horiek desmuntatu egiten dute immigrazioaren eta genero-indarkeriaren arteko lotura.

10. GRAFIKOA.

Bikotekoak edo bikoteko ohiak eraildako emakumeak, adinaren arabera. 2014-2015.




11. GRAFIKOA.
Gizon erasotzaileak, adinaren arabera. 2014-2015.




Indarkeria matxista adin guztietan ematen da. Hori bai: erailtze gutxiago gertatzen da adin txikikoen artean, emakumeen artean baino. Bikotekoak edo bikoteko ohiak eraildako biktimei zein hiltzaileei erreparatuz gero, egiaztatuko dugu adin-tarte guztietan ematen direla erailketa matxistak.

Beraz, sarri pentsatu ohi dugunaren kontra, indarkeria pairatu zein egikaritu nahi dutenen adina eta jatorria ez dira erabakigarriak.

12. GRAFIKOA.
Bikotekoak edo bikoteko ohiak eraildako emakumeak, elkarbizitza motaren arabera. 2014-2015.



13. GRAFIKOA.
Bikotekoak edo bikoteko ohiak eraildako emakumeak, harreman motaren arabera. 2014-2015.




Azken grafiko horiek islatzen dute erailketa gehienetan biktimak eta erasotzaileak harremana bazutela, eta elkarrekin bizi zirela oraindik. Datu horrek agerian uzten du emakume askorentzat zein zaila den indarkeriaren gurgil zoro horretatik irtetea. Zailtasun horiek, indarkeria-harremanak haiei eragindako kalte psikologikotik eratortzen dira, eta beren bizimoduak modu autonomoan berregiteko ezintasuna dakarkie. Badaude erasotzailearengandik banatzea nabarmen zailtzen duten beste faktore batzuk ere, adibidez: mendekotasun ekonomikoa, edo erasotzailearekin seme-alabak izatea (emakumeak haurrak galtzearen beldur dira, edo uste dute onena —haientzat zein umeentzat— dela familia batera gotea).

Azkenik, erasoek epaitegietan jasotako erantzunaren (babes-neurriak egon ote diren), eta genero-indarkeriak hildako biktimen arteko lotura aztertuko dugu (Estatu mailan).

14. GRAFIKOA.


Hildakoak, eta kasu horien artetik zenbatek zeukaten salaketa jarrita. 2014-2015.




Grafiko horretan ikusten dugu azken urteotan bikotekoek edo bikoteko ohiek eraildako emakumeen erdiek baino gutxiagok zeukatela salaketa aurkeztuta: 2014an, % 31,48k (aitortutako 54 biktimatik, 17k); eta 2015ean, % 21,7k (60 hildakotik, 13k). Datua esanguratsua da. Egoera azaltzeko, aintzat hartu beharra dago zenbait faktorek bat egiten dutela: salaketa jartzeko beldurra; genero-indarkeriaren biktima gisa dauden eskubideak ez ezagutzea; sistema judizialarekiko mesfidantza; eta abar.

15. GRAFIKOA.

Hildakoak eta hartutako babes-neurriak. 2014-2015.




16. GRAFIKOA.
Eraildako emakumeak eta ezarritako babes-neurriak haustea.



Beste alde batetik, grafikook islatzen dute babes-neurriak ez direla eraginkorrak izan: gutxi izan ziren salaketa jarri, eta babes-neurriak eskatu zituzten emakumeak (2014an, 10: eta 2015ean, 8), baina, hala ere, neurriek ez zuten haien segurtasuna bermatu.


3.1.4. EAEn genero-indarkeriaren ondorioz eraildako emakumeen datuak

17. GRAFIKOA.
EAEn bikotekoek edo bikoteko ohiek eraildako emakumeen kopuruaren bilakera (2005-2015).




Ikus daitekeenez, urtero egon dira indarkeria matxistaren biktimak EAEn. Datu ofizialek diote azken urteotan 32 emakume erail dituztela. 2015ean, 3 emakume hil zituen indarkeria matxistak Euskal Autonomia Erkidegoan. Estatu mailan ikusten genuen bezalaxe, arazoak hor darrai. Gure gizartean, gainera, goranzko joera du, eta hori arduratzeko modukoa da.

18. GRAFIKOA.
EAEn eraildako emakumeak, adinaren arabera. 2015.



Batez bestean, 47 urte zituzten aldi horretan eraildako emakumeak. Azken 10 urteotan hildako emakumeen ia erdia (% 46,87k) 31-51 urte bitartekoak ziren; % 34,37, 50 urtetik gorakoak ziren; eta % 18,75, berriz, 30 urtetik beherakoak. Berrito ere, egiaztatu ahal dugu indarkeria matxistaren adierazpenik ankerrena den erailketa, adineko emakumeen artean ematen dela gehienbat (emakume gazteen ehunkoa gora badoa ere).

19. GRAFIKOA.
EAEn eraildako emakumeak, erasotzailearekin zuten harremanaren arabera. 2015 .



Kasu honetan, adierazi bezalaxe, bikoteko edo bikoteko ohiaren harremanetik kanpoko indarkeria matxista ere hartu da kontuan. Horrela, bada, eraildako emakumeen arteko asko, haiekin afektibotasun-harremanik ez zuten gizonak hil zituzten. Datu horrek aukera ematen digu azpimarratzeko zein garrantzitsua den indarkeria bikoteko edo bikoteko ohiaren eremura ez mugatzea, eta, aitzitik, aintzat hartzea, adibidez, eredu heteropatriarkala hausten dutenei eragindakoa ere bai. Finean, adierazpen horiek botere-harremanetan eta maskulinoak femeninoa menderatzeko joeran oinarritzen dira berdin-berdin.

2. TAULA.

Indarkeria matxistak EAEn eraildako emakumeen profila¹⁶ (2002-2016).

Urtea	Hilabetea	Eguna	Udalerrria	Adina	Jaioterria	Harremana hiltzailearekin	Elkarbizitz
2002	Abuztua	23	Basauri	33	Bilbo	Bikotekoa	S I
2004	Otsaila	3	Bilbo	33	Nigeria	Bikotekoa	Bai
	Iraila	27	Bilbo	27	Ginea Bissau	Bikoteko ohia	Bai
	Urria	10	Barakaldo	34	Barakaldo	Arreba	Ez
	Azaroa	23	Santurtzi	16	Bartzelona	Bikoteko ohia	Bai
	Abendua	12	Basauri	54	Burgos	Bikotekoa	Ez
2005	Urtarrila	15	Durango	32	Guatemala	Bikoteko ohia	Ez
	Urria	4	Bilbo	68	Valladolid	Ama	Bai
	Urria	12	Barakaldo	38	Eibar	Bikotekoa	Bai
	Urria	15	Bakio	26	Barakaldo	Bikoteko ohia	Ez
2006	Maiatza	28	Barakaldo	39	Bilbo	Bikotekoa	Bai
	Uztaila	3	Basauri	23	Errumania	Bikotekoa	Bai
	Uztaila	7	Getxo	87	Kantabria	Ama	Bai
	Abuztua	6	Gasteiz	76	Gasteiz	Amaginarreba	Ez
2007	Martxoa	23	Bilbo	74	Kantabria	Bikotekoa	Bai
	Junio	2	Gasteiz	35	Gasteiz	Bikotekoa	Bai
	Abendua	13	Etxebarri	80	Pontevedra	Amama	Ez
2008	Abuztua	15	Mañueta	72	Mañueta	Bikotekoa	Bai
	Urria	5	Santurtzi	26	Nigeria	Bikotekoa	Bai
	Abendua	29	Errenteria	35	Venezuela	Bikotekoa	Bai
2009	Martxoa	23	Gernika	44	Tolosa	Bikotekoa	Bai
	Maiatza	9	Irún	37	Kolombia	Bikoteko ohia	Ez
2010	Urtarrila	17	Tolosa	45	Pontevedra	Beste senide bat	Bai
	Otsaila	8	Barakaldo	65	Salamanca	Ama	Bai
	Otsaila	18	Lasarte	48	Badajoz	Ama	Ez
	Uztaila	25	Bilbo	36	Bilbo	Bikotekoa	Bai
	Abendua	6	Barakaldo	25	Barakaldo	Bikoteko ohia	Ez
2011	Uztaila	3	Hernani	55	Sevilla	Bikotekoa	Ez
	Abuztua	22	Bilbo	36	Ekvador	Bikotekoa	Ez

¹⁶ Kasu honetan, «indarkeria matxista» terminoa erabili dugu, EAEn eraildako emakumeen kasuak jasotzen dituelako taulak, 1/2004 Lege Organikoak finkatutako sailkapenez harago, hau da, bikotekoen eta bikoteko ohien kasuez gain, beste batzuk ere aintzat hartuta

2012	Martxoa	25	Tolosa	39	Kuba	Bikotekoa	Bai
	Azaroa	27	Asparrena	65	Asparrena	Bikotekoa	Bai
2013	Maiatza	23	Laudio	26	Orozko	Bikotekoa	Bai
2014	Martxoa	17	Mungia	35	Brasil	Bikoteko ohia	Ez
	Abendua	10	Abadiño	58	Valentzia	Bikotekoa	Bai
	Abendua	10	Abadiño	88	Palentzia	Valentzia	Ez
2015	Abril	2	Gasteiz	29	Errumania	Bikoteko ohia	Ez
	Abuztua	8	Bilbo	34	Arrigorriaga	Bikoteko ohia	Ez
	Urria	3	Erandio	39	Bilbo	Bikotekoa	Ez

Iturria: grafikoa guk egin dugu, Emakunderen datuetan oinarrituta.

Taulak indarkeria matxistak azken 14 urteotan eraildako emakumeen profila islatzen du. Basaurin, gure herrian, Indarkeria Matxistaren Aurkako Tokiko Plan honen jardute-eremuan, 3 emakume erail dituzte: María Begoña Gómez Gutierrez, 33 urtekoa; María Victoria Gutiérrez Gutiérrez, 54 urtekoa; eta Loredana Andriescu, 23 urtekoa. Bikotekoak erail zituen hirurak. Bi, harekin bizi ziren, eta hirugarrena banatze-prozesuan hil zuten.

3.1.5. Genero-indarkeriagatiko prozesu judizialei buruzko datuak

Prozesu judizialari dagozkion kontuak ere aztertu beharra dago: salaketak, babes-aginduak eta biktimei emandako arreta juridikoa. Datu horiek balio digute genero-indarkeriaren aurkako erantzun judizialak izandako eraginkortasuna neurtzeko.

Genero-indarkeriagatik aurkeztutako salaketak

3. TAULA.

Espainiar Estatuan eta EAEn aurkeztutako salaketa-kopuruaren bilakaera (2010-2015).


	2015	2014	2013	2012	2011	2010
Espainiar Estatia	129.193	126.742	124.894	128.543	134.002	134.105
EAE	4.207	3.990	3.937	2.853	4.125	3.691

Iturria: Emakumearen Institutuak egindako taula, Etxeko Indarkeriaren eta Genero Indarkeriaren Behatokiak argitaratutako datuetan oinarrituta. Botere Judizialaren Kontseilu Orokorra

Aurreko taulak islatzen du genero-indarkeriagatiko salaketen kopurua handiagoa dela urtetik urtera, bai Espainiar Estatuan, baita EAEn ere. Espainiar Estatuan, egunean 354 salaketa jasotzen dira, batez bestean. EAEn, berriz, iaz 4.207 salaketa jarri zituzten emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietan: batez bestean, 12 salaketa egunean.

Gure autonomia erkidegoan, % 5,8 egin du gora salaketen kopuruak: 10.000 biztanleko 35,5etik (2014), 37,4ra(2015). Hala ere, Estatuko batez bestearen (52,1) azpitik dago EAE, eta horrelako kasu gutxien dituen erkidegoen artean dago.

20. GRAFIKOA.

Espainiar Estatuko emakumeen aurkako indarkeria epaitegietan jarritako salaketen sarbideak. 2015.

Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietan jarritako salaketa gehienak emakumeek berek jarri dituzte (% 64,76). Kontabilizatutako salaketetarako beste sarbide batzuk badaude ere, azpimarratzekoak dira Epaitegian jasotako lesio-partea (% 11,28) eta polizien esku-hartzeak (% 15,58).

4. TAULA.

Jasotako salaketak eta genero-indarkeria pairatu duten emakumeak, Espainiar Estatuko probintziaren arabera¹⁷. 2015.

	Jasotako salaketak	Genero-indarkeria pairatu duten emakumeak
ALMERIA	2306	2068
KADIZ	3917	3886
KORDOBA	1638	1631
GRANADA	3486	3191
HUELVA	1616	1616
JAEN	1482	1476
MÁLAGA	6468	6286
SEVILLA	7111	6514
HUESCA	303	294
TERUEL	143	143
ZARAGOZA	2189	2186
ASTURIAS	2359	2239
BALEARRAK	4658	4576
LAS PALMAS	3994	3860

¹⁷ Ez dira berdinak jasotako salaketen kopurua, eta prozesu judizialen ondorioz genero-indarkeriaren biktima gisa egiaztatutako emakumeen kopurua. Emakume bat genero-indarkeriaren biktima gisa izendatuko da Indarkeriaren arloko epaitegiak horren aldeko epaia ematen duelako, edota Zigor arloko epaitegiak zigor-epaia ematen duelako. Ordea, gerta daiteke salaketak aurrera ez egitea, absoluzioa ematen delako, largespina eman delako, edota salaketa ez delako epaitegira heldu.


STA. CRUZ DE TENERIFE	3764	3655
KANTABRIA	1327	1256
ÁVILA	283	283
BURGOS	621	614
LEÓN	984	951
PALENTZIA	204	153
SALAMANCA	284	284
SEGOVIA	224	224
SORIA	118	118
VALLADOLID	1589	1589
ZAMORA	337	336
ALBACETE	797	791
CIUDAD REAL	1194	1055
CUENCA	437	435
GUADALAJARA	669	669
TOLEDO	1537	1537
BARTZELONA	13457	13206
GIRONA	1983	1421
LLEIDA	904	899
TARRAGONA	2170	2110
ALACANT	6760	6101
CASTELLO	1525	1485
VALENTZIA	9109	8672
BADAJOS	1605	1592
CACERES	831	808
A CORUÑA	1925	1788
LUGO	535	529
OURENSE	505	498
PONTEVEDRA	2245	2196
MADRIL	18527	17165
MURTZIA	5034	4854
NAFARROA	1191	1173
ARABA	826	825
GIPUZKOA	1140	1140
BIZKAIA	2266	2242
ERRIOXA	616	615
ESPAINIA	129.193	123.725

Iturria: grafikoa guk egin dugu, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrak 2015ean egindako txostenaren datuetan oinarrituta.

Aurreko taulako zenbakiei erreparatuz gero, ikusiko dugu jarritako salaketak baino txikiagoa dela epai irmoa jaso duten emakumeen kopurua. Horren arrazoia da salaketa guztiak ez direla epai irmoarekin amaitzen, largespenak¹⁸ eta lekapen judizialak¹⁹ ere egoten direlako.

21. GRAFIKOA.

Espainiar estatuan genero-indarkeriatik salaketa jartzen duten emakumeak, nazionalitatearen arabera. 2015.




Jada esan bezalaxe, gure gizarteak joera du genero-indarkeria immigrazioarekin lotzeko. Ordea, emakumeen aurkakako indarkeriaren arloko epaitegietan jasotako salaketek ideia hori okerra dela islatzen dute, berriro ere: epaitegian salaketa jartzen duten emakume gehienek espainiar nazionalitatea dute.

Babes-aginduak Espainiar Estatuan eta EAEn

22. GRAFIKOA.

Espainiar Estatuan eskatutako babes-aginduak. 2012.2015.



¹⁸ Largespen autoa: ebazpen judizial arrazoitua, zeinak zigor-prozesuari amaiera jartzen dion (largespen librea) prozesuarekin aurrera egiteko zantzu arrazionalik ez dagoenean, edo prozesua eteten duen (behin-behineko largespena), ahozko epaiketa irekitzeko beharrezko aurrekariak falta direnean. Instrukzio edo ikertze-fasearen ostean ematen da.

¹⁹ Lekapena: prozesu judizial batean ez deklaratzeko eskubidea. Legeak pertsona jakin batzuei ematen die: senitartekoei, bikotekoei edo ezkontideen pareko harremana dutenei.

5. TAULA.

Babes-aginduak Espainiar Estatuan: zein egoeratan dauden. 2014-2015.

	Hasitakoak ²⁰	Onetsiak	Ezetsiak	Ebazteke, hiru-hileko amaieran	Izapidetzeko onartuak izan ez direnak
2014	33,167	18,775	14,391	1	0
2015	36,292	20,820	13,756	10	1,717

Iturria: grafikoa guk egin dugu, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorraren datuetan oinarrituta.

Babes-agindu eskaeren kopurua ere handitu egin da, azken urteei dagokienez. Hazi egin da, era berean, epaitegiek izapidetzeko onartu ez dituzten babes-agindu eskabideen kopurua.

6. TAULA.


Babes-aginduak, Estatuan eta EAEn. 2015.

	Hasitakoak	Onetsiak	Ezetsiak	Ebazteke, hiru-hileko amaieran	Izapidetzeko onartuak izan ez direnak
Espainiar Estatua	36,292	20,820	13,756	10	1,717
EAE	6180	3642	2494	96	44

Iturria: grafikoa guk egin dugu, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorraren datuetan oinarrituta.

Taula horrek dio EAEn onetsitako babes-agindu eskabideen kopurua, Espainiar Estatuan (Estatu osoan) onetsitakoena baino apur bat handiagoa dela. Zehazkiago, % 1,5 handiagoa da.

23. GRAFIKOA.


Emakumeen nazionalitatearen eta adinaren arabera emandako babes-aginduak Espainiar Estatuan.

Iturria: grafikoa guk egin dugu, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorraren 2015eko memorian eta Etxeko Indarkeriaren eta Genero Indarkeriaren Behatokiaren datuetan oinarrituta.

²⁰ Dagoeneko hasita eta izapidetuta daudenak.

24. GRAFIKOA.

Babes-aginduak eta segurtasun-neurriak, salatuaren nazionalitatearen arabera.



- 28,9% **Gizon espaniarra**
- 71,1% **Gizon atzerritarra**

Iturria: grafikoa guk egin dugu, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorraren 2015eko memorian eta Etxeko Indarkeriaren eta Genero Indarkeriaren Behatokiaren datuetan oinarrituta.

Estatuan emandako babes-neurriak buruz, berriz, gehienak emakume espainiar adin nagusikoei eman zaizkie (% 69,4). Gauza bera gertatzen da erasotzaileen nazionalitatearekin: eskatutako eta emandako babes-agindu guztietatik, % 71,1ean salatua espainiarra zen.

3.1.6. Indarkeria matxistaren biktima izandako emakumeei Basaurin emandako arretari buruzko datuak

Herri mailan, **Basaurik** arreta juridikoko zerbitzua dauka: 136 ordu astean. 2015ean zehar, 307 emakume artatu ditu aipatutako zerbitzuak.

7. TAULA.

Basauriko aholkularitza juridikoko zerbitzuan artatutako emakumeak, indarkeria-motaren arabera (2015).


Aholkularitza juridikoko programa 2015. urtea	Erabiltzaileak, guztira	Indarkeria pairatzen duten erabiltzaileak	
		Etxeko indarkeria	Sexu-indarkeria
	307	64	2

Iturria: Genero-indarkeriaren Bizkaiko Behatokia. Txostena: Etxeko indarkeria eta sexu-indarkeria pairatzen duten emakumeak artatzeko baliabideak. Basauri (2015).

Emakumeentzako Informazio Zentroko aholkularitza juridikoko zerbitzuan joan den urtean artatutako emakumeen arteko 66, indarkeria matxistaren biktimak ziren; horietatik 41, lehenengo aldiz joaten ziren zerbitzura, eta gainerako 23ak baziren erabiltzaileak lehenagotik.


25. GRAFIKOA.

Basauriko aholkularitza juridikoko zerbitzuan artatutako indarkeriaren biktima diren emakumeak (2015).



Iturria: grafikoa guk egin dugu, Genero Indarkeriaren Bizkaiko Behatokiaren datuetan oinarrituta. Txostena: Etxeko indarkeria eta sexu-indarkeria pairatzen duten emakumeak artatzeko baliabideak. Basauri (2015).

26. GRAFIKOA.

Emakumeentzako Informazio Zentroko aholkularitza zerbitzuaren zenbat erabiltzailek jarri duten salaketa (2015).

3.2 Parte-hartze prozesuen analisi kualitatiboa

Metodologiaren atalean adierazi den bezala, ikerketa kualitatiborako erremintak eztabaida-taldeen bidez, sakoneko elkarrizketen bidez eta lantaldeen bidez ezartzea aukeratu da.

Horrela, analisi kualitatiboa hiru kapitulutan banatu da, egindako hiru parte-hartze prozesuren arabera (bakoitza bere helburuekin):

- **Eztabaida-taldeak:** lehenengo parte-hartze prozesuak aukera eman digu ezagutzeko Basauriko herritarrek berdintasunik ezaren gainean eta, batez ere, indarkeria matxistaren gainean duten hautemate, iritzi eta jarrera.
- **Elkarrizketak sakonean:** adituen esperientzia, hautemate eta balorazioek lagundu digute indarkeria matxista aintzat hartzeko, hura prebeintzeko dauden gabezia eta beharrez jabetzeko.
- **Lantaldea, indarkeria matxista jasan duten emakumeekin:** prozesu parte-hartzaile hori da, hain zuzen ere, Plan honen giltza, aukera ematen digulako ezagutzeko indarkeria matxista zuzenean pairatu, eta arreta-zerbitzuen ibilbidea egin dituztenen bizipenak.

Diagnosi fase honetan lortutako informazioa, beraz, kualitatiboa da batez ere. Herritarrek, oro har, berdintasunik ezari eta, bereziki, indarkeria matxistari buruz duten hautematea eta iritzia ezagutzeko aukera emateaz gain, informazioa partekatzeko eta sentiberatze- eta kontzientziazio-lan bat abiarazteko komunikazio-bideak ezartzeko aukera eman digu. Ondorioak ahalik eta argien aurkezten saiatu gara, parte-hartzaileek egindako iruzkinak errespetatuz (horregatik ere, hitzez hitz jaso dira elkarrizketa batzuk). Dena den, prozesu honetako parte-hartzaileen identitatea ezkutuan gorde da.

3.2.1 Eztabaida-taldeak

Metodologiaren atalean azaltzen den bezala, eztabaida-talde bat da «arreta handiz prestatuko elkarrizketa, zeina diseinatua baitago aldez aurretik definitutako interes-eremu bati buruzko informazioa lortzeko, eta zeina giro permisibo eta ez-zuzendu batean garatzen baita. Zazpi eta hamar lagun arteko taldeak eratuko dira, moderatzaile aditu baten gidaritzapean. Eztabaida lasaia, eroso eta, sarri, ona ere izaten da parte-hartzaileentzat, aukera izaten dutelako beren ideiak eta iradokizunak adierazteko eta besteei azaltzeko. Taldeko kideek elkarri eragiten diote, eztabaidan zehar sortutako ideia eta iradokizunei erantzuten dietelako» (Krueger, 1991:24).

Eztabaida-taldeen saioek bi kontu garatzeko aukera ekarri dute: bizipenak (norberak bizi izandakoak/norberaren iritzia) eta proposamenak (errealitatea aztertzea eta hobetzeko proposamenak egitea). Beraz, taldeak diagnosi faserako estrategikotzat jotako emakume eta gizonen profilen arabera diseinatu dira, eta Plana egiteko eta diseinatzeko ideiak eta proposamenak bideratzeko.

Taldeak antolatzerakoan, aintzat hartu dira adina, parte-hartzaileak zein eremu edo egitura antolatutik datozen, eta haien sexua zein den (jotzen da beste sexuko pertsonak egoteak baldintzatu egin dezakeela parte-hartzaileek esateko aukatena, eta, hori dela eta, emakumeen taldeak eta gizonen taldeak egin dira).

Premisa horietan oinarrituta, 6 **eztabaida-talde** sortu dira, honako profil hauekin:

- **1. eta 2. taldeak, emakume gazteak:** kolektibo honekin bi talde aurreikusi ziren, baina bakarra osatu da, 16 eta 26 urte arteko emakumeekin.
- **3. taldea, emakume liderrak:** 26 eta 60 urte arteko emakumeak, kolektibo edo antolatutako taldeetako kideak.
- **4. taldea, gizon konplizeak:** 26 eta 60 urte arteko gizonak, kolektibo edo antolatutako taldeetako kideak.
- **5. taldea, emakume adinekoak:** 65 urtetik gorako emakumeak.
- **6. taldea, gizon adinekoak:** 65 urtetik gorako gizonak.

Ondoren, eztabaida-talde horietatik ateratako ideia orokorrak aurkeztuko ditugu.

Berdintasunaren gaineko hautematea...

... Edo berdintasunik ezaren gainekoa

Emakume eta gizonen arteko berdintasunik ezaren identifikazioa nahiko altua da basauriarren artean, Estatu-mailan zein EAEn egindako ikerketen datu ofizialekin bat eginez. Iritzi publikoaren diskurtso orokorra berdintasun eza horien aurkakoa da, eta indarkeria matxista erabat ukatzen du. Ordea, ukatze orokor hori existitzen den arren, jarrera-mota batzuk aztertzean ikusten da nola, oraindik ere, herritarren zati handi batek indarkeria hori baimentzen duten jarrera batzuk onartzen dituen: bikotekoa kontrolatzeko jarrerak, emakumeen balioa gutxitzeak, zelok maitasun frogaz bezala, etab.

Basauriarrek erabat ukatzen dute, baina jarrera horiek aztertzean, beste behin ere, gaiaren konplexutasuna erakusten dizkiguten iritzi eta jarrerak agertzen dira.

«Piropo berdina bi emakumei botatzean kaletik, batek oso gaizki hartzen du eta bestea pozik doa etxera. Orduan, ez da ezezkoa guztientzat. Gauza batzuk ez dira berdintasun eza hain argiak. Esan digute piropoa txarra dela. Piropoa ezabatu egin dute»

Emakume gazteen taldea (2)

«Piopoa emakume batek zein gizon batek bota dezake. Muga, norberak bizi duen unea da: zein unetan esaten dizuten, nola esaten dizuten, nor zaren, zure gustuak, fetitxeak zein diren, eta zuk izan ditzakezun gauzak»
Emakume gazteen taldea (2)

Bestalde, hasiera batean berdintasunik eza gehien hautematen dituzten eremuak lan-merkatua eta etxean dagoen ardura-banaketa falta dira. Eremu horiek dira, era berean, berdintasunik eza haute-mateari buruzko beste ikerketa batzuetan gehien aipatzen direnak.

«Emakumeok gara, oraindik ere, lan prekario gehien ditugunak, zain-tza-lanak ditugunak, garbiketa lanak, osoak ez diren jardunaldietan lan egiten dugunak, elkarrizketa batera goazenean ama izango garen galde-tzen digutenak, ama izatean jardunaldiak murrizten jarraitzen dugunak»
Emakume liderren taldea

Indarkeriari eta gizon eta emakumeen arteko harremani dagokienean, eztabaida gehiago sortzen duten gaiak daude, hala nola, sare sozialen bidezko kontrola, non herritarrek orokorrean ez duten genero ikuspegitik egindako analisirik egiten. Berez, errealitate hori indarkeriarik gabeko harreman askeak sustatzeko oinarritzko arazo bat bezala identifikatzen dute, baina ez dute emakumeak zaur-garritasun-egoera handiago batean daudelako egitura errealitate bat bezala ikusten:

«Badira gizonak bezain matxista diren emakumeak, eta mutilek egiten dutena bezalako kontrola egiten dute Whatsappen edo sare sozialetan. Kasu horretan berdina da, ez dago alderik»
Emakume gazteen taldea (1)

Parekidea ez den gizarte batean bizi gara, eta, hori dela eta, emakume eta gizonen artean sortzen ditugun harremanak ere parekideak ez direlako analisi falta dago. Hori dela eta, dinamizatzailleek behin baino gehiagotan hartu behar izan dute parte, jarrera horiek sortzen diren oinarri estrukturalak azaltzeko. Sare sozialetako kontrolaren kasuan, dinamizatzailleek azpimarratu dute aldea badagoe-la, «kontrola nondik ematen den», eta hori azaltzea garrantzitsua dela: neskek segurtasun ezagatik egiten dutela, eta mutilek, berriz, jabetza pentsamendutik abiatuta.

«Normaltasun osoz partekatzen dira Whatsapp taldeetan emakumeak apaltzen dituzten edukiak, etengabe. Abestiek ere, indarkeria bidezko-tzen duten mezuak ematen dituzte (...). Egia da atzerapena antzematen dugula, neska nerabeengan jarrera sexistak ikusten ditugulako, beren mutilen mugikorra begiratzeko, adibidez»
Gizon konplizeen taldea

Hasiera batean talde guztietako parte-hartzaileen lehenengo ekarpena izan da gizartea aldatu dela, eta parekideagoa den eredu baterantzko aurrerapausoak eman ditugula;ordea, gehien-gehienek, berdintasunik eza horri eusten dioten oinarri estrukturalak ere identifikatu dituzte.

«Hau ez doa behar lukeen moduan. Lege asko egiten dira, lantaldeak, hezkuntzan nerabeekin berdintasun programak lantzen dira (orain ume txikiekin ere hasi dira lanean), baina, nire ustez, beren burua zurrizteko bakarrik da, gero ez baitute gizartean eragiten»
Emakume liderren taldea

«Prekarietateak emakume izen eta aurpegia du». «Azken hamarkadetan emakumeek aurrera egin dute, baina ez da parekidetasun-maila handi-agoa lortu. Berdintasunik eza orok indarkeria indartzen laguntzen du. Azken urteetako datuek erakutsi digute ez dugula errealitate hori gaindi-tu, ez dela gure aurrekoen gauza. Gazteen arteko datuak kezkarriak dira. Guztiok ditugu jarrera matxistak, barneratu ditugunak eta batzuetan ateratzen direnak (...). Desberdintasun ekonomikoak guztiz baldintzatzen du parekideagoa den mundu baterantz aurrera egiteak»
Gizon konplizeen taldeko hainbat testigantza

Adineko pertsonen kasuan, irakurketa positiboagoa da, batez ere gizonen artean. .

«Lehen diskriminatuago zegoen emakumea; ezin da ukatu asko aurreratu dela hezkuntzaren gaian. Lehen, emakumeak ez ziren unibertsitatetara joaten ez ezer». «Bai, ezberdintasunak daude neska eta mutilen hezkuntzan. Lehen eskolak ezberdinak ziren neska eta mutilentzat». «Emakumeak etxean egon behar zuen —egon zitekeena—, eta, bestela, sorora joan behar zuen, gizona bezalaxe». «Lehen argiago ikusten ziren etxeko berdintasunik ezak, baita umeen artekoak ere: neskek garbiketa lanak egiten zituzten, adibidez, eta mutilek lan “fisikoagoak”». «Gizonek, orain, emakumeek bezainbeste edo gehiago egiten dute etxean»

Gizon konplizeen taldeko hainbat testigantza

Izan ere, gizartearen arazo larri horren hautemateak, gure erronka handienetako bat izaten jarraitzen du, gaur egun ere. **“Actitudes de la población ante la violencia de género en España”**²¹ txostenak islatzen du gaur egun, oraindik, gai horrek duen kontzientzia sozial falta. Izan ere, oraindik normalizat ditugun jarrera larriak erakusten ditu txostenak, herritarrok, oraindik ere, bidezkotzen ditugunak, ez ditugunak ikusten indarkeria matxistaren adierazpen gisa.

Taldeetan egiaztatu ahal izan dugu adierazitako txostenak aipatzen duen hipotesia bete egiten dela, hau da, gaiari zuzenean ekiteak beldurra ematen duela eta, ondorioz, sentimenduak, pentsamenduak eta parte-hartzaileen bizipenak ere adieraztea blokeatzen duela; horren eraginez, politikoki egokiak diren iritziak bakarrik lortzeko arriskua dago. Beraz, egiaztatu ahal izan dugu ezinbestekoa dela errealitate hori herritarrek zeharkako gaien gainean duten hautematearen analisitik jorratzea, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan pertsonen benetako iritzia, ezagutza eta jarrerari buruzko informazioa lortzeko. Zentzu horretan, parte-hartzaile gehienek zailtasunak dituzte gizon eta emakumeen arteko berdintasunik ezaren eta indarkeria matxistaren arteko lotura egiteko.

«Ez da eman guk uste dugun aldaketa: orokorrean, gizonak jaun eta jabe izaten jarraitzen du. Kalean parekidetasuna areagotu dela ikus badaiteke ere, etxe barruan egoerak antzekoa izaten jarraitzen du. Emakume askok gehiegi jasaten dute. Nik? Nire kasuan, ez daukat arazorik. Lasai nabil etxean zein kalean. Badago emakume asko etxean bakarrik egotearen beldur ere badirenak, eta ez dut ulertzen, ni alarguna naiz eta ez naiz beldur»

Adineko emakumeen taldea

«Ni ez naiz diskriminatua sentitu; uste dut oso ahaldunduta nagoela, eta badakidala noiz esan behar dudan gauza bata ala bestea»

Emakume gazteen taldea (2)

«Gauza hauek hain sartuta ditugunez, uste dugu gurasoak, edo gu geu, aita-ama garenean, feministenak garela; baina nahi gabe, inkontzienteki, rol batzuk markatzen ditugu, gizarte patriarkal batean gaudelako»

Emakume gazteen taldea (2)

Eusko Jaurlaritzak duela gutxi egindako beste ikerketa batek ere, **“Emakumeen aurkako indarkeria Euskadin: herritarren pertzepzio eta iritziak ” (2015)**, agerian jarri du kontzientzia- eta informazio-falta hori, EAĒko indarkeria matxistaren errealitateari dagokionez. Emaitzek, gainera, islatzen dute indarkeria matxista edo berdintasunik ezaren tasa handiagoak klase baxuagoei, alkoholaren kontsumoari edo krisi edo estres uneei lotzea bezalako mitoak hor daudela, oraindik ere. Basaurin aztertutako eztabaida-talde ezberdinen diskurtsoan ere hala izan da.

²¹ Osasun, Gizarte-politika eta Berdintasun Ministerioa (2011): Actitudes de la población ante la violencia de género en España, IOE kolektiboak egindakoa.

«Nik, askotan, buruan zer bait dutela pentsatzen dut. Hori egiteko burutik jota egon behar duzu»

Adineko emakumeen taldea

«Emakumea intelektualki gizona bezalako edo gehiago denetik erresistentzia agertu du gizonak. Emaiozu diktadore bati jende jakintsua: harentzat, zenbat eta ez jakin gehiago, hobe. Indarkeriarekin gauza bera gertatzen da»

Adineko gizonen taldea

«Badakit topiko bat ematen duela, baina, alabarekin noanean, eta berak kontatu dizkidan gauzengatik, magrebtarrekin arazo gehiago izan ditu; beltzekin, aldiz, ez. Hori komentatu nahi nuen»

Gizon konplizeen taldea

«Nire pisura errumaniar batzuk etorri dira eta, duela hilabete batzuk, unitik bueltan igogailua itxaroten nengoela, batek heldu, eta esan zidan: “zuk eta biok elkar ikusiko dugu”. Baina ez naiz beldurtuko, beldurra-ekin bizitzea ere...»

Emakume gazteen taldea (1)

Estatu mailan ere, aurretik adierazitako **“Actitudes de la población ante la violencia de género en España”**²² txostenean hipotesi hori egiaztatzen da, eta emakumeen aurkako indarkeria, batez ere, atzerritarrei egozten zaie, agindu eta sinesmen kultural eta erlijiosoak aipatuz.

Izan ere, etnozentrismoak, askotan, eragiten du erraztasun handiagoz identifikatzea berdintasunik ezak sortzen dituzten eragile sozializatzaileak gurea ez bezalakoak diren kulturetan. Horren adibide bat da musika (talde guztietan agertu da). Parte-hartzaileak bat datoz: reggaeton musika gaur egun berdintasunik eza eta indarkeria matxista areagotzen eta erreproduzitzen duen bide bat bezala hautematen dute.

«Reggaeton bezalako abestiek indarkeria pizten dute». «Nik reggaeton entzutean harritzen naiz... nola izan daiteke legala hori entzutea?»

Gizon konplizeen taldea

Kasu batzuetan bakarrik, batez ere neska gazteek edo gizarte antolakundeei lotutako emakumeek identifikatzen dituzte matxista bezala beste musika mota batzuk. Gehien aipatutakoa pop musika da, euren ustez:

«Maitasun erromantikoaren ideiak indartzen dituzte: zu gabe ez naiz ezer, zu ezagutzeko irrikaz nago, nire bizitza bera baino gehiago maite zaitut... eta, hori, harreman posesiboen oinarri da... regaettonaren berdina edo okerragoa da»

Emakume gazteen taldea (1)

«Reggaeton musika, badakizu, behintzat, zeri buruzkoa den. Neska gazteek badakite mezu horiek matxista direla. Nire ilobak halaxe esaten dit, baina gustuko dute dantzatzea. Berak dio letra ez entzuteko. Arazoa letrak dira... ezkutuagoak, matxista bezala identifikatzeko zailagoak»

Emakume liderren taldea

«Egia da reggaetonak hitz egiteko ematen digula, baina, duela urte batzuetako letrak aztertzen baditugu, abesti herrikoienak... Emakumeei ez diote mesede handirik egiten»

Gizon konplizeen taldea

²² Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa (2011): Actitudes de la población ante la violencia de género en España, IOE kolektiboak egindakoa.

Beraz, ez da harritzekoa basauriarren artean indarkeria matxista gizarte-klase, etnia edo adin-estereotipoekin lotzen dituzten mito horiek indartzea. Mugimendu sozial, sindikal, politiko edo antzekoei lotutako pertsonak, hasiera batean, kritikarako gaitasun handiagoa erakusten badute ere, asko dira estereotipoen mende egon, eta diskurtso orokorra ezabatzeko zailtasunak dituztenak. Gainera, orokorrean, ardura emakumei egozten zaie, gizonei baino.

«Ez dakit esaten... Badakit berdintasunaren inguruan gertatzen den guztia lotuta dagoela, baina badago puntu bat, non onartezina den jauzi bat eman den»

Gizon konplizeen taldea

«Gero eta heziago, indarkeria matxista kasu gutxiago egon beharko lirarteke. Emakumea hezia bada, zergatik hori onartzen jarraitu?»

Adineko gizonen taldea

«Genero indarkeriari dagokionez, uste nuen nire herrialdean bakarrik ematen zen gauza bat zela (Marokon), baina mundu osoan ematen den arazoa dela ikusten ari naiz, herrialdeen arteko aldea badago ere»

Emakume liderren taldea

Indarkeria matxista kanpoko zerbait bezala identifikatzen da, eta, kasu gehienetan, hirugarren pertsonan aipatzen da, bikotearen edo bikote ohiaren markoaren barruan ematen den gauza bat bezala. Eta, beste behin, intentsitate handiagoarekin ebaluatzen da emakumeen jarrera, gizonen baino.

«Duela ez hainbeste bizi izan den tratu txarrean fijatu. Zuri amak ez zizun 12 urterekin esan eskola uzteko josten ikastera joateko. Orain aukera gehiago ditugu; agian zuk gutxiago kobratuko duzu eta horregatik borrokatu beharko duzu, baina argiago ikusten duzu emakume batzuek jasaten duten indarkeria»

Emakume gazteen taldea (2)

«Esaten dute emakumeek, lehen, gehiago agoantatzen zutela, tokatzen zitzaielako, lanik ez zutelako eta "ondo" bizitzen jarraitzeko agoantatu behar zutelako; "orain hori ez da gertatzen». «Zergatik dago neska bat mutil batekin, hark tratu txarrak ematen dituela ikusita ere?». «Zergatik emakume askok agoantatzen dute hainbeste denbora?». «Ez dudana ulertzen da 50 urte irautea»

Varios testimonios del grupo de mujeres Maiatzares

Baina gaian sakondu, eta eguneroko egoerak planteatu ahala, gora doaz gogoetarako eta hautemateko gaitasuna. Horrek egiaztatzen du, berriro ere, hipotesi orokor gisa, gai hau jorratu behar dela indarkeria matxista zer den jorratzen duen eztabaidatik, eta indarkeria egituratzen eta errepikatzen duen haritik. Hau da: garrantzitsua da konfiantza-eremu bat sortzea, diskurtso orokorra deseraiki eta desmitifikatzeko.

«Tontakeriekin hasten da kontua, txisteekin; diskriminatzen duten txisteak dira, ordea. Eguneroko gauza txikiek, ziurrenik, ematen diegun baino garrantzi handiagoa dute»

Adineko gizonen taldea

«Erasoa sentitzen naiz iruzkinekin, kartelekin, abestiekin, irudiekin, txisteekin, hilketa bat dagoenean ezer egiten ez duten politikarien kontzentrazioa ikustean... Erasoa? Etengabe! Askotan betaurrekoak kentzen ditugu atseden hartzeko, baina egia da ikasi behar dugula egunero eraso horiekin bizirauten»

Emakume liderren taldea

Aipatu dugun bezala, horrek, beste behin ere, agerian uzten du datu errealak lortzeko, eta pertsonak indarkeriari lotutako beren bizipenei eta hautematei buruz zintzotasunez hitz egiteko konfiantza-guneak

sortzeko dauden zailtasunak. Beste ikerketa batzuetan²³ adierazi den bezalaxe, hori indarkeriarekin, emakumeei errua botatzearekin eta laguntza- eta ulermen-faltarekin lotutako elementuak adierazteko ahalegina zapaltzen duen gizarte-presioarekin lotuta egon daiteke. Kontuan izan behar dugu, beraz, errealitate horrek, datu ofizialek adierazten dutena baino askoz gehiago barne hartzen duela.

Zorionez, basauriarrekin egindako prozesu guztietako ondorioak ez dira ezkorrak. Taldeetan sortutako kontraesan edo eztabaidez gain, gehienek indarkeria matxistaren aurkako jarrera dute. Benetako arazo bat bezala ikusten dute, gure gizartean egunero ematen dena; uste dute ez dela iraganaren hondakin bat, garrantzia kendu edo bidezkotu egin daitekeena. Pentsatu daitekeenaren kontra, fenomenoak ez da murriztu; aitzitik, gora doa.

«Eskubide horiek lortzeko eskubide edo aukera berdinak ez izatea, hori indarkeria da. Lan bat ezin topatzea, edertasun ikonoak (...). Arazo oso larria daukagu, ez baititugu indarkeria gisa identifikatzen hazten doazen gauza oso larriak, gauza txikietatik datozenak eta indarkeria zuzena bihurtzen direnak»

Gizon konplizeen taldea

«Harrigarria da zenbat kasu dauden (indarkeria matxista kasuak). Ez dakit orain gehiago azalaratzen diren eta lehen ez ginen enteratzen, edo benetan lehen baino gehiago dauden». «Gehiago azalaratzeak eta hainbeste salatzeak, gizonak matxinatu eta kasu gehiago egotea sor dezake»

Adineko emakumeen taldea

... Espazioen erabilerari dagokionean

Garrantzitsua da espazio publikoetako segurtasunarekin lotutako gaiak ikuspegi feministatik aztertzea, emakumeen aurkako indarkeriaren arazoa testuinguru global batean jartzeko. EAEn galdetutako pertsonetatik, hamarretik bederatzik bere ingurua segurua edo nahiko segurua dela ikusten dute; emakumeen % 31k dio gauean bakarrik ibiltzean segurtasun gutxi edo segurtasunik ez duela, eta ehuneko horrek gizonena bikoiztu baino gehiago egiten du. Sexuen arteko alde hori bereziki nabarrena da gazteen artean²⁴.

Nazioarteko mailako erakundeek aldarrikatu dute emakumeek hiri seguruetan bizitzeko duten eskubidea, eta hiri seguruak eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabekoak lortzera bideratutako programa ezberdinak abiarazi dituzte. Genero-ikuspegiak eta emakumeen parte-hartze aktiboak bakarrik egingo dute posible errealitate-aniztasunari egokitutako hiri bat, behar ezberdinak ikusten dituen. Basauriren kasuan, asko dira irisgarritasuna hobetzeko eta emakumeen mugimendu-askatasuna eta espazioaren okupazioa errazteko egindako ekimenak. Horien artean, Hiri Debekatuaren Mapa²⁵ proiektua azpimarratu behar da, «gazteek gauean segurtasuna sentitzen ez duten puntu eta ibilbideak identifikatzea» helburu zuena, «egunerokotasunean eragina duten gure hiriak eraikitze modua agerian utziz. Ikusgarritasuna, etxebizitzak gertu egotea edo erraztasunez orientatzeko aukera, gure herriko edozein puntutan segurtasun gehiago edo gutxiago sentiarazten dituzten faktoreak dira»

Mugikortasuna eta askatasuna murrizten duten espazio ez seguruak identifikatzea eta horiek aldatzea, hiri handietako hirigintza-planetan bete beharreko helburua da zalantzarik gabe, baina baita emakume eta gizonen beharrei egokitzeko eta berrikusteko beharra duten eremu ez seguruak dituzten udalherri txikietan ere. Premisa horri jarraiki, Planeamendu Batzordean parte hartu zuten Basauriko Berdintasun Kontseiluko elkarteek 2015ean, hirigintza-politikan genero-ikuspegia txertatzen zela bermatzeko.

²³ Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa (2011): Actitudes de la población ante la violencia de género en España, IOE kolektiboak egindakoa.

²⁴ Eusko Jaurlaritzaren, Herrizaingo, Justizia eta Herri-administrazio Saila: Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEN: pertzepzioa, eragina eta segurtasuna. Vitoria-Gasteiz (2012).

²⁵ Basauriko Udaleko Berdintasun Atala: Emakumeentzako Hiri Debekatuaren Mapa. Emakume gazteekin parte-hartze esperientzia. Basauri (2002ko maiatza).

Eztabaida-taldeetan ekiditen diren lekuen eta emakumeen mugikortasuna mugatzen duten gaia atera da. Populazio-dentsitate baxua duten auzoetan, jende gutxi dauden eremuetan edo argiztapen gutxi duten espazioetan, emakumeek beren ibilbideak mugatzen dituzte, batez ere gaez, erasoak izatearen beldur. Baina, batez ere, espazio publikoaren erabileraz hitz egiten dugunean, mezuak nora zuzentzen diren aipatu da. Iritzi publikoak eta diskurtso orokorrak etengabe ari dira emakumeengana mezuak bidaltzen, eta beren mugikortasuna eta askatasuna mugatzen dute. Emakume askok hautematen dute ardura-maila altua helarazten zaiela, mehatxugarriak diren eremuetatik igarotzean.

«Ateratzen dena semea denean ez da beldurrik izaten, eta bere lagunari (neskari) etxeraino laguntzeko eskatzen zaio, bakarrik ez uzteko, etab. Baina alaba denean ateratzen dena, beldurra dago, babesten irakatsi behar zaie. Ordea, kalea beraiena ere badela erakutsi behar zaie, mutilena bezainbatean. Zoritxarrez, hori ez da errealia. Gazteei ez erasotzen ere irakatsi behar zaie...»

Emakume liderren taldea

«Nik uste neskei ematen zaizkigun mezuak direla... Esan nahi dut gurasoengandik datorrela pixka bat. Nire kasuan, adibidez, alaba bakarra naiz, eta, gau horretan aterako naizela esaten dudanean, nola itzuliko naizen galdetzen didate, norbaitekin itzuliko naizen, bakarrik ez itzultzeko esaten didate, taxi bat hartzeko, etxeraino laguntzeko... Bestela nire bila etorriko direla esaten didate. Beldurra eragiten dute»

Grupo mujeres jóvenes, (1)

Segurtasunik eza sortzen dute, bereziki, argitasun gutxiko lekuek, hiri-hornigarri eta jende gutxi dauden lekuak (ataripeak, eskailerak, tunelak, bazterrak), edukiontzien arteko espazioak, atariak, izkinak, eskailerak, tunelak, ataripeak, lur azpiko bideak, etab. Horiekin batera, segurtasunik eza eragiten dute balizko eraso bat ematen bada, inork entzungo ez duen leku bat, eremu berdeak edo udalerrien arteko igarobideak (batez ere landa eremuetan)²⁶. Ondorio horiek diagnosi honetan sortutako eztabaida-taldean analititik ateratakoen antzekoak dira; gazteenek eta nagusienek bat datoz diskurtsoan, baina bizipen ezberdin batetik.

«Normalean, seme bati edo alaba bati ematen zaion tratua ezberdina da, kontzienteki edo inkontzienteki, baina ezberdina da. Nik mutiko bati ematen nion klase, eta bere aitak esaten zuen bere alabari ez ziola ateratzen utziko nagusiagoa zenean, baina ez zuen berdina esaten bere semeari buruz. Ez da bidezkoa, ni librea naiz». «Etxean ikasi dezakegunaz gain, kontatzen dizkiguten gauzek edo egunerokoan ikusten ditugunek eragina dute neskek gaez dugun beldurrean». «Ez zait gertatu, baina edozein egunetan gertatu daiteke»... «Eta, gainera, gertatzen bazaizu, inork ez zaitu lagunduko. Beste egunean, nire gelako neska batek kontatu zidan bere ahizpa, Alde Zaharrea bertan, egun arrunt batean, goizeko ordu batean, kalean jende asko zegoela, hiru mutilen artean paretaren kontra jarri zutela, bera oihuka hasi zela, eta inor ez zela ezer esateko gai izan»

Emakume gazteen taldeko hainbat testigantza

«Egia da tratua ezberdina ematen diegula semeari eta alabari. Gainera, zerbait gertatzen denean, neskegan jartzen dugu ardura, nolabait. "Non sartu zara!". Barneratua daukagu emakumeak gizona baino laguntza gehiago behar duela, horrela izan ez arren; ohikoa dela ulertzen da»

Gizon konplizeen taldea

²⁶ Basauriko Udaleko Berdintasun Atala: Emakumeentzako Hiri Debekatuaren Mapa. Emakume gazteekin parte-hartze esperientzia. Basauri (2002ko maiatza) https://www.diba.cat/c/document_library/get_file?uuid=bf40de55-40fd-4ad3-9ecd-97895a7a801b&groupId=7294824

Zentzu horretan, kritika orokortuenetako bat da espazioen erabilera librearen gainean emakumeek onartzen duten gizartearen mezuengana. Hona hemen adibide zehatz batzuk:

«Gauaren gaia jorratzen denean, neskak eta mutilak ateratzen direnean, prebentziorako irizpide desberdinak ematen zaizkie. Haiek izan ditzaketan beldurrak ere desberdinak dira, baina ondorioengatik, hau da, emakumeak bortxatuak izan daitezke eta haurdun geratu daitezke... Hori, nola ekidin? Ba, adibidez, kuadrillan egonda»

Adineko gizonen taldea

«Ematen du emakumeak gabela indarkeriaren biktima izatearen arduradunak. Kanpainak ere guregana zuzentzen dira, ia inoiz ez da egiten gizonentzako ezer. Adibidez: "aizue, eta bortxatzen ez bagaituzue?". Uste dut Ministerioa izan zela horrelako gauza bat atera zuena: "ez itzuli etxera bakarrik; parking baten barruan kotxean sartu aurretik, bi aldetara begiratu; etxean argia piztuta utzi, jendea dagoela pentsarazteko; ez jarri zure izena bakarrik postontzian, bakarrik bizi bazara..." niretzat irain bat izan zen»

Emakume gazteen taldea (1)

Diskurtso horren aurka, teoria feministak emakumeen autonomia eta askatasuna errazten dituzten praktika alternatiboak sortu ditu, baita egunerokotasunean ezar daitezkeen autodefentsaren berezko erremintak garatu ere. Erasoak identifikatzera zuzendutzen dira, eta indarkeriaren jatorria eta eraikuntza eremu guztietan aztertzen, baita haren ondorioak ere. Autodefentsa feminista, beraz, emakumeak ahalduzko erreminta bat bezala ulertu behar da, sendabide bat bezala, biktima pasiboaren mitoa deseraiki nahi duena eta emakumea eragile aktibo bihurtzeko igarobidean lagundu nahi duena.

... Ezartzen ditugun harremanen gainean

Maitasun erromantikoaren ereduaganako jarrera kritiko bat existitzen da, baina, kasu askotan, eredu horri eusten dioten diskurtsoak ematen dira, eta emakumea berdintasunik eza egoera batean kokatzen da. Gai horri dagokionez, aldatu egiten da belaunaldien arteko diskurtsoa. Emakume adinekoagoen kasuan, familia nuklearraren ereduaren, sexualitatearen, ezkontzen... Kritika ahobatezkoa da, horien gaineko eztabaidak dauden arren. Ez dute beraiek bizi izan dutena bere ilobek bizitzea nahi, eta emakumeek aske bizitzeko duten eskubidearen defentsa egiten dute, baina zehaztean, emakumeak epaitzen dituzten topikoetan erortzen dira askotan, hau da, indarkeriaren kultura indartzen duten genero-rolak eta estereotipoak mantentzen dira.

«Orain askeagoak dira (emakumeak). Nik, berriz ere 15 urte izango banitu, egin ez ditudan gauzak egingo nituzke». «Orain gehiago disfrutatu dezakete, ez dira ezkontzen ezagutzen duten lehenengo gizonarekin». «Nik ilobari esaten diot disfrutatzeke, baina lasai ibiltzeko, eta asteburu-ro gizon ezberdin batekin ez ibiltzeko». «Ez zait gustatzen gauero gizon ezberdin batekin egoten direnean. Gauza bat gauza bat da, eta bestea, beste bat». «Gizonena ezberdina da, barruan daramate»

Adineko emakumeen taldea

«Rolak aldatu behar direla esaten dugu, baina, aldatzen direnean, alarma pizten da. Ni mutil batengana joan, eta nitaz paso egiten badu, eta beste batengana eta beste batengana banao... epaitu egiten naute. Araitik ateratzeak ondorio negatiboak ditu»

Emakume gazteen taldea (2)

Zoritxarrez, kasu batzuetan «zelok maitasunaren adierazpen bat» direla bezalako mezuak igarotzen dira belaunaldi batetik bestera. Halaxe adierazi dute aholku hori sarri edo askotan entzun dutenen nesken ehunekoa % 35,8 dela, eta mutilenena % 36,8 dela esaten duten ikerketa ezberdinek. La lau nerabetik hiruk (% 73,3), sexu batekoak zein besteak, heldu batengandik jaso dute aholku hori.

Gainera, beldurra ematen du hiru gaztetatik batek, kontrol-jarrerak genero indarkeriarekin²⁷ ez identifikatzeak, hasiera batean diskurtso ofizialean kontrol-mekanismoak positiboak ez direla adierazi arren.

«Emakumeok tontoak garelako, amodioagatik eta beldurragatik agoantzen dugu (tratu txarra). Askotan ere jendeak esango duenagatik, tratu txarrak jaso dituen emakume bat izateak sortzen digun lotsagatik. Maitasunak min ematen du»

Adineko emakumeen taldea

Neska gazteenak kritikoagoak dira gizarteak ematen dizkien mezuekin, eta berdintasunik eza horien egiturak identifikatzeko gai dira, baina diskurtso orokorretik aldentzeko zailtasunak dituzte. Gainera, hirugarren pertsona hitz egiten dute indarkeria matxistaren gainean, beren bizitzatik at dagoen gauza bat izango balitz bezala.

«Zeloek kontrola islatzen dute». «Eta jabetza». «Eta konfiantza eza»

Emakume gazteen taldea (1)

«Zeloak bidezkotuak badaude, eta zure bikotea beste batekin ikusten baduzu... Gaizki pasatzen duzu»

Emakume gazteen taldea (2)

Baina noizbait jeloskor egon diren galdetzen diegunean, eztabaida zabaltzen da, eta, modu batean, denek aitortzen dute zeloek sortutako egoera deserosoak bizi izan dituztela. Denek azpimarratu dute, askotan, inguruak berak sartutako beldurrekin zerikusia dutela:

«Nik ez ditut sentitu. Egia da egoera zailak daudela, baina besterik gabe. Gainera, uste dut zeloak, adierazi ala ez, beti direla negatiboak. Adierazten ez baduzu ere, uneren baten eztanda egingo dute». «Ni oso egoera zehatzetan, eta nire muturren aurrean ikusten ari banaiz». «Baina inbidia-aren kontuarekin, zure mutil-laguna beste batekin hitz egiten ikusten baduzu eta, gainera, polita dela uste baduzu, segurtasun eza eta, agian, inbidia emango dizu». «Gainera, ni parrandan nagoenean eta nire mutil-laguna ere hortik badago, bere laguna etortzen zait esatera begiratzeko, nire mutila neska batekin hitz egiten dagoela. Bere laguna. Edo alderantziz, etortzea eta esatea beste batekin hitz egiten dudanean nire mutil-laguna izorratzen dudala»

Emakume gazteen taldeko hainbat testigantzas

Egindako taldeetan, neska gazteek maitasun erromantikoaren ideia sustatzen duten mezuak identifikatzen dituzte gizarteetan, bai gertuko inguruetatik, baita gizarteratze eragile ezberdinengandik ere. Gazteek egindako taldeetan adierazi duten bezala:

«“Harremanak izateko modu asko dago, baina, azkenean, denok daukagu harreman mota berdina: normalena. Hitzak berak adierazten du: normala “norma”tik dator (araua), hau da, normala izatea araua dela esaten ari zara»

«Eta neska askok esaten dute, mutil babesleak gustatzen zaizkiela; haiek defenditzen dituztenak», «Izan ere, nolako mutilak gustatzen zaizkigu orokorrean? Indartsuak, gu baino altuagoak, gu babesteko»

«Nik uste hor ere gizartea sartzen dela. Hau da, une oro bikote bat izateko beharra»

²⁷ Eusko Jaurlaritzak (2015): Emakumeen aurkako indarkeria Euskadin: pertzepzioa eta herritarren iritzia.

«Herrian ere komentatu nuen, aurten Kroaziara joango nintzela nire lagunekin, eta galdetu zidaten ea nire mutil-laguna ere etorriko zen. Ez dugu zertan gure lagunekin egoteari utzi, bikotekoa izateagatik»

Aldaketarako nolabaiteko joera ere identifikatzen dute, eta gero eta gizon eta emakume gehiagok, beren bizitzak, bikote-harreman heteroarautuari edo amatasunari baino, beste lehentasun batzuei egokitzen dizkiete.

«Nik uste joera horiek aldatzen ari direla. Inguruan ikusten dut, nire lagunengan, gutxi gorabehera adin berdina dugu denek. Aste honetan jakin dut lagun bat haurdun dagoela: 29 urte ditu, bikotekoa gazteagoa da, eta gainerakook aipatu dugu ez duela lanik. Eta denok esan dugu ama izan aurretik lana bilatu nahi dugula. Lehendabizi egonkortasun bat izan nahi dugu, bai ekonomikoa, baita bizitzekoa ere, eta, ondoren, hemendik urte batzuetara, nahi dudanean, eta nahi baldin badut, seme-alabak izango ditut». «Askotan galdetzen dizute, bikoterik ez baduzu, ea bakarrik egon nahi duzun. Eta ez gaude bakarrik: Lagunak, familia, kideak...ditugu, bakarrik egotea beste gauza bat da. Zure lagunekin parrandan zaudenean eta mutil bat gerturatu eta “zer zabiltzate hemen bakarrik?” galdetzen duenean bezala. Ni barrez hasten naiz. Bakarrik zaudena zu zara!»

Grupo mujeres jóvenes

Horregatik guztiagatik, gehienek erotik jarduteko garrantzia azpimarratzen dute, komunikabideak eta familia bezalako sozializazio-eragileak aipatzen badira ere, bereziki azpimarratzen da erakundeak direla berdintasun-politika publiko eraginkorrek eta zeharkakoak bizitzako eremu guztietan planteatzerako orduan ardura zuzena dutenak.

«Nire ustez, berdintasunean aurrera egiten lagungarriak diren lege eta arauak egiten ari dira, baina horiek betetzen ditugu Legeak berak hala agintzen duelako, ez bertan islatzen garelako. Sinesten ez badugu, ezinezkoa da gauzak aldatzea. (...) Bestalde, egia da duela 40 urte ez genuela datu horiek lortzeko gaitasunik, ez genuen hainbeste informaziorik... Orain, datu eta gai horren gainean eztabaidatzeko testuinguru egokia daukagu»

Gizon konplizeen taldea

Baina, zehazki, hezkuntza jotzen da jarduteko eremu nagusitzat:

«Partxeak jar daitezke, denetatik jar daiteke, baina azpitik hasten ez garen bitartean, hezkuntzatik... Nik uste hori dela aldaketak emateko modu bakarra»

Emakume liderren taldea

«Ezagutzak helaraztea eskolan kokatzen dugu, eta garrantzitsua da hura aztertzea, estereotipo asko testu-liburuen, ipuinen, jolasen bidez eraikitzen direlako; askotan ez gara konturatzen eta errepikatu egiten ditugu, eta hori da gure ikasleek mamitzen dutena»

Gizon konplizeen taldea

Parte-hartzaileek komunikabideak bezalako eragile sozializataileenganako frustrazio handiagoa erakusten dute, horietan eragiteko zailtasunak direla eta.

«Albistegiek indarkeria matxista kasuen berri emateko duten modua tamalgarrria da, baita gaiaganako erakutsitako naturaltasun urria ere. Eta, zer esanik ez, publizitatean». «Ezin dut ulertu zergatik kazetari batek, irrastian, emakume talde batekin hitz egiten duenean, genero maskulinoa erabiltzen duen. Eta gizonak eta emakumeak daudenean, maskulinoa erabiltzen jarraitzen da»

Emakume liderren taldeko hainbat testigantza

«Telebistan, publizitatean eta komunikabide gehienetan, emakumeen gorputzaren sexualizazioa, senar bat edota bere ondoan gizon bat izatea besterik nahi ez duen neska polita... Horrek guztiak zaildu egiten du berdintasunaren bidea. Neskei gehiago exijitzen zaie mutilei baino»

Gizon konplizeen taldea

Familia sozializatzeke beste eragiletako bat da zeharka, eztabaidetan, askotan agertzen dena. Belaunaldien arteko ardura azpimarratzen da, baldintza ezberdinetan hezten duten rol eta estereotipoak ez errepikatzeke.

«Nik nola pentsatzen dudana, eta aitak edo aitonak nola pentsatzen zuten ikusten dut, eta diskurtsoa bestelakoa da. Aldatu da, baina oraindik asko dago hobetzeko»

Gizon konplizeen taldea

«Badakit etxean edo lagunek ematen dizkiguten mezuak ez direla inguruko mutilei ematen dizkieten berdinak»

Emakume gazteen taldea (2)

Zentzu horretan, tokiko eremuan, EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planak emakumeenganako indarkeria-jarduera zehatzeko hiru ardatzetako bat bezala jotzen du, eta adierazten du «esanahi berezia» duela «jarduera mota hauek biztanle gazteengana zuzentzea, genero rola eta estereotipoak argitu, gogoeta egin eta aldatzeko, harreman berdinoak ezartzeko eta indarkeria mota ezberdinak hasieratik identifikatzeko»²⁸. Ez bakarrik arazoa borrokatzeke aukera eta berau errepikatzea ekidingo duelako, baita ere ez dagoelako daturik uste ahal izateko arazoaren eraginak, adinarekin, behera egingo duela.

Belaunaldi berrien egoera eta, bereziki, gazteena, herritarrek orokorrean arazo horri ekitean planteatzen duten oztopoetako bat da.

«Gauza asko hitz egin ditzakegu, baina belaunaldi honetako neskek, libre izan behar liratekeenak, gizona bere lekuan jartzeko gaitasunarekin, gauza hauek onartzen jarraitzen badute, ezin dugu ezer egin»

Gizon konplizeen taldea

«70eko eta 80ko hamarkadetan askoz indartsuagoa zen emakumeen mugimenduaren borroka, eta, nik uste, egungo gazteak konformistagoak direla, askatasunak emanda jaso dituztelako. Modu batean, uste dute parekidetasuna dagoeneko lortua dagoela, eta ez dute mugimendu feministaren aurrean erreakzionatzen. Gainera, berdintasunik eza, askotan, indarkeria fisikoarekin lotzen dute, eta ez dituzte zeharkako berdintasunik ezak edo diskriminazioak hautematen»

Emakume liderren taldea

Indarkeria matxistaren hautematea...

... Indarkeria matxista zer den

Adierazi dugun bezalaxe, herritarrek, orokorrean, erraztasunez identifikatzen dute indarkeria fisikoa (erresistentziari buruz, eta hura eragiten duten egiturazko arazoiei buruz adostasun falta dagoen arren); aitzitik, zailtasunak dituzte beste indarkeria mota batzuk identifikatzeko. EAEn, eraso fisikoak dira garrantzitsuenak eta larrienak (oso larria, %90entzat), eta beste indarkeria mota batzuei larritasun txikiagoa ematen zaie, hala nola: ahozko mehatxuak eta sakelako telefono bidezko kontrola oso

²⁸ Emakunde-Eusko Jaurlaritzak, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana EAEn (2012). 186. or.

larriak dira % 69rentzat; gizarte-harremanak mugatzea, % 63rentzat; eta erabakitze gaitasuna mugatzea, %60rentzat, besteak beste²⁹.

	Oso larria	Nahiko larria	Ez oso larria	Ez da tratatu txarra	ED/EE	EHUNEKO OSOA
Bere borondatearen aurkako sexu-harremanak	93 %	6 %	1 %	0 %	1 %	100 %
Etxetik ateratzeko debekua	79 %	16 %	3 %	1 %	1 %	100 %
Mehatxatzea	79 %	18 %	2 %	0 %	1 %	100 %
Gutxiestea	62 %	32 %	4 %	1 %	1 %	100 %
Erabaki propioak hartzen ez uztea	49 %	38 %	10 %	3 %	1 %	100 %
Iraintzea	45 %	39 %	12 %	3 %	1 %	100 %

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Euskal Gazteria 2012.

Gainera, estatu mailako hainbat ikerketek berretsi eta ondorioztatu dute indarkeria matxista gizarte-arazo larri bezala jotzeko ukapena existitzen dela, distantzia nabarian kokatuz³⁰.

EAE n berdintsuak dira emaitzak, Autonomia Erkidegoan dauden arazo nagusiei buruz herritarrek duten iritzia buruzko grafiko honek jasotzen duen bezalaxe:



²⁹ Eusko Jaurlaritza (2015): Emakumeen aurkako indarkeria Euskadin: pertzepzioa eta herritarren iritzia.

³⁰ Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa (2011): Actitudes de la población ante la violencia de género en España, IOE kolektiboak egindakoa.

Emakumeen aurkako indarkeriak 16. postua dauka lehentasunen taulan. Emaizta horrek berretsi egiten ditu politika publiko eraginkorrak ezartzeko zailtasunak.

Basaurin egindako eztabaida-taldeen kasuan, tamainako arazo bat bezala identifikatu da, baina, herritarren artean, indarkeria matxista zer den, eta haren egitura-oinarriak zeintzuk diren identifikatzeko zailtasunak agerian uzten dituen diskurtso orokorra dago.

«Orain neskak ere ipurdiak ukitzen doaz, mutilak bezala, eta haiek ere esaten dute “a zer mutil katxarroa” eta horrelakoak». «Lehen ez zen entzuten». «Edozein kasutan, neskek bularka hartzen dituzte piropoak; edukazioz esaten direnean ez dut uste eraso sentitu behar zarenik»

Adineko gizonen taldea

Hau da, kasu askotan, batez ere adin nagusiko pertsonengan —eta gazteen artean ere bai—, nahasketa handia dago berdintasuna eta indarkeria matxista zer den aipatzean. Gainera, kasu askotan, eta nagusien artean batez ere, indarkeria gizonek berezko duten zerbait bezala adierazten da, eta beren aldeko indarkeria-maila handienak kontu biologikoekin erlazionatzen dituzte.

«Piropoa emakume batek zein gizon batek bota dezake; muga, norbera dagoen unea da. Noiz esaten dizuten, nola esaten dizuten, zer-nolakoak zaren —zure gustuak—»

Emakume gazteen taldea (2)

«Indar kontua da: emakumeak indar berdina izango balu, erantzun, eta mina ere eman ahalko lioke». «Ezberdintasun fisiko kontua da: emakumeek eta gizonak ezaugarri fisiko berdinak izango balituzte, ez litzateke indarkeria matxista existituko»

Adineko emakumeen taldea

«Emakumeok gara indarkeria matxista eragiten dugun lehenengoak». «Ez diogu elkarri laguntzen, “zerri bat da” bezalako adierazpenak egiten ditugu»

Emakume gazteen taldea (1)

«Justizia ez da bidezkoa. Aprobetxatzen diren emakumeen kasuak ere badira, eta haiek bakarrik babesten dituzte, beti “irabazle” suertatzen dira. Batez ere, banantze- eta dibortzio-kasuez ari naiz». «Emakumea guztiarekin geratzen da, berea ez den etxearekin geratzen da». «Haurren zaintza emakumeari ematen diote, etab.»

Adineko gizonen taldea

«Emakumeok ere indarkeria psikologikoa praktikatzen dugu, baina hori gutxiago aipatzen da»

Adineko emakumeen taldea

«Emakumeek ere asko txikitu dezakete hitzekin, ez dira gizonak bakarrik tratu txarren emaile»

Adineko gizonen taldea

Pertsona guztiek indarkeria matxistari buruzko eztabaidak eta iritziak dituzten arren, kasu gehienetan hirugarren pertsonan hitz egiten dute, beren bizitzetatik at dagoen errealtate bat bezalakoxea da kontua. Horrek, beste ikerketa batzuetan errepikatzen den paradoxa aurkezten digu; talde guztietan ateratzen dira indarkeria kasuak edo eraso matxisten saiakera adibideak, lehenengo pertsonan ere kontatuak.

«Bere ikaskideak erasotzen dituen ume bereziki arazotsu bat dago, baina irakasleen edo ikastetxearen aldetik, oro har, ez dago erantzun errealik. Ez da analisi sakona egiten genero-ikuspegitik»

emakume liderren taldea

«Duela gutxi, larunbatean, Deustuko txosnetan mutil bat hurbildu, eta alde egiteko esan nion; txistua bota zidan aurpegira

Emakume gazteen taldea (1)

«Gau osoan sentitu dezakezun beldurra, edo zure etxera zoazenean edo edozein momentutan». «Niri etxera itzultzean gertatu zait. Ostiko bat eman, eta korrika egin nuen. Heldu nahi ninduen eta ez dakit nora joan nahi zuen. Baina ordutik ez dut berriro beldurrik izan, bakarrik joaten jarraitu dut». «Niri ere gertatu zait, metrotik atera eta gizon bat segika izatea. Jarraitzen hasi, korrika egin eta desagertzen dela ikusten duzu. Lanean ere, nik publiko aurrean lan egiten dut, tipo bat atean eta benga, benga, benga, eta udal leku batean, eta udaltzaingoiari deitu behar izatea»

Emakume gazteen taldeko hainbat testigantza (2)

Adineko emakumeen artean ere, indarkeria matxista kanpoko errealitate bat bezala planteatu arren, indarkeri hori jasateko aukera normaltasun handiarekin identifikatzen da.

«Guk zergatik egon behar dugu kaletik ibiltzearen beldur? Emakume nagusien bila ez doaz, baina egia da guri gehiago hurbiltzen zaizkigula, ahulagoak izango bagina bezala». «Nik emakume nagusiez abusatu zuen gizon baten kasua ezagutzen dut»

Adineko emakumeen taldea

Beraz, ondoriozta dezakegu hasiera batean indarkeria matxistaren arazoa emakumeetatik at dagoen errealitate bat bezala kokatzen bada ere, eztabaidatu eta hitz egin ondoren emakume zein gizonek gertuko kasuak identifikatzen dituztela.

«Tratu txarrak asko ezkututzen dira. Askotan, bai lehen, baita orain ere, indarkeria matxistaren kasuak ezkututzen dira, baina existitu, existitzen dira... Guztiok ezagutzen dugu baten bat»

Adineko gizonen taldea

«Tamalez, gure alabetako bati zerbait gertatzeko aukera handia da; bes-tela, ez ginateke beldur izango, etxera bakarrik itzultzen direnean»

Gizon konplizeen taldea

Gai hori jorrazteko normaltasunak, agerian uzten du zein altua den emakumeen aurkako indarkeriaren naturaltasunaren maila, eta ikuspegi feministatik diskurtso bat eraikitzeke zailtasunak ere bai

Errealitatea, baina, izugarria da. **Emakumeenganako Indarkeriaren 2015eko Makroinkestaren** arabera, inoiz bikotea izan, eta azken 12 hilabeteetan kontrol-indarkeria jasan duen 16-19 urte arteko emakume gazteen ehunekoa % 25ekoa da Estatu mailan.

Espainiar Estatuan, indarkeria matxistagatik badaezpadako neurriekin edo babespean bizi diren 18 urtetik beherako emakumeen kopurua ere gora doa. 2015ean, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera, 637 kasu eman ziren, hau da, 2014tik % 10,6ko gorakada egon dela. 2016an argitaratu zen 14 eta 19 urte arteko 40.000 neska nerabek baino gehiagok bikoteak erasoak izan direla.³¹

Azkenik, IOEren³² ikerketa kolektiboak Basauriko eztabaida taldeetan identifikatutako ideia batzuk ere jasotzen dituela azpimarratu beharra dugu.

- Indarkeria matxista gizarte-arazo larritzat jotzeko ukazioa, zati batean, errealitate hau harengandiko distantzia nabarmen batean kokatzen du. Eztabaidan arazo handi bat

³¹ Botere Judizialaren Kontseilu Orokorraren datuak, 2015. Carmen Ruíz Repulloren txostena: Voces tras los datos.

³² Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa (2011): Actitudes de la población ante la violencia de género en España, IOE kolektiboak egindakoa.

dela ondorioztatu bada ere, taldeetan ez da beste gizarte-arazo batzuen aurrean lehen-tasuna daukan arazo bat bezala identifikatu (langabezia, krisia, etab.).

- Tratu txarreatatik salaketa asko faltsuak direlako ideia ere oso zabalduta dago, gizonen artean batez ere, baina baita emakume batzuen artean ere: **«denok ezagutzen dugu kasuren bat emakumeak guztiarekin geratzeko salaketa jarri duena, eta gizonak okerrago amaitzen dute»** (adineko gizonen taldea).
- O Eren ikerketa kolektiboaren diseinuan indarkeriaren biktima izan diren emakumeei berriazko deialdia egin ez zitzaion arren, emakumeen ia talde guztietan kasuak atera ziren, eta horrek arazoaren handitasuna berresten du. Errealitate berdina topatu dugu Basauriko taldeetan, eraso edo kontrol eta indarkeria egoerak atera direlako, aurretik adierazi dugun bezala. Gainera, horien artean, batzuk gizartearen eta erakundeen laguntza eta babes falta identifikatu zuten, dauden errekursoen gaineko ezjakintasuna, edota biktimen gizarte-estigmatizazioa.

... Indarkeria matxistari nola aurre egin

Taldeetako parte-hartzaileek badakite indarkeria matxistaren arazoa ez direla hilketa kasuak bakarrik: tratu txarrak beren osotasunean hartu behar dira kontuan. Hala ere, arazo horri ekiteko zailtasun handiak dituzte, eta ez dituzte ezagutzen existitzen diren erakundeen baliabideak. Hori, gainera, ustez gaiarekin kontzientziatuta eta sentsibilizatuta egon arren.

... Eta nik, zer egin dezaket? Indarkeria matxistari norbanako gisa aurre egitea.

Esan dugun moduan, emakume gehienak —baina baita gizonak ere— berdintasun eza horien aurrean frustrazio maila handia erakusten dute, ez dutela ulertzen, eta errealitate horri aurre egiteko errekurso falta dutela.

«Komunikabideek berriak emateko modua iraingarria da, emakumeen gorputzei ematen dieten erabilera... Sutan jartzen naute emakumeak "gauza" bat garen programa horiek»

Emakume liderren taldea

«Okerrena ez da gizonak emakumea erasotzea; okerrena da gizarteak beste alde batera begiratzeko duela, eta ez dugula ezer egiten. Horrek haserrarazten nau»

Emakume gazteen taldeak

Gizonen aldetik, indarkeria matxistari aurre egiteko frustrazio eta ezintasuna maila askotan errepi-katzen da, batez ere batzuk, beren ustez, duten arduragatik.

«Ez dakit zer egin dezakegun. Zuek egin behar duzuen da gu guztiok irla huts batera bidali...». «Baso batean sartuta gaude, eta ez dakigu ateratzen»

Gizon konplizeen taldea

Bestalde, orokorrean, lehendabiziko erantzuna lotzen da emakumeak beren indarkeria egoera salatzerantz bultzatzen dituzten kanpaina eta politikak planteatzearekin: beste behin, haiengan jartzen da arduraren zati gehiena. Emakume batzuek salaketak kentzen dituztelako arrazoiekin jarraituz, arduraren beraiei egozten zaie berriro ere: beldurra edo mehatxuak aipatzen dira, baina baita «nortasun falta» ere. Beste kasu batzuetan, amodioa eta gizonaren damua aipatzen da biktima diren emakumeak euren tratu txarren emailearekiko harremana mantentzen dutela azaltzeko.

«Salatu behar da —gizarte bezala ere, gero egiten ez dugun arren—. Emakume horiek salatzerantz bultzatu behar ditugu». «Errespetu falta, arrazoi ekonomikoak, beldurra, seme-alabak, pertsonen maila kulturala, hezkuntza... Hamaika arrazoi daude»

Adineko gizonen taldea

«Emakumeei salatzen lagundu behar zaie. Min ematen dizunak ez zaitu maite, eta, kostatzen den arren, gurpil zoro horretatik atera beharra dago»
Adineko emakumeen taldea

Gizonen kasuan, berdintasuna gizartearen behar eta «justizia» gisa aldeztu duen politikoki zuzena den diskurtsoa existitzen da, baina ez da matxismoa ukatu edo kondenatzen duen jarrera publikoa aurkezterakoan barneratuta duten zerbait. Beraz, indarkeria matxistaren erabat kontra agertzen dira, baina haien hitzetan kontrolatzeko zailak diren jarrera batzuk daude, eta badakite jarrera horiek indarkeriaren oinarriak indartzen laguntzen dutela.

«Konturatzen naiz nahi gabe, batzuetan, berdintasunik ezaren diskurtso horiek erreproduzitzen ditudala, nahi gabe desberdin hezten dudala... Konturatzen naizenean aldatzen saiatzen naiz, baina, batzuetan, pasa egiten zait»
Gizon konplizeen taldea

«Nik uste orain gizonok gehiago hitz egiten dugula gai horiei buruz, baina nik, egia esan, ez dut inoiz gehiegi pentsatu. Ez, behintzat, nik egin dezakedan zerbait bezala»
Adineko gizonen taldea

Gizonei zuzenean ez eragiteak, sentiarazten die ez dela beren arazoa. Horregatik, norberaren arduraz lantzeko beharraz hitz egiten da, aurrera egin ahal izateko. Ardura eta konpromisoa handiagoa bada, aurrerapausu gehiago emango dira.

«Emakumeekin harremanak izateko moduak aldatzeko, gure artean harremanak izateko moduak aldatu behar ditugu». «Gizonekin harremanetan jartzen garenean, lehiakide gisa hartzen ditugu. Gure artean ez bagara elkartasun-kultura sortzeko gai, ez gara lehiakortasun ezaren kultura eraikitzeko gai izango emakumeekin. Gehiago izorratzen nau emakume batekin lehiatzeak. Eta hori ikasi dut»
Gizon konplizeen taldea

«Nik uste orain parekidetasunaren diskurtsoa daukagula, baina hitzezko eta ideologiazko diskurtsoa da: praktikan, oraindik, ohitura asko ditugu etxe barruan zein kanpoan, arrastaka daramatzagun ohiturak. Eta gizonek, are gehiago, ondo datorkielako (...). Duela gutxi, Kanadako lehen ministroari egindako elkarrizketa bat irakurri nuen, eta esaten zuen bere alaba feminismoan hezten ari zela, baina baita bere semea ere. Emakumeak kontzientziazten bakarrik lan egiten badugu.. Eta niri arreta eman zidan: egia da emakumeek sentiberatuago gaudela, baina gizonekin oraindik asko dago lantzeko eta praktikan egiteko»
Emakume liderren taldea

... Kolektiboki zer egin dezakegu? Nola egin aurre indarkeria matxistari modu kolektiboan

Indarkeria matxistari aurre egiteko banakako bezala egin dezakegunak eragindako frustrazioa txikitu egiten da estrategia kolektiboak planteatzerako orduan. Horrek agerian uzten du neurri global eta kolektiboak sustatzen jarraitzeko beharra.

Estrategia kolektibo gehienak mota ezberdinetako antolakundeetatik planteatzen dira, baina denek dute izaera soziala: bizilagunen elkarteak, sindikalak, alderdi politikoak, emakumeen taldeak edota talde feministak, jai-batzordeak, etab.

«Gu Mikelatsekoak gara, eta gauza txikiak egiten ahalegintzen gara. Pixkanaka, baina bueno. Adibidez, jaietan, txosnetan puntu morea jartzen dugu, barran indarkeria matxistaren aurkako dekalogoak duten orriak jartzen ditugu...». «Txosnetan ez diogu jarrera matxista duen jendeari

arreta ematen; gainerakoei berdina egiteko abisua ematen diegu; eta kasuren bat ematen bada, ekin egiten diogu...»

Emakume gazteen taldea (2)

«Indarkeria matxistaren kasuetarako protokoloak ditugu». «Berdintasun plan batean ari gara lanean, indarkeriaren gaia ere barne hartu nahi duena»

Emakume liderren taldea

Hala ere, guztiek onartzen dute beren taldeetan ere emakumeak direla kontzientzia gehien dutenak, eta gizonek neurri txikiago batean parte hartzen dutela. Gainera, gogorarazten dute «paperean jasotzetik» harago egin behar dela, eguneroko lana baita.

«Gure sindikatuan genero taldeak sortu dira, baina, batez ere, emakumez osatuta daude»

Gizon konplizeen taldea

Antolatutako emakumeek adierazi dute kasu guztietan teoria feminista dela indarkeria matxistari aurre egiteko erreferentea, kontzeptua historian zehar belztuz joan den arren.

«Azken urteotan, mugimendu feminista kriminalizatu da: iruzkin, artikulua eta abarren bidez belztu egin da komunikabideetan. Hori interes politikoekin ere lotuta dago, eta feminismoarentzat oztopo handia da, egoera latz honetatik ateratzeko giltza den arren». «Oztopo handia dago, sistemak ez duelako aldatzea nahi. Orduan, gu gara ekin behar dugunak, baina, askotan, oso nekagarria da»

Emakume liderren taldea

Lehentasuna eman zaio, era berean, gazteekin feminismoa lan egiteko beharrari.

«Beharrezkoa da nerabeekin feminismoaren ildotik lan egitea. Emakumeak sentiberatuago gaudela uste da, eta gizonekin gehiago lan egin behar dela, kontzientziazio berdina ez dutelako, baina gazteria etorkizuna dela uste dut»

Emakume liderren taldea

Antolatutako gizonen artean mugimendu feminista eredu bezala adierazi da, ez bakarrik desberdintasunen aurkako borrokan, baita erreferentziazko gizarte mugimendu bezala ere. Diskurtsoan aldea dago antolatuta daudenen eta ez daudenen artean, eta horrek diskurtsoak modu kolektiboan aldatzeko garrantzia azaleratzen du, gizartearen benetan eragiteko.

«Esan dezakegu mugimendu feminista indar gehien duen mugimenduetako bat dela, eta guk inbidia ematen digutela esan ohi dugu (barreak). Gustatuko litzaidake mobilizatzeko gaitasun hori izatea beste borroka batzuetan. Are gehiago: beste borroka batzuen gabeziak hortik datoz, ezta? Ez gara ikuspegi feminista barneratzeko gai izan». «Momentu honetan mugimendu feminista topera dago, eta beste borroketan faltan botatzen zaie. Ulertzen dugu beren bidea egin behar dutela, baina ondo legoke ahalduntzea beste gizarte-mugimenduetan sartzeko elkartzeari»

Gizon konplizeen taldea

Gazteen artean jarduteko beharraz hitz egin da, indarkeria kasuen edo erasoen aurrean esku-hartzeko. Baina hori nola egin ere, eztabaida iturri izan da.

«Planto egin behar da. Jarraitzen banaute, babestu egingo naiz». «Lagun bat daukat, bera asko kontrolatzen duen mutil-laguna daukana, eta uzteko esaten diot, baina ez dago modurik. Batzuetan ez da erraza»

Emakume gazteen taldeko hainbat testigantza

Azkenik, antolatutako pertsonen salaketa publikoa eta presio- eta eraldaketa-mekanismo nagusi gisa antolatu eta artikulatzeko beharra adierazi dute..

«Kalean gehiago egon behar dugu». «Emakumeok ahalduntzen jarraitu behar dugu, kalera atera eta dagokiguna aldarrikatzeke: gure eskubideak»
Emakume liderren taldea

«Kalean egon behar dugu, eta emakumeok gizarte osoari dagokion borroka honetan lagundu»
Gizon konplizeen taldea

... Erakundeetatik zer egin dezakegu? Administrazio publikotik indarkeria matxistari aurre egiteko moduak.

Adierazi dugun bezala, existitzen diren baliabide eta zerbitzuak eta marko legala ia ezezaguna da taldeetan parte hartu duten pertsona guztientzat. Hauexek dira parte-hartzaile gehienek hoberen ezagutzen dituzten baliabideak:

- Gizarte-zerbitzuak.
- Antolakunde ezberdinetako berdintasun atalak: sindikatuenak, udal erakunde publikoenak, EHUrena, enpresenak...
- 016 biktimen arretarako telefonoa.

Maila lokalean, guztiek ezagutzen dute Marienea. Aurretik ezagutzen zuten, baina, Basaurin, askok adierazi dute zalantza egiten dutela, ez dakitela Etxea zer den, bertan zer dagoen.

«Badakit Marienea existitzen dela, baina ez dakit ziur zein zerbitzu eskaintzen duten, eta esango nuke nire inguruan gauza bera gertatzen dela. Badakigu batez ere emakumeei zuzenduta dagoela, baina gazteentzako gauzak ere egiten dira, erasoen aurreko “Beldur Barik” gidak bezala»
Emakume gazteen taldea (2)

Gazteek Marienea ezagutzen duten arren, aitortzen dute ez dela erreferente bat: alde batetik, feminismoa eta hura inguratzen duen guztiarekin lotutako gutxieste moduko bat dagoelako; eta beste alde batetik, behar edo ezagutza faltagatik.

«Nik uste Basaurin MARIENEA gutxi gorabehera ezaguna dela. Orduan, erreferente bat izan daiteke kasu zehatzetan, baina gazteen artean gehiago kostatzen da». «Nik esango dizuet Basaurin jende asko dagoela, baina gazteak ere, Marieneari buruz hitz egitean “lesbiana txoroen etxea” eta aipatuko ez ditudan beste hitz asko esaten dituztenak... Horrela esaten dizute: “nola joango naiz ni zentro horretara?”
Emakume gazteen taldeko hainbat testigantza

Adierazi dute, era berean, «Beldur Barik» bezalako ekintzekin gero eta gazte gehiago hurbiltzen ari direla feminismoa, eta, kasu horretan, Marieneara eta haren zerbitzuetara.

«Mezua ez da galtzen. Zerbaitekin ziur geratzen zarela». «Argi dago nerabeekin proiektuak egitean ezinezkoa dela nahi duzun guztia helaraztea, baina %2arekin geratzen badira, ondo: ezer baino gehiago da». «Hondarrean geratzen da»
Emakume gazteen taldeko hainbat testigantza

Gazteek ez epaitzeari edo indarkeria matxista modu hain zuzenean ez jorrateari buruz hitz egiten dute, gaitzespena sortzen duelako. Mezuarekin nola asmatu, eta errealitate hori beste eremu batzuetatik nola jorratu eztabaidatzen dute. Gogoeta hori oso interesgarria da, ikerketa honetan zein aurretik adierazitako beste batzuetan identifikatutako ondorioetako bat delako.

«Nik uste “Beldur Barik” eta ildo horretako beste ekintza batzuekin gauza ugari lortu direla. Zuk neska bati “horrela ez maitatu” esaten badiozu,

egia bada ere, aldenduko da, niri lagunekin gertatu izan zait. Baina erakargarriagoa den modu bat egon behar du, hain zuzena ez dena. Buruan dituzten aurreiritziak apurtzen saiatu behar da, baina zaila da». «Dinamika polit bat eskaintzen baduzu, edozer gauzari buruzkoa, nerabeak erakarrita sentitzen dira eta emaitzak onak dira»

Emakume gazteen taldetako hainbat testigantza

Beste behin ere, hezkuntza egoera honi errotik ekiteko, eta herritarrak eta erakundeak kontzientziatzeke giltza nagusietako bat da.

«Hezkuntzak dena hartzen du barne. Ez bakarrik etxekoa edo eskolakoa. Hezkuntza komunikabideen kontrola da; komunikazioa, kontsumo bideen kontrola. Niretzat dena da»

Emakume liderren taldea

«Emakumeak dira azken indarkeria pairatzen dutenak... Gauza da gu hezkuntza baten produktua garela, eta, normalki, ez ditugula gauzak zalantzan jartzen»

Gizon konplizeen taldea

Tankera ezberdinetako antolakundeei (politikoei, sozialei, sindikalei) lotutako pertsonen sozializazio-eragileekiko diskurtso kritikoa dute, hezkuntza sistemarekiko, komunikabideekiko edo familiarekiko berarekiko, indarkeria matxista elikatzen duten mezuak ematen dituztelako guztiek. Diskurtso hori kritikagoa eta gogorragoa da emakumeen aldetik, eta gizonenak baino frustrazio, haserre eta min handiagoa erakusten du. Erakunde sozialetako kide diren emakumeen testigantzak:

«Instituetan, ikastetxeetan, eskoletan, genero-desberdinkeria tratatzeko erabateko eraginkortasun falta dago, zentroen barruan zein kanpoan. Normalean, lana txikia da, eta ez da hortik ateratzen. Egunero ari gara transbertsalitateari buruz hitz egiten, baina ezer ez. Benetan gauzak aldatu ahi badira aldatuko lirake, baina nik, dagoeneko, ez dut ezer sinesten»

«Askotan gertatzen zait kuadrillan nagoenean eta zerbait komentatzen dudanean, astuna naizela, beti berdin nabilela... Hala esaten didate, eta hori ondoan daukagu, beti gaude beraiekin eta, oraindik, horrelakoak entzun behar ditugu». «(...) Ni nerabeek ere kezkatzen naute: emakume gazteak, berdintasunean bizi direla uste dutenak... Ez dira konturatzen ezetz, ez dagoela berdintasunik. Orduan, emakume gazte batzuk ere esaten dizute ez dela horrenbesterako, astuna zarela»

«Ardura-lanpostu asko gizonen betetzen dituzte. Berrietan ikusten da botere eta ardura taldeak biltzen direnean txaketa eta gorbatez lepo daudela, eta, emakumeren bat ageri da, han eta hemen. Oso ezkutatuta gaude eta ez gaude ardura-postuetan ikusgarri»

Antolakundetako kide diren gizonen kasuan, berdintasunik ezaren oinarriak identifikatzen dituzte, baina beren errealitateetik at dagoen diskurtso batetik, eta hain errotuta dagoenez, aldatzeko zaila den zerbait bezala.

«Nork bere etxean asko du egiteko, eta hori agerikoa da: da nik alaba bat baldin badut semea izan beharrean, onartzen dut gutxiago kobratuko duela, norekin dabilen pentsatu beharko duela, non aparkatzen duen, itzultzeko orduak... Hori zoritxar bat da»

«Prekariatateak emakume aurpegia eta izena du». «Azken hamarkadetan emakumeek lekua irabazi dute, baina horrek ez du berdintasun handiagoa dagoela esan nahi. Berdintasunik eza orok laguntzen du indarkeria indartzen. Azken urteotako datuek erakutsi digute ez dugula errealitate hori gainditu, ez dela gure aurrekoen gauza. Datua kezkarria da gazteen artean»

Gizon konplizeen taldea, sindikatu eta gizarte-antolakundetako kideak

Baina diskurtso hori ez dago iritzi publikotik at. Gaur egun jarraitzen du indarkeria kasuen ardura emakumeei egozteko joerak, kasu batzuetan errua ere haiei botaz. Datu hau beste ikerketa batzuetan ere berretsi da, eta agerian utzi dute askotan, emakumeen jarrerak zalantzan jartzen direla, bi sexu taldeetan, eta pairatutako erasoetan nolabaiteko ardura egozten zaiela emakumeei³³. Prebentzio-ekintza desberdinak planteatzerako orduan, haiengana zuzentzen da arreta.

«Emakumeek, orain, nahi dutena egiteko askatasun handiagoa dute. Nire ilobek nahi dutenean eta nahi duten moduan joan eta etorri daitezkeela ikusten dut; zerbait gertatuko zaien beldur naiz, eta kontuz ibiltzeko esaten diet»

Adineko emakumeen taldea

«Alabei zerbait gertatzen bazaie, moduren batean, haiek egingo ditugu errudun: "non sartu zara!". Uste dugu emakumeak gizonak baino laguntza handiagoa behar duela, eta hori barneratuta daukagun zerbait da; ohikoena edo normalena bezala ulertzen dugu». «Niri kosta egiten zait gauzak maila pertsonalean aldatzea; askotan, amore-emateko modukoak izan daitezkeen gauzak sentitzen edo bizitzen dituzu (adibidez, beldurra izatea arreba batek edo neska batek etxera bakarrik itzultzean). Eta pentsatzen duzu: "jo, ordu hauetan bakarrik etxera". Aurrera egiteko asko falta zaidala aitortzen duen lehenengoa naiz. Baina argi daukat aurrera egiten jarraitzeko borondatea daukadala»

Varios testimonios Gizon konplizeen taldea

«Ni, benetan harritzen nauena, da 15 urteko neskek beren bikotekoaren kontrola onartzea. Zera esango nieke: "begira, neska: atera hemendik; alde egin; hori hau ez da ona»

Gizon konplizeen taldea

Adierazi dugun bezala, bortxaketaren kultura indarkeriaren edo eraso matxisten kasuetan, emakumeen ardura bidezkoitzen duten diskurtsoekin indartzen da. Diskurtso horiek, orokorrean, iritzi publikoan eta iruditeria kolektiboan ematen dira, baina baita politika publikoak diseinatzerako orduan ere, non emakumeak irudikatzen baitira jasaten duten indarkeriaren arduradun nagusi bezala. Alde batetik, eraso bera jasatearen ardura egozten zaie, eta bestetik, indarkeria hori ekiditeko neurriak ez jartzearena. Kasu gutxi batzuetan, gizonekin lan egiteari lotutako konponbideak planteatzen dira: haiek sortutako indarkeriaren arduradun egitea lantzen da, ez prebentzioa, ezta esku-hartzea ere. Positiboki baloratu behar da gero eta gehiago hitz egiten dela gizonekin lan egiteko beharraz. Gure aldetik, ezinbestekoa ikusten dugu lan hori indarkeria matxistari aurre egiteko eta botere harremanak eraldatzeko.

Horrela, orokorrean, hartu beharreko neurrien diseinuan eta Plan honen markoaren barruan erantzun beharreko beharretan gidatzen gaituzten ideia batzuk ondoriozta daitezke:

- Herritarren sentiberatze eta kontzientzia-harrarazte handiago baterantz pausuak emateko beharra, hezkuntza izanik prozesu horri eusteko oinarria.
- Errealitate honi dagokionez, gizarte-konpromiso handiagoa lortu, gizonak indarkeria matxistaren aurkako borrokan sartzeko eta haiekin batera berdintasun-prozesuak sustatzeko beharra gehiago azpimarratuz.
- Udalerriko elkarteekin lan egiteko eta parte-hartze bideak ezartzeko beharra, indarkeria matxistaren aurkako herritarren estrategiak sortzeko asmoz.
- Ahalduntze prozesuak finkatzeko, eta biktimei emandako arreta zerbitzu ezberdinen artean ahalik eta koordinatuen izatea lortzeko beharra. Aldi berean, talde batzuetan

³³ Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa (2011) Actitudes de la población ante la violencia de género en España, IOE kolektiboak egindakoa.

udalerrian existitzen diren errekurtsoen gaineko informazio falta dagoela egiaztatu da, batez ere Marienean eskaintzen diren baliabide eta zerbitzuei buruz, eta gazteen artean.

3.2.2 Elkarrizketak sakonean

Diagnosi hau egiteko, banakako bost elkarrizketa egin ditugu, berdintasunaren eremuan eskumenak dituzten profesionalekin (indarkeria matxista kasuak artatzen eta horiek tratatzen eskarmentua dutenak):

- Gizarte-politika eta Berdintasuneko zinegotzia.
- Gizarte-zerbitzuetako koordinatzailea.
- Berdintasun-teknikaria.
- Udaltzaingoaren sarjentua.
- Emakumeentzako Informazio Zentroko langileak.

Elkarrizketa horien helburua da, batetik, indarkeria matxistaren biktimei arreta ematen esku hartzen duten udal zerbitzuen funtzionamendua bertatik bertara ezagutzea; eta bestetik, profesionalak prebentzioan, arretan eta indarkeria detektatzeko hautemandako beharizanen eta, gaur egun, oraindik ere dauden erronka eta gabezien gainean duten pertzepzioa.

... Erakundeen ardura eta konpromisoari dagokionean

Elkarrizketatutako guztiak bat datoz: erakundeek konpromiso sendo eta jarraitua hartu behar dute, indarkeria matxistari aurre egiteko. Maila lokalean, Basauri berdintasunaren eremuan berritzailea dela, eta lortzeko programa eta proiektuei baliabideak zuzenduz berdintasunaren aldeko apustu sendoa egiten duen udalerria dela uste dute, baina indarkeria matxistaren aurkako borrokan beste pausu bat gehiago emateko beharra ere antzematen dute. Plan hau, profesionalen arabera, egiteko mekanismo komunak ezartzeko, eta erakundearen erantzunari koherentzia emateko aukera ematen duen erreminta da. Zentzu horretan, udalerrien gaineko erakundeen tresnak ere izateko garrantzia adierazi dute, indarkeria matxistaren aurkako borrokaren tokiko planak egitea laguntzeko eta bidez-kotzeko. Gainera, europar markoari ere egin diote erreferentzia (zehazkiago, Istanbuleko Hitzarmenari), administrazioaren maila guztietan eta eskumena duten eremu guztietan emakumeen aurkako indarkeria modu guztiei erantzuna emateko lege mekanismo lotesle gisa.

«Protokoloa erreminta bat izan daiteke, ez dakit hau edo beste bat, baina bai. (...) Baliabideetatik at, kudeaketa eta koordinazio ona behar da. Protokoloak, edo Eusko Jaurlaritzaren Plana izateak, erremintak izateko eta jardunari koherentzia emateko aukera ematen du»

«Indarkeria matxistaren aurkako konpromisoa egon behar da, eta, konpromiso horretatik abiatuta, aurka egiteko errekurtsio legal eta instituzionalak sortu behar dira. Bestalde, behar horiei zeharkako erantzuna emateko programa edo zerbitzuak sustatu behar dira: hezkuntza- eta berdintasun-politikak»

«Gainera, Istanbuleko Hitzarmena duela gutxi onartu eta sinatu da; pistak ematen dizkigu, eta administrazio maila ezberdinak erantzun bat ematera derrigortzen gaitu»

...Erakundeen arteko koordinazioari dagokionean

Baina erakundeen konpromisoa eta programak, zerbitzuak eta baliabideak sortzea ez da nahikoa: beharrezkoa da erakundeen arteko, eta indarkeria matxista pairatzen duten edo pairatzeko arriskua

дутенekin esku-hartzen duten udal arlo ezberdinen arteko koordinazioa. Zentzu horretan, zerbitzu ezberdinetara jotzen duten emakumeak, beren tratu txarren egoeraren gainean etengabe justifikatzen egoteko beharrik gabe lagunduak eta babestuak sentiitzeko aukera ematen dieten komunikazio- eta koordinazio-bideak abiarazteko beharra adierazi da. Aldi berean, indarkeria matxista pairatu dezaketan emakumeentzako sarbideen gabezia sumatu da. Horrela, bada, Udaltzaingoa eta Gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioa positiboki baloratu da bi aldeetatik, honela deskribatuz: «oso ona, arina eta positiboa». Dena den, beste zerbitzuekiko koordinazio falta nabaritu da, osasun-zerbitzuekiko eta Berdintasun Atalarekiko, esaterako; eta, zehazkiago, Emakumeentzako Informazio Zentroarekiko. Finean, Erakundearteko Protokoloa berriz ebaluatzeke beharra hauteman da.

«Emakume batek poliziarengana jotzen duenean, hemendik eskura dituen zerbitzuen informazioa ematen zaio. Gizarte-zerbitzuen gaineko informazioa bakarrik ematen zaie, Berdintasun Atalari buruzko informazioa aipatu ere egin gabe»

«Uste dut gabezia oinarrizkoenak sarbideak direla, ez dugulako hautematea beharko genukeen bezala egiten zerbitzu ezberdinetan. Erakundearteko Protokoloaren prozesuetan parte hartu duen jendearengan pentsatu behar dugu, baina baita inoiz parte hartu ez duen jendea ere (hezkuntza zentroak, esaterako)»

«Zerbitzu ezberdinetan emakumeen koordinazioa sustatzearen gainean ikusten goazen guztia (...)... Eta hemen baliabide gehiago lor ditzakegu: emakumeen autoestimua, gizarteratzea, emakume gisa indartzeko. Hori guztia errazagoa da, Emakumeentzako Informazio Zentroarekin harremanetan badaude»

... Indarkeria matxistaren gizarte pertzepzioari dagokionean

Indarkeria matxista eta haren aurreko erronkak nola jorratu planteatzerako orduan, elkarrizketatutako profesionalak adierazi digute gizartean balore aldaketa sustatzeko, oso garrantzitsua dela indarkeria matxista oinarritzen duen egitura zalantzan jartzen duten kontzientzia harrarazteko prozesuak sustatzea, aukera ematen duelako pertsonen rol eta jarrera aldaketak eman ahal izateko. Horixe da, hain zuzen ere, gizarte parekidearen alde egiteko lehenengo eta oinarrizko pausua, non indarkeria matxistak ez baitauka lekurik. Ideia hori berori agertu da Basauriko herritarrekin egindako eztabaida taldeetan ere, eta, horri esker, egiaztatu ahal izan dugu gehienek hezkuntza, sentiberatzea eta kontzientzia harraraztea hartzen dituztela balore-aldaketa sustatzeko oinarrizko ardatz gisa. Ildo horri jarraiki, gazteriarekin egindako lana, hezkidetzaren garrantzia eta nerabeek parte hartzeko guneen garrantzia azpimarratu da.

«(...) Baina, bestalde, behar horiei zeharkako erantzuna emateko programa edo zerbitzuak sustatu. Hezkuntza- eta berdintasun-politikak. Batez ere- hezkuntzako lana, gazteekin, oinarrizkoa da»

«Lonjak dira oinarrizko gune bat. Beharrezkoa da gazteekin zeharkako gaiak lantzea, Basauriko lonjen bidez»

Funtsezkoa da, era berean, indarkeriak guztiongan eragina duen gizarte-arazoa dela onartzea: gai pribatu bat bezala ikusten den bitartean, gure bizitzetatik kanpoko zerbaite bezala ikusiko da, jarrera pasiboarekin, eta, beraz, indarkeria matxistaren aurkako borrokan gizarte konpromisoen falta egongo da.

«Zuzenean eragiten ez badigu, horrekiko izan dezakegun sentiberatasuna, ba... ez politikario gisa, pertsona gisa baizik, "begiek ikusten ez badute..." .Eta uste dut egin beharreko parte bat dela»

«Emakumeen Etxea jendearengana heltzeko eta errealitate hau herritarrengana hurbiltzeko ere balio izan du, batez ere, noski, emakumeengana. Eta hori oso garrantzitsua iruditzen zait, arazo honen benetako kontzientzia bat sortzeko eta jendea martxan jartzeko»

Puntu honetan, baina, erronka garrantzitsua dago: gizonak indarkeria matxistaren aurkako borrokan murgiltzea. Gizarteak arazo hau guztiona dela onartzeko behararekin batera, bereziki garrantzitsua da arreta pairatzen dutenengan bakarrik ez zentratzea (hau da, emakumeengan eta indarkeria paira dezaketen beste subjektu batzuegan), eta gizonek berdintasunaren bidean oinarrizko papera dutela ulertzea.

«Zaila da pertsonengana heltzea, horiek motibatu eta barneratzea, berdin gizonak, emakumeak, gazteak edo ez hain gazteak izan. Are zailagoa da, askotan, norberarena ez dela uste dugun arazo bati buruz ari bagara, hor dagoena. Nik, gizona naizen aldetik, esan dezaket berdintasuna errespetatzen dudala, nire bikotekoarekin ez dudala arazorik, eta abar. Ez gara konturatzen. (...), tantaz tanta egiteko lana da, pixkanaka ereiten joan. Eta, nola? Bada, horretan guztian espezializatutako jendea falta da. Eta eztabaida sortzea»

... Emakumeen parte-hartzeari dagokionean

Esan dugun bezala, Basauriko udalerriak ibilbide oparoa du berdintasunaren eremuan, alor horretako neurri eta baliabideak ezartzen aitzindari izan da, eta elkarrizketatutako profesionalak bat datoz: dagokion balioa aitortu behar zako udalerraren historiari. Adierazi dute, gainera, erakundeetako mekanismoak martxan jartzeko, Basauriko emakumeen elkarten mugimenduaren parte-hartze eta laguntza izan dutela beti. Zentzu horretan, Berdintasun Kontseiluak oinarrizko papera du, emakumeen eta erakundeen arteko bitartekari lana egiten duen egitura baita.

«Uste dut ezinbestekoa dela, berdintasun-politikak egun existitzen diren bezala ulertzeko. Erakundeek, nola edo hala, dagoen gizartearen presioari erantzuna ematen diote, politika mota horiek martxan jartzeari begira, eta Basaurin nabaria da, eta egin den guztia beti izan da atzean egon delako elkarte-mugimendu bat, aldarrikatzen»

«Basaurin emakumeek egindako lana funtsezkoa da. Kontseiluaren barruan zabala da parte-hartze gaitasuna, eta uste dut erreferente bat ere badela. Egonkortasun eta ibilbide gehien duen kontseilu parte-hartzailea da»

Udalerriko mugimendu feministaren lorpenetako bat izan da 2012an Marienea Basauriko Emakumeen Etxea zabaltzea. Martxan daraman lau urte hauek, emakumeentzako berezko espazio kolektiboen beharra indartzeko balio izan dute, eta norbanako zein taldekako, ahalduntze prozesu pertsonal eta politikoak sustatzeko. Herritarren erantzuna positiboa izan da, eta Marienea erreferente bilakatu da, bai Basaurirentzat, bai beste udalerririk batzuentzat. Horren adibide da Bilbora eta gertuko beste udalerririk batzuetara gerturatzen den emakumeen kopurua. Dena den, etxeko langileek gazteriarengana heltzeko zailtasuna eta tailerretan eta eskainitako ikastaroetan neska gazteen parte-hartze falta adierazi dute.

«Uste dut Marienea emakumei arreta emateko eta ahalduntze prozesuetan eta parte-hartze sozial eta politikoan aurrera egiteko gizarte sareak sortzeko beharretik jaiotzea. Gauza onak bakarrik esan ditzakegu. Oinarrizko aldaketa kualitatiboa ekarri du»

«Uste dut positiboa izan dela. Eta Plana instrumentu egokia izatearen kontura gatoz, berriro ere. Gauza asko landu nahi dituzten emakumei harrera egiteko talde bat osatzea lortzen badugu, adibidez, dagoeneko existitzen den talde bat egotea eta gertu izatea, oso baliagarria den instrumentua da»

... Hautemandako gabezia eta beharrei dagokienez

Hautemandako beharrak, arretan, eta indarkeria matxistaren prebentzio, sentiberatze eta hautematean aurkitzen dira. Erakundearteko koordinazioa (aurretik aipatu duguna), berriz ebaluatu

beharreko alderdietako bat da, biktimei arreta osoa emateko oinarritzkoa den zerbait, Planak osatu nahi duen bezala. Baina arreta osoak eskatzen du, gainera, jendeaganako arretan lan egiten dutenek zein indarkeria matxistaren biktimekin esku-hartze soziala duten langile adituek prestakuntza egokia jasotzea: beren lanposturako eta eskumenetarako egokiak diren beharrezko ezagutzak izatea. Era berean, ezinbestekoa da emakumeak lagunduak sentiitzea, eta, horretarako, garrantzitsua da arreta ematen dietenek arazoarekiko ikuspegi feministatik sentiberatuta egotea eta prestakuntza izatea, eta empatiatik eta ez epaitzetik aritzea.

«Salaketa jartzen duten emakumeentzat garrantzitsua da laguntza eta babesa izatea. Horretarako, garrantzitsua da zerbitzu eta alorren arteko koordinazioa; emakumeek babesa jasoko dutela sentitu behar dute. Erabakitzeke denbora eman behar zaie, eta ez epaitu. Badaude kasuak non salaketak ez baitu lehenetsunik, eta hori errespetatu egin behar da»

Aldi berean, arreta jarraitua ematearen garrantzia azpimarratu da: emakumeek beren tratu txarren egoera amaitutzat ematen duten unera mugatu baino, eta suspertze-prozesu osoan lagundu behar zaie. Jarraikotasuna duen prozesua izan behar da, emakumeek beren buruekiko konfiantza berreskuratzeko, berezko bizi-proiektuak birreraiki ahal izateko, eta harreman osasuntsuak eta berdintasunean oinarritutakoak ezartzeko, indarkeria zikloak ez errepikatzea bermatzeko gaitasunak ere lortzeko aukerarekin. Zentzu horretan, ahalduntze prozesuak sustatzea gakoa da, arreta-prozesu osoan zehar. Profesionalek talde-lanak dituen abantailak azpimarratzen dituzte, fase horretan indarkeria matxista pairatu duten emakume talde batekin egindakoa³⁴. Prozesu sendatzailea da eta, gainera, emakumeen ahalduntze pertsonal eta politikoan eragina izan dezake. Oinarritzkoa da emakume horietako bakoitzaren erritmoa errespetatzea, bakoitzaren berezitasunak kontuan izatea; indarkeri egoeratik beste hainbat egoera gatazkatsu sortzen dira eta, beraz, arreta emateko beste hainbat gauza ere bai.

«Hauteman den beste ardatz bat da biktimen arreta eta sarbideak nola landu, baliabide eta zerbitzuetan daudenei arreta nola eman: ezin da partxeak jarrita egin. Plan honetan beharrak hautemateko prozesu batean gaude, fenomenoan eragiten, errepikatu ez dadin eta emakumeak indarkeria-egoeratik ateratzeko»

«Batzuetan demanda, dibortzioa, seme-alabak...aipatzen dituzte. Bada, agian ez da ahalduntzea aldarrikatzeko unea. Dena bideratuta dagonean etorriko da pausu hori emateko ataka. Gauza da erakartzea, eta kontu hau gauza gehiagotarako erreferentzia bezala ikustea»

... Indarkeria Matxistaren Aurkako Tokiko Planerako proposamenak

Azkenik, eta laburbilduz, elkarrizketatuek Plana martxan jartzeari begira adierazi dituzten proposamen zehatz batzuk jaso nahi izan ditugu.

- Prestakuntzaren beharra, Udaltzaingoko arduradunak bereziki azpimarratu duena. Udaltzainek indarkeria matxistari lotutako prestakuntza gehiago izateko beharra ikusi da, arazoarekiko sentiberatze handiagoa sustatuz (zerbitzura jotzen duten emakumeak epaitzera garamatzaten ez-ulertuak direla eta). Zentzu horretan, indarkeria matxistaren biktima izan den emakume batek bere testigantza emateko aukera proposatu da.
- Indarkeria matxista pairatzen duten emakumei arreta emateko Erakundearteko Koordinazio Protokoloa berriro aktibatze bideak berriz ebaluatu eta finkatu.
- Taldean esku hartzeko guneak eskaini, emakumeen ahalduntzea eta suspertzea errazteko.
- Gizonekin egindako lana indartu, indarkeria matxistaren aurkako borrokan parte har dezatela lortzeko.

³⁴ Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen taldeko analisia. Ikus 3.2.1.

3.2.3 Indarkeria matxista pairatu duten emakumeen taldea

Diagnosi hau egiteko, indarkeria matxista pairatu duten emakumeekin lantaldea abiarazi da. Izan ere, arazo horri erantzun eta arreta egokia emateko, hura bizi dutenen eskaera zuzenak entzumn behar direla jotzen da: beren bizipenetatik abiatuta ulertu behar da bizi duten egoera, eta bidean aurkitzen dituzten zailtasunak.

Talde horretan parte hartu duten emakumeak udal zerbitzuetatik bideratuak izan dira, eta haiekin koordinazioa mantendu da une oro, taldeak egoki funtzionatzeko. Ondoren, taldean parte hartu duten emakumeen profila aurkeztu da (izenak ez dira benetakoak, anonimatuak bermatzeko):

Izena eta adina	Jatorria	Salaketa jarri du	Adin txikikoak bere ardurapean
Ana, 37 urte	Basauri	Bai	Bai
Cristina, 32 urte	Basauri	Bai	Ez
Joana, 33 urte	Basauri	Bai	Bai
Sara, 42 urte	El Congo	Bai	Bai
Nerea, 50 urte	Basauri	Ez	Bai
María, 39 urte	Basauri	Bai	Bai

4 saio egin dira, eta edukiak taldearentzat finkatutako helburuen arabera egituratu dira. Lehenengo saioan, saiatu ginen giro atsegina eta konfiantzakoa sortzen, eta taldeari kohesioa ematen. Orokorrean, hauexek izan ziren talde horren xedek:

- Emakumeek indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko errekursoetara heltzerako orduan egiten duten ibilbidea aztertu.
- Beren prozesuetako baliabideak eta jasotako arreta aztertu.
- Jasotako arreta mota aztertu: arretarako zerbitzuak; laguntzarako zerbitzu eta baliabideak; suspertzea eta ahalduntzea.
- Biktimen suspertzea eta ahalduntzea bermatzeko zerbitzuak izan dituzten identifikatzea (puntu hau, agian, gehiago azaldu behar da).
- Basaurin egindako salaketa publikoko eta ikusgarritasunerako kanpaina eta ekintzak aztertu, biktima diren emakumeengan duten eragina ebaluatzen eta beharrak eta gabeziak identifikatzeko.
- Indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeen suspertze eta ahalduntze prozesurako beharrak identifikatzea, eta taldeak jarraitu ahal izateko dituen beharrak ebaluatzea.

Ondoren, saioen ondorio nagusiak aztertuko ditugu.

... Indarkeria matxistaren prebentzio eta sentiberatzerako

Lehenengo saioan prebentzioaren eta sentiberatzearen gaia jorratu zen, eta, orokorrean, eta adierazi zen gaur egun, jende gehienak ez duela arazoaren handitasunaren eta garrantziaren kontzientzia. Gizarteak ez du indarkeria matxista guztiona den arazo bat bezala onartzen, eta horrek segurtasunik

eza eta erruduntasuna sortzen du emakumeengan. Gainera, genero-indarkeria zer den zalantzan jartzen da une oro, eta indarkeria matxistaren aurkako argudio gisa gizoni tratatu txarrak ematen dizkieten emakumeak ere badaudela esateko joera dago.

«Eta errealitatea da kalean jipoitzen zaituztela eta jendeak beste leku batera begiratzen duela. Gainera, genero-indarkeria zer den ere zalantzan jartzen dute».

«Eraso baten gaineko edozein berri dagoenean, jendeak komentatzen duena ikusi besterik ez dago: "eta gizona balitz, ez da indarkeria?" Benga...».

Illo horri jarraiki, kanpainen gaia landu zen, erakundeetatik indarkeria matxistaren gainean abiarazten diren kanpainen, hain zuzen ere. Hasteko, gutxik gogoratzen zuten egindako kanpaina bat baino gehiago, eta gogoratzen zutenek ere, indarkeria fisikoa irudikatzen zuten horiek gogoratzen zituzten. Ez ikusarazteak, salatzeak eta beste indarkeria mota batzuk kontuan hartzeak zailtasun handiagoa sortzen du, tratatu txarren egoerari aurre egitean, tratatu txarra, fisikoa baino, psikologikoa denean. Bestalde, horietako gehienek uste dute arreta jartzen dela erasotako emakumearen gainean, indarkeria eragiten duten gizoni baino, eta, horren eraginez, ardura emakumei egozteko joera mantentzen dela. Hori dela eta, adierazi dute gizon erasotzaileengana zuzentzeko egokitasuna. Era berean, maila guztietako errekurtsioen berri emateko garrantzia adierazi dute, egoera horretatik ihes egitea lortu duten emakumeen testigantzak ikusaraziz, ikuspegi positiboa eskaintzeko.

«Tratu txarrak jasotzen dituen emakume baten bizitzaren 10 minutu jarri behar zituzten, errealista. (...) Gainditu duten biktimak izatea, erreferentzia bezala»

«Nik uste garrantzitsua dela baliabide, zentro eta hitzaldien gaineko informazio gehiago izatea, pentsamolde matxistak desmuntatzeko...»

Maila lokalari dagokionez, uste dute Basaurin oraindik ez dagoela horren gaineko kontzientziarik. Adierazi dute ezagutzen dutena dela emakumeen elkarten jarduna, eta, aldiz, maila politikoan ez dutela ikusten lan handia denik.

Beste behin ere, adierazi da herriko gazteek informazio urria dutela, Basaurik berdintasunaren eta indarkeria matxistaren gainean eskaintzen dien baliabideei buruz, eta Marienearen gainean dituzten errekurtsioei buruz.

«Basaurin desinformazio handia dago. Harrigarria iruditzen zait ez ezagutzea —26-27 urte dituzten neskei buruz ari naiz—»

Illo horri jarraiki, herrian indarkeria matxistaren aurkako borrokan parte hartzea, Basauriko elkarte feministek eta emakumeen elkarteek egindako lanera mugatzen da eta, beraz, gizarte-konpromiso handiago baten alde egiteko beharra adierazi da, batez ere gazteen artean.

... Suspertze-prozesuan zeharreko baliabideei eta jasotako arretari dagokionez

Jasotako lehenengo erantzunari dagokionez, zerbitzu eta errekurtsioen zirkuituan sartzen diren unean eskaintako informazio falta adierazi da. Larrialdietarako ostatu ematea eta diru-laguntzak ez ezagutzea aipatu dira, bereziki, taldea osatzen duten emakumeen artean.

«Nik, hasieran, ez nuen larrialdietarako pisua ezagutzen; kotxean egon naiz, maletekin eta seme-alabekin, eta inork ez dit ezer esan»

Bestalde, salaketa jarri zutenek diote une hori oso zaila dela biktimentzat, eta hala egiteko baldintzek sufrimendua areagotzen dutela. Gainera, gertatutakoa behin eta berriz errepikatu behar izatea arreta ematen dieten profesionali, sentiarazten die zalantzan jartzen dituztela haiek esandakoak, eta errudun sentiarazten die. Salaketa jartzerako orduan, arreta ematen dietenen enpatia eta laguntza falta adierazi dute. Finean, beren testigantzak errepikatuzko zikloek bigarren biktimizazioaren ideia indartzen dute.

«Niretzat izan da... ahultzen duena da gertatutakoa behin eta berriz kontatu behar izatea, pertsona ezberdinei»

«Oso urduri zauden unea da, eta, gero, hori idatziz jasota geratzen da, eta epailetan behin eta berriz galdetzen dizute, eta, gero, konparatzen dute, esaten dute ez zarela esaten duzunarekin koherentea, eta ez dute kontuan hartzen bizi duzun egoera. (...) Dena gaizki atera zitzaidan, aitopena nik bakarrik egin nuelako, antsietate egoeran»

«Gogoratzen dut hark esan zidala (denbora igaro eta gero ikusita, penagarria iruditzen zait), esan zidala ea seguru nengoen egin behar nuenarekin, oso gogorra zela, eta ondo pentsatzeko. (...) Uste dut horrelako egoerei garrantzia kentzeko modu bat dela»

Emakumeei beren sufrimendua areagotu beharrean, aurrerapausua ematea errazten dien gune seguru eta konfiantzakoa eskaintzeko beharra hauteman da. Hori zuzenki lotuta dago hartzen diren neurriekin eta biktima diren emakumeei arreta ematera zuzendutako zerbitzu eta baliabideen eremuak banantzearekin.

Orokorrean, epaitegietan jasotako arreta negatiboa dela uste dute, baina, alor horretan, oso testigantza ezberdinak jaso ditugu. Emakume askok arazorik izan ez dutela esan duten arren, beste batzuk prozesuko gogorrena izan dela adierazi dute. Epaiketa azkarra bereziki negatiboa den esperientzia gisa agertu da, epaileek gehiago jartzen dutelako zalantzan emakumeak pairatutako indarkeriaren testigantza, gizon erasotzaileenak baino.

«Ez nuen frogarik, ez nuen mezurik, tratu txar psikologikoengatik sala-keta zen, eta ez zidaten hartu nahi izan. Gogoratzen dut goiz osoa pasa nuela: bat etortzen zen, pasatzen ziren, kristal bat zuen gela batean nengoen, pasatzen ziren guztiak, "hau nor da?" galdezka bezala pasatzen ziren. Beste bat etortzen zen, ez zelako argitzen... Ez dakit zenbatekin hitz egin nuen, salaketa hartuko ez zutela esateko. Sozialki, dena kaka zaharra zela sentitu nuen»

«... Baina epaitegietan, gela ziztrin horretan sartzea, urik gabe ere, itxita, denek duten aurpegi txarrarekin, beraiek ez badute bazkaltzen, zuk ez duzu bazkaltzen, nola hitz egiten dizuten»

Saio horietatik ateratako alderdi positibo bat da guztiek, modu batean zein bestean, Marienearekin harremana izan dutela suspertze prozesuko aldiren batean. Baliabide horren balorazioa oso positiboa da, eta Etxea, berriz, konfiantzako eta laguntzarako eremu garrantzitsu bat bezala sentitzen dute, bai Emakumeentzako Informazio Zentroak emandako informazioari eta aholkuari dagokionean, bai Jabekuntza Eskolari dagokionean ere (batzuk, hango ikasleak dira. Era berean, beren bizipenen antzekoak bizi izan dituzten beste emakume batzuekin partekatze talde-espazioak sortzeko garrantzia adierazten dute. Zentzu horretan, beren suspertze-prozesuarentzat onuragarria ote den ala ez galdetzean, denek adierazi dute taldea haiek indartzen eta ahalduntzen dituen baliabidea dela, eta horrelako zerbitzuei segida eman behar zaiela.

... Babes-neurriei dagokienean

Babes-neurriak modu negatiboan ikusten ditu taldeak, arreta emakumeengan jartzen dutelako, eta horiek emateko balorazioa ez delako nahikoa izan. Bestalde, "Bortxa" dutenek kontraesanak dituzte: segurtasuna ematen dien arren, beldurra eta segurtasunik eza ere sortzen die. Gainera, adierazi dute egokia litzatekeela gailuaren funtzioa berrito ebaluatzea, askotan beren bizitza gehiegi mugatzen duela sentitzen dutelako. Horrek agerian uzten du babesa biktimari egokitzeko beharra, eta, ezin bestekoa ez bada, beren bizitza ez etetea.

«Nik uste kredentziala tontakeria bat dela... paper bat. Eta uste dut gauza gehiago ditudanean segurtasuna txikiagoa dela... arma bat eraman behar baduzu, agian erabili beharko duzulako da...,nik kredentzial bat

eramaten badut, katxarro bat, sakelako bat, zerbaitengatik da. Orduan, segurtasun sentsazioa erlatiboa da»

«Gizonarentzat disuasorioa izateko bada, eta goizeko hamarretan jarri badidate, baina arratsaldeko zazpitan egongo naizela badakien lekutik pasatzen bada (...), nik jakin behar dut askatasuna berari mugatzen diola, ez niri»

Babes-aginduren faltak eskolta ez izatea dakar, ezta urruntze agindurik eta topaketa-punturik ere, eta hori oso kaltegarria da biktimentzat. Hala ere, modu positiboan baloratu dute beren etxetik hurbil izan dituzten polizia-patruilak.

... Adin txikikoei dagokienean

Talde honetan garrantzi berezia izan dute adin txikikoek: batek izan ezik, gainerako beste emakume guztiek adin txikikoak zituzten beren ardurapean. Seme-alabei emandako laguntza- eta arreta-falta da arreta eta suspertze prozesuan dauden gabezia handietako batzuk.

Kontuan izan beharra dago 2015eko uztailetik adin txikikoak genero-indarkeriaren biktima zuzenak direla: 8/2015 Lege Organikoa onartu zenetik³⁵ aldatu egin zen haurrak eta nerabeak babesteko sistema, eta 1/2004 Lege Organikoaren hirugarren azken xedapenak ere, zenbait aldaketa eragin zituen. Horrek lanerako agertoki berria zabaldu du, eta beharrezkoa da zerbitzuak egokitzea. Arreta osoa bermatzea da erronka handienetako bat, eta ezinbestekoa da adingabeak prozesu horretan sartzea, haiek erabat suspertzea bermatzeko. Taldean bertan, garrantzi berezia eman zitzaion alderdi horri. Emakumeek oinarritzotzat jotzen dute erakundeetatik adin txikikoei laguntza emateko prozesuak eskaintzea. Bestalde, topaketa-puntuak dira gabezia handien hautematen diren espazioetako bat: ikuskaritza zorrotzagoa izan beharko luketela uste dute.

«Nire ustez, ezinbestekoa da emakumeak modu independentean tratatzea historia guzti honetan. Psikologikoa eta guzti. Ez dut zertan agoantatu epaitegian esatea, abokatuak esan zidan bezala, nire alabei zerbait egin arte ezin zirela beraiek babesteko neurriak hartu. Joder, hiltzen duen arte itxoin behar dut, ala?»

... Suspertze- eta ahalduntze-beharrei dagokienez

Orokorrean, ondorioztatu daiteke, inplizituki zein esplizituki egindako eskaera batetik, emakumeek arreta, suspertze eta erreparazio behar hauek dituztela:

- *Banakako eta taldekako ahalduntze prozesuak.* Taldean parte hartu duten emakumeak ados daude: beren suspertzea epe luzera bermatzen duten prozesuak sustatu behar dira; harreman biolentoak identifikatzeko gaitasunak lortu, eta egoera horiei aurre hartu behar diete; beren duintasuna eta autoestimua berreskuratu behar dute; eta beren bizi-proiektuekin aurrera egin behar dute.
- *Laguntza eta taldeko esku-hatzea.* Lantaldean parte hartzen duten emakumeek berariaz eskatu dute taldean aritu ahal izatea, bizipenak taldearekin partekatzeak ahalduntze-prozesuetan dakartzan onurak aintzat hartuta.
- *Adin txikikoekin esku hartzea.* Emakumei eskainitako arreta osoak ez dauka zentzurik haien ardurapean dauden adin txikikoekin aldi berean esku hartu gabe (adin txikiko horiei ere, indarkeria matxistaren biktimatzat hartu, eta beren suspertzean laguntzeko

³⁵8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldaketarena. 2015eko uztailaren 23ko EAO (175 zk.), 2537 or.. Hemen argitaratua: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-8222ZentGa.

baliabideak emanez). Laguntza eskatzen da, era berean, erasotzailetik aldendu ondoren seme-alabekiko loturari dagokionean.

- *Konponketari eta kalte-ordainei buruzko informazioa*. Hautemandako gabeziak bat da kalte-ordainari eta konponketa-prozesuari lotutako informazio urria, indarkeria matxistaren biktimek horretarako horretarako eskubidea badute ere. Eskubide ekonomikoez gain, behar pertsonal eta kolektiboak laguntzeko prozesuak abiarazteko beharra ere identifikatu da

Emakume-talde honen berariazko eskariak, eta talde-saioretako emaitza onak kontuan izanda, taldeari jarraikortasuna eman zaio lau tailer eginez, eta fase honetan identifikatutako alderdi eta beharrak landu dira.

«Ahalduzte eta konponketa tailerrak» honako hauek izan dira:

- «Emozioen iparrorratza»: emozioak identifikatzeko eta kudeatzeko tailerra; emakumeek beren emozioak onartzean datza, horiek aitortu eta sendatzeko, eta hazteko aukeratik bere bizitzan sartzeko.
- «Komunikazio ez bortitza»: autoestimua eta asertibitatea sustatu eta sendotzera zuzendutako tailerra, arazoak konpontzeko ereduak eta gizarte-gaitasunak garatzearen bidez.
- «Maitasun sana»: harreman afektibo berriak lantzeko tailerra, iraganeko bizipenak ere onartzea eta maneiatzea sustatzeko.
- «Aisialdia, plazerra eta gozamenak»: emakumeentzako asegarriak diren gizarte-jarduerak, suspertzera zuzendutako tailerra; nor bere denbora baloratzen ikastea, eta hura disfrutatzea.

3.2.4 Analisi kualitatiboaren ondorioak

Laburbilduz, eta eztabaida-taldeetatik, sakoneko elkarrizketetatik eta indarkeria matxistari aurre egin dioten emakumeen lantaldeetatik ateratako ondorioen ostean, herritarrek eta erakundeekin lan egiteko balizko ekintzak planteatu dira. Ildo estrategikoak, zein Plan honen helburu eta ekintzak, diagnostik ateratako emaitza eta ondorioen arabera ezarri dira. Finean, parte-hartze prozesu horietatik ateratako ondorioak markatzen diren lerro guztiak indartu eta sendotzen dituzte, baita horietan lan egiteko beharra ere.

Ildo estrategikoa: sentiberatzea, prebenitzea eta kontzientzia harraraztea

- Herritarrek sentiberatu eta kontzientzia harrarazteko beharrezko antzeman da, indarkeria matxistaren inguruko estereotipoekin eta estigmatizazioarekin hausteko. Herritarrek ezagutzen dute errealitatea, eta badituzte tresnak berdintasun ezari eta indarkeria matxistari aurre egiteko. Hori horrela izanda ere, zailtasunak daude arazo horri lotutako mitoak suntsitzeko; mikromatxismoen eta bortxaketaren kulturaren arteko lotura finkatzeko; eta intentsitate txikiko, ertaineko eta altuko indarkeria identifikatzeko.
- Aipatu da hezkuntza-eremua (hezkuntza formala zein ez-formala) dela herritarrengan eragiteko ahalmen handiena duena, eta sentiberatzea, kontzientzia harraraztea eta indarkeria matxistaganako paradigma-aldaketa gizarteratzeko eragile garrantzitsuenetako bat ere bai. Kasu batzuetan, hezkidetzak agertu da eraldaketarako lehenetsutako tresna gisa.
- Hezkuntza-eremuan, gazteekin egin beharreko lanak da esku hartzeko lehenetsutako oinarrietako bat. Horretarako, «Beldur Barik» eta antzeko estrategiak aipatu dituzte parte-hartzaileek, eta gazteei zuzendutako lana azpimarratu dute.

- Gizonei zuzendutako sentiberatze eta kontzientziazio lana ere aipatu dute indarkeria matxistaren aurkako funtsezko estrategia gisa. Positiboki baloratu da ideia hori: politika publiko eta estrategia gehienek emakumeekin lan egitea jaso izan dute, baina orain arte bizi izandakoak erakusten digu gizonekin berariaz lan egin beharra dagoela, gizarte parekideagoa lortzeko. Oso positibotzat jotzen da parte-hartzaileek lehentasun hori antzeman izana.
- Gizonekin lan egiteko, honako ideia hauek irten dira: indarkeria matxistaren inguruko aurrejuzuak suntsitzeko sentiberatze-estrategiak finkatzea; eta indarkeria matxistari aurre egiteko, eta gizonen eta emakumeen arteko harremanak lantzeko erantzukizun pertsonal eta kolektiboa lantzeko prozesuetan laguntzea. Parte-hartzaile batzuek zera adierazi dute: «ezin ditugu emakumeenganako gure harremanak aldatu, lehenengo gure arteko harremanak aldatzen ez baditugu».

Analisi kualitatiboaren emaitzaren eta ondorioen arabera, honako helburu hauek planteatu dira:

Helburu orokorra

Basauri udalerrian indarkeria matxista prebenitzea.

- **1. HE:** BASAURIARRAK SENTIBERATZEA, KONTZIENTZIA HAR DEZATEN INDARKERIA MATXISTA GIZARTEAREN ARAZO LARRIA DELA.
- **2. HE:** BERDINTASUNAREN ETA INDARKERIA MATXISTAREN ALORREKO HEZIKETA EZ-FORMALA SUSTATZEA BASAURIARRENTZAT.
- **3. HE:** HEZKIDETZA SUSTATZEA, UDALERRIKO HEZKUNTZA-EREMUAN.
- **4. HE:** BASAURIARREN PARTE-HARTZEA AREAGOTZEA INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO BORROKAN.
- **5. HE:** GIZONEK INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO BORROKAN PARTE HAR DEZATELA SUSTATZEA.

Ildo estrategikoa: arreta integrala, suspertzea eta ahalduntzea

- Udal eta udalez gairik baliabideak ezagutzera ematea da arreta egokia bermatzeko oinarria. Berdintasun Ataleko zerbitzuak herritarrei hurbiltzeko eskaera egin dute, eta prebentzioa zein biktimganako arreta modu transbertsalean lantzekoa. Prebentzioa lantzeko gune ezin hobea da Marienea, baina, batez ere, oso toki aproposa da indarkeriaren balizko kasu edo egoerak identifikatzeko.
- Bereziki garrantzitsutzat jo da indarkeria matxistaren biktima diren (edo izateko arriskua duten) emakumeentzako zerbitzuen, arloen eta baliabideen arteko arreta koordinatu, integral eta diziplina anitzekoa bermatzea.
- Etengabe aipatzen dira ahalduntze-prozesuak, indarkeria matxista prebenitzeko eta haren kontra jarduteko estrategia gisa. Sarbide moduan ere ikusten dira, eta indarkeria pairatzen, edota pairatzeko arriskua duten emakumeak antzemateko bide gisa. Ahalduntze prozesuak sendatzeko tresna gisa aurkezten dira, bai norbera suspertzeko, bai kolektiboa bera suspertzeko. Maitasun erromantikoa desmitifikatzera, indarkeria matxistaren aurkako jarrera aktiboa lantzerako, eta emakumeekin batera suspertze-dinamikak garatzera bideratuta daude.

Analisi kualitatiboaren diagnostikoaren emaitza eta ondorioen arabera, honako helburu hauek planteatu dira:

Helburu orokorra

Indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei arreta integrala bermatzea.

- **1. HE:** INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMENTZAKO ZERBITZU ETA BALIABIDEETARAKO SARBIDEA, ETA ARRETAREN ESTALDURA ETA KALITATEA HOBETZEA, AUKERA-BERDINTASUNEAN.
- **2. HE:** UDALEZ GAINDIKO ERAKUNDEEKIN ELKARLANA INDARTZEA, BERDINTASUNAREN ETA INDARKERIA MATXISTAREN ALORREAN.
- **3. HE:** INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN SUSPERTZEA BERMATZEA, ETA AHALDUNTZE-PROZESU INDIBIDUAL ETA KOLEKTIBOAK SUSTATZEA.

Ildo estrategikoa: salaketa publikoa, memoria eta erreparazioa

- Lehenago ere esan bezalaxe, herritarrek irmo gaitzesten dute indarkeria matxista, baina, aldi berean, aitortzen dute zaila dela egoera horri aurre egiteko estrategiak sortzea. Errealitate horrek frustrazio handia eragiten du, ez dagoelako hura eraldatzeko baliabiderik. Horrekin batera, efikazia eta eraginkortasuna bermatuko duten irtenbide kolektibo eta koordinatuak emateko beharrezana ere antzeman da.
- Sentiberatze eta kontzientziazio lanetik abiatuta, herritarrek diote beste aurrerapauso bat eman behar dela: indarkeria matxistaren aurrean, salaketa eta «0 tolerantzia» jarrera hartu behar dela. Horretarako, erakundeei eskatzen diete gehiago esku hartzeko, eta laguntzarako eta lankidetzarako sareak sustatzeko (herritarrek, oro har, eta erakundek, bereziki, gehiago har dezaten parte salaketa publikoko ekintzetan).
- Elkarrekin eta bestelako gizarte-erakundek, beren aldetik, aldaketak egiteko borondatea antzeman dute, baina eginbeharrak gainezka egiten die, eta ez daukate gauzak egiteko aukera handirik. Lehenetasunezko hartzen da Basauriko elkarrekin lan egitea, teoritik praktikara igarotzea.
- Aurrekoaren ildotik, parte hartzeko bideak finkatzeko ideia azpimarratu da, indarkeria matxistaren aurkako erabaki kolektiboak hartzeko eta gizarte parekideagorantz joateko.
- Indarkeria matxista konpondu ezin daitekeen errealitate gisa edota arazo kroniko gisa ikusia izan ez dadin lan egiteko beharra antzeman da. Aitzitik, arazo estruktural gisa hartu behar dela uste da, eta eremu zein diziplina guztietatik jorratu behar dela. Horretarako, gizartearen iruditeria sinbolikoa bera eraldatu behar da, indarkeria pairatu duten, pairatzen duten edo pairatzeko arriskua duten emakumeen estatusa duinago egiteko.
- Lehenetasuna dauka indarkeria matxista pairatu eta pairatzen duten emakumeen memoria kolektiboa eta historikoa berreskuratzeko lanak, aipatutako aldaketa estrukturala erdies-teko, eta emakumeei laguntza emateko —errealitate horren aurkako beren erresistentzia eta borroka estrategien aintzatespenean—.
- Etsipen-maila handia dago. Batzuetan, ulertezintasuna ere ageri da herritarren artean, indarkeria matxistaren zikloi eta betikotzeari azalpena aurkitzeari dagokionean. Arazo horri aurre egiteko, prestakuntza eta informazio gehiago eskatzen dute.
- Funtsezko helburuetako bat izan behar da indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin elkarlanean aritzea, eta beren bizitza-eremu guztietan erreparazioa emateko prozesuak sustatzea.

- Horrekin batera, lan egin behar da erakundeen aldetik aintzatespen handiagoa lortzeko, biktimen estatusa duinago egiteko, eta biktimen erreparazioa ekarriko duten zerbitzu eta baliabide gehiago egoteko

Analisi kualitatiboaren emaitza eta ondorioen arabera, honako helburu hauek planteatu dira:

Helburu orokorra

Indarkeria matxistaren aurrean «0 tolerantzia» jarrera sustatzea Basaurin.

- **1. HE:** HERRITARRAK, ERAKUNDEAK ETA HERRIKO ERAGILEAK MOBILIZATZEA ERAILKETA ETA ERASO SEXISTEN AURREAN.
- **2. HE:** INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEN MEMORIA BERRESKURATZEA.
- **3. HE:** INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEN ERREPARAZIO-PROZESUAK SUSTATZEA.

Helburu orokorrak

Plan honek hiru helburu orokor ditu (definitutako ildo estrategikoekin zuzenki lotuta daudenak).

Basauri udalerrian indarkeria matxista prebentzea.

Prebentzioa, gure ustez, funtsezkoa da indarkeria matxistaren aurkako borrokan: arazoaren muinera joan behar da, eta gizartea eraldatzea sustatu (hau da, beharrezko balore-aldaketa eman dadila bultzatzea). Zentzu horretan, honako hauek lortzeko estrategia batzuk finkatzen ditu Planak:

- Berdintasunean heztea, berdintasunezko harremanak bultzatzea, eta estereotipoak eta genero-rolak gainditzea.
- Herritarrak sentiberatzea eta indarkeria matxista ikusgai jartzea.
- Indarkeria matxistari aurre egiteko gizartearen konpromisoa sustatzea, errealitate horren kontzientzia harrarazteko prozesuen bitartez.

Arreta integrala bermatzea indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei.

Horren xedea da betearaztea indarkeria matxista jasaten duten emakumeek behar duten arreta integralak jarraitu beharreko irizpideak. Arreta, integrala eta kalitatezkoa izango bada, indarkeria antzemateko eta biktima horiek artatzeko prestakuntza egokia duten profesionalak eman behar dute, giza eskubideen alorretik helduta. Gainera, biktimen suspertzea eta ahalduntzea etorri behar da atzetik, eta ezinbestekoa da prozesuan esku hartzen duten zerbitzu guztien erakundearteko koordinazio egokia egotea.

Indarkeria matxistaren aurrean «0 tolerantzia» jarrera bultzatzea basauriarren artean.

Plan honek lortu nahi du udalerrri guztiak parte hartzea, herritar guztiek konpromisoa hartzea eta indarkeria matxista gaitzesteko jarrera hartzea: indarkeria matxistari erantzuterakoan, herritarrak izan daitezela aktibatzen direnak, aurrea hartzen dutenak.

Metodologia

Indarkeria Matxistaren Kontrako Tokiko Plan honetan erabilitako metodologia prozesu parte-hartzailea izan da. Izan ere, indarkeria matxista gai publikoa da, gizarte osoari dagokio, eta gizarte osoaren parte-hartzea eskatzen du. Gainera, diagnostikoan zehar esan bezalaxe, indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko, gizarteak hari buruz duen hautematea eraldatzen saiatu behar dugu. Hori dela eta, ezinbestekoa da parte-hartze prozesuari ekitea, eta saiatzea gizarte-eragileak bertan parte har dezatela.

lido horretatik, eta aintzat hartuta Berdintasun Atalak emakumeen parte-hartze soziopolitiko bultzatzeko egindako lana, herritarren talde esanguratsuak proiektuan barneratu, eta «ikerketak-ekintza-parte-hartzea (IEP)» filosofiaren osagai batzuk erabiliko dituen metodologia parte-hartzailea baliatuko dugu.

IEP, giza-errealitatei buruzko azterlanei aplikatzen zaien ikerketarako ikuspuntu metodologikoa da. Ikuspuntu gisa, ikertzeko moduari buruzko orientabide teorikoa jasotzen du. Lan egiteko ohiko moldeak gainditu nahi ditu IEP filosofiak, non ikerketaren xede den komunitateak ez duen parte hartzen ez prozesuan, ez emaitzetan. IEPren kasuan, errealitatea aztertzen duen prozesutik abiatu (ikerketak), eta horren gainean eragiten da (ekintza). Metodologiari dagokionez, berriz, ikerketaren xede diren pertsonak subjektu ere izatea bilatzen da, hau da, pertsona horiek aukera izatea ikertu beharreko arazoak definitzeko, lan-prozesuan laguntzeko eta Planaren ezarpenaren protagonista izateko (parte-hartzea).

Puntu horretara helduta, **prozesua** kontzeptua azpimarratu nahi dugu: amaierako emaitza bezain garrantzitsua da lana aurrera eramaterakoan herritarren eta Udaleko teknikarien parte-hartzea bilatzea.

Lan-metodologia diseinatzeko, batetik, aintzat hartu dira dagoeneko martxan egon, eta Berdintasun Ataletik zein Udaleko beste ataletatik sustatutako eremuak; hala egin da, koordinaziorako eta hausnarketarako guneak bikoiztu ez daitezkeen (Berdintasun Kontseilua, Jabekuntza Eskola edo Emakumeentzako Informazio Zentroa, besteak beste). Bestetik, diagnostikorako eta Planerako ad hoc egiturak eta taldeak antolatu dira, metodologia-prozesu egokia bermatzeko. Horren berri emango dugu jarraian.

Diagnostikoa egin eta ger **Talde Eragilea** sortu da, Plana bera diseinatzeko. Basauriko Udaleko Berdintasun Ataleko adituek osatutako lantalde teknikoa da. Hark diseinatu, egin, sustatu eta ezarri du prozesu osoa, hasieratik amaierara, eta fase guztietan egon da.

Datuak eta informazioa biltzeari dagokionez, berriz, teknika kualitatiboak antolatu eta ezartzeaz gain, bigarren mailako iturriak ere aztertu dira.

Lanaren faseak eta egindako jarduera nagusien laburpena

Jarraian, diagnostikoa eta Tokiko Plan hau egiteko fase nagusiak.

I FASEA: lanerako egiturak antolatzea

Ezinbestekotzat jotzen da indarkeria matxistaren alorreko indarreko legeria ezagutu eta betetzea bermatuko duten lantaldeak edo lan-egiturak sustatzea (ugaria da, gaur egun, alor horretako legeria: nazioartekoa, Europa mailakoa, Estatukoa eta Autonomia Erkidegokoa. Ikus 1.2 Atala). Nabarmendu beharra dago Istanbulko Hitzarmena (2011) dela indarkeria matxistaren alorreko lehenengo mekanismo loteslea. Bertan azpimarratzen da emakumeenganako indarkeria orotik babesteko, indarkeria hori prebenitzeko eta desagerrarazteko ardura beren gain hartu behar dutela estatu kide guztiek.

Gauzak horrela, zenbait lantalde eratuko dira, dagozkion erakunde eta udal erakundeetako adituekin lankidetzan aritzeko.

TALDE ERAGILEA

Berdintasun Ataleko eta, oro har, Basauriko Udaleko zenbait adituk osatzen dute Talde Eragilea:

- Berdintasun-teknikaria (bera da koordinatzailea eta Planaren arduraduna).
- Berdintasuneko eragile bi (diagnostikoa eta Plana egiteko).
- Marieneako dinamizatzailea.
- Marienearekin lotura duten praktiketako ikasleak.

TALDE ERAGILEAREN ZEREGINAK:

- Indarkeria Matxistaren Aurkako Tokiko Plana diseinatzeko diagnostikoa egitea.
- Tokiko Planaren proposamenaren ildo estrategikoak definitzea.
- Planean parte hartzea nahi den eragile sozialak eta erakundeak identifikatzea, eta haiekin harremanetan jartzea.
- Jarduera eta Plana diseinatzeko prozesua gidatuko duen marko legal eta kontzeptuala finkatzea.
- Planarekin lortu nahi diren helburu orokorrak eta espezifikoak definitzea, bai eta horiek erdiesteko ildo estrategikoak eta ekintza zehatzak ere.
- Gobernu Taldeari proposamena aurkeztea, onetsi dezan.
- Diagnostikoaren eta Planaren zabalkundearen modu aktiboan jardutea.

Talde Eragilearen bileren maiztasuna aldatuz joan da, diagnostikoaren eta Planaren diseinuaren beharrezanaren arabera, baina, gutxienez, astean behin batu da.

JARRAIPEN BATZORDEA

Plana diseinatzeko eta egiteko prozesua aberasteko xedez sortu da Jarraipen Batzordea, indarkeria matxistaren alorrean eskarmentu handia duten udalaz gaindiko erakundearen ordezkariak proiektuan parte hartzeko aukera izan dezaten.

Honako aditu hauek osatzen dute Jarraipen Batzordea:

- Ander Bergara, Emakunderen Erakundearteko Lankidetzaren Arloaren arduraduna.
- Mari Luz Esteban, antropologia irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean, ekintzailea-feminista eta Basauriko Emakumeen Elkarteko kidea.
- Mireia Espiau, Eudeleko berdintasun-teknikaria, eta berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako euskal udalerrien sarearen koordinatzailea.
- Gizarte-ongizateko koordinatzailea.
- Asier Irigorri Basaguren, Basauriko Udaleko Gizarte-politika Arloko ordezkaria.
- Talde Eragilea.

JARRAIPEN BATZORDEAREN ZEREGINAK:

- Diagnostikoa eta Tokiko Plana egiteko, horien edukiari, estrategiei eta esku-hartze ildoetarako buruzko aholkularitza lanak egitea (Jarraipen Batzordeko kideak, gaian adituak dira eta).
- Tokiko Plana ezartzeko prozesuan zehar aurrera eramandako ekintzen jarraipena eta azterketa egitea

Zeregin horiek tarteko, Jarraipen Batzordea lau aldiz batu da, Plana egiteko prozesuan zehar: lehenengo aldiz, Talde Eragileak egindako hasierako proposamenaren lehen azterketa egiteko; bigarren aldiz, diagnostikoa egin ostean, lortutako emaitzak ikusteko eta balizko esku-hartze ildoak zein lehentasunak finkatzeko; hirugarren aldiz, proposatutako ekintzak egokiak ote ziren hausnartzeko, eta diagnostikoaren zein Planaren dokumentuak berrikusteko; eta, azkenik, behin Plana, ildoak, ekintzak eta adierazleak finkatuta zeudela. Gainera, posta elektronikoko bidez beharrezko kontsultak egin, eta ekarpenak ere jaso dira, prozesu osoan zehar.

BERDINTASUNENKO INFORMAZIO BATZORDEA

Udalean ordezkariak duten alderdi politikoek zinegotziek osatzen dute Berdintasuneko Informazio Batzordea. Udalaren berdintasun-politiken gainean eztabaidatzea da Batzordearen zeregina, eta informazioa jaso du Plana egiteko prozesu osoan zehar.

Gobernu Taldeaz gain, Udalbatzako kide guztiek parteka ditzaten hau bezalako plangintza estrategikoak, eta aintzat hartuta Plan honek lau urteko irapena duela (hau da, legegaldia amaitu eta gero ere indarrean jarraituko duela), ezinbestekotzat jotzen da Udalbatza osoak parte hartzea Plana gizarteratzen eta bultzatzen. Lau aldiz bildu da Berdintasuneko Informazio Batzordea.

BERDINTASUN KONTSEILUA

Berdintasun Kontseilua da lanerako egitura funtsezkoetako bat, non udalerriko emakumeen eta feministen elkarteak batzen baitira. Orientabidea eman dute diagnostikoa eta Plana egiteko eta garatzeko prozesuan zehar: talde horiek dira, hain zuzen ere, Basauriko errealitatea eta emakumeen beharrezkoak hoberen ezagutzen dituztenak, eta gaur egungo zerbitzuen gabeziak hoberen antzematen dituztenak.

Gure abiapuntua da emakumeak berak direla beren aldaketa-prozesuen protagonistak eta, beraz, ezinbestekoa dela haiekin batera lan egitea.

BERDINTASUN KONTSEILUAREN ZEREGINAK:

- Udalerriko emakumeen elkarteek eta elkarte feministek indarkeria matxista bizi duten (edo bizitzeko arriskuan dauden) emakumeei dagokienez antzemandako beharrezkoak berri ematea. Izan ere, elkarte horiek dira, seguruenik, egoera hori bizi duten emakumeekin harremanetan egoteko aukera handiena dutenak.
- Emakumeek, jasotako arretari buruz dituzten eskaerak jakitera ematea, bai eta arreta horretan esku hartzen duten zerbitzuen arteko koordinazioa egitea.
- Administrazio publikoaren eta elkarten arteko bitartekaritza-lana egitea, eta haietarako topagunea izatea: elkartei jakinaraztea administrazioek zer urrats ematen dituzten eta, aldi berean, administrazioek elkarten ikuspuntuen berri izatea uneoro (ikus komunikatzeko bideak).
- Elkarteekin negoziatzea, jakiteko ea Planeko zein konpromiso hartzeko prest dauden.

Talde honekin izandako bilerekin dagokienez, gai-zerrenda batzuetan jaso da jada diagnostikoaren eta Planaren emaitzak eta aurrerapenak aztertzea.

BERDINTASUN ATALAREN ZERBITZUAK: MARIENEA

Marienea Basauriko Emakumeen Etxean dauden zerbitzuek lotura zuzena dute indarkeria matxistarekin. Zerbitzu horietako batzuek arreta zuzena ematen diete emakumeei —Emakumeentzako Informazio Zentroa, eta Sexu Informaziorako Bulegoa—. Beste batzuek —Jabekuntza Eskolak edo «1 ERA 2KAIN» programak— harreman transbertsala dute: berdintasunaren alde, eta indarkeria matxistaren aurka lan egiten dute, ahalduntzearen eta hezkidetzaren bitartez. Hori dela eta, Planak aurreikusitako neurri eta estrategia guztien berri izan behar dute bertan diharduten adituek, eta diagnostikoen emaitzen berri ere bai.

EGINKIZUNAK:

- Diagnostikorako eta Planerako interesgarria den informazioa ematea.
- Edukiak berrikustea.
- Diagnostikoa egiteko eta Plana idazteko harremanetarako pertsonak zehaztea eta beharrezko informazioa ematea.
- Zuzenean ezagutzea diagnostikoari eta Planari buruzko informazio guztia, eta batera hartutako erabakiak aplikatzea.

Horretarako, hiru bilera egin dira prozesuan zehar. Lehenengo bilera hasieran izan zen, diagnostikoa eta Plana egiteko proposamenaren kariaz: ildo estrategikoen berri eman zitzaizkien adituei, eta haien ekarpenak jaso ziren. Diagnostikorako informazioa jasotzeko fasea eta gero, beste bilera bat egin zen, aurrerapenen eta lortutako emaitzen berri emateko. Azkenik, dokumentuak Marieneako lantalde osoari aurkeztu zitzaizkien, behin betiko onespina eman aurretik.

Diagnostikoa eta Plana egin bitartean, gainera, zerbitzu batzuekin berriazko bilerak egin dira informazioa egiaztatzeko, harremanetarako pertsonak finkatzeko eta ideiak trukatzeko.

II. FASEA: Indarkeria matxistari buruzko bigarren mailako (TOKIKO) datuak jasotzea eta aztertzea

- Dagoeneko badagoen **udal informazioa** jasotzea (Berdintasun Atalaren eta beste atal batzuen laguntzarekin): Berdintasun Ataleko zerbitzuen, eta estrategikotzat hartzen ditugun beste udal arlo batzuen memoriak aztertzea; tokiko agiri eta txostenak aztertzea; Basauriko Erakundearteko Protokoloa aztertzea; eta abar.
- **Marko kontzeptualerako** eta **Printzipio gidari**etarako informazioa bliatzea.
- **Lege-markorako** informazioa bilatzea.
- Gaiari buruzko beste **azterlan, diagnostiko eta txosten** batzuk bilatzea.
- Jasotako informazioa **aztertzea**.

III. FASEA: Indarkeria matxistari buruzko bigarren mailako (UDALAZ GAINDIKO) datuak jasotzea eta aztertzea

- Bigarren mailako iturrietako informazioa eta datuak blitzea: EIN, EUSTAT, Genero-indarkeriaren Behatokia, Barne Ministerioa, Emakunde, eta abar.
- Bigarren mailako iturrien informazioa aztertzea, eta berezko datuak ematea, jasotako eta aztertutako informaziotik abiatuta.

- Bildutako eta aztertutako informazioa testuinguruan jartzea.

IV. FASEA: Lehen mailako datuak jasotzea

Diagnostikoaren lehen mailako datuak, hiru ikerketa-teknikaren bidez jaso ditugu:

1. EZTABAIDA-TALDEEN BITARTEZ

Eztabaida-taldea da «arreta handiz prestatutako elkarrizketa, zeina diseinatu baitago alde aurretik definitutako interes-eremu bati buruzko informazioa lortzeko, eta zeina giro permisibo eta ez-zuzendu batean garatzen baita. Zazpi eta hamar lagun arteko taldeak eratuko dira, moderatzaile aditu baten gidaritzapean. Eztabaida lasaia, eroso eta, sarri, ona ere izaten da parte-hartzaileentzat, aukera izaten dutelako beren ideiak eta iradokizunak adierazteko eta besteei azaltzeko. Taldeko kideek elkarri eragiten diote, eztabaidan zehar sortutako ideia eta iradokizunei erantzuten dietelako» (Krueger, 1991:24).

- Tresna horren bitartez lortutako informazioa, kualitatiboa da gehienbat. Herritarren hautematea eta iritzia ezagutzeko aukera emateaz gain, komunikaziorako bideak ezartzea ahalbidetzen digu, informazioa partekatzeko eta sentiberatzeko eta kontzientzia harrarazteko lanari ekiteko.
- Eztabaida-taldean saioek bi kontu garatzeko aukera ekarri dute: bizipenak (norberak bizi izandakoak/norberaren iritzia) eta proposamenak (errealitatea aztertzea eta hobetzeko proposamenak egitea).
- Eztabaida-taldeak diseinatu dira diagnostiko faserako estrategikotzat jotako emakume eta gizonen profilen arabera, eta Plana egiteko eta diseinatzeko ideiak eta proposamenak bideratzeko.
- Taldeak antolatzerakoan, aintzat hartu dira adina, parte-hartzaileak zein eremu edo egitura antolatutik datozen, eta haien sexua zein den (jotzen da beste sexuko pertsonak egoteak baldintzatu egin dezakeela parte-hartzaileek esateko daukatena, eta, hori dela eta, emakumeen taldeak eta gizonen taldeak egin dira).
- **7 eztabaida-talde** aurreikusi dira, zenbait profilatako basauriarrez osatuak:
 - **1. eta 2. taldea, emakume gazteak:** kolektibo horrekin bi talde antolatu dira, 16-26 urte arteko emakume gazteekin.
 - **3. taldea, gizon gazteak:** 16-26 urte arteko gizonak.
 - **4. taldea, emakume liderrak:** 26-60 urte arteko emakumeak, elkarte edo talde antolatuetako kide direnak.
 - **5. taldea, gizon konplizeak:** 26-60 urte arteko gizonak, elkarte edo talde antolatuetako kide direnak.
 - **6. taldea, emakume adinekoak:** 65 urtetik gorako emakumeak.
 - **7. taldea, gizon adinekoak:** 65 urtetik gorako gizonak.

2. LANTALDEEN BITARTEZ

Jada esan bezalaxe, Plan honek izaera parte-hartzailea eta dinamikoa du. Horren osagarri gisa, lehentasunezkoa da indarkeria matxista zuzenean jasan dutenek parte hartzea. Indarkeria matxistari aurre egin dioten emakume biktimen testigantza jasotzea garrantzitsua dela uste dugu, haien bizipenen berri ematea, zer zailtasun izan dituzten jakitea, eta prozesuan zer huts eta beharrian identifikatu dituzten.

INDARKERIA MATXISTA PAIRATU DUTEN EMAKUMEEN TALDEA

Badakigu oso zaila dela indarkeria matxistari zuzenean lotutako gaiei heltzeko lantaldea eratzea indarkeria hori jasan duten emakumeekin, hau da, beren osotasun fisiko eta psikikoa larriki kaltetua izan duten horiekin. Zentzu horretan, gogoan izan dugu Emakundek «Genero-indarkeriaren biktime diren emakumeak: bizipenak eta aldarrikapenak. Emakunde. 2012» txostena egiteko jorrotutako bidea. Bertan, erasotzailearekiko lotura afektiboa behin betiko hautsi (erasotzailearengandik urtebetez bananduta egotea, gutxienez —izatez zein zuzenbidez—), eta suspertze-prozesuaren fase aurreratuan dauden emakumeek parte hartzea proposatu zuten.

Hauexek izan dira lantalde honen helburuak:

- Indarkeria bizi izan duten emakumeek egoera horretatik irteteko prozesuan bizi izandakoak ezagutzea: zailtasunak, indarguneak, beldurrak eta beharrianak.
- Jakitea zer egoeratan dauden orain: zelan dagoen beren autoestimua, autonomia eta ahalduz, erresilientziarako ahalmena...
- Gizarteak eta erakundeek indarkeria matxistari ematen dioten tratamendiari buruzko beren iritzia jasotzea (sentiberatze-kanpainei buruz, sarbideei buruz, biktimekin esku hartzen duten adituei buruz...).

3. ELKARRIZKETAK SAKONEAN

Diagnostikoa egiteko banakako bost elkarrizketa egin dizkiete berdintasunaren alorrean adituak izan, eta indarkeria matxistaren kasuak artatu eta tratatu dituzten pertsoneri. Honako hauek elkarrizketatu dituzte:

- Gizarte-ongizateko zinegotzia.
- Basauriko Udaleko berdintasun-technikaria.
- Emakumeentzako Informazio Zentroko abokatua eta arduraduna.
- Udaltzaingoko sarjentua (bera da bere arloko arduraduna, indarkeria matxistari aurre egiteko Protokoloan).
- Basauriko Udaleko Gizarte-ongizate Arloko arduraduna.

Elkarrizketa horien helburua (ikus 2. Eranskina, elkarrizketetarako gidoiak) da zuzenean ezagutzea errealitate horretan esku hartzen duten zerbitzuen funtzionamendua, eta jakitea adituek zelan hautematen dituzten antzemandako beharrianak eta gaur egun, oraindik ere, indarkeria matxista prebenitzeko, artatzeko eta detektatzeko dauden gabeziak.

IV. FASEA: Diagnostikoaren emaitzak parte-hartze bidez baliozkotzea

Informazioa jasotzeko tresna kualitatiboan bitartez bildutako emaitzen hiru aurkezpen egin dira fase honetan:

- Feedback saioa indarkeria matxista pairatzen duten emakumeen taldearekin.
- Feedback saioa eztabaida-taldeetan parte hartu dutenekin.
- Feedback saioa teknikari eta politikariek: banan-banan elkarrizketatutakoez gain, berdintasun, gazteria eta gizarte-ongizateko baliabide eta programen teknikari arduradunei ere egin zitzaizen parte hartzeko gonbidapena.

Diagnostikoaren feedbacka egiteaz gain, Planeko ekintzen lehen proposamena aurkezteko ere baliatu ziren saio horiek.

V. FASEA: diagnostikoa eta Indarkeria Matxistaren Aurkako Tokiko Plana idaztea, egiaztatzea eta aurkeztea

- Plan hau egiteko azken fasean zehar, aurkezpenak egin dira Udaleko ataletan —bai Planeko ekintzetako batzuk aurrera eramateko ardura dutenen aurrean, bai jada eratu-tutako gainerako lan-egituretan—. Zehazkiago, honako hauei aurkeztu zaie Plana:
 - Kultura Arloko arduradunari.
 - Giza Baliabideen Arloko arduradunari.
 - Gizarte-ongizate Arloko teknikariei.
 - Berdintasun Kontseiluari.
 - Berdintasuneko Informazio Batzordeari.
- Azkenik, Indarkeria Matxistaren Aurkako Basauriko Tokiko Planaren aurkezpen publikoa egin zen, 2016ko abenduaren 15ean eta 16an (ikus 4. Eranskina, Egitaraua).

**Indarkeria
matxistaren
kontrako tokiko
plana: Basaurin
Matxismoari
Planto!**

Jarraian, Indarkeria Matxistaren Aurkako Basauriko Tokiko Planak aurreikusitako ekintzak. Plana lau urtean zehar ezarriko da (2017-2020).

Ekintzak fitxa teknikoetan aurkezten dira. Ekintza zehatza jaso, eta zertan datzan azaltzen dute, ahalik eta xeheen eta laburren. Hauxe da ekintza (fitxa) bakoitzak jarraitzen duen egitura:

- **Ildo estrategikoa:** Plana garatzeko xedeak, eta diagnostikoan antzemandako gakoak. Ildo guztiek dute garrantzi bera, eta batean lortu beharreko xede eta emaitzek eragina dute beste guztietan.
- **Helburu orokorra:** ildo estrategiko bakoitzaren atzean dagoen izaera orokorreko xedea.
- **Helburu espezifikoak:** helburu orokorra lortzeko eman beharreko urratsak, hau da, helburu orokorra osatzen duten helburu partzialak.
- **Helburu operatiboa:** helburu espezifikoak zehaztea, ekintza zehatzak planteatu ahal izateko.
- **Deskribapena:** ekintzak azaltzea, eta adieraztea, modu argi eta laburrean, zer eta zelan egingo den.
- **Oinarriak:** dena delako ekintza zertarako jarri behar den martxan, administrazio publikoen mekanismo juridikoak eta arauak aipatuta, eta ekintza zehatz hori beharrezko egiten duten beharizan sozialak islatuta
- **Jasotzaileak:** ekintza zein norbanako, zerbitzu edo talderi zuzenduta dagoen.
- **Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta erakundeak:** arlo arduradun eta laguntzaileen arteko bereizketa, erantzukizun-maila desberdinekin.
- **Gauzatzeko aldia:** Planean ekintza mota bi bereizten dira: batetik, Berdintasun Atalaren ardatz estrategikoetan oinarritutakoak; eta bestetik, iraupen zehatza aurreikusita duten ekintzak.
- **Aurrekontua:** giza baliabideen (Ataleko langileena, eta ekintza zehatzetarako kontratatutakoena) eta baliabide materialen kostuaren arabera kalkulatu da. Ekintza bakoitzean zehazten da zein arlori dagokion hura finantzatzea.
- **Prozesuaren adierazleak:** programatutako ekintzetatik zenbat eta zein ekintza egin diren monitorizatzeko balio dute. Izan daitezke adierazle kuantitatiboak (informazio espezifikoak ematen dute, eta zenbakien gainekoa) edo kualitatiboak (bilatutako xedea bete den ala ez ebaluatzeko informazioa ematen dute).

Jarraian, Plan honen ildo estrategikoak aurkezten dizkizuegu, diagnostikoan jasotako datuen arabera definitutak eta ildo bakoitzari dagozkion ekintzak.

Sentiberatzea, prebenitzea eta kontzientzia harraraztea

Indarkeria matxistari aurre egitearekin batera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu behar da. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako EAEren VI. Planak dio balore-aldaketa landu behar dela «*bizitza ekonomikoaren, politikoaren, sozialaren eta kulturalaren arlo guztietan, berdintasuneranzko gizarte-eraldaketa sustatzeko. Norbanakoen ideietan eta gizartearen ordena sinbolikoan eragitea, lan zaila bada ere, ezinbestekoa da, aldaketak eragiteko eta eraldatzeak sustatzeko*» (Emakunde, 2014:12). Gizarte-eraldaketa hori funtsezkoa da, indarkeria matxistarik gabeko gizartea lortuko badugu.

Horrela, ardatz honen **xedea** da berdintasuna sustatzea prebentziotik, eta gizartearen zenbait maila eta eremu sentiberatzetik eta kontzientzia harraraztetik. Basauriarren parte-hartze aktiboa bultzatu nahi da, indarkeriaren isiltasun konplizearekin hausteko.

- *Prebentzioa*: berdintasunean heztea, berdintasunezko harremanak bultzatzea eta estereotipoak zein genero-rolak gaingitzea, indarkeria matxistari aurre egin ahal izateko nahitaezko aurretiazko urrats gisa.
- *Sentiberatzea*: indarkeria matxista gizartearen arazoa dela ikusaraztea, dagokion garrantzia eman diezaioeten eremu guztietatik, eta gizarteak, oro har, berezko errealitate gisa har dezan arazo hori.
- *Kontzientzia harraraztea*: indarkeria matxista ikusarazteaz gain, beharrezkoa da gizarteak horren aurka borrokatzeko konpromisoa hartzea. Horrek esan nahi du gai horiei guztiei buruz hausnartzeko guneak eskaini behar direla, jarrera kritiko batetik. Herritarrek diskurtsoa ulertu eta barneratzea bilatzen da, urrats bat gehiago eman, eta ekintzetara igaro ahal izateko.

Finean, bilatzen da Plana izatea indarkeria-egoerei aurre egiteko tresna, prebentziotik, sentiberatzetik eta kontzientzia harraraztetik lan egiteko.

Hori lortze aldera, honako helburu espezifiko hauek barne biltzen ditu ildo estrategiko honek:

- **1. HE:** BASAURIARRAK SENTIBERATZEA, KONTZIENTZIA HAR DEZATEN INDARKERIA MATXISTA GIZARTEAREN ARAZO LARRIA DELA.
- **2. HE:** BERDINTASUNAREN ETA INDARKERIA MATXISTAREN ALORREKO HEZIKETA EZ-FORMALA SUSTATZEA BASAURIARRENTZAT.
- **3. HE:** UDALERRIAN, HEZKUNTZAREN EREMUAN, HEZKIDETZA SUSTATZEA, UDAL ESKUMENETATIK ABIATUTA.
- **4. HE:** BASAURIARREN PARTE-HARTZEA AREAGOTZEA INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO BORROKAN.
- **5. HE:** GIZONEK INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO BORROKAN PARTE HAR DEZATELA SUSTATZEA.

Ildo estrategikoa	1	PREBENTZIOA, SENTIBERATZEA ETA KONTZIENTZIA HARRARAZTEA							
Helburu orokorra		Basauri udalerrian indarkeria matxista prebenitzea							
Helburu espezifikoa	1.1.	Basauriarrak sentiberatzea, indarkeria matxista gizartearen arazo larria dela kontzientzia har dezaten.							
Helburu operatiboa	1.1.1.	Herritarrak errealitate horri buruz sentiberatzea Berdintasun Ataletik.							
Ekintza	1.1.1.1	Indarkeria Matxistaren aurkako Tokiko Planaren zabalkundea egitea.							
Deskribapena	<p>Herritar orori, udal teknikari eta politikariei, elkarteei eta, batez ere, Plana ezartzen zuzenean ala zeharka esku hartzen duten udal zerbitzu eta arlori zuzendutako zabalkundea egingo da.</p> <p>Horretarako, Plana martxan jarri aurretik, berau aurkezteko jardunaldiak egingo dira 2016ko abenduaren 15ean eta 16an. Gainera, Planean aurreikusitako ekintza guztiak jasotzen dituen txostena egingo da, Udalaren arlo eta zerbitzuetan banatzeko. Ekintza guztiak deskribatuko ditu aipatutako txostenak, profesional bakoitzak beharrezko informazioa izan dezan ekintza horiek egokiro burutu eta koordinatzeko.</p>								
Oinarriak	Indarkeria Matxistaren Aurkako Tokiko Plana abiarazteko, ezinbestekoa da herritar, erakunde eta elkarte guztiek parte hartzea, eta, beraz, Plana egokiro ezartzeko, ezinbestekoa da ezagutzera ematea. Eragindako arlo, aditu eta kolektibo guztien konpromisoa lortzeko, baina, sentiberatze-lana egin behar da aurretiaz.								
Jasotzaileak	Udal arloetako langileak; herritarrak, oro har; eta elkarteak.								
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak	Laguntzaileak			Gauzatzeko aldia				
	<ul style="list-style-type: none"> •Berdintasun Atala. •Alkatetza. •Prensa eta Protokolo Atala. 	<ul style="list-style-type: none"> •Gizarte-politika Arloa. •Berdintasun Kontseilua eta Basauriko Emakumeen Elkarte. 			2017	2018	2019	2020	
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak				
Jatorria eta zenbatekoa	<p>Berdintasuneko langileak: 25 ordu, 1.000 €.</p> <p>Prensa eta Protokolo langileak: 10 ordu, 400 €.</p> <p>Publizitate-euskarria: 600 €.</p> <p>Plana maketatzea: 1 200 €.</p>								
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> •Jardunaldietara etorritakoen kopurua, sexuka •Zenbat txosten bidali diren •Planaren zenbat aurkezpen egin diren 								

Ildo estrategikoa	1	PREBENTZIOA, SENTIBERATZEA ETA KONTZIENTZIA HARRARAZTEA .						
Helburu orokorra		Basauri udalerrian indarkeria matxista prebenitzea						
Helburu espezifikoa	1.1	Basauriarrak sentiberatzea, kontzientzia har dezaten indarkeria matxista gizartearen arazo larria dela.						
Helburu operatiboa	1.1.1	Herritarrak errealitate horri buruz sentiberatzea sustatzea, Berdintasun Ataletik.						
Ekintza	1.1.1.2	Urtero sentiberatze kanpainak antolatzea, azaroaren 25era begira (Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna).						
Deskribapena	Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna begira (azaroak 25), indarkeria matxistaren eta horren adierazpen guztien inguruko sentiberatze-jarduerak antolatuko dira. Urtean urteko errealitatera egokituko da kanpaina bakoitza, ager daitezkeen indarkeria mota berriak aintzat hartuta, edota indarkeria matxistak kolektibo desberdinetan izandako eragina. Horrela, bada, urte bakoitzean kolektibo jakin baten inguruan landu daiteke kontua (emakume gazteak, emakume etorkinak, anitztasun funtzionala dutenak, adinekoak, LGTBI kolektiboa...). Arreta berezia jarriko zaio herritarren erantzukizunari, bereziki, gizonezkoenari. A25eko kanpainarako, gainera, tailerrak eta ikastaroak egingo dira Jabekuntza Eskolan, indarkeria matxista zenbait eremutatik lantzeko (prebentzioa, arreta, sentiberatzea, herritarren eta erakundeen erantzukizuna, komunikabideak, heziketa sexista...).							
Oinarriak	Nazioarteko egunek aukera paregabea ematen dute herritarrengana hurbiltzeko, errealitate horren gainean sentiberatzeko, gaitzespena sustatzeko eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan parte har dezatela bul-tzatzeko.							
Jasotzaileak	Herritar guztiak (eta urte bakoitzerako hautatutako kolektibo zehatza, bereziki).							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasun Atala • Alkatetza. 		<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-ongizate Arloa • Berdintasun Kontseilua 		2017	2018	2019	2020
					•	•	•	•
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
Jatorria eta zenbatekoa	Berdin-tasuneko langileak: 70 ordu, 2.800 €. Baliabi-deak eta kanpaina, aurrek.: 4.000 €.	Berdin-tasuneko langileak: 70 ordu, 2.800 €. Baliabi-deak eta kanpaina, aurrek.: 4.000 €.	Berdin-tasuneko langileak: 70 ordu, 2.800 €. Baliabi-deak eta kanpaina, aurrek.: 4.000 €.	Berdin-tasuneko langileak: 70 ordu, 2.800 €. Baliabi-deak eta kanpaina, aurrek.: 4.000 €.	Ikastaroak eta tailerrak egiteko aurre-kontua, Jabekuntza Eskolaren aurrekontu globalaren barruan dago.			
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Sentiberatze-materiala: zenbat ale banatu diren • Egindako jardueren kopurua • Zenbat tailer eta ikastaro egin diren • Tailerretan eta ikastaroetan zenbat lagunek hartu dute parte, sexuka • Jardueren urteko egitaraua • Antolatzaileen balorazioa 							

Ildo estrategikoa	1	PREBENTZIOA, SENTIBERATZEA ETA KONTZIENTZIA HARRARAZTEA				
Helburu orokorra		Basauri udalerrian indarkeria matxista prebenitzea				
Helburu espezifikoak	1.1.	Basauriarrak sentiberatzea, eta indarkeria matxista arazo sozial larria denaz kontzientzia harraraztea.				
Helburu operatiboa	1.1.1.	Berdintasun Ataletik, gizartea sentiberatzea, errealitate horri buruz.				
Ekintza	1.1.1.3	Martxoaren 8ko eta ekainaren 28ko kanpainak Plan honetara egokitzea; eta, kanpaina horiek diseinatzerakoan, indarkeria matxista transbertsalitatek lantzea.				
Deskribapena	Martxoaren 8ko kanpaina (Emakumeen Nazioarteko Eguna) eta ekainaren 28koa (LGTBI kolektiboen Nazioarteko Eguna) egingo dira Plan honen markora egokituz, eta indarkeria matxistari buruzko edukia ere txertatuko da bertan. Bestalde, antolatutako tailerrek, erakusketek edo ikastaroek genero-desberdinkeria landuko dute transbertsalitatek.					
Oinarriak	Berdintasunaren eta emakumeen eskubideen aldeko borroka oroitzeko beste data batzuk ere oso baliagarriak izan daitezke, estrategikoki, indarkeria matxistari heltzeko, genero-desberdinkeria transbertsalitatek landuta. Gainera, horrek guztiak indarkeria matxistaren gaiari heltzea zein garrantzitsua den ikusarazteko aukera emango du emakumeen eta gizonen arteko berdintasun ezan oinarritutako egitura sozial batetik. Izan ere, eredu heteropatriarkala urratzen duten guztiak emakumeak diskriminatu egiten baititu.					
Jasotzaileak	Herritarrak, oro har					
Helburuak gauatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak	Laguntzaileak		Gauatzeko aldia		
	• Berdintasun Atala	• Gizarte-politika Arloa. • Gazteria Atala. • Immigrazio Atala	2017	2018	2019	2020
			•	•	•	•
Aurrekontua: Jatorria eta zenbatekoa	2017	2018	2019	2020	Oharrak	
	Berdintasuneko langileak: 20 ordu, 800 €. Baliabideak eta kanpaina, aurrek.: 2.000 €.	Berdintasuneko langileak: 20 ordu, 800 €. Baliabideak eta kanpaina, aurrek.: 2.000 €.	Berdintasuneko langileak: 20 ordu, 800 €. Baliabideak eta kanpaina, aurrek.: 2.000 €.	Berdintasuneko langileak: 20 ordu, 800 €. Baliabideak eta kanpaina, aurrek.: 2.000 €.		Ikastaroak eta tailerrek egiteko aurrekontua, Jabekuntza Eskolaren aurrekontu globalaren barruan dago.
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Sentiberatze-materiala: zenbat ale banatu diren • Zenbat tailer eta ikastaro egin diren • Tailerretan eta ikastaroetan zenbat lagunek hartu dute parte (sexuka) • Parte-hartze prozesuetan lortutako inplikazioa • Herritarrek/taldeek antolatutako jarduerak (kopurua eta mota) 					

Ildo estrategikoa	1	PREBENTZIOA, SENTIBERATZEA ETA KONTZIENTZIA HARRARAZTEA						
Helburu orokorra		Basauri udalerrian indarkeria matxista prebenitzea						
Helburu espezifikoa	1.1.	Basauriarrak sentiberatzea, indarkeria matxista gizartearen arazo larria dela kontzientzia har dezaten.						
Helburu operatiboa	1.1.1.	Herritarrak errealitate horri buruz sentiberatzea Berdintasun Ataletik.						
Ekintza	1.1.1.4	Herriko gizarte-eragileekin udalerriko jai-eremuetan eraso matxistei aurre egiteko estrategiak lantzeko hasitako prozesua sendotzea.						
Deskribapena	Herriko jai-eremuetan emandako eraso sexistak prebenitzeko, salatze eta aurre egiteko estrategiei lotuta, udalerriko taldeek abiarazitako parte-hartze proiektuek aurrera jarraitzea sustatuko da. Horren harira, Berdintasun Atalak laguntza teknikoa emango du martxan jarriko diren estrategiak eta ekintzak diseinatu eta antolatze. Horren bidez, jarraipena emango zaio Basauriko Jaietarako erasoen aurkako protokoloari (zeina urtero ebaluatuko da), eta Herriko Taldeak-ekin eta auzoetako jai-batzordeekin koordinazioa sendotuko da.							
Oinarriak	Plan hau garatzeko metodologia parte-hartzailea erabili da, indarkeria matxistaren aurkako borroka erakundeen, elkarten eta herritarren arteko koordinazioa eta konpromiso bateratua eskatzen duelako. Ikuspuntu horretatik, Basauriko talde jakin batzuen parte-hartze prozesuak baliatzeak aukera ematen digu konpromiso sozial handiagoa lortzeko eta, aldiberean, gizartea errealitate honi buruz sentiberatzea sustatzeko.							
Jasotzaileak	Gizarte-eragileak, Herriko Taldeak, jai-batzordeak eta herritarrak, oro har.							
Helburuak gauatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauatzeko aldia			
	<ul style="list-style-type: none"> •Berdintasun Atala •Kultura Atala 		<ul style="list-style-type: none"> •Gazteria Atala •Berdintasun Kontseilua •Herriko Taldeak •Auzoetako jai-batzordeak 		2017	2018	2019	2020
					•	•	•	•
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
Jatorria eta zenbatekoa	Berdintasuneko langileak: 60 ordu, 2.400 €. Kulturako langileak: 10 ordu, 400 €.	Berdintasuneko langileak: 60 ordu, 2.400 €. Kulturako langileak: 10 ordu, 400 €.	Berdintasuneko langileak: 60 ordu, 2.400 €. Kulturako langileak: 10 ordu, 400 €.	Berdintasuneko langileak: 60 ordu, 2.400 €. Kulturako langileak: 10 ordu, 400 €.				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> •Urtean zenbat bilera egin diren •Zenbat salaketa-ekintza egin diren •Prozesuetan zenbat parte-hartzaile egon diren, sexuka •Zenbat kartel egin diren •Banatutako materiala •Antolatzaileen balorazioa 							

Ildo estrategikoa	1	PREBENTZIOA, SENTIBERATZEA ETA KONTZIENTZIA HARRARAZTEA						
Helburu orokorra		Basauri udalerrian indarkeria matxista prebenitzea						
Helburu espezifikoak	1.1.	Basauriarrak sentiberatzea, indarkeria matxista gizartearen arazo larria dela kontzientzia har dezaten.						
Helburu operatiboa	1.1.2	Internet eta sare sozialak kontzientzia harrarazteko eta zabalkundea egiteko erabiltzea sustatzea.						
Ekintza	1.1.2.1	Udalerriko teknologia-baliabideak eta gizarte-sareak erabiltzea Berdintasun Ataletik aurrera eramaten diren tailer, hitzaldi, ikastaro eta kanpainak zabaltzeko.						
Deskribapena	<p>Udalaren baliabide teknologikoak eta sare sozialak erabiliko dira (Marienearen Facebooka, eta Marienearen zein Basauriko Udalaren webguneak) Jabekuntza Eskolan antolatutako jardueren, tailerren, ikastaroen eta hitzaldien berri emateko, bai eta Berdintasun Atalak bultzatutako kanpainen berri emateko ere. Helburua, ahalik eta jende gehienek har dezala parte da.</p> <p>Gainera, bazkideei, emakumeen elkartei, eta beste elkarte zein gizarte eragileei informazio interesgarria bidaltzen jarraituko du posta elektronikoz, eskolaren jardueretan beren parte-hartzea finkatzeko.</p> <p>Beste alde batetik, orain arte egin bezalaxe, autonomia erkidego, Estatu, Europa zein nazioarte mailan indarkeria matxistari buruz argitaratutako berrien, txostenen eta argitalpenen zabalkundea egingo da.</p>							
Oinarriak	Teknologia berriak —bereziki, sare sozialak— dira, gaur egun, herritarren arteko komunikabide nagusietako bat (batez ere, gazteen artean). Gauzak horrela, molde berrietara egokitu beharra dago, ahalik eta jende-kopuru handienarengana heldu nahi badugu. Sareok gizartearen duten indarra baliatzea da kontua, norbanakoen hautemateetan eragiteko, gizarte gehiago sentiberatzeko eta gehiago parte har dezala lortzeko. Gainera, lehenetsuneko da jada dauden loturak sendotzea eta, zabalkunde horretan, Marieneako kideak protagonista bihurtzea.							
Jasotzaileak	Marieneako kideak, Berdintasun Kontseiluan parte hartzen duten elkarteak eta herritarrak, oro har.							
Helburuak gauatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauatzeko aldia			
	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasun Atala Prensa eta Protokolo Atala Informatika Atala 		<ul style="list-style-type: none"> Kultura Atala Berdintasun Kontseilua eta Basauriko Emakumeen Elkarte 		2017	2018	2019	2020
					•	•	•	•
Aurrekontua: Jatorria eta zenbatekoa	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
	Berdintasuneko langileak: 5 ordu, 200 €. Prensa eta Protokolo langileak: 5 ordu, 200 €. Informatikako langileak: 5 ordu, 200 €.	Berdintasuneko langileak: 5 ordu, 200 €. Prensa eta Protokolo langileak: 5 ordu, 200 €. Informatikako langileak: 5 ordu, 200 €.	Berdintasuneko langileak: 5 ordu, 200 €. Prensa eta Protokolo langileak: 5 ordu, 200 €. Informatikako langileak: 5 ordu, 200 €.	Berdintasuneko langileak: 5 ordu, 200 €. Prensa eta Protokolo langileak: 5 ordu, 200 €. Informatikako langileak: 5 ordu, 200 €.	Berdintasuneko langileak: 5 ordu, 200 €. Prensa eta Protokolo langileak: 5 ordu, 200 €. Informatikako langileak: 5 ordu, 200 €.			
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> Facebookeko sarreren kopurua. Facebookeko lagunen kopurua. Ikastaro eta tailerretan parte hartzen dutenen artean, zenbatek jaso duten informazioa sare sozialen bidez. Indarkeria matxistari buruz komunikabide teknologikoen bidez jasotako kontsulten kopurua. Bidalitako mezu elektronikoko kopurua. Zenbat txosten eta berriren zabalkundea egin den. Argitalpenetara egindako bisiten kopurua, sexuka. Herritarrek, oro har, eta kideek, bereziki, izandako parte-hartzearen balorazioa. 							

Ildo estrategikoa	1	PREBENTZIOA, SENTIBERATZEA ETA KONTZIENTZIA HARRARAZTEA					
Helburu orokorra		Basauri udalerrian indarkeria matxista prebenitzea					
Helburu espezifikoak	1.2.	Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren alorreko heziketa ez-formala sustatzea basauria- rentzat.					
Helburu operatiboa	1.2.1.	Indarkeria matxistaren alorrean Jabekuntza Eskolak ikasleekin, oro har, eta, bereziki, biktime- kin, egindako lana sendotzea.					
Ekintza	1.2.1.1	Jabekuntza Eskolaren urteko plangintzan ikastaroak txertatzea, hain zuzen ere, berdintasun- aren inguruko gai transbertsalei buruzkoak, eta indarkeria matxista hainbat esparrutatik jorratzeko beharrari buruzkoak.					
Deskribapena	<p>Jabekuntza Eskolak ikastaroak eskaintzen jarraituko du, urtero-urtero. Batetik, berdintasunari eta indarkeria matxistari lotutako gai transbertsalak lantzeko ikastaroak egingo dira, interseksionalitatearen ikuspuntua aintzat hartuta. Bestetik, indarkeria matxistari buruzko edukia duten ikastaro espezifikoak egongo dira, indarkeria matxistak kolektibo desberdinetan zer eragin duen eta zelan adierazten den kontuan hartuta.</p> <p>Era berean, Jabekuntza Eskolako kideen eta ikasleen eskaerak aintzat hartuko dira. Aipatutakoaz gain, indarkeria matxista jasan duten emakumeei laguntzeko taldea abiaraziko da. Horri esker, biktimek eskatutako ikastaroak, edota haien susperraldi eta ahalduntze prozesurako egoki direnak hartuko dira kontuan, ikastaroak antolatuta eta programatzerakoan.</p>						
Oinarriak	Jabekuntza Eskola erreferente bilakatu da Basauri eta inguruko herrietako emakumeentzat azken urte hauetan: nabarmen egin du gora ikastaroetan parte hartu duten ikasleen kopurua, eta, gainera, ikastaroei buruzko balorazio ona egin dute. Beste alde batetik, indarkeria matxista jasan, eta berau identifikatzeko zailtasunak dituzten emakume askorentzako ihesbidea da Eskola; biktimek konfiantzazko eremua dela adierazi dute, eta aukera ematen diela beren bizipenak partekatzeko eta laguntza eskatzeko. Behar-beharrezkoa da kontuan hartzea indarkeria matxista jasaten dutenen beharrezan, arreta integrala bermatuko duten suspertze eta ahalduntze prozesuetan aurrera egiteko.						
Jasotzaileak	Basauriko eta inguruko udalerrietako emakumeak.						
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak	Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	• Berdintasun Atala			2017	2018	2019	2020
				•	•	•	•
Aurrekontua: Jatorria eta zenbatekoa	2017	2018	2019	2020	Oharrak		
					Ekintza honen aurrekontua, Jabekuntza Eskolaren aurrekontu globalaren barruan dago.		
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Programatutako ikastaro eta jardueren kopurua. • Ikastaroetako ikasleen kopurua. • Ikasleek ikastaroei buruz egindako balorazioa. 						

Ildo estrategikoa	1	PREBENTZIOA, SENTIBERATZEA ETA KONTZIENTZIA HARRARAZTEA						
Helburu orokorra		Basauri udalerrian indarkeria matxista prebenitzea						
Helburu espezifikoa	1.2.	Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren alorreko heziketa ez-formala sustatzea basauriarrentzat.						
Helburu operatiboa	1.2.2.	Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren alorreko prestakuntzan lankidetzan sustatzea gizarte eragileekin.						
Ekintza	1.2.2.1	Herritarrei indarkeria matxistaren kontzientzia harrarazteko antolatutako jardueretarako koordinatzea gaiari buruzko ezagutzak eta eskarmentua duten emakumeen elkarteekin, eta jarduera horiek Plan honetan sartzea.						
Deskribapena	<p>Udalerriko emakumeen elkarteekin koordinazioa sustatuko da, hain zuzen ere, indarkeria matxistari buruzko ezagutzak eta eskarmentua izan, eta indarkeria hori prebenitzeko eta gaiari buruz sentiberatzeko ikastaroak, tailerrak eta jarduerak antolatzea aurreikusten dutenekin. Plan hau egiteko prozesuan, 6 tailer eman dituzte Basauriko Emakumeen Elkarteak eta Marienea Elkarteak, udalaz gaindiko erakundeek finantzatuta.</p> <p>Berdintasun Kontseiluan ordezkariak duten emakumeen elkarteek kanpoko finantzaketa eskatzen jarraitzea bultzatuko da, Plan hau ezartzen lagunduko duten ekintzak proposatzeko.</p>							
Oinarriak	Udalerriko elkarteekin koordinatzea funtsezkoa da; Basauriko emakumeen elkarteekin, bereziki, erakundeek eta elkarteek erantzun bateratua emateko indarkeria matxistari. Ondare esanguratsua du Basauriko mugimendu feministak, legatu kritiko eta proposamengilea. Hamarkada asko daramate herriko emakumeak antolatzen, emakumeon eskubideen alde eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko; mobilizazio hori funtsezkoa izan da, berdintasunaren gaia udal agenda politikoan txertatzeko.							
Jasotzaileak	Herritarrak, oro har.							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	<ul style="list-style-type: none"> •Berdintasun Atala •Emakumeen elkarteak 		<ul style="list-style-type: none"> •Berdintasun Kontseilua 		2017	2018	2019	2020
					•	•	•	•
Aurrekontua: Jatorria eta zenbatekoa	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
	Berdintasuneko langileak: 10 ordu koordinazio lanetan, 400 €. €	Berdintasuneko langileak: 10 ordu koordinazio lanetan, 400 €. €	Berdintasuneko langileak: 10 ordu koordinazio lanetan, 400 €. €	Berdintasuneko langileak: 10 ordu koordinazio lanetan, 400 €. €	Kanpo-finantzaketa jasoko dute jarduera hauek. Diru-laguntzak eskatzen dituzten emakumeen elkarteek hartuko dute beren gain.			
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> •Elkarteekin batera programatutako ikastaro eta jardueren kopurua. •Ikastaroetako ikasleen kopurua. •Ikasleek ikastaroei buruz egindako balorazioa. •Atalaren eta elkarten arteko koordinazioaren balorazioa. 							

Ildo estrategikoa	1	PREBENTZIOA, SENTIBERATZEA ETA KONTZIENTZIA HARRARAZTEA						
Helburu orokorra		Basauri udalerrian indarkeria matxista prebenitzea						
Helburu espezifikoak	1.2.	Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren alorreko heziketa ez-formala sustatzea basauriarrentzat.						
Helburu operatiboa	1.2.3.	Herriko gazteei kontzientzia harraraztea, «Beldur Barik» ekinemaren barruan.						
Ekintza	1.2.3.1	Gazteen artean «Beldur Barik» ekimena sustatzea eta ekimen horri jarraipena ematea.						
Deskribapena	Berdintasun Ataletik, eta «1era 2kain» programaren bitartez, jarraipena emango zaio «Beldur Barik» ekimenari. Sentiberatze-kanpaina hori Emakundek sustatu zuen, eta zenbait jarduera antolatuta dira bere barruan, indarkeria matxistaren aurkako jarrerak sustatzeko eta gazteekin lan egiteko tokiko eremuan. Mantendu egingo dira azaroaren 25eko, herriko jaietako jarduerak, «Beldur Barik» txapelketa... Eta, horrekin batera, Basauriko gazteei hausnartzeko eta eztabaidatzeko aukera emango dieten beste gune batzuk abiaraziko dira.							
Oinarriak	Indarkeria matxistaren prebentzioa ezin landu daiteke berdintasuna sustatu gabe, horrek ahalbidetuko baitu eraldatze soziala eta baloreen aldaketa. Zentzu horretan, lehenasunezkoa da gazteekin lan egitea. Ezinbestekoa da lan egitea gazteek eraikiko dituzten harremanak berdintasunean oinarritu daitezen, harreman horiek indarkeriarik gabeak izan daitezen, errespetuan oinarritutakoak, emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanak gainditu ditzaten.							
Jasotzaileak	Gazteak.							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	• Berdintasun Atala		• Gazteria Atala • Gizarte-politika Arloa		2017	2018	2019	2020
					•	•	•	•
Aurrekontua: Jatorria eta zenbatekoa	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
	Berdintasuneko langileak: 180 ordu, 7.200 €. Programarako euskarriak eta baliabideak: 6.000 €. €	Berdintasuneko langileak: 180 ordu, 7.200 €. Programarako euskarriak eta baliabideak: 6.000 €. €	Berdintasuneko langileak: 180 ordu, 7.200 €. Programarako euskarriak eta baliabideak: 6.000 €. €	Berdintasuneko langileak: 180 ordu, 7.200 €. Programarako euskarriak eta baliabideak: 6.000 €. €	Berdintasuneko langileak: 180 ordu, 7.200 €. Programarako euskarriak eta baliabideak: 6.000 €. €			
Prozesuaren indikatzaileak	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbat saio eta ekintza programatu diren. • Zenbat parte-hartzaile egon diren sustatutako ekimenetan. • Parte-hartzaileen balorazioa. 							

Ildo estrategikoa	1	PREBENTZIOA, SENTIBERATZEA ETA KONTZIENTZIA HARRARAZTEA						
Helburu orokorra		Basauri udalerrian indarkeria matxista prebenitzea						
Helburu espezifiko	1.2.	Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren alorreko heziketa ez-formala sustatzea basauriarrentzat.						
Helburu operatiboa	1.2.3.	Herriko gazteei kontzientzia harraraztea, «Beldur Barik» ekinemaren barruan.						
Ekintza	1.2.3.2	Hausnartzeko eta gaur egungo gaiei buruz hitz egiteko eremu bat eskaintzea neska gazteei, «Beldur Barik» estrategiaren ildoan.						
Deskribapena	<p>Plan honen diagnostiko fasean, neska gazteei zuzendutako hileroko saioa abiarazi zen. Bertan, berdintasunari eta indarkeria matxistari buruzko beren ardurak, gogoetak, ideiak eta kontzeptu horiek ulertzeko moduak partekatu zituzten neskek. Eremu estrategikoa da huraxe: gazteengana eta haiek indarkeria matxistari buruz dituzten ardurangana hurbiltzen gaitu eta, aldi berean, sentiberatzeko eta indarkeria matxista prebenitzeko gunea ere bada. Eremua martxan egongo da Planaren indarraldiaren lehen seihilekoan, eta segida emango zaio, baldin eta emaitzak eta jasotzaileen erantzunak positiboak badira.</p> <p>«1era 2kain» programako hezitzaileek dinamizatzen dute eremua, eta zenbait gai jorratzen dituzte: «ligoteo» osasuntsua, eraso matxistak, jai-eremuetan harremanak izateko moduak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, eta abar. Hileko azken ostiraletan batuko dira, bi orduz.</p>							
Oinarriak	Indarkeria matxistaren prebentzioa ezin landu daiteke berdintasuna sustatu gabe, horrek ahalbidetuko baitu eraldatze soziala eta baloreen aldaketa. Zentzu horretan, lehenetsuneko da gazteekin lan egitea. Ezinbestekoa da lan egitea gazteek eraikiko dituzten harremanak berdintasunean oinarritu daitezen, harreman horiek indarkeriarik gabeak izan daitezen, errespetuan oinarritutakoak, emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanak gainditu ditzaten. Beraz, neska gazteei berezko eremua eskaintzeak, ahalduntzen laguntzen die, indarkeria matxista arbuizatze eta indarkeria horren aurrian «zero tolerantzia» jarrera agertzeko; gainera, aukera emango die harreman biolentoak identifikatu, eta horiei aurre hartzeko.							
Jasotzaileak	Basauriko neska gazteak.							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	•Berdintasun Atala		•Gazteria Atala		2017	2018	2019	2020
					•	•	•	•
Aurrekontua: Jatorria eta zenbatekoa	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
	Berdintasuneko langileak: 40 ordu, 1.600 €.€							
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbat topaketa egin diren. • Zenbat neskek parte hartu duten. • Neska parte-hartzaileek eta dinamizatzaileek topaketen gainean balorazioa. 							

Ildo estrategikoa	1	PREBENTZIOA, SENTIBERATZEA ETA KONTZIENTZIA HARRARAZTEA						
Helburu orokorra		Basauri udalerrian indarkeria matxista prebenitzea						
Helburu espezifikoak	1.2.	Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren alorreko heziketa ez-formala sustatzea basauriarrentzat.						
Helburu operatiboa	1.2.3.	Herriko gazteei kontzientzia harraraztea, «Beldur Barik» ekinemaren barruan.						
Ekintza	1.2.3.3	Gazteei prestakuntza eskaintzea, «Beldur Barik» estrategiaren gainean.						
Deskribapena	<p>«Beldur Barik» strategiaren barruan zenbait prestakuntza-ikastaro egitea aurreikusita dago, udalerriko gazteentzat. Ikastarook Berdintasun Atalak eta Gazteria Atalak antolatuko dituzte.</p> <p>Urtean ikastaro bi egingo dira, gutxienez, Gazteria Atalaren laguntzarekin: bata neska gazteentzat, eta bestea mutil gazteentzat.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Neska gazteentzako ikastaroa: Prestakuntza-moduluen ardatza berdintasunezko harreman osasuntsuak izango dira, indarkeria matxistarik gabekoak. Helburua, neskek indarkeria-zantzuak identifikatzen ikastea da, horiei aurre egiten, eta ahalduz eta gaitzeste estrategiak martxan jartzen, harremanetan mugak ezarri ahal izateko. • Mutil gazteentzako ikastaroa: indarkeria egikaritzean duten erantzukizuna eta maskulinitate-eredu berriak landuko dira. Gizonezkoen tradizioz eta hegemonikoki esleitu izan zaizkien baloreen, jarrearen eta identitateen aldaketa ere jorratuko da. <p>Hauexek dira Planaren lehenengo urterako (2017) programaturako ikastarook:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Autodefentsa feminista neska gazteentzat. • Clown ez-sexista mutil gazteentzat 							
Oinarriak	Gazteei indarkeria matxistaren kontzientzia harrarazteko, hura hobeto ezagutu behar dute, bai eta genero- eta botere-diskriminazioei lotutako zenbait kontu ere. Horrek ahalbidetuko du matxismoaren izaera estrukturala eta horrek gure egunerokoa eta harremanetan dituen ondorioak ezbaian jartzea. Lehenetsutako da gazteekin lan egitea, berdintasunean oinarritutako eta matxismorik gabeko harremanak izan ditzatela nahi badugu.							
Jasotzaileak	Basauriko gazteak.							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasun Atala • Gazteria Atala 				2017	2018	2019	2020
					•	•	•	•
Aurrekontua: Jatorria eta zenbatekoa	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
	Berdintasuneko langileak: 20 ordu, 800 €. Ikastaroak, Berdintasunaren aurrekontua: 600 €. Ikastaroak, Gazteriaren aurrekontua: 600 €.	Berdintasuneko langileak: 20 ordu, 800 €. Ikastaroak, Berdintasunaren aurrekontua: 600 €. Ikastaroak, Gazteriaren aurrekontua: 600 €.	Berdintasuneko langileak: 20 ordu, 800 €. Ikastaroak, Berdintasunaren aurrekontua: 600 €. Ikastaroak, Gazteriaren aurrekontua: 600 €.	Berdintasuneko langileak: 20 ordu, 800 €. Ikastaroak, Berdintasunaren aurrekontua: 600 €. Ikastaroak, Gazteriaren aurrekontua: 600 €.	Berdintasuneko langileak: 20 ordu, 800 €. Ikastaroak, Berdintasunaren aurrekontua: 600 €. Ikastaroak, Gazteriaren aurrekontua: 600 €.			
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbat prestakuntza-saio egin diren. • Parte-hartzaileen kopurua. • Prestakuntza-saioen balorazioa. 							

Ildo estrategikoa	1	PREBENTZIOA, SENTIBERATZEA ETA KONTZIENTZIA HARRARAZTEA						
Helburu orokorra		Basauri udalerrian indarkeria matxista prebenitzea						
Helburu espezifikoa	1.2.	Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren alorreko heziketa ez-formala sustatzea basauria- rentzat.						
Helburu operatiboa	1.2.3.	Herriko gazteei kontzientzia harraraztea, «Beldur Barik» ekinemaren barruan.						
Ekintza	1.2.3.4	Gazteriako teknikariei laguntza ematea, Basauriko gazteguneeetan egindako esku-hart- zeetan.						
Deskribapena	<p>hala eskatuta, udalerriko gazteguneeetan gazteekin lanean diharduten gazteriako teknikariei laguntza eta aholkularitza teknika ematea aurreikusten da. Beren ardurapeko gazteen artean berdintasun-prozesuak sustatzeko, eta indarkeria matxistaren aurrean «0 tolerantzia» jarrerak sortzeko behar diren ezagutzak beregana ditzatela bilatzen da. Gainera, emandako laguntzari esker, indarkeria matxista kasuak prebenitu eta identifikatu ahal izango dituzte. Aipatutako guztia bat dator Emakundek «Beldur Barik» programa ezartzeko egindako gomendioekin.</p> <p>Aldezakako koordinazioa mantenduko da, gutxienez hiru hilean behin bilduko dira Berdintasun Ataleko arduradunekin («1ERA 2KAIN»), zailtasunei edo sortzen diren gaiei buruz hitz egiteko. Egoerak hala eskatzen badu, telefonoz edo bulegoan ere arreta emango zaie, hitzordua hartzeko beharrik gabe.</p>							
Oinarriak	Gazteguneeak funtsezkoak dira indarkeria matxista prebenitzeko, beren helburua udalerriko gazteei aisialdia modu positibo eta autonomoan bizitzeko eduki eta dinamikak eskaintzea delako, gazteen arduratik eta bizi-ohitura osasuntsuetatik abiatuta. Horrelako guneetan sortzen dira, hain zuzen ere, gazteen arteko lehen harreman afektiboak. Bizi-ohitura osasuntsuen artean, lehenetsuna duenetako bat da emakumeen berdintasuna, errespetua eta diskriminaziorik eza sustatzea (eta, beraz, indarkeria matxista gaitzestea), emakume gazteak indarkeriarik gabeko ingurunean bizi daitezen.							
Jasotzaileak	Udalerriko gazteak.							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasun Atala • Gazteria Atala 				2017	2018	2019	2020
					•	•	•	•
Aurrekontua: Jatorria eta zenbatekoa	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
	Berdintasuneko langileak: 20 ordu, 800 €.€ Gazteriako langileak: 10 ordu, 400 €.€	Berdintasuneko langileak: 20 ordu, 800 €.€ Gazteriako langileak: 10 ordu, 400 €.€	Berdintasuneko langileak: 20 ordu, 800 €.€ Gazteriako langileak: 10 ordu, 400 €.€	Berdintasuneko langileak: 20 ordu, 800 €.€ Gazteriako langileak: 10 ordu, 400 €.€				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbat bilera egin diren. • Hitzordurik gabe izandako bilerak. • Arloaren eta gazteriako teknikarien arteko koordinazioaren balorazioa. 							

Ildo estrategikoa	1	PREBENTZIOA, SENTIBERATZEA ETA KONTZIENTZIA HARRARAZTEA					
Helburu orokorra		Basauri udalerrian indarkeria matxista prebenitzea					
Helburu espezifikoa	1.3.	Udal-kompetentzietatik hezikidetzat sustatzea udaleko hezkuntza-eremuan.					
Helburu operatiboa	1.3.1.	«1era 2kain» baloreetan hezteko programa birformulatzea.					
Ekintza	1.3.1.1	Ikasgeletan esku hartzeko edukietan presentzia handiagoa ematea indarkeria matxistaren prebentzioari.					
Deskribapena	<p>«1era 2kain» baloreetan hezteko programa birformulatzekeo ekintza, batez ere, ikastetxeetan lantzen dituzten edukiak aldatzean datza, geletan programari eskaintzen dieten tartea indarkeriari buruz sentiberatzeari eta berau prebenitzeari buruz aritzeko. Edukiak, orain arte, lau zatitan banatuta zeuden: Erantzukidetasuna; sexu-heziketa; indarkeria matxista; eta lanbide-orientazio ez-sexista.</p> <p>Programaren azken urteotako balorazioaren ostean, berriz, berau birformulatzea proposatzen da, indarkeria matxistaren prebentzioari garrantzi handiagoa ematen. Horrela, bada, zati bi landuko dira, DBH3 eta 4an jorratzeko: Indarkeria matxista eta sexu-heziketa. Zenbait gai barne hartuko dituzte aipaturako zatiek: bikote-harremanak; sexu-identitatea; «ligoteo» osasuntsua; maitasun erromantikoaren mitoak desmuntatzea; harremanetan mugak jartzea; eta abar.</p> <p>Gainera, irakasleei laguntza eta aholkularitza tekniko eskainiko zaie, beren curriculum-proiektuetan berdintasuna eta indarkeria matxista sartzeko joateko progresiboki. Laguntza irakaskuntzako gainerako mailara zabaldu ala ez aztertuko da.</p>						
Oinarriak	<p>Gazteen arteko indarkeria matxistaren gaur egungo errealitateak eta datuek —bai autonomia erkidegoan, bai Estatuan—, eta gaiari buruz gazteek duten hautemateak, argi eta garbi erakusten dute beharrezkoa dela arazoari heltzeko eduki zehatzak lantzea. Lehentasuneko da berdintasunaren arloko oinarritzko kontzeptuei buruzko prestakuntza eskaintzea, indarkeria matxista zer den hausnartzea, zein egitura patriarkaletan oinarrituta dagoen, zeintzuk diren indarkeria motak, giza eskubideen bortxaketa horiei nola erantzun...</p> <p>Ikastetxeetan daude udalerriko gazte guztiak, etorkizuneko belaunaldiak, beren harreman sozialak eta bikote-harremanak finkatzen hasten ari direnak. Ezinbestekoa da une horretan esku hartzea, bertatik bertara ezagutzeko gazteen artean zer adierazpen dituen indarkeria matxistak: balizko biktimak detektatzeko sarbidea izan liteke, eta indarkeria matxistari aurre egiteko esku-hartze estrategiak diseinatzeko.</p>						
Jasotzaileak	Basauriko ikastetxeetako ikasleak.						
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduraduna	Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	• Berdintasun Atala	• Ikastetxeak.		2017	2018	2019	2020
				•	•	•	•
Aurrekontua: Jatorria eta zenbatekoa	2017	2018	2019	2020	Oharrak		
	langileak: 40 ordu, 1.600 €.€	Berdintasuneko langileak: 20 ordu, 800 €.	Berdintasuneko langileak: 20 ordu, 800 €.	Berdintasuneko langileak: 20 ordu, 800 €.			
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Egindako moduluen kopurua. • Ikasleen azken ebaluazioa. • Prestakuntza jasotzen duten ikasleen kopurua. • Edukiak aldatu osteko emaitzen balorazioa. 						

Ildo estrategikoa	1	PREBENTZIOA, SENTIBERATZEA ETA KONTZIENTZIA HARRARAZTEA					
Helburu orokorra		Basauri udalerrian indarkeria matxista prebenitzea					
Helburu espezifikoa	1.3.	Udal-konpetentzietatik hezikidetzaren sustatzea udaleko hezkuntza-eremuan.					
Helburu operatiboa	1.3.1.	«1era 2kain» baloreetan hezteko programa birformulatzea.					
Ekintza	1.3.1.2	Indarkeria matxistari aurre egiteko proiektu pilotua abiaraztea Bigarren Hezkuntzako institutu batean.					
Deskribapena	<p>Indarkeria matxistaren alorreko bitartekarien proiektua jarriko da martxan: «Basaurin matxismoari PLANto». Helburua, ikastetxe bateko irakasleen konpromisoa lortzea ikasleen sare baten eraketa bultzatzeko izango da. Ikasle horiek, gaiari buruzko prestakuntza espezifikoa jaso ostean, bitartekari gisa arituko dira ikastetxean emandako indarkeria matxista kasuetan. Proiektu honetan parte hartzen dutenek aukera izango dute gaiaren sakontzeko, beren konpromisoa areagotzeko eta begirunean eta berdintasunean oinarritutako indarkeria matxistatik gabeko harremanak sustatzeko.</p> <p>Udalerriko ikastetxe batean hasiko da proiektua, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleekin. Planaren ezarpenean zeharreko urteetan zehar garatuko da, zenbait fasetan, eta, ebaluatu ostean, beste ikastetxe eta hezkuntza-ziklo batzuetara zabalduta ala ez erabakiko da.</p>						
Oinarriak	<p>Zortzi urteko ibilbidea bete du «1era 2kain» programak, eta indarkeria matxistaren gaian esku hartzeko, hezkuntza-komunitatearen konpromisoa behar dela egiaztatuta da. Hortik abiatzen da proiektu pilotu hau, eta, bere xedea, hezkuntza-komunitatearen oihartzun handiagoa lortzea da, hura aurrera eramateko protagonismoa ikasleei emanez.</p> <p>Izan ere, ikasleen bitartekaritza oso arrakastatsua izan da bullinga bezalako kasuetan, adibidez. Eta oso tresna baliagarria izan daiteke indarkeria matxista lantzeko ere, bullingaren antzeko ezaugarriak dituelako: portaerak naturalizatuta daude; lotsa; gertatzen ari dena kontatzeko beldur dira biktimak; eta abar. Arazo biek ezaugarri komun horiek dituzte, besteak beste, eta, etorkizunera, arrazakeria eta xenofobia bezalako arloetara ere zabal liteke esku-hartzea. Proiektu honek, bestalde, jauzi kualitatiboa ekar lezakete, ikastetxeekin egindako lanari dagokionez, judizializatu gabeko hurbilketa proposatzen duelako, prebentzioan eta hautemate goiztiarrean oinarrituta, eta herritarrak berak direlako protagonistak.</p>						
Jasotzaileak	Ikastetxeetako arduradunak eta ikasleak.						
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak	Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	•Berdintasun Atala	• Uribarri Institutua	• Beste ikastetxe batzuk	2017	2018	2019	2020
		• Emakumeen elkarteak	• Berritzegune		•	•	
		• Immigrazio Atala					
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak		
Jatorria eta zenbatekoa		Berdintasuneko langileak: 120 ordu, 4.800 €.€	Berdintasuneko langileak: 120 ordu, 4.800 €.€		Udalaz gaindiko erakundeetan finantziazioa bilatzeko aukera.		
		Immigrazio Ataleko langileak: 5 ordu, 200 €.€	Immigrazio Ataleko langileak: 5 ordu, 200 €.€				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Egindako bileren kopurua. • Hezikidetzaren proiektua abiarazi duten ikastetxeen kopurua. • Ikastetxe bakoitzeko hezikidetzaren proiektuaren ebaluazioa. • Ikastetxeek Eusko Jaurlaritzari eskatutako diru-laguntzen kopurua. • Emandako diru-laguntzen kopurua . 						

Ildo estrategikoa	1	PREBENTZIOA, SENTIBERATZEA ETA KONTZIENTZIA HARRARAZTEA							
Helburu orokorra		Basauri udalerrian indarkeria matxista prebenitzea							
Helburu espezifikoa	1.4.	Basauriarren parte-hartzea areagotzea indarkeria matxistaren aurkako borrokan.							
Helburu operatiboa	1.4.1.	Ekimen desberdinei lotutako elkarte eta norbanakoen konpromisoa sendotzea, eta udalerriko auzoen arteko sarea eratzea sustatzea.							
Ekintza	1.4.1.1	Eraso matxistak antzemateko eta salatzeko pertsonen sarea sortze prozesu parte-hartzailea abiaraztea.							
Deskribapena	<p>Plan hau parte-hartzailea izan dadin, basauriarrak egoeraz jabetu daitezzen eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan modu aktiboan parte har dezaten, Basauriko talde eta norbanakoekin dagoen harremana sendotzeko lan egingo dugu, Berdintasun Atalak sustatutako zenbait ekimenetan parte hartzera gonbidatuta. Horren harira, eragileen sarea, ituna eta abar sortzea bultzatuko da eta behar bezalako prestakuntza izan beharko du, prebentzio, sentiberatze eta salaketa estrategiak abiarazteko udalerriko auzo desberdinetan.</p> <p>Prozesuak honako fase hauek izango ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Taldea eratzeko deialdia egitea, eta berau antolatzea. • Gaiari buruzko berariazko prestakuntza. • Sentiberatze-, mobilizazio- eta salaketa-estrategiak diseinatzeko eta antolatzeko laguntza ematea. <p>Berdintasun Ataleko adituekin koordinatzeko eta egindakoa elkarrekin lantzeko espazioak sortuko dira.</p>								
Oinarriak	Gizarte osoaren arazoa da indarkeria matxista, eta, beraz, herritar, erakunde eta politikari guztiek hartu behar dugu horren aurka borrokatzeko eta berau prebenitzeko konpromisoa. Zentzu horretan, Plan parte-hartzaile honek beste urrats bat eman nahi du herritarren sentiberatze eta parte-hartzean, mugimendu feministari eta indarkeriaren aurkako borrokari lotutakoak erreferente izan daitezzen herrian. Emakundek bere IV. Planean adierazi bezalaxe, indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko, gizartearen baloreak aldatu behar da, gizartearen baloreak aldatu behar dira.								
Jasotzaileak	Sarean parte hartzen dutenak, herritarrak.								
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia				
	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasun Atala • Kultura Atala 		<ul style="list-style-type: none"> • Herriko Taldeak • Auzoetako jai-batzordeak • Berdintasun Kontseilua • Emakumeen elkarteak eta elkarte feministak 		2017	2018	2019	2020	
						•	•		
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak				
Jatorria eta zenbatekoa		<p>Berdintasuneko langileak: 10 ordu, 400 €.€</p> <p>Prestakuntzarako aurrekontua: 1.000 € (% 50, Berdintasun Ataletik; % 50, Kulturatik).</p>	<p>Berdintasuneko langileak: 10 ordu, 400 €.€</p> <p>Prestakuntzarako aurrekontua: 1.000 € (% 50, Berdintasun Ataletik; % 50, Kulturatik).</p>						
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Sarean zenbat lagunek parte hartzen duten. • Zenbat prestakuntza-saio egin diren. • Prestakuntzaren ebaluazioa . • Berdintasun Atalean zenbat kontsulta egin diren. • Egindako kanpainak. • Kanpainen ebaluazioa. 								

Ildo estrategikoa	1	PREBENTZIOA, SENTIBERATZEA ETA KONTZIENTZIA HARRARAZTEA						
Helburu orokorra		Basauri udalerrian indarkeria matxista prebenitzea						
Helburu espezifikoa	1.4.	Basauriarren parte-hartzea areagotzea indarkeria matxistaren aurkako borrokan.						
Helburu operatiboa	1.4.1.	Ekimen desberdinei lotutako elkarte eta norbanakoen konpromisoa sendotzea, eta udalerriko auzoen arteko sare baten eraketa sustatzea.						
Ekintza	1.4.1.2	Udalerriarren komunikazio baliabideekin eta Berdintasun ataletik sarearen kanpaina eta ekintzen zabalkundea egitea.						
Deskribapena	Sareak, auzoka zein modu bateratuan, abiarazitako ekintza, kanpaina eta ekimen guztien berri emango da, herritarrek horiei buruzko behar besteko informazioa izan dezaten eta, hala, basauriarren parte-hartzea handiagoa izan dadin eta programak eragin handiagoa izan dezaten. Horretarako, Udalaren komunikazio-tresnak erabiliko dira, sare sozialak eta Udalaren eta Marienearen webguneak, batez ere.							
Oinarriak	Gizarte osoaren arazoa da indarkeria matxista, eta, beraz, herritar, erakunde eta politikari guztiek hartu behar dute horren aurka borrokatzeko eta berau prebenitzeko konpromisoa. Zentzu horretan, Plan parte-hartzaile honek beste urrats bat eman nahi du herritarren sentiberatze eta parte-hartzean, mugimendu feministari eta indarkeriaren aurkako borrokari lotutakoak erreferente izan daitezen herrian. Emakundek bere VI. Planean adierazi bezalaxe, indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko, gizartearen eraldaketa, baloreak aldatuz egin behar da.							
Jasotzaileak	Sarean parte hartzen dutenak; herritarrak, oro har; eta jaiak antolatzen dabiltzanak, bereziki.							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	<ul style="list-style-type: none"> •Berdintasun Atala •Prensa eta Protokolo Atala •Kultura Atala •Herriko Taldeak 		<ul style="list-style-type: none"> • Informatika Atala. •Berdintasun Kontseilua 		2017	2018	2019	2020
						•	•	•
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
Jatorria eta zenbatekoa	Berdintasuneko langileak: 10 ordu, 400 €. Kulturako langileak: 10 ordu, 400 €.	Berdintasuneko langileak: 10 ordu, 400 €. Kulturako langileak: 10 ordu, 400 €.	Berdintasuneko langileak: 10 ordu, 400 €. Kulturako langileak: 10 ordu, 400 €.	Berdintasuneko langileak: 10 ordu, 400 €. Kulturako langileak: 10 ordu, 400 €.				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbat ekintzaren zabalkundea egin den. • Zenbat bisita egon diren Facebooken argitaratutako sarreretara. • Zenbat prentsaurreko egin diren. 							

Ildo estrategikoa	1	PREBENTZIOA, SENTIBERATZEA ETA KONTZIENTZIA HARRARAZTEA					
Helburu orokorra		Basauri udalerrian indarkeria matxista prebenitzea					
Helburu espezifikoak	1.5.	Gizonek indarkeria matxistaren aurkako borrokan parte har dezatela sustatzea.					
Helburu operatiboa	1.5.1.	Berdintasunari eta maskulinitate berriei buruzko heziketa-prozesuak sustatzea gizonen artean.					
Ekintza	1.5.1.1	Gizonei teoria feministari eta maskulinitate-eredu berriei buruzko ikastaroa eskaintzea.					
Deskribapena	Berdintasun Ataleko urteroko egitarauan jasoko da gizonei zuzendutako ikastaro bat, teoria feministari, maskulinitate-eredu berriei eta indarkeria matxistari lotutako edukiak lantzeko. Horren guztiaren helburua da gizonengan prozesu kritikoak sustatzea, eta eredu heteropatriarkalaren eta maskulinitate hegemonikoaren gaineko kontzientzia harraraztea. Ikastaro hau planaren lehen urtean burutuko da, eta, ebaluazioaren araberak, errepikatuko da ala ez.						
Oinarriak	Gizonak berdintasunaren aldeko, genero diskriminazioaren kontrako eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan parte har dezatela lortzea da mugimendu feministaren erronka handietako bat. Egia da azken urteotan hazi egin dela jarrera hori duten gizonen kopurua, baina, oraindik ere, gutxienak dira borroka feministarekin kontzientziatuta egon, eta bertan parte-hartze aktiboa dutenak. Halaxe egiaztatu dugu Plan honen diagnostiko-fasean, eta erdietsi beharreko helburu gisa identifikatu dugu. Gizonek indarkeria matxistaren aurkako borrokaren parte izango badira, beharrezkoa da pribilegioak dituztela onartzea, pribilegio horiei uko egitea, maskulinitate hegemonikoaren ereduak zalantzan jartzea eta maskulinitate-eredu berriak bilatzea, eta indarkeria matxista beren arazoa ere badela onartzea.						
Jasotzaileak	Basauriko gizonak.						
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak	Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	• Berdintasun Atala			2017	2018	2019	2020
				•			
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak		
Jatorria eta zenbatekoa					Kostua sartuta dago Jabekuntza Eskolaren prestakuntza-eskaintzaren aurrekontu globalean.		
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastaroan zenbat saio-kopuru egin diren. • Zenbat gizonek hartu duten parte. • Ikastaroaren ebaluazioa. • Parte-hartzaileek erdietsitako konpromiso-maila. 						

Ildo estrategikoa	1	PREBENTZIOA, SENTIBERATZEA ETA KONTZIENTZIA HARRARAZTEA						
Helburu orokorra		Basauri udalerrian indarkeria matxista prebenitzea						
Helburu espezifikoa	1.5.	Gizonek indarkeria matxistaren aurkako borrokan parte har dezatela sustatzea.						
Helburu operatiboa	1.5.1.	Berdintasunari eta maskulinitate berriei buruzko heziketa-prozesuak sustatzea gizonen artean.						
Ekintza	1.5.1.2	«Gizonduz» programaren barruko prestakuntza eskaintzea gizon basauriarren taldeei.						
Deskribapena	<p>Emakunderen- Emakumearen Euskal Erakunde- ekimenaren barruan, «Gizonduz»ek eskaintako prestakuntza bat eramango da aurrera. Gizonek ere emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko borrokaren kontzientzia hartzea, eta borroka horretan parte hartzea bultzatzen du aipatutako programak. Ekimenaren xedea, berdintasunaren eremuko prestakuntza duten gizonen kopuru handiagoa egotea da; etxeko lanen eta zaintzaren alorreko erantzunkidetasuna areagotzea; eta berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako gizonen konpromisoa bultzatzea.</p> <p>«Gizonduz»ek aukera ematen du tokiko prestakuntza-moduluak emateko gizonei, aipatutako gaiak jorratzeko. Oraingo honetan, «Txutxumutxurik ez» tailer antisexista eskainiko da (ikus eranskina). 15-20 orduko iraupena du tailerrak. Generoari, berdintasunari eta maskulinitatei buruzko prestakuntza teorikoaz gain, elkarrizketaren alorrean sentiberatzeko trebetasunak eta jarrera ere lantzen dira. Gizarte-, kultura-, kirol-taldeetako, sindikatueta, eta abarreko kide diren gizonen taldeentzat izango dira prestakuntza-saioak.</p> <p>Planaren lehen urtean zehar garatzeko ekintza da, eta, emaitzen arabera, hurrengo urteetan ere egiteko aukera egongo da.</p>							
Oinarriak	Gizonak berdintasunaren aldeko, genero diskriminazioaren kontrako eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan parte har dezatela lortzea da erronketako bat. Egia da azken urteotan hazi egin dela jarrera hori duten gizonen kopurua, baina, oraindik ere, gutxienak dira borroka feministarekin kontzientziatuta egon, eta bertan parte-hartze aktiboa dutenak. Halaxe egiaztatu dugu Plan honen diagnostiko-fasean, eta erdietsi beharreko helburu gisa identifikatu dugu. Gizonak borroka horren parte izango badira, beharrezkoa izango da onartzea pribilegioak dituztela, pribilejio horiei uko egitea, maskulinitate hegemonikoaren eredia zalantzan jartzea eta maskulinitate-eredu berriak bilatzea, eta onartzea indarkeria matxistarena beren arazoa ere badela.							
Jasotzaileak	Sindikatueta, kirol-taldeetako, kultur-elkarteetako, gizarte mugimenduetako kide diren gizon basauriarrak.							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasun Atala Emakunde, «Gizonduz» programa 		<ul style="list-style-type: none"> Erakunde mistoak Berdintasun Kontseilua 		2017	2018	2019	2020
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharra			
Jatorria eta zenbatekoa	Berdintasuneko langileak: 4 ordu, 800 €. Emakundek, prestakuntza.							
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> Ikastaroan zenbat saio-kopuru egin diren. Zenbat gizonek hartu duten parte. Ikastaroaren ebaluazioa. Parte-hartzaileek erdietsitako konpromiso-maila. 							

Ildo estrategikoa	1	PREBENTZIOA, SENTIBERATZEA ETA KONTZIENTZIA HARRARAZTEA						
Helburu orokorra		Basauri udalerrian indarkeria matxista prebenitzea						
Helburu espezifikoa	1.5.	Gizonek indarkeria matxistaren aurkako borrokan parte har dezatela sustatzea.						
Helburu operatiboa	1.5.1.	Berdintasunari eta maskulinitate berriei buruzko heziketa-prozesuak sustatzea gizonen artean.						
Ekintza	1.5.1.3	Gizonei zuzendutako prestakuntza ekintzen zabalkundea egitea udal baliabide teknologikoak eta sare sozialak erabilia.						
Deskribapena	Udalerriko gizonen artean berdintasunaren aldeko heziketa-prozesuak sustatzeko, bai «Gizonduz» (Emakunderen ekimena, gizonek berdintasunaren gaineko kontzientzia har dezaten bultzatzeko, parte har dezatela eta horren alde lan egin dezatela) eta bai beste erakunde nahiz indarkeria matxistan gizonen inplikazioa eta maskulinitate berriak sustatzen duen beste erakunde nahiz instituziok antolatutako tailer, hitzaldi edota ikastaroei zabalkundea emango zaie. Horretarako, tokiko baliabide teknologikoak eta udal sare sozialak baliatuko dira (Udalaren eta Marienearen webguneak eta Facebook, esaterako).							
Oinarriak	Gizonak berdintasunaren aldeko, genero diskriminazioaren kontrako eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan parte har dezatela lortzea da erronka handietako bat. Azken urteotan gehiago badira ere, oraindik gutxienak dira borroka feministarekin kontzientziatuta egon, eta bertan parte-hartze aktiboa duten gizonak. Halaxe egiaztatu dugu Plan honen diagnostiko-fasean, eta erdietsi beharreko helburu gisa identifikatu dugu. Gizonak borroka horren parte izango badira, beharrezkoa izango da onartzea pribilegioak dituztela, pribilejio horiei uko egitea, maskulinitate hegemonikoaren eredia zalantzan jartzea eta maskulinitate-eredu berriak bilatzea, eta indarkeria matxista beren arazoa ere badela onartzea.							
Jasotzaileak	Basauriko gizonak.							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	• Berdintasun Atala		• Informatika Atala		2017	2018	2019	2020
					•	•	•	•
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
Jatorria eta zenbatekoa	Berdintasuneko langileak: 4 ordu, 160 €.	Berdintasuneko langileak: 4 ordu, 160 €.	Berdintasuneko langileak: 4 ordu, 160 €.	Berdintasuneko langileak: 4 ordu, 160 €.				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Egindako zabalkundeen kopurua. • Argitalpenetara egindako bisita eta sarrera kopurua. 							

Ildo estrategikoa	1	PREBENTZIOA, SENTIBERATZEA ETA KONTZIENTZIA HARRARAZTEA					
Helburu orokorra		Basauri udalerrian indarkeria matxista prebenitzea					
Helburu espezifikoa	1.5.	Gizonek indarkeria matxistaren aurkako borrokan parte har dezatela sustatzea.					
Helburu operatiboa	1.5.2.	Sindikalgintzan eta lan-esparruko udalerriko beste erakundeetan Plan honetako estrategien txertaketa sustatzea, non gehien-gehienak gizonak diren.					
Ekintza	1.5.2.1	Sindikatuarekin eta enpresa munduarekin parte-hartze prozesuak abiaraztea, indarkeria matxistaren aurkako borrokaekin hartutako konpromisoa finkatzeko eta lehenagoko saioei dagokien balioa aitortzeko.					
Deskribapena	<p>Udalerriko enpresa eta lan-munduko sindikatukide eta langileekin parte-hartze prozesuak sustatuko dira. Iraganeko estrategiak berreskuratzeaz gain, sektoreak indarkeria matxistaren aurkako borrokan parte hartzea bultzatuko da. Era berean, indar handiko ekimen aitzindari bat berreskuratuko da: 2004an, emaztea hil zuen udalerriko senar sindikalistak, eta, gertatutakoari erantzuteko, «Berdintasunaren aldeko Sindikatuarteko Foroa» eratu zuten, zeinak indarkeria matxista kasuetan jarduteko protokoloa ezarri baitzuen udalerriko lantegietan.</p> <p>Lan-esparruetan emandako diskriminazio eta indarkeria egoerei erantzuteko beharrianak identifikatuko dira prozesu honetan: egoerok salatu, eta horiei buruz sentiberatzeko balizko ekintzei buruz hausnartuko da.</p>						
Oinarriak	Gizonak berdintasunaren aldeko, genero diskriminazioaren kontrako eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan parte har dezatela lortzea da erronka handietako bat. Azken urteotan gehiago dira, baina, oraindik ere, gutxienak dira borroka feministarekin kontzientziatuta egon, eta bertan parte-hartze aktiboa duten gizonak. Basauri aitzindaria izan da, udalaren Berdintasun Atalak xede hori duen zenbait programa sustatu baititu. Ekimen horiek berreskuratzea eta dagokien balioa aitortzea garrantzitsua da.						
Jasotzaileak	Gizonak, sindikatuak eta enpresa txiki eta ertainak.						
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak	Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	• Berdintasun Atala	• Sindikatuarteko Foroa parte hartzen duten sindikatuak		2017	2018	2019	2020
					•	•	
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak		
Jatorria eta zenbatekoa		Berdintasuneko langileak: 30 ordu, 1.200 €.	Berdintasuneko langileak: 30 ordu, 1.200 €.				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Prozesuan parte hartzen duten erakundeen kopurua. • Zenbat bilera egin diren. • Sindikatuen parte-hartze maila. • Iraganeko saioen zabalkundea. • Ekimen eta proposamen berriak. • Gaur egungo programetan erabilitako estrategia batzuk txertatzea. 						

Kronograma

Ekintza	Gauzatzeko aldia			
	2017	2018	2019	2020
1.1.1.1 Indarkeria Matxistaren Aurkako Plan Lokalaren zabalkundea egitea.	●			
1.1.1.2 Urtero sentiberatze kanpainak antolatzea, azaroaren 25era begira (Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna)	●	●	●	●
1.1.1.3 Martxoaren 8ko eta ekainaren 28ko kanpainak Plan honetara egokitzea eta, kanpaina horiek diseinatzerakoan, indarkeria matxista transbertsalitateak lantzea.	●	●	●	●
1.1.1.4 Herriko gizarte-eragileekin udalerriko jai-eremuetan eraso matxistei aurre egiteko estrategiak lantzeko hasitako prozesua sendotzea.	●	●	●	●
1.1.2.1 Udalak bere esku dituen baliabide teknologikoak eta sare sozialak erabiltzea Berdintasun Atalak antolatutako tailerren, hitzaldien, ikastaroen eta kanpainen berri emateko.	●	●	●	●
1.2.1.1 Jabekuntza Eskolaren urteko plangintzan ikastaroak txertatzea, bai berdintasunaren inguruko gai transbertsalei buruzkoak, eta bai indarkeria matxista hainbat esparrutatik jorratzeko beharrari buruzkoak.	●	●	●	●
1.2.2.1 Herritarrei indarkeria matxistaren kontzientzia harrarazteko antolatutako jardueretarako koordinatzea, gaiari buruzko ezagutzak eta eskarmentua duten emakumeen elkarrekin. Jarduera horiek Plan honetan txertatzea.	●	●	●	●
1.2.3.1 Gazteen artean «Beldur Barik» ekimena sustatzea eta jarraipena ematea	●	●	●	●
1.2.3.2 Neska gazteei eremu bat eskaintzea gaur egungo gaiari buruz hausnartu eta hitz egin dezaten, «Beldur Barik» estrategiaren ildoan	●			
1.2.3.3 «Beldur Barik» strategiari buruzko prestakuntza eskaintzea gazteei.	●	●	●	●
1.2.3.4 Gazterriko teknikariei laguntza ematea, Basauriko gazteguneean egindako esku-hartzeetan.	●	●	●	●
1.3.1.1 Ikasgeletan esku hartzeko edukietan leku handiagoa ematea indarkeria matxistaren prebentzioari.	●	●	●	●
1.3.1.2 Indarkeria matxistari aurre egiteko proiektu pilotua abiaraztea Bigarren Hezkuntzako institutu batean.		●	●	
1.4.1.1 Eraso matxistak antzemateko eta salatzeke pertsonen sarea sortzeko prozesu parte-hartzailea abiaraztea.		●	●	
1.4.1.2 Sarearen kanpaina eta ekintzen zabalkundea egitea, bai udalerrriaren berreko komunikazio baliabideekin, bai Berdintasun Ataletik.			●	●
1.5.1.1 Teoria feministari eta maskulinitate-eredu berriei buruzko ikastaroa eskaintzea gizoni.	●			
1.5.1.2 «Gizonduz» programaren barruko prestakuntza eskaintzea gizon basauriarren taldeei.	●			
1.5.1.3 Gizoni zuzendutako prestakuntza-ekintzen zabalkundea egitea udal baliabide teknologikoak eta sare sozialak baliatuta.	●	●	●	●
1.5.2.1 Sindikatuekin eta enpresa munduarekin parte-hartze prozesuak abiaraztea, indarkeria matxistaren aurkako borrokarekin hartu duten konpromisoa finkatzeko eta dagokien balioa aitortzeko lehenagoko saioei.		●	●	

Arreta integrala, suspertzea eta ahalduntzea

Ardatz honen **helburua** da arreta integrala bermatzea indarkeria matxista jasan dutenei edo jasateko arriskua dutenei, haiek erabat suspertzea ekarriko duten ahalduntze-prozesuak sustatuta.

Alde batetik, indarkeria matxistaren biktima izandako emakumeei eta haien mende daudenei eman beharreko arreta zuzenean ardaztuko da Plana: emakumeentzako arretarako zerbitzu eta baliabide guztiak jarriko dira biktima horien esku. Beste alde batetik, diagnostikoan eta gizarte-eragileekin izandako parte-hartze prozesuan zehar identifikatutako baliabideak diseinatu, eta horiek ezartzeko aukera hausnartuko da.

Arreta integrala izango da honako ezaugarri hauek betetzen dituen:

- **Antzematea:** adituek gaiari buruzko prestakuntza egokia izan behar dute, larriagoak diren egoerei aurre hartzeko eta indarkeria matxista kasuen hautemate goiztiarra egiteko.
- **Kalitatezko arreta:** ez da baliabideak ematera mugatuko; jarrera enpatikoa ekarriko du, norbanakoak ez epaitzea, eta biktimei laguntza ematea ahalduntze eta suspertze prozesuetan zehar. Gaiari emakumeen giza eskubideen aintzatespenetik heltzea dakar, hau da, aitortzea emakume horiek biktimak direla, eta, hartara, eskubide batzuk badagozkiela. Era berean, zerbitzuen, baliabideen eta indarkeria matxistaren ezagutza errealitate izatea eskatzen du kalitatezko arretak.
- **Adituen prestakuntza:** berdintasunaren eta indarkeria matxistaren alorreko prestakuntza egokia izan behar dute indarkeria pairatzen duten emakumeak artatzen dituzten adituek. Prestakuntza horrek etengabea izan behar du, eta eguneratua, errealitate berriei egokitzen joateko. Funtsezkoa da, era berean, langile guztiak irizpide eta diskurtso berak izatea. Gogoratu beharra dago, zentzu horretan, araudi loteslea badagoela, eta horri jarraiki, botere publikoek informazio hori eman behar dutela (Istanbuleko Hitzarmena, 15. artikulua).
- **Erakundearteko koordinazioa:** arreta integrala emateko, ezinbestekoa da emakumeei arreta ematen dieten zerbitzu eta aditu guztiak behar bezala koordinatuta egotea. Gaur egun, urte asko eta gero, badakigu arreta ematea ez dela aski. Horrez gain, biktimarekin egon behar da, laguntza eman behar zaio. Gainera, prozesua sistematizatu eta aztertu behar da, gero politika publikoak diseinatzeko. Halaxe jasotzen du Bizkaiko Indarkeriaren Behatokiaren Gomendioei eta hobetzeko proposamenei buruzko II Txostenak, non adierazten baita datu-base batean zentralizatu behar direla indarkeria matxista kasu guztiak.

Plan honen filosofia da garrantzi berezia ematea suspertze eta ahalduntze prozesuei. Jotzen da arreta ezin daitekeela mugatu emakumeek pairatzen duten indarkeriari hasierako erantzuna ematera: aurrerago ere jarraitutasuna izan behar du, prozesu bat izan behar da arreta.

- **Suspertzea:** prozesu jarraia da emakumeen suspertzearena. Prozesu horretan zehar, aukera izango dute etorkizunean berriro indarkeriarik ez pairatzeko lanabesak eskuratzeko: gai izango dira indarkeriaren zikloaren hasierako jarrerak, portaerak eta egoerak hauteman, eta horiek ez errepikatzeko.
- **Ahalduntzea:** prozesu indibidualak eta taldekakoak, emakumeek beren autoestimua, autonomia eta segurtasuna berreskuratu, eta berriro ere subjektu autonomo izatera bi-

deratutakoak. Zentzu horretan, arreta indibidualaren osagarri gisa, taldean lan egiteko mekanismoak sortuko dira, eta guneak eskainiko zaizkie emakumeei, beren bizipenak beste batzuekin partekatu ahal izateko; harreman-eredu berriak eraikitzeke; eta beren egoera berria indartu, eta antzeko egoeran dauden beste emakume batzuei laguntza emateko aukera emango dien auto-antolakuntza sustatzeko.

Beraz, ardatz honen ezaugarri nagusia da gehiago iraungo duen arreta ematea, emakume bakoitzaren beharizan pertsonal eta indibidualetan oinarrituta, emakumearen garapen osoa eta ahalduntzea lortzeko.

Hauxek dira ardatz honi dagozkion helburu espezifikoak:

- **1. HE:** INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMENTZAKO ZERBITZU ETA BALIABIDEETARAKO SARBIDEA, ETA ARRETAREN ESTALDURA ETA KALITATEA HOBETZEA, AUKERA-BERDINTASUNEAN.
- **2. HE:** UDALEZ GAINDIKO ERAKUNDEEKIN ELKARLANA INDARTZEA, BERDINTASUNAREN ETA INDARKERIA MATXISTAREN ALORREAN.
- **3. HE:** INDARKERIA MATXISTA PAIRATU DUTEN EMAKUMEEN SUSPERTZEA BERMATZEA, ETA AHALDUNTZE-PROZESU INDIBIDUAL ETA KOLEKTIBOAK SUSTATZEA.

Ildo estrategikoa	2	ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA			
Helburu orokorra		Indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei arreta integrala bermatzea.			
Helburu espezifikoak	2.1	Indarkeria matxistaren biktimentzako zerbitzu eta baliabideetarako sarbidea, arretaren estaldura eta kalitatea hobetzea aukera-berdintasunean.			
Helburu operatiboa	2.1.1.	Basaurin indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta emateko erakundearteko koordinazio protokoloa sustatzea.			
Ekintza	2.1.1.1	Protokoloan esku hartzen duten zerbitzuetan emandako arretaren ebaluazio bateratua egitea.			
Deskribapena	<p>Erakundearteko koordinazio protokoloa eguneratu eta ezarri aurretik, bertan parte hartzen duten zerbitzuen ebaluazioa egingo da, komunikazioaren eta koordinazioaren alorretan dauden beharrianak eta emakumeen beharrianetan oinarritutako arreta integraleko ereduak zeintzuk diren identifikatzeko. Ezinbesteko lehen urratsa, arlo guztiek beste arloek eta horien zerbitzuen ezagutza egoki eta integrala izatea da.</p> <p>Horretarako, Planaren inplementazioaren lehenengo urtean zehar aldizkako bilerak egingo dira zerbitzuetako arduradunekin, koordinazio eta funtzionamendu egokirako mekanismoak finkatzeko.</p> <p>Prozesuaren lehen zati horretako koordinazioa eta laguntza emateko, 2016ko Enplegu Planaren bitartez indarkeria matxistaren biktimekin esku hartzeko prestakuntza egokia izango duen aditu bat kontratatuko da.</p>				
Oinarriak	<p>Tratu txarrak eta eraso sexistak pairatzen zituzten emakumeei arreta emateko erakundearteko koordinazio protokoloa egiteko prozesua hasi zen Basaurin 2004an. Ekimenak hobetu egin zuen indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arretan esku hartzen duten zerbitzuen arteko koordinazioa. Protokoloa, ordea, ez zen bere osotasunean ezarri, eta Plan honetarako elkarrizketatutako adituek zein indarkeria matxista jasandako emakumeek argi eta garbi ikusi zuten berau birpentsatu beharra zegoela. Gainera, urte hauetan zehar ekarpen ugari egin dituzte Eudelen Berdinsareak eta Emakundeak, tokiko protokoloak egiteari eta abiarazteari dagokionez.</p>				
Jasotzaileak	Indarkeria matxista pairatu duten emakumeei arreta emateko Protokoloan esku hartzen duten udal arlo eta zerbitzuak.				
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak	Laguntzaileak	Gauzatzeko aldia		
	<ul style="list-style-type: none"> •Berdintasun Atala •Gizarte-politika Arloa •Udaltzaingoa 	<ul style="list-style-type: none"> •Berdintasun Ataleko programak eta baliabideak 	2017	2018	2019
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak
Jatorria eta zenbatekoa	<p>Tokiko Enplegu Plana 2016ren bitartez kontratatutako langileak: 40 ordu, 1.600 €. Gizarte-ongizateko langileak: 20 ordu, 800 €. Udaltzaingoko langileak: 10 ordu, 400 €.</p>				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> •Zenbat bilera egin diren. •Ebaluazio-prozesuan parte hartu duten adituen kopurua. •Ebaluazio-prozesuan parte hartu duten arloen/adituen kopurua. •Identifikatutako beharrianak. •Dagoen protokoloaren ebaluazioa. 				

Ildo estrategikoa	2	ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA					
Helburu orokorra		Indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei arreta integrala bermatzea.					
Helburu espezifikoak	2.1	Indarkeria matxistaren biktimentzako zerbitzu eta baliabideetarako sarbidea, arretaren estaldura eta kalitatea hobetzea aukera-berdintasunean.					
Helburu operatiboa	2.1.1.	Basaurin indarkeria matxistaren biktima diren emakumei arreta emateko erakundearteko koordinazio protokoloa sustatzea.					
Ekintza	2.1.1.2	Esku hartzen duten zerbitzu eta adituen arteko akordioak lortzea.					
Deskribapena	<p>Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko zerbitzu eta baliabideak ebaluatu eta gero, Protokoloa bultzatzeko bigarren fasea izango da erabakiak hartzea zerbitzu eta baliabide horien koordinazioari buruz, eta, gero, indarreko Protokoloa eguneratu eta erabaki horietara egokitzea. Esku hartzen duen zerbitzu bakoitzak aurrera eraman beharreko jarduketak definitu behar dira, eta bertako adituek jarduera horiek aurrera eramateko konpromisoa har dezatela.</p> <p>Horretarako, bilerak bateratua egingo da, protokoloa sustatzeko ardura duen adituak koordinatuz. Koordinatzaileak, aurretiazko ebaluazioaren ostean, proposamena egingo du eta bileretan proposamen hori baloratu eta adostuko da.</p>						
Oinarriak	Tratu txarrak eta eraso sexistak pairatutako emakumei arreta emateko erakundearteko koordinazio protokoloa egiteko prozesua hasi zen Basaurin, 2004an. Ekimenak hobetu egin zuen indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arretan esku hartzen duten zerbitzuen arteko koordinazioa. Protokoloa, ordea, ez zen bere osotasunean ezarri, eta Plan honetarako elkarriketatutako adituek zein indarkeria matxista jasan duten emakumeek argi eta garbi ikusi dute berau birpentsatu beharra dagoela. Gainera, urte hauetan zehar ekarpen ugari egin dituzte Eudelen Berdinsareak eta Emakundek, tokiko protokoloak egiteari eta abiarazteari dagokionez.						
Jasotzaileak	Indarkeria matxista pairatu duten emakumei arreta emateko Protokoloan esku hartzen duten udal arlo eta zerbitzuak.						
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak	Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	<ul style="list-style-type: none"> •Berdintasun Atala •Gizarte-ongizate Arloa •Udalzaingoa 			2017	2018	2019	2020
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak		
Jatorria eta zenbatekoa	<p>Tokiko Enplegu Plana 2016ren bitartez kontratatutako langileak: 10 ordu, 400 €.</p> <p>Berdintasuneko teknikaria: 10 ordu, 400 €.</p> <p>Gizarte-ongizateko koordinatzailea: 6 ordu, 240 €.</p> <p>Udalzaingoaaren ardura-duna: 6 ordu, 240 €.</p>						
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> •Zenbat bilera egin diren. •Zenbat erabaki hartu diren. •Hartutako erabakiak. •Protokoloan jasotako ekintzak. 						

Ildo estrategikoa	2	ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA			
Helburu orokorra		Indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei arreta integrala bermatzea.			
Helburu espezifikoak	2.1	Indarkeria matxistaren biktimentzako zerbitzu eta baliabideetarako sarbidea, arretaren estaldura eta kalitatea hobetzea aukera-berdintasunean.			
Helburu operatiboa	2.1.1.	Basurin indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta emateko erakundearteko koordinazio protokoloa sustatzea.			
Ekintza	2.1.1.3	Protokoloa eguneratzea, eta berau Plan Lokalera zein indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko indarreko araudira egokitzea.			
Deskribapena	<p>Ebaluaketa egin ostean, eta zerbitzu eta baliabideen arteko akordioak finkatu eta gero, koordinazio protokoloa eguneratu, eta Plan honetara egokituko da: abiapuntuztat ditugun printzipioak eta marko kontzeptuak hartuko ditu aintzat, eta gaiari buruzko indarreko araudiari erantzungo dio, indarkeria matxista jasaten duten guztiek kalitatezko arreta jaso dezaten, behar bezala prestatuta eta errealitatearekin sentiberatuta dauden adituen eskutik.</p> <p>Indarkeria matxista kasu bat ematen denean zerbitzu bakoitzak jarraitu beharreko ekintzak eta prozesua jasotzen dituen protokoloa egingo da, eta berau nahitaez bete beharko dute esku hartzen duten zerbitzu eta baliabide guztiek. Udaltzak onetsiko du agiria, eta zerbitzu guztiei banatuko zaie, jakinaren gainean daudela egiaztatzeko eta nork bere lanpostuan ezinbesteko tresna gisa erabiltzeko.</p> <p>Prozesuaren arduradunak egingo du agiria, aurretiazko faseak aztertu eta gero.</p>				
Oinarriak	Tratu txarrak eta eraso sexistak pairatzen zituzten emakumeei arreta emateko erakundearteko koordinazio protokoloa egiteko prozesua hasi zen Basurin 2004an. Ekimenak hobetu egin zuen indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arretan esku hartzen zuten zerbitzuen arteko koordinazioa. Protokoloa, ordea, ez zen bere osotasunean ezarri, eta Plan honetarako elkarrizketatutako adituek zein indarkeria matxista jasan zuten emakumeek argi eta garbi ikusi zuten berau birpentsatu beharra zegoela. Gainera, urte hauetan zehar ekarpen ugari egin dituzte Eudelen Berdintasunarekin eta Emakundeak, tokiko protokoloak egiteari eta abiarazteari dagokionez.				
Jasotzaileak	Indarkeria matxista pairatu duten emakumeei arreta emateko Protokoloan esku hartzen duten udal arlo eta zerbitzuak.				
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak	Laguntzaileak	Gauzatzeko aldia		
	<ul style="list-style-type: none"> •Berdintasun Atala •Gizarte-politika Arloa •Udaltzaingoa 		2017	2018	2019
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak
Jatorria eta zenbatekoa	Tokiko Enplegu Plana 2016ren bitartez kontratatutako langileak: 20 ordu, 800 €. Berdintasuneko teknikaria: 10 ordu, 400 €.				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> •Zenbat bilera egin diren. •Parte hartu duten adituen ekarpenak. •Azken dokumentua, zeinak Erakundearteko Koordinazio Protokoloa osatuko duen. 				

Ildo estrategikoa	2	ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA						
Helburu orokorra		Indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei arreta integrala bermatzea.						
Helburu espezifikoak	2.1	Indarkeria matxistaren biktimentzako zerbitzu eta baliabideetarako sarbidea, arretaren estaldura eta kalitatea hobetzea aukera-berdintasunean.						
Helburu operatiboa	2.1.1.	Basurin indarkeria matxistaren biktima diren emakumei arreta emateko erakundearteko koordinazio protokoloa sustatzea.						
Ekintza	2.1.1.4	Erakundearteko koordinazio protokoloa eguneratua ezartzea.						
Deskribapena	Plan hau ezarri eta bigarren urtetik aurrera, lehen urtean zehar egindako erakundearteko koordinazio protokoloa abiaraziko da.							
Oinarriak	Tratu txarrak eta eraso sexistak pairatutako emakumei arreta emateko erakundearteko koordinazio protokoloa egiteko prozesua hasi zen Basurin 2004an. Ekimenak hobetu egin zuen koordinazioa indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arretan esku hartzen duten zerbitzuen artean. Protokoloa, ordea, ez zen bere osotasunean ezarri, eta Plan honetarako elkarrizketatutako adituek zein indarkeria matxista jasan duten emakumeek argi eta garbi ikusi dute berau birpentsatu beharra dagoela. Gainera, urte hauetan zehar ekarpen ugari egin dituzte Eudelen Berdinsareak eta Emakunde, tokiko protokoloak egiteari eta abiarazteari dagokionez.							
Jasotzaileak	Indarkeria matxistaren biktimak.							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	<ul style="list-style-type: none"> •Berdintasun Atala •Gizarte-ongizate Arloa •Udaltzaingoa 				2017	2018	2019	2020
						•	•	•
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
Jatorria eta zenbatekoa		<p>Berdintasuneko langileak: 120 ordu, 4.800 €.</p> <p>Gizarte-ongizateko langileak: 60 ordu, 2.400 €.</p> <p>Udaltzaingoko langileak: 60 ordu, 2.400 €.</p>	<p>Berdintasuneko langileak: 120 ordu, 4.800 €.</p> <p>Gizarte-ongizateko langileak: 60 ordu, 2.400 €.</p> <p>Udaltzaingoko langileak: 60 ordu, 2.400 €.</p>	<p>Berdintasuneko langileak: 120 ordu, 4.800 €.</p> <p>Gizarte-ongizateko langileak: 60 ordu, 2.400 €.</p> <p>Udaltzaingoko langileak: 60 ordu, 2.400 €.</p>				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> •Protokoloan esku hartzen duten arlo eta atalek berau zein mailatan bete duten. •Esku hartzen duten adituen ebaluazioa. •Zenbat koordinazio-bilera egin diren zerbitzuen artean, indarkeria matxista kasuen aurrean. 							

Ildo estrategikoa	2	ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA				
Objetivo general		Indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei arreta integrala bermatzea.				
Helburu espezifikoak	2.1	Indarkeria matxistaren biktimentzako zerbitzu eta baliabideetarako sarbidea, arretaren estaldura eta kalitatea hobetzea aukera-berdintasunean.				
Helburu operatiboa	2.1.1.	Basaurin indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta emateko erakundearteko koordinazio protokoloa sustatzea.				
Ekintza	2.1.1.5	Protokoloaren zabalkundea egitea eragindako zerbitzuen artean.				
Deskribapena	<p>Protokoloaren zabalkundea egingo da eragindako zerbitzu eta baliabideen artean (bai indarkeria matxistaren biktimei arreta eta esku-hartze zuzena eskaintzen dietenekin, bai beren jardute-eremua dela eta, indarkeria matxista kasuetan «sarbide» izan daitezkeenekin). Horri esker, datozkien egoerei aurre egiteko lanabesa izango dute eskura.</p> <p>Eragindako zerbitzu eta baliabideen aurkezpen orokor batekin egingo da zabalkundea, bai euskarri materialean, baita elektronikoan ere.</p>					
Oinarriak	Tratu txarrak eta eraso sexistak pairatutako emakumeei arreta emateko erakundearteko koordinazio protokoloa egiteko prozesua hasi zen Basaurin 2004an. Ekimenak hobetu egin zuen koordinazioa indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arretan esku hartzen duten zerbitzuen artean. Protokoloa, ordea, ez zen bere osotasunean ezarri, eta Plan honetarako elkarrizketatutako adituek zein indarkeria matxista jasan duten emakumeek argi eta garbi ikusi dute berau birpentsatu beharra dagoela. Gainera, urte hauetan zehar ekarpen ugari egin dituzte Eudelen Berdinsareak eta Emakundek, protokolo lokalak egiteari eta abiarazteari dagokionez.					
Jasotzaileak	Indarkeria matxista pairatu duten emakumeei arreta emateko Protokoloan esku hartzen duten udal arlo eta zerbitzuak.					
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak	Laguntzaileak	Gauzatzeko aldia			
	• Berdintasun Atala	• Gizarte-ongizate Arloa • Udaltzaingoa	2017	2018	2019	2020
			•	•	•	
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak	
Jatorria eta zenbakeoa	Berdintasuneko langileak: 2017rako, Tokiko Enplegu Plana 2016ren bitartez kontratatutako langileak, 20 ordu, 800 €. Gizarte-ongizateko langileak: gizarte-langile bakoitzak 4 ordu. Udaltzaingoko langileak: langile bakoitzak 4 ordu.					
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Protokoloa aurkezteko egindako bileren kopurua. • Aurkezpen-bileretara zenbat lagun joan diren, sexuka. • Protokoloaren zenbat ale banatu diren. • Protokoloa zein arlotan/zerbitzutan aurkeztu den. • Protokoloa aurkeztu den zerbitzuetako adituek egindako ekarpenak. 					

Ildo estrategikoa	2	ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA					
Helburu orokorra		Indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei arreta integrala bermatzea.					
Helburu espezifikoak	2.1	Indarkeria matxistaren biktimentzako zerbitzu eta baliabideetarako sarbidea, arretaren estaldura eta kalitatea hobetzea aukera-berdintasunean.					
Helburu operatiboa	2.1.1.	Basurin indarkeria matxistaren biktima diren emakumei arreta emateko erakundearteko koordinazio protokoloa sustatzea.					
Ekintza	2.1.1.6	Protokoloaren ezarpen-maila ebaluatzea eta, beharrezkoa balitz, aldaketak egitea.					
Deskribapena	<p>Plan honen azken urtean, aurreko urteetan sustatutako Protokoloaren ebaluazioa egingo da, jakiteko, batetik, ea bete diren koordinaziorako, komunikaziorako eta kalitatezko arretarako helburuak; eta bestetik, elkarrekin identifikatzeko zailtasunak, eta aldatu beharreko alderdi eta ekintzak.</p> <p>Ebaluazio eta sistematizazio prozesuetan aditua den kanpo enpresa batek egingo du ebaluazioa, beren-beregi horretarako kontratatua. Horrez gain, zerbitzu bakoitzak barne-analisia egingo du, ebaluazio-fitxen bitartez. Bertan, argi eta garbi laburbilduko dute ea jasotako helbideak bete diren; jasotako informazioa, gero, kontratatutako enpresari bidaliko zaio.</p>						
Oinarriak	Tratu txarrak eta eraso sexistak pairatzen zituzten emakumei arreta emateko erakundearteko koordinazio protokoloa egiteko prozesua hasi zen Basurin, 2004an. Ekimenak hobetu egin zuen indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arretan esku hartzen duten zerbitzuen arteko koordinazioa. Protokoloa, ordea, ez zen bere osotasunean ezarri, eta Plan honetarako elkarriketatutako adituek zein indarkeria matxista jasandako emakumeek argi eta garbi ikusi zuten berau birpentsatu beharra zegoela. Gainera, urte hauetan zehar ekarpen ugari egin dituzte Eudelen Berdinsareak eta Emakundek, tokiko protokoloak egiteari eta abiarazteari dagokionez.						
Jasotzaileak	Indarkeria matxista pairatu duten emakumei arreta emateko Protokoloan esku hartzen duten udal arlo eta zerbitzuak.						
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Ebaluazioan aditua den kanpo-enpresa kontratatua	Áreas Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
		<ul style="list-style-type: none"> •-Marieneako zerbitzuak: EIZ, Sexu Informaziorako Bulegoa, Jabekuntza Eskola. •Gizarte-ongizate Arloa. •Udaltzaingoa. 		2017	2018	2019	2020
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak		
Jatorria eta zenbakeoa				Enpresa kontratzeagatiko aurrekontua: 9.000 € (3.000 € arloko: Berdintasuna, Gizarte-ongizatea, Udaltzaingoa)	Ebaluazioaren aurrekontua globala den arren eta azken urterako finkatu den arren, aurreikusten da 2019an hastea aurreikusten da.		
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> •Zenbat bilera egin diren. •Bileretan parte hartu dutenen kopurua, sexuka. •Arloek/zerbitzuek protokoloaren ebaluazioa egiteko banatutako fitxa kopurua. •Arloek/zerbitzuek protokoloaren ebaluazioa egiteko betetako fitxa kopurua. •Ebaluazio-fitxak aztertzeke ezarritako prozesua. •Jasotako ekarpenak. 						

Ildo estrategikoa	2	ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA						
Helburu orokorra		Indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei arreta integrala bermatzea.						
Helburu espezifikoak	2.1	Indarkeria matxistaren biktimentzako zerbitzu eta baliabideetarako sarbidea, arretaren estaldura eta kalitatea hobetzea aukera-berdintasunean.						
Helburu operatiboa	2.1.2.	Biktimentzako arreta emakumeen beharrianetara egokitzea, aintzat hartuta indarkeria matxistaren aurrean egoera zaurgarrienean dauden kolektiboak.						
Ekintza	2.1.2.1	Egoera zaurgarrienean dauden kolektiboak eta haien arreta-beharrianak identifikatzea.						
Deskribapena	Plan hau ezartzeko urteetan zehar, indarkeria matxistaren aurrean zaurgarrienak diren kolektiboen beharrian eta interesei arreta berezia jartzen jarraitu behar da, haien beharrian espezifikoari erantzuteko. Kolektibo horiek izan daitezke, esaterako, honako hauek: adineko emakumeak; emakume etorkinak; aniztasun funtzionala dutenak; LGTBI kolektiboak; prostituzioan lan egiten duten emakumeak; nerabeak; etxeko langileak. Udal zerbitzuen arreta jasotzen duten kolektiboak. Izan ere, udal zerbitzuak dira baliabideetarako sarbidea, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun Atala, batez ere (EIZ, Sexu Informaziorako Bulegoa eta 1era 2kain).							
Oinarriak	Indarkeria matxista gizarteak inposatutako eredu heteropatriarkalari erantzuten ez dioten emakume eta pertsonen aurka eragindakoa da. Eredu heteropatriarkal hori parekidea ez den gizarte-egitura batean oinarritzen da, botere harremanetan eta gizonen nagusitasunean. Egoera horretan, emakumeak dira, batez ere, indarkeria hori pairatzen dutenak, baina haiekin lotura duten beste pertsona batzuei ere eragin ahal die: seme-alabei, bikotekideei, beste senitarteko batzuei... Diskriminazioa jasaten duten beste kolektibo batzuei ere eragiten die, hala nola, eredu hegemonikoa hautsi eta kolokan jartzen dutenei. Emakume etorkinak, aniztasun funtzionala duten pertsonak, LGTBI kolektiboko kideak edota prostituzioan lan egiten dutenak izaten dira, sarri, indarkeria matxistaren jomuga. Ezinbestekoa da azterzea haien kontrako indarkeria horren arrazoiak zein diren, eta zelan gauzatzen den, horrek emango baitigu aukera indarkeria matxistaren biktima horien beharrianak ulertu eta behar bezalako arreta emateko.							
Jasotzaileak	Indarkeria matxistaren aurrean zaurgarrienak diren kolektiboak.							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	•Berdintasun Atala		•Gizarte-ongizate Arloa		2017	2018	2019	2020
					•	•	•	•
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
Jatorria eta zenbatekoa	Berdintasuneko langileak: 140 ordu, 5.600 €. Gizarte-ongizateko langileak: 30 ordu, 1.200 €.	Berdintasuneko langileak: 140 ordu, 5.600 €. Gizarte-ongizateko langileak: 30 ordu, 1.200 €.	Berdintasuneko langileak: 140 ordu, 5.600 €. Gizarte-ongizateko langileak: 30 ordu, 1.200 €.	Berdintasuneko langileak: 140 ordu, 5.600 €. Gizarte-ongizateko langileak: 30 ordu, 1.200 €.				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> •Egindako azterlanen kopurua. •Prozesurako diseinatutako eta ezarritako tresnak. •Azterlanen emaitzak. •Identifikatutako arreta beharrianak. •Identifikatutako lehentasuneko kolektiboak 							

Ildo estrategikoa	2	ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA						
Helburu orokorra		Indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei arreta integrala bermatzea.						
Helburu espezifikoak	2.1	Indarkeria matxistaren biktimentzako zerbitzu eta baliabideetarako sarbidea, arretaren estaldura eta kalitatea hobetzea aukera-berdintasunean.						
Helburu operatiboa	2.1.2.	Biktimentzako arreta emakumeen beharrianetara egokitzea, aintzat hartuta indarkeria matxistaren aurrean egoera zaugarrienean dauden kolektiboak.						
Ekintza	2.1.2.2	Emakumeentzako Informazio Zentroaren laguntzarekin etxeko langile diren emakumeentzako laneko jazarpen gida egin eta zabaltzea.						
Deskribapena	<p>Etxeko langileek pairatzen duten jazarpena identifikatzeko eta horri aurre egiteko gida egingo da. Etxeko langile gehienak emakume etorkinak dira, eta askotariko diskriminazioak pairatzen dituzten beren lan-eremuan. Etxeko langileen eskubideak ezagutaraztea eta errespetatzea sustatuko da, emakumeok lan-baldintza duinak izan ditzaten.</p> <p>Emakumeentzako Informazio Zentroko langileek egingo dute gida. Izan ere, haiek antzeman dute gida egiteko beharra; urteak daramatzate etxeko langile dihardutenei arreta eta aholkua ematen, eta. Etxeko langileak kontratatzerakoan jarraitu beharreko urratsak jasoko ditu gidak, beren lan-baldintzak, zein gehiegikeria jasaten dituzten, kontratatuak eta kontratatzaileak dituzten eskubideak eta betebeharrak, eta kaleratzea zein indemnizazioa arautuko ditu.</p>							
Oinarriak	Emakumeentzako Informazio Zentroak, 25 urteko bere ibilbidean zehar, aholkularitza eta laguntza eman die etxeko langile ari diren emakumeei. Ondo baino hobeto ezagutzen dituzte eremu horretan ematen diren gehiegikeriak, eta badakite langileen duintasuna eta haien eskubideenganako errespetua bermatu beharra dagoela. Horren harira, beharrezkoa ikusten da gaiari buruzko laguntza juridikoa eta behar besteko informazioa ematea.							
Jasotzaileak	Etxeko langileak.							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	•Berdintasun Atala		•Gizarte-ongizate Arloa		2017	2018	2019	2020
						●		
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
Jatorria eta zenbatekoa		Berdintasuneko langileak: 30 ordu, 1.200 €. Gida inprimatu eta zabaltzeagatiko aurrekontua: 1.500 €.						
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> •Etxeko langileentzako gida. •Esku hartu duten eragileen kopurua. •Etxeko langile ari diren emakumeentzako aholkularitza zerbitzuan artatutako kasuen kopurua. 							

ildo estrategikoa	2	ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA							
Helburu orokorra		Indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei arreta integrala bermatzea.							
Helburu espezifikoak	2.1	Indarkeria matxistaren biktimetzako zerbitzu eta baliabideetarako sarbidea, arretaren estaldura eta kalitatea hobetzea aukera-berdintasunean.							
Helburu operatiboa	2.1.2.	Biktimetzako arreta emakumeen beharrezanetara egokitzea, aintzat hartuta indarkeria matxistaren aurrean egoera zaurgarrienean dauden kolektiboak.							
Ekintza	2.1.2.3	Emakume atzerritarrek edota beharrezan bereziak dituzten emakumeek informazioa eskuratzeko edota arreta integrala jasotzeko dituzten hizkuntza-trabak eta bestelako oztopoak kentzea.							
Deskribapena	<p>Udalaren baliabide eta zerbitzuei buruzko informaziorako sarbidea bermatzeko eta emakume guztiei arreta integrala eskaintzeko, dagoen informazioa egokitu egingo da, hizkuntzak edota beharrezan bereziak ez daitezen horiek erabiltzeko traba izan.</p> <p>Horren harira, informazioa zenbait hizkuntzatan eman ahalko diete arloek erabiltzaileei (Berdintasun Atalean 2006tik dago dokumentazio hori). Bestalde, Immigrazio Atalarekin koordinatuko dira migratzaileei buruzko datuak, eta emakume etorkinak baliabideetara hurbiltzeko estrategiak. Gaur egun, Immigrazio Atalaren bidez EUDELekin hitzartutako itzulpen-gidak zerbitzua daukagu. Entzumen-urritasuna duten emakumei keinu-hizkuntza bidezko interpretazioa edo braillea eskaintzeko aukera ere aztertuko da.</p>								
Oinarriak	Oinarriak Faktore batzuek zaildu egin dezakete informaziorako sarbidea: interesdunaren jatorria, kulturaren alorreko desberdintasunak, hizkuntza edota aniztasun funtzionala. Horren ondorioz, asko dira baliabideetarako eta beharrezko informaziorako sarbiderako aukera-berdintasunik ez dutenak. Berezi larrria da emakume etorkinen kasua: kultur-talkari aurre egin behar izaten diote, eta ez dute ezagutzen sistema eta arreta-zerbitzuen funtzionamendua. Horren ondorioz, segurtasun falta handiagoa dute, arreta-ibilbidera sartzerakoan. Hesi horiek aintzat hartzea ezinbestekoa da, indarkeria matxistaren biktima guztiak aukera berdinak izan ditzaten.								
Jasotzaileak	Atzerritar eta beharrezan bereziak dituzten emakumeak.								
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia				
	•Berdintasun Atala				2017	2018	2019	2020	
						•	•	•	•
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak				
Jatorria eta zenbatekoa			Berdintasun Atalak aurretiaz egindako informazio-gidak egokitzea: 2 ordu, 80 €.		Informazioa eskuragarri dago Plana hasi zenetik, baina, hala ere, 2019an zerbitzuen ebaluazioa egingo da, ikusteko ea komeni den informazioa beste euskarri edota hizkuntzetara egokitzea.				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> •Zenbat kontsulta-eskaera jaso diren hizkuntza ez-ofizialetan. •Zenbat kontsulta-eskaera jaso diren beharrezan bereziak dituzten pertsonengandik. •Kontsulta-eskabideen hizkuntza (gehien agertu denetik, gutxien agertu denera). •Kontsulta bakoitzean antzemandako beharrezan mota (keinu-hizkuntza, irisgarritasuna, braille...). •Antzemandako hizkuntzetan egindako materiala. •Mundu guztiari sarbidea bermatzeko egindako tresnak. •Zabalkunderako diseinatutako prozesua. 								

Ildo estrategikoa	2	ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA			
Helburu orokorra		Indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei arreta integrala bermatzea.			
Helburu espezifikoak	2.1	Indarkeria matxistaren biktimentzako zerbitzu eta baliabideetarako sarbidea, arreta- ren estaldura eta kalitatea hobetzea aukera-berdintasunean.			
Helburu operatiboa	2.1.3.	Transbertsalitatea bultzatzea udal arloetan, indarkeria matxistaren aurkako borroka koordinatzeko.			
Ekintza	2.1.3.1	Udal arloek indarkeria matxistari eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari ematen dieten tratamenduari buruzko informazioa jaso eta sistematizatzea.			
Deskribapena	Egituretatutako fitxen bidez informazioa jasoko da, udal arlo desberdinek indarkeria matxista zelan jorrat- zen duten jakiteko, arreta berezia jarrita arloek duten esku-hartzean eta indarkeria matxistari emandako erantzunean. Herritarrekin harreman zuzenena duten arloek izango dute lehenetsua. Modu transbert- salean lan egitea da helburua, eta hortik aztertzea ea nola diseinatu eta ezarri daitezkeen ekintzak udal arlo bakoitzean (Plan honetatik abiatuta), indarkeria matxistari erantzun egoki eta koordinatua emateko.				
Oinarriak	Indarkeria matxistaren biktimei arreta integrala eta kalitatezkoa bermatzeko, arazoa eremu guztietatik hel- du behar da. Ondorioz, udal arlo guztiekin lan egitea beharrezkoa da, bereziki, beren jarduteko eremua dela-eta herritarrekin harreman handiena dutenekin (horiek izango direlako dauden baliabideetarako bikti- men sarbidea). Bestalde, informazioa biltzeko prozesua bada, berez, arloetako teknikariak eta politikariak sentiberatzeko ekintza, eta udal langileei Planaren berri emateko bidea ere bai: aliantzak eta akordioak sorrarazten ditu, erakundetik modu koordinatuan jarduteko.				
Jasotzaileak	Udal arloak.				
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak	Laguntzaileak			Gauzatzeko aldia
	•Berdintasun Atala	• Udal arloak: Kultura, Gazteria, Euskara, Kirola, Immigrazioa, Enplegua, Hirigintza, Kooperazioa, Ingurumena eta Giza Baliabideak			2017 2018 2019 2020
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak
Jatorria eta zenbatekoa	Berdintasun Ataleko langi- leek informazio-fitxak egi- teko behar duten denbora (Tokiko Enplegu Plana 2016): 20 ordu, 800 €. Arlo bakoitzetik fitxak betetzeko eta Berdintasun Atalarekin koordinatzeko ardura duten langileak: 2 ordu eta 80 € arloko, 1.000 €.				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Informazio-fitxak. • Arloko edo arduraduneko zenbat fitxa banatu diren. • Arloko edo arduraduneko zenbat fitxa jaso diren. • Zenbat bilera egin diren, eta bakoitzean zenbat pertsona egon diren, arloka eta sexuka. • Arlo arteko koordinazioan esku hartzen duten langileak. • Jasotako informazioaren balorazioa. 				

Ildo estrategikoa	2	ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA			
Helburu orokorra		Indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei arreta integrala bermatzea.			
Helburu espezifikoak	2.1	Indarkeria matxistaren biktimentzako zerbitzu eta baliabideetarako sarbidea, arretaren estaldura eta kalitatea hobetzea aukera-berdintasunean.			
Helburu operatiboa	2.1.3.	Transbertsalitatea bultzatzea udal arloetan, indarkeria matxistaren aurkako borroka koordintatzeko.			
Ekintza	2.1.3.2	Urtero plangintza operatiboak egitea, prozesuan esku hartzen duten udal arloekin batera.			
Deskribapena	Arloen funtzionamenduari buruzko informazioa jaso eta sistematizatu ostean, prozesuan esku hartzen duten arlo guztien parte hartzea bilatzeko plangintza operatiboak egingo dira urtero. Helburua, arloetako arduradunekin akordioak adostea, konpromisoa har dezaten Plan honi lotutako ekintza bat, gutxienez, beren funtzionamenduan txertatzeko izango da. Eragiten dieten Planaren ekintzak gauzatzeko aurrekontu-konpromisoa ere eskatuko zaie.				
Oinarriak	Indarkeria matxistaren biktimei arreta integrala eta kalitatezkoa bermatzeko, arazoa eremu guztietatik heldu behar da. Ondorioz, beharrezkoa da udal arlo guztiekin lan egitea, bereziki, beren jarduteko eremua dela-eta indarkeria matxistarekin lotura estuena dutenekin. Horren harira, informazioa jasotzeko prozesua, udal langileak eta politikariak sentiberatzeko bidea da, berez, eta langileak Planera hurbiltzeko modua ere bai. Loturak eta akordioak sortzen dira, Planean txerta daitezkeen ekintza berriei begira.				
Jasotzaileak	Udal arloak.				
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak	Laguntzaileak	Gauzatzeko aldia		
	• Berdintasun Atala	• Udal arloak: Kultura, Gazteria, Euskara, Kirola, Immigrazioa, Enplegua, Hirigintza, Kooperazioa, Ingurumena eta Giza Baliabideak	2017	2018	2019
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak
Jatorria eta zenbatekoa		Berdintasun Ataleko langileak: 50 ordu, 2.000 €. Arlo bakoitzetik Berdintasunarekin koordinatzeko ardura duten langileak: 5 ordu, 200 €.			
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbat bilera egin diren. • Zenbat pertsonak hartu duten parte arlokako edo arduradun bakoitzeko bileretan, sexuka. • Eragindako arlo bakoitzean txertatutako ekintzak. • Arlo arteko koordinazioan esku hartzen duten langileak. 				

Ildo estrategikoa	2	ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA						
Objetivo general		Indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei arreta integrala bermatzea.						
Helburu espezifikoak	2.1	Indarkeria matxistaren biktimentzako zerbitzu eta baliabideetarako sarbidea, arretaren estaldura eta kalitatea hobetzea aukera-berdintasunean.						
Helburu operatiboa	2.1.4.	Udaleko teknikariek eta politikariek berdintasunari eta indarkeria matxistari buruz dituzten ezagutzak handitzea.						
Ekintza	2.1.4.1	Udal politikari eta teknikariei berdintasunaren eta indarkeria matxistaren arloko prestakuntza ematea.						
Deskribapena	<p>Zenbait prestakuntza-modulu emango dira, Basauriko Udaleko teknikari eta politikariei kontzientzia harra-razteko, sentiberatzeko eta prestatzeko, beren ardura eta eskumen maila aintzat hartuta. Hori dela eta, bi prestakuntza maila bereiziko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Politikarientzako prestakuntza orokorra: Saio bi egingo dira (bakoitza 2 ordukoa, gutxi gorabehera), eduki orokorrak jorratzeko. <ul style="list-style-type: none"> • 1. saioa: udal politikariak. • 2. saioa: Udaleko arloetako buruak. • Herritarrei arreta ematen dieten langileentzako prestakuntza: Saio bi egingo dira, 3 ordukoa bakoitza. Batez ere administrariari zuzenduta dago, hain zuzen ere, zerbitzu desberdinetan arreta zuzena ematen dutenei (Herritarrei Informazioa eta Arreta emateko Bulegokoei, Udaltzaingokoei, gizarte-zerbitzuetakoei, eta abar). Helburua, indarkeria matxista kasuak antzemateko oinarri-zko prestakuntza ematea da, eta dauden baliabideei buruzko informazioa ematea, biktimei argibide egokiak eman ahal izateko eta haien dagokion tokira bidaltzeko. <p>Prestakuntzaren edukiak berrikusi egingo dira hirugarren urtean, Plana ezarri zeneko lehen urtean jasotako prestakuntza aztertu eta ebaluatzeko, lanean prestakuntza horri buruz sortutako zalantzak argitzeko, eta egon litezkeen aldaketa juridikoen, arauen aldaketan, eta aldaketa sozialen berri emateko.</p>							
Oinarriak	Ezinbestekoa da udal-zerbitzuetarako sarbideetan ari diren guztiek prestakuntza eta informazio egokia izatea, bai kasuak artatzeari dagokionez, bai dauden baliabideei buruz, baita biktimak bidaltzeko protokoloei buruz. Izan ere, jendea arreta emateko lanpostuetan daudenak indarkeria matxista kasuak antzemateko eta biktimak artatzeko sarbidea izan daitezke, eta, beraz, oso garrantzitsuak dira arreta-prozesuan. Beste alde batetik, politikariak ere oso garrantzitsuak dira: haien esku baitaude hainbat erabaki; eta haien akordioak eta konpromisoa beharrezkoak dira baliabideak, zerbitzuak eta, areago, hau bezalako plan integralak ezartzeko. Hori dela eta, politikariek sentiberatuak, kontzientziatuak eta prestatuak egon behar dira.							
Jasotzaileak	Udal teknikari eta politikariak.							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	<ul style="list-style-type: none"> •Berdintasun Atala •Giza Baliabideen Arloa 				2017	2018	2019	2020
					•		•	
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
Jatorria eta zenbatekoa	Berdintasuneko langileak: 10 ordu, 400 €. Prestakuntzarako aurrekontua, Giza Baliabideen Arloaren kontura: 14 prestakuntza-ordu, 1.400 €.		Berdintasuneko langileak: 10 ordu, 400 €. Prestakuntzarako aurrekontua, Giza Baliabideen Arloaren kontura: 14 prestakuntza-ordu, 1.400 €.					
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbat prestakuntza-saio egin diren. • Bileretan parte hartu dutenen kopurua, sexuka, lan-profilaren arabera edo kargu politikoaren arabera. • Prestakuntzak teknikari eta politikariengan izandako eragina. • Prestakuntza-moduluaren ebaluazioa. 							

Ildo estrategikoa	2	ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA					
Helburu orokorra		Indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei arreta integrala bermatzea					
Helburu espezifiko	2.1	Indarkeria matxistaren biktimentzako zerbitzu eta baliabideetarako sarbidea, arretaren estaldura eta kalitatea hobetzea aukera-berdintasunean.					
Helburu operatiboa	2.1.4.	Udaleko teknikariek eta politikariek berdintasunari eta indarkeria matxistari buruz dituzten ezagutzak handitzea.					
Ekintza	2.1.4.2	Etengabeko prestakuntza eskaintzea indarkeria matxistaren biktimekin esku-hartze zuzena duten profesionalai.					
Deskribapena	<p>Urtero, etengabeko prestakuntza eskainiko zaie indarkeria matxistaren biktimekin esku-hartze zuzena dutenei, hau da, Gizarte-Zerbitzuetako eta Arloaren mendeko programetako langileei; Udaltzaingoari; eta Berdintasun Ataleko eta haren mendeko programetako langileei. Helburua profesional hauen prestakuntza egokia eta birziklatzea lortzea da (ezagutzera ematea indarreko legeria, gaiaren egoerari buruzko txosten eta ikerketak, eta esku hartzeko, zein egindako lana ebaluatzeko metodologiak).</p> <p>Prestakuntzaren edukiak berrikusi egingo dira hirugarren urtean, Plana ezarri zeneko lehen urtean jasotako prestakuntza aztertu eta ebaluatzeko, lanean prestakuntza horri buruz sortutako zalantzak argitzeko, eta egon litezkeen aldaketa juridikoen, arauen aldaketan, eta aldaketa sozialen berri emateko.</p>						
Oinarriak	Arazo sozial larria da indarkeria matxista eta hori gainditu ahal izateko, beharrezkoa da biktimak artatzeko ardura dutenak etengabe hausnarrean egotea. Gainera, kontuan hartu beharra dago egoera larri horri aurre egiteko erakundeek eskaintako baliabide eta zerbitzuen eraginez, indarkeria bera gero eta konplexuagoa dela, eta aurre egin beharreko indarkeria-eredu berriak sortzen direla. Etengabeko prestakuntza beharrezkoa da berez, baina, kasu honetan, ezinbestekoa ere bada: sarritan, estereotipoak eta jendearengan oso errotutako ikuspuntuak eta jokamoldeak eraistea bilatzen da, eta hala da indarkeria matxistaren biktimak artatzen dituztenen kasuan ere.						
Jasotzaileak	Indarkeria matxistaren biktimekin esku-hartze zuzena duten profesionalak.						
Helburuak gauatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak	Laguntzaileak		Gauatzeko aldia			
	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasun Atala Modulua diseinatuko ditu Giza Baliabideen Arloa. Prestakuntza kudeatuko du 			2017	2018	2019	2020
				•		•	
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak		
Jatorria eta zenbatekoa	Prestakuntzarako aurrekontua: 36 ordu, 3.6000 €. Berdintasuneko langileak: 10 ordu, 400 €.		Prestakuntzarako aurrekontua: 36 ordu, 3.6000 €. Berdintasuneko langileak: 10 ordu, 400 €.				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> Zenbat prestakuntza-saio egin diren. Bileretan parte hartu dutenen kopurua, sexuka eta lan-profilaren arabera. Prestakuntza-moduluen ebaluazioa. 						

Ildo estrategikoa	2	ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA						
Objetivo general		Indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei arreta integrala bermatzea.						
Helburu espezifikoak	2.2	Udalaz gairik erakundeekin berdintasunaren eta indarkeria matxistaren alorreko sare-lana sustatzea.						
Helburu operatiboa	2.2.1.	Erakundeen erantzun koordinatua bermatzea EAEan, berdintasunari, indarkeria matxistaren prebentzioari eta arretari dagokionez.						
Ekintza	2.2.1.1	Berdinsarea, berdintasunaren aldeko euskal udalerrien sarean (EUDEL) parte hartzea.						
Deskribapena	Berdinsarea berdintasunaren aldeko euskal udalerrien sarean parte hartzen jarraituko dugu. Izan ere, berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka borrokatzen duten udalerrien lan-eremua da Berdinsarea. Prebentzioetik, ikuspuntu integraletik, ahalduntzetik eta arreta anitzetik egiten du lan, eta bere helburua euskal udalari guztientzako erreferente izatea da, gai horri buruzko tokiko esku-hartzeak hobetzeko. Horrela, bada, Basaurik sare horretako kide izaten jarraituko du (hala izan da 2005ean sare eratu zenetik), eta berdintasuneko udal-teknikariak aldian-aldian egiten diren bileretara joaten jarraituko du.							
Oinarriak	<p>Etxe barruko tratu txarrak eta sexu-erasoak pairatzen dituzten emakumeei emandako arreta hobetzeko Erakundearteko Hitzarmena sinatu zuten gaian esku hartzen zuten euskal erakunde guztiek, 2001ean. Hitzarmen horren Jarraipen Batzordearen ustez, beharrezkoa da udal esparrutik lankidetzaz-hitzarmenak eta jardute-protokoloak garatzea, berezko errealitatearen arabera zehaztu eta moldatzeko Hitzarmenak modu orokorrean xedatutakoa. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ere aurreikuspen hori jaso zuen.</p> <p>Hori guztia dela eta, «emakumeenganako indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sare» eratzea aurreratu zuen Batzordeak, etxe barruko tratu txarren biktima ziren emakumeentzako Segurtasun Planean (2002an onetsi zen). Sare horren xedea izango zen «udalerrietan horrelako indarkeriari aurre egiteko programak eta jarduketak ezartzea eta biktimei laguntza ematea, bizipenak trukatzea, koordinazioa egitea eta baterako jarduketak aurrera eramatea». 2005ean eratu zen Berdinsarea, eta Basaurik, berdintasunaren eta indarkeria matxistaren alorrean ibilbide luzea egindako udalerria izaki, urte hartan bertan bihurtu zen sareko kide, erantzuna egokiro koordinatzeak eta araudia betetzeak zuen garrantziaz jabetuta.</p>							
Jasotzaileak	Herritarrak, oro har.							
Egintza nork gauzatu behar duen	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	• Berdintasun Atala				2017	2018	2019	2020
					•	•	•	•
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
Jatorria eta zenbatekoa	Berdintasuneko langileak: 40 ordu, 1.600 €.	Berdintasuneko langileak: 40 ordu, 1.600 €.	Berdintasuneko langileak: 40 ordu, 1.600 €.	Berdintasuneko langileak: 40 ordu, 1.600 €.				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Egindako bileren kopurua. • Bileretan parte hartu dutenen kopurua, sexua eta lan-profilaren arabera. • Urte bakoitzean izandako ekimenak/ekintzak/proiektuak. 							

Ildo estrategikoa	2	ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA						
Helburu orokorra		Indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei arreta integrala bermatzea.						
Helburu espezifikoak	2.2	Udalaz gaindiko erakundeekin berdintasunaren eta indarkeria matxistaren alorreko sare-lana sustatzea.						
Helburu operatiboa	2.2.1.	Erakundeen erantzun koordinatua bermatzea EAEan, berdintasunari, indarkeria matxistaren prebentzioari eta arretari dagokionez.						
Ekintza	2.2.1.2	«Beldur Barik» programaren talde eragilean parte hartzea.						
Deskribapena	<p>Emakundek, Berdinsareak eta EAEko foru aldundiek gazteen artean indarkeria matxista prebenitzeko sustatutako «Beldur Barik» programaren talde eragilean parte hartzen jarraituko dugu, konpromiso maila altuarekin. Programa horren xedea indarkeria matxistaren gaineko hausnarketa eta eztabaida bultzatzea da. Horretarako, indarkeriari buruzko pentsamoldea, jarrera aldaketa eta, bide horretatik, errealitatea eraldatzen lagundu nahi duten neska-mutilei zuzendutako programak sustatzen ditu.</p> <p>Azaroaren 25eko kanpainaren inguruan bildu ohi da talde eragilea. Basauriko Udalaren Berdintasun Ataleko langileek bertan parte hartzen jarraituko dute.</p>							
Oinarriak	<p>Erakundearteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraituta, lankidetzaz-hitzarmenak eta jarduera-protokoloak egiteko beharra aurreikusi zuen, tratu txarrak jasandako emakumeentzako 2002an egindako Segurtasun Planean. Hortik sortu zen Berdinsarea berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako euskal udalerrien sarea. Horrez gain, ageri-agerian geratu zen gazteen parte-hartzea sustatu beharra zegoela, haiek baitira gure gizartearen etorkizuna. Beraz, haiei zuzendutako estrategiak eta programak egin behar genituen. Hori dela eta, 2009an, eta Berdinsarearen barruan, «Beldur Barik» programa abiarazi zen.</p>							
Jasotzaileak	Gazteak.							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	• Berdintasun Atala				2017	2018	2019	2020
					•	•	•	•
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
Jatorria eta zenbatekoa	Berdintasuneko langileak: 100 ordu, 4.000 €.	Berdintasuneko langileak: 100 ordu, 4.000 €.	Berdintasuneko langileak: 100 ordu, 4.000 €.	Berdintasuneko langileak: 100 ordu, 4.000 €.				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Egindako bileren kopurua. • Bileretan parte hartu dutenen kopurua, sexuka eta lan-profilaren arabera. • Ekimenak/ekintzak/proiektuak, urteka. 							

Ildo estrategikoa	2	ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA						
Objetivo general		Indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei arreta integrala bermatzea						
Helburu espezifikoa	2.2	Indarkeria matxista pairatu duten emakumeen suspertzea bermatzea eta ahalduntze-prozesu individual eta kolektiboak sustatzea.						
Helburu operatiboa	2.2.1.	Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen suspertze- eta ahalduntze-prozesuak bultzatzea.						
Ekintza	2.3.1.1	Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeenganako arreta-zerbitzua handitzea udalerrian.						
Deskribapena	<p>Plan honen lehentasunetako bat indarkeria matxista jasaten dutenen arreta integrala hobetzea da, krisi-egoeretan laguntza ematea, eta epe ertain eta luzera suspertze-prozesuak hastea ahalbidetuko dieten baliabideak eskaintzea. Horretarako, Planak jasotzen duen neurri nagusietako bat da Emakumeentzako Informazio Zentroak indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eskaintako arreta psikologikoko zerbitzua. Bikoiztu egingo dira arreta psikologikorako orduak (astean 20 izango dira, 10en ordez), eta hiru motakoa izango da arreta hori: banakakoa; taldekeakoa; eta krisi-egoerarako eskaintakoa.</p> <p>Oinarriko Gizarte-zerbitzuekin etengabeko koordinazioan garatuko da arreta psikologikoko prozedura, zerbitzu bakoitzak indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko eta haiei arreta emateko unea aintzat hartuta.</p>							
Oinarriak	<p>Indarkeria matxista pairatzen duten emakumei arreta integrala bermatzeko, eta haien ahalduntze- eta suspertze-prozesuak bultzatzeko, giza baliabide eta baliabide material batzuk eduki behar dira, eta suspertze-prozesu osoan zehar emakumeen beharrezko erantzuteko gaitasuna. Berdinsarearen Indarkeria Batzordean egindako lanak gomendatzen du emakumeekin lan egitea kolektibotik. Emakumeentzako Informazio Zentroan ere hala egiaztatu zuten lehenago ere. Bada, kontua are garrantzitsuagoa bilakatu da, Marienea Basauriko Emakumeen Etxeak hala egiteko tokia eskaintzen duelako. Hori dela eta, azken urteotan zenbait tailer egin dira, bai Jabekuntza Eskolan, baita EIZn bertan ere, emakumeen beharrezko antzeman, eta eskainiko den baliabidea definitzeko.</p> <p>Ikusitako beharrezko eta azken urteotako emaitza positiboetara erreparatuta, Plan honen diagnostiko-fasean eta Plana bera egiteko fasean emakume biktimari laguntza emateko proiektu pilotua abiarazi zen: talde bat sortu zen, eta, bertan, egiaztatu da beharrezko hori badagoela. Funtsezkoa da biktimak laguntzea epe labur, ertain eta luzera, beren bizitza-proiektuak modu independente eta autonomoan eraiki ditzaten, ahaldunduta, jarrera eta balore berriak ikasita, harreman biolentoetan berriro ez erortzeko. Gainera, emakumeek ere adierazi dute taldean konpartitzeko beharra, taldearen laguntza jasotzeko eta ahalduntze kolektiboa jorratzeko gumeak izateko beharra.</p>							
Jasotzaileak	Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeak.							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	• Berdintasun Atala				2017	2018	2019	2020
					•	•	•	•
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
Jatorria eta zenbatekoa	Berdintasuneko langileak: EIZko psikologoa, lanaldi-erdia: 20.670 €.	Berdintasuneko langileak: EIZko psikologoa, lanaldi-erdia: 20.670 €.	Berdintasuneko langileak: EIZko psikologoa, lanaldi-erdia: 20.670 €.	Berdintasuneko langileak: EIZko psikologoa, lanaldi-erdia: 20.670 €.				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumei arreta emateko zerbitzuan zenbat ordu gehiago egon diren. • Zenbat emakume artatu diren. • Erabiltzaileen profila, ezarritako aldagaien arabera. • Modalitate desberdinetan emandako arreta mota. • Zenbat bilera egin dituzten zerbitzuaren teknikari arduradunek. • Prozesua sistematizatzeko tresnak. • Urtean izandako eraginaren ebaluazioa. • Marieneako zerbitzuen barne-bilerak. 							

Ildo estrategikoa	2	ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA					
Objetivo general		Indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei arreta integrala bermatzea.					
Helburu espezifikoak	2.3	Indarkeria matxista pairatu duten emakumeen suspertzea bermatzea eta ahalduntze-prozesu indibidual eta kolektiboak sustatzea.					
Helburu operatiboa	2.3.1.	Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen suspertze- eta ahalduntze-prozesuak bultzatzea.					
Ekintza	2.3.1.2	Indarkeria matxistaren biktimen talde baten eraketa bultzatzea eta jarraitzea.					
Deskribapena	<p>Indarkeria matxista jasaten dutenen erabateko suspertzean laguntzeko, biktimen talde bat eratzea bultzatuko da, suspertze- eta ahalduntze-prozesuak abiarazteko. Banakako arreta psikologikoaren osagarria izango da, eta, besteak beste, honako gai hauek jorratuko dituzte: komunikazio ez-biolentoa; emozioak kudeatzea; indarkeria-zikloa ez errepikatzea; indarkeriarik gabeko harreman berriak nola kudeatu eta nola eraiki; aisialdiaz eta astialdiaz gozatzea; erruduntasun-sentimendua eta autoestimua berreskuratzea eta abar. Ahalduntze indibidual, kolektibo eta politikoa sustatzen duten gaiak partekatuko dituzte, biktimen suspertzea sustatzeko; gainera, sendatze bidean, parte-hartzaileei aukera emango zaie aktibismoa baliatzeko eta beren istorioa kontatzeko.</p> <p>Hilean bi aldiz bilduko da taldea, eta udal zerbitzuetatik bidalitako emakumeek osatuko dute (hain zuzen ere, beren prozesua konpartitu nahi dutenak egoera berean dauden beste emakume batzuekin).</p> <p>Emakume horiek artatzen dituzten zerbitzuen arteko koordinazio ona egon dadin, zerbitzu horiei proiektua aurkeztuko zaie, berau eskaini dezaten eta, egoki bada, emakumeak egokiro bidaltzeko aukera izan dezaten.</p>						
Oinarriak	Plan honen diagnostikoa eta Plana bera egiteko faseetan, emakume biktimei laguntzeko talde baten proiektu pilotua abiarazi da, emakumeok espazio kolektiboan murgiltzeko beharra zutela ikusi genuelako; besteak beste, antzeko egoera bizi izan duten emakumeekin beren bizipenak partekatzeko. Gainera, Jabeakuntza Eskolaren eta Marienearen ibilbideak erakusten dute zein onuragarria den ahalduntze kolektiborako espazioak eskaintzea. Zentzu horretan, antzematen dugu emakume askorentzat oso onuragarria, sendatzailea dela biktimatik aktibista izatera igarotzea.						
Jasotzaileak	Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeak eta arreta ematen dieten zerbitzuak.						
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak	Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	•Berdintasun Atala	•Udaltzaingoa •Gizarte-politika Arloa		2017	2018	2019	2020
				•	•	•	•
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak		
Jatorria eta zenbatekoa					Ekintza honen aurrekontua bat dator 2.3.1.1 ekintzan jasotakoarekin		
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Taldea osatzen duten emakumeen kopurua. • Bidaltze-protokoloa ezarrita dagoen zerbitzuetatik zenbat emakume bideratu diren, arloka. • Bidaltze-protokoloa ezarrita dagoen zerbitzuetatik artatutako zenbat emakume bidali diren, arloka. • Zenbat saio egin diren. • Taldea osatzen duten emakumeen profila. • Emakumeen jarraipena (bajak, kide berriak). • Taldearen funtzionamenduari eta bilakaerari buruzko balorazioa. • Prozesua sistematizatzeko tresnak. • Bidaltze-prozesuaren ebaluazioa egiteko tresnak. • Urtean izandako eraginaren ebaluazioa. • Ondorioen azterketa. • Marieneako zerbitzuen barne-bilerak. 						

Ildo estrategikoa	2	ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA						
Helburu orokorra		Indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei arreta integrala bermatzea.						
Helburu espezifiko	2.3	Indarkeria matxista pairatu duten emakumeen suspertzea bermatzea eta ahalduntze-prozesu indibidual eta kolektiboak sustatzea.						
Helburu operatiboa	2.3.1.	Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen suspertze- eta ahalduntze-prozesuak bultzatzea.						
Ekintza	2.3.1.3	Indemnitzazio- eta konponketa-prozesuei buruzko informazioa txertatzea indarkeria matxistaren biktimei emandako aholkularitza juridikoan.						
Deskribapena	<p>Indarkeriaren biktimei, genero-indarkeriaren biktima diren neurrian, dituzten eskubideen gaineko informazioa emango die Emakumeentzako Informazio Zentroak eskainitako aholkularitza juridiko zerbitzuak (hala jasotzen du 1/2004 Legeak); eta, delitu baten biktima diren aldetik, dagokien indemnitzazio ekonomikoari buruzko gaineko informazioa ere emango zaie.</p> <p>Gizarte-zerbitzuek eta Emakumeentzako Informazio Zentroak gai horiei buruzko informazio orokorra emango dute. Informazio espezializatua, berriz, Emakumeentzako Informazio Zentroaren aholkularitza juridikoko abokatu arduradunak emango du.</p>							
Oinarriak	<p>Indarkeria matxistaren biktimek, jasandako kalteagatiko indemnitzazioa, eta konponketa jasotzeko eskubidea dute. Sarri askotan, dauden baliabideak egonda ere, indarkeria-egoera bizi dute oraindik ere; arazoa «eremu pribatuan» kokatzen dute, biktimek «lotsa» sentitzen dute, beren burua publikoki horrela aldarrikatzeko; eta abar. Horren guztiaren eraginez, ez dituzte beren eskubideak ezagutzen, eta ez dute indemnitzazioa eskatzeko beren eskubidea egikaritzen. Indarkeria matxistaren kasuan, emakumeen kalbarioa ez da banantzearekin amaitzen; askotan, banantzeak areagotu egiten du arazoa.</p> <p>Konponketa-prozesuan funtsezkoa da kalte-ordainak ordaintzea ere. Hori dela eta, zerbitzuetara datozen emakumeei informazioa ematea proposatzen da.</p>							
Jasotzaileak	Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeak.							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	• Berdintasun Atala		• Gizarte-ongizate Arloa		2017	2018	2019	2020
					•	•	•	•
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
Jatorria eta zenbatekoa	Berdintasuneko langileak: 20 ordu (informazioa egokitzea) 800 €.	Berdintasuneko langileak: dagoen eskaeraren arabera.	Berdintasuneko langileak: dagoen eskaeraren arabera.	Berdintasuneko langileak: dagoen eskaeraren arabera.				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Indemnitzazioari eta konponketari buruz aholkularitza juridikoak artatutako emakumeen kopurua. • Prestatutako informazioa (liburuxka, dokumentua). • Informazioaren zabalkundearen esku hartu duten arloak. • Esku hartutako arloek zenbat bilera egin dituzten. 							

Ildo estrategikoa	2	ARRETA INTEGRALA, SUSPERTZEA ETA AHALDUNTZEA						
Helburu orokorra		Indarkeria matxistaren biktima direnei edo izateko arriskua dutenei arreta integrala bermatzea.						
Helburu espezifikoak	2.3	Indarkeria matxista pairatu duten emakumeen suspertzea bermatzea eta ahalduntze-prozesu indibidual eta kolektiboak sustatzea.						
Helburu operatiboa	2.3.2.	Indarkeria matxistaren biktima zuzenak diren seme-alabak suspertzeko prozesuak bermatzea.						
Ekintza	2.3.2.1	Gizarte-zerbitzuekin eta, bereziki, Familia eta Haurtzaroko programarekin koordinatzea eta lankidetzan aritzea, indarkeria matxistaren biktima diren adin txikikoei arreta emateko.						
Deskribapena	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek esku hartzen dute indarkeria matxistaren biktima diren adin txikioekin, Berdintasun Atalarekin koordinatuta. Bigarren horrek laguntza psikologikoa emateko taldea bultzatuko du (ikus 2.3.1.2 fitxa), koordinatuko dira, eta laguntza-taldea osatzen duten emakume biktimen seme-alabekin lan egiteko aukera dagoen ala ez aztertuko dute. Hezitzaileek eta gizarte-langileek emakume bakoitzaren eta haren seme-alaben egoera baloratuko dute, taldearen funtzionamendua eta espazio horretan puntualki esku hartzeko aukera hausnartuko dute ere, suspertze-prozesuaren alor zehatz batzuk lantzeko. Besteak beste, Plan honen diagnostiko fasean identifikatu ziren honako gaiak lan ditzakete: komunikazio ez-biolentoa; guraso-erasotzaileekin dagoen harremana; seme-alabek pairatutako ondorio psikologikoak; umeei jarrera biolentoak ez errepikatzea...							
Oinarriak	2015ean, aldarrikapen urte luzeen ostean, indarkeria matxistaren biktima ziren emakumeen seme-alabek biktima zuzenaren aitortza jaso zuten, haurrak eta gazteak babesteko sistema aldatu zuen 8/2015 Lege Organikoa onetsi zenean (2015eko uztailaren 23ko EAO, 175 zk., 2.537. or.). Horrek aukera eman zuen haurrak biktima gisa tratatuak izateko, eta behar zuten arreta bermatzeko amak duen eskubide berberak dituen bezala. Beste alde batetik, Plan honen diagnostiko fasean abiarazitako emakume biktimen taldea martxan jarri, eta emakumeek beren seme-alabekin batera lan egiteko beharra antzeman zen, haiekin komunikazio-bideak sortzeko erasotzailearengandik banatu eta gero.							
Jasotzaileak	Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeak eta adin txikikoak.							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasun Atala • Gizarte-politika Arloa 				2017	2018	2019	2020
					•	•	•	•
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
Jatorria eta zenbatekoa	Berdintasuneko eta Gizarte-ongizateko langileak: beharriaren arabera.	Berdintasuneko eta Gizarte-ongizateko langileak: beharriaren arabera.	Berdintasuneko eta Gizarte-ongizateko langileak: beharriaren arabera.	Berdintasuneko eta Gizarte-ongizateko langileak: beharriaren arabera.				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Batera egindako esku-hartzeen kopurua. • Gizarte-zerbitzuekin koordinatuta artatutako kasuen kopurua. • Indarkeria matxistaren biktima izandako zenbat adin txikiko artatu diren, sexuka. • EIZko psikologoaren, eta Gizarte-ekintza Arloko Haurrenganako Arreta Programaren koordinatzailearen arteko bilerak. • Jarraipen eta ebaluaziorako egindako tresnak. • Analisisa eta ondorioztatutakoak. 							

Kronograma

Ekintza	Gauzatzeko aldia			
	2017	2018	2019	2020
2.1.1.1 Protokoloan esku hartzen duten zerbitzuetan emandako arretaren baterako ebaluazioa egitea.	●			
2.1.1.2 Esku hartzen duten zerbitzu eta adituen arteko akordioak lortzea.	●			
2.1.1.3 Protokoloa eguneratzea, eta Tokiko Planera, zein indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko indarreko araudira egokitzea.	●			
2.1.1.4 Erakundearteko koordinazio protokolo eguneratua ezartzea.		●	●	●
2.1.1.5 Protokoloaren zabalkundea egitea eragindako zerbitzuen artean.	●	●	●	
2.1.1.6 Protokoloaren ezarpen-maila ebaluatzea eta, beharrezkoa balitz, aldaketak egitea.				●
2.1.2.1 Egoera zaurgarrienean dauden kolektiboak, eta haien arreta-beharrizanak identifikatzea.	●	●	●	●
2.1.2.2 Etxeko langile diren emakumeentzako laneko jazarpen gida egin eta zabaltzea, Emakumeentzako Informazio Zentroaren laguntzarekin.		●		
2.1.2.3 Emakume atzerritarrek edota beharrizan bereziak dituzten emakumeek informazioa eskuratzeko edota arreta integrala jasotzeko dituzten hizkuntza-trabak eta bestelako oztopoak kentzea.	●	●	●	●
2.1.3.1 Udal arloek indarkeria matxistari eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari ematen dieten tratamenduari buruzko informazioa jaso eta sistematizatzea.	●			
2.1.3.2 Plangintza operatiboak egitea urtero, prozesuan esku hartzen duten udal arloekin batera.		●	●	●
2.1.4.1 Udal politikari eta teknikariei berdintasunaren eta indarkeria matxistaren arloko prestakuntza ematea.	●		●	
2.1.4.2 Etengabeko prestakuntza eskaintzea indarkeria matxistaren biktimekin esku-hartze zuzena duten profesionali.	●		●	
2.2.1.1. Berdinsarean parte hartzea, berdintasunaren aldeko euskal udalerrien sarean (EUDEL).	●	●	●	●
2.2.1.2 «Beldur Barik» programaren talde eragilean parte hartzea.	●	●	●	●
2.3.1.1 Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeenganako arreta psikologiko zerbitzua handitzea udalerrian.	●	●	●	●
2.3.1.2. Indarkeria matxistaren biktimen taldearen eraketa bultzatzea, eta taldea sortzen laguntzea.	●	●	●	●
2.3.1.3 Indemnizazio- eta konponketa-prozesuei buruzko informazioa txertatzea indarkeria matxistaren biktimei emandako aholkularitza juridikoan.	●	●	●	●
2.3.2.1 Gizarte-zerbitzuekin eta, bereziki, Familia eta Haurtzaroko programarekin koordinatzea eta lankidetzan aritzea, indarkeria matxistaren biktima diren adin txiki-koei arreta emateko.	●	●	●	●

Salaketa publikoa, memoria eta erreparazioa

Ardatz honen **helburua**, herritarrek indarkeria matxistaren aurkako borrokan inplikatzeko lortzea da eta, "0 tolerantzia" jarrera sustatzea.

- *Salaketa publikoa*: ezinbestekoa da eraso eta erailketa matxistak salatzea, eta horien aurrean «0 tolerantzia» jarrera agertzea. Salaketa publikoa eraginkorra izango da, bakar-bakarrik, herritarrekin, gizarte-mugimenduekin eta herriko elkarteekin lotuta egonez gero. Gainera, udalerriko gizarte-eragileek konpromisoak hartzea ezinbestekoa da, salaketa eraginkorra izan dadin.
- *Memoria*: iragana, orainaldia eta etorkizuna lotzen ditu memoriak, eta aukera ematen digu gizarte-errealitateari esanahi berria emateko eta errealitate horiek duinago egiteko. Indarkeria matxistaren biktimak ahanzturan erori ohi dira, ez ohi dute dagokien aitortza lortzen. Gauzak horrela, justizia sozialak eskatzen du indarkeria matxista pairatu duten edo pairatzen duten emakumeen memoria kolektiboa, eta eraildakoen memoria historikoa berreskuratzeko. Memoria indibidualetik kolektibora igarotzeak onura dakarkio memoria kolektiboari eta, beraz, herritarren sentiberatzeari eta kontzientzia harrarazteari ere bai. Memoria protetikokoaren bidez (Alison Landsberg) bizipenak eta errealitate sozialak inskribatzen ditugu; horiek bizi ez baditugu ere, identitatea eta kide izatearen sentimendua eraten dute, eta, horrek, beste behin, herritar oren sentiberatzean eta kontzientzia harraraztean laguntzen du.
- *Suspertzea*: indarkeria matxista pairatu duten, edo pairatzen ari diren emakumeen prozesu pertsonalak piztean datza, beren bizi-proiektuak berreraiki ditzaten. Emakume biktimekin aurrera eramandako erreparazio prozesuetan eragina dauka gizarteak, oro har, errealitate hori nola jorratzen duen. Gaur egun, beldurrarekin, pasibitatearekin, biktimismoarekin, lotsarekin eta erruarekin lotuta dago biktima estatusa: ezinbestekoa da berau legitimatzea eta duin egitea, indarkeria matxista jasaten duten emakumeek beren beharrezko araberako erreparazio-prozesua egin dezaten. Prozesu horiek sendatu eta osatu egin behar dute, eta helburu horiek betetzeko tresnez lagunduta joan behar dute.

Justizia sozialarekin eta giza eskubideen alorreko legeak betetzearekin dugun konpromisoan beste urrats bat ematea da indarkeria matxista publikoki salatzea eta emakumeen memoria berreskuratzea. Horrez gain, beste interes estrategiko batzuk ere lor daitezke, adibidez: gainerako herritarrak sentiberatzea eta kontzientzia harraraztea.

Hona hemen ildo estratetikoko honen helburu espezifikoak:

- **1. HE:** HERRITARRAK, ERAKUNDEAK ETA HERRIKO ERAGILEAK MOBILIZATZEA ERAILKETA ETA ERASO SEXISTEN AURREAN.
- **2. HE:** INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEN MEMORIA BERRESKURATZEA.
- **3. HE:** INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEN ERREPARAZIO-PROZESUAK SUSTATZEA.

Ildo estrategikoa	3	SALAKETA PUBLIKOA, MEMORIA ETA ERREPARAZIOA						
Objetivo general		Indarkeria matxistaren aurrean «0 tolerantzia» jarrera bultzatzea basauriarren artean						
Helburu espezifikoak	3.1	Herritarrak, herriko erakundeak eta gizarte-eragileak mobilizatzea eraiketa eta eraso matxisten aurrean.						
Helburu operatiboa	3.1.1	Mobilizaziorako eta koordinaziorako espazioak eskaintzea.						
Ekintza	3.1.1.1	Emakume norbanakoak, elkarteetakoak eta udalerriko erakundeetakoak gonbidatzea Basauri indarkeriaren aurkako prozesu parte-hartzaileak hasteko.						
Deskribapena	<p>Elkarteetako kide diren emakumeei, gaian interesa dutenei eta Jabekuntza Eskolako ikasleei deialdia helaraziko zaie, gogoeta egiteko topaketa batean parte hartzeko, eta proposatuko zaie talde autonomo bat antolatzeko, eraso eta eraiketa sexisten gaineko sentiberatze, prebentzio eta salaketa estrategiak antolatzeko udalerrri mailan. Sortutako taldea, emakumeek dinamizatu eta antolatuko dute. Hori bai: gizonak ere gonbidatuko dira antolatutako estrategia eta kanpainetan parte hartzera.</p> <p>Beste egitura batzuekin komunikatzeko bideak sustatuko dira, bereziki, Berdintasun Kontseiluarekin: 2001ean sortu zen herritarren parte-hartze organo hori, eta udalerriko emakumeen elkarte eta elkarte feminista guztiak batzen dira bertan. Taldea etengabe ariko da solasean Berdintasun Atalarekin eta herritarrekin.</p>							
Oinarriak	<p>Indarkeria Matxistaren Aurkako Plana Lokalaren 2017-2020 printzipio gidarien arteko esanguratsuenetako bat parte-hartzea da. Funtsezkoa da emakumeek parte hartzeko berezko espazioak eskaintzea. Izan ere, emakumeek eta mugimendu feministak gizartearen eta politikan parte hartzeko mekanismoak lanabes ezin hobeak izan dira azken urteotan indarkeria matxistaren aurkako borrokan, eta jabekuntza eskolek eta emakumeen etxeek ibilbide oparoa izan dute. Hasiera batean erakunde publikoek sustatuta eta lagunduta ariko badira ere, gerora autonomoak izango dira espazio horiek. Indarkeria matxistaren aurkako borrokan gizarte osoaren laguntza behar da, herritar guztiak dagokien erantzukizuna hartuz. Beraz, indarkeria hori jasaten duten emakumeei laguntzeko eta erasotzaileen inpunitatearekin amaitzeko jarrerak eta sareak sortu behar dira. Indarkeria matxistaren aurrean, ez konplizitatearik, ez aitzakiarik: «0 tolerantzia» jarrerak sustatu behar dira herritar guztien artean.</p>							
Jasotzaileak	Udalerriko emakumeak.							
Parte hartu behar duten arlo eta erakundeak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	•Berdintasun Atala		• Emakumeen elkarteak •Berdintasun Kontseilua		2017	2018	2019	2020
					●			
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
Jatorria eta zenbatekoa	Berdintasuneko langileak: 20 ordu, 800 €.							
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> •Topaketarako deialdia. •Zenbat emakume joan diren topaketara, profilarren arabera eta ezarritako aldagaien arabera (zein elkartetakoa den, adina, jatorria...) •Taldeak hartutako konpromisoak. •Finkatutako agenda. •Zenbat bilera egin diren. 							

Ildo estrategikoa	3	SALAKETA PUBLIKOA, MEMORIA ETA ERREPARAZIOA					
Helburu orokorra		Indarkeria matxistaren aurrean «0 tolerantzia» jarrera bultzatzea basauria- rren artean					
Helburu espezifikoak	3.1	Herritarrak, herriko erakundeak eta gizarte-eragileak mobilizatzea eraiketa eta eraso matxisten aurrean.					
Helburu operatiboa	3.1.1	Mobilizaziorako eta koordinaziorako espazioak eskaintzea.					
Ekintza	3.1.1.2	Laguntza eta aholkularitza teknika ematea 3.1.1.1 ekintzan proposatutako prozesu parte-hartzaileekin bat egiten duten emakumeen taldeei.					
Deskribapena	Emakumeen elkarteek indarkeria matxistaren alorrean egindako barruko beste hausnarketa-prozesuetan laguntza emango da. Berdintasun Atalak (Marienea Basauriko Emakumeen Etxean kokatutako zerbitzu eta baliabideekin) aholkularitza eta laguntza eskainiko ditu, herritarrek indarkeria matxistaren arazoaren kontzientzia hartzea eta hura salatzea bultzatzeko.						
Oinarriak	Indarkeria Matxistaren Aurkako Plan Lokaleko 2017-2020 printzipio gidarien arteko esanguratsuenetako bat parte-hartzea da. Emakumeek eta mugimendu feministak gizartean eta politikan parte hartzeko mekanismoak lanabes ezin hobea izan dira azken urteotan, indarkeria matxistaren aurkako borrokan. Ikusita, gainera, ahalduntze eskolek eta emakumeen etxeek izandako ibilbidea, estrategikotzat jotzen da emakumeei parte hartzeko berezko eremuak eskaintzea. Hasiera batean erakunde publikoek sustatuta eta lagunduta ariko badira ere, gerora autonomoak izateko xedez jaiotzen dira espazio horiek. Indarkeria matxistaren aurkako borrokan gizarte osoaren laguntza behar da, herritar guztiek dagokien erantzukizuna hartzea. Beraz, indarkeria hori jasaten duten emakumeei laguntzeko eta erasotzaileen inpunitatearekin amaitzeko jarrerak eta sareak sortu behar dira. Indarkeria matxistaren aurrean, ez konplizitatearik, ez aitzakiarik: «0 tolerantzia» jarrerak sustatu behar dira herritar guztien artean.						
Jasotzaileak	Udalerriko emakumeak.						
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak	Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	• Berdintasun Atala			2017	2018	2019	2020
					•	•	•
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak		
Jatorria eta zenbatekoa		Berdintasuneko langileak: 10 ordu, 400 €.	Berdintasuneko langileak: 10 ordu, 400 €.	Berdintasuneko langileak: 10 ordu, 400 €.	Aurrera eramango diren ekintzak Jabe-kuntza Eskolaren eskaintzaren barruan daude.		
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Jasotako kontsulten kopurua. • Zerbitzu desberdinekin izandako bileren kopurua. • Zenbat prestakuntza-saio egin diren. 						

Ildo estrategikoa	3	SALAKETA PUBLIKOA, MEMORIA ETA ERREPARAZIOA						
Helburu orokorra		Indarkeria matxistaren aurrean «0 tolerantzia» jarrera bultzatzea basauria- rren artean						
Helburu espezifikoak	3.1	Herritarrak, herriko erakundeak eta gizarte-eragileak mobilizatzea erailketa eta eraso matxisten aurrean.						
Helburu operatiboa	3.1.2	Indarkeria matxista publikoki salatzeke eta gaitzesteko kanpainak eta ekintzak sustatzea						
Ekintza	3.1.2.1	Indarkeria matxista salatzeke eta gaitzesteko kanpainak diseinatzea, eragile sozialen laguntzarekin.						
Deskribapena	Gizarte osoak parte har dezan (bai erakundeek, bai herritarrek, bai gizarte-eragileek), indarkeria matxista salatzeke eta gaitzesteko estrategien diseinua sustatuko da, dauden egituren eta funtzionamendu autonomoa duten taldeen laguntzarekin. Zehazkiago, xede horretarako komunikazio-ildoak finkatuko dira Berdintasun Kontseiluarekin (jada hala egiten da). Gainera, Plan honek indarkeriaren aurkako talde autonomoa abiaraztea aurreikusten du, eta talde horrek ere ekimen honetan parte hartuko du.							
Oinarriak	Indarkeria Matxistaren Aurkako Plan Lokalaren 2017-2020 printzipio gidarien artean, prebentzioa eta parte-hartzea aurreikusten dira. Basauriarren pentsamoldea eta jarrera aldatzea da Planak jasotako erronka garrantzitsuenetako bat. Parte-hartzea helburu eta metodologia gisa ulertzen dugu: eragindakoek prozesu osoan parte hartzea bilatzen du, abiarazi beharreko ekintzak zehaztetik hasi, eta horien ebaluazioa egin arte. Kasu honetan, herritarrek parte hartzea behar dugu, aldaketaren aurkako diskurtsoei indarra kentzeko, indarkeriari aurrez aurre begiratzeko eta erantzun egokia emateko.							
Jasotzaileak	Udalerriko emakume eta elkarteak; Herriko Taldeak; herritarrak, oro har.							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	• Berdintasun Atala		• Herriko Taldeak • Berdintasun Kontseilua. • Emakumeen elkarteak		2017	2018	2019	2020
						•	•	•
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
Jatorria eta zenbatekoa		Langileak: 30 ordu, 1.200 €.	Langileak: 30 ordu, 1.200 €.	Langileak: 30 ordu, 1.200 €.				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbat kanpaina, eta zer motatakoak. • Kanpainarako kontsultatutako egiturak, elkarteak edo taldeak. • Kanpainako egindako bileren kopurua. • Zenbat bilera egin diren. • Bileretan parte hartu dutenen kopurua, sexuka. • Jasotako ekarpenak. • Prozesurako landutako tresnak. • Ebaluazioa egiteko landutako tresnak. 							

Ildo estrategikoa	3	SALAKETA PUBLIKOA, MEMORIA ETA ERREPARAZIOA						
Helburu orokorra		Indarkeria matxistaren aurrean «0 tolerantzia» jarrera bultzatzea basauriarren artean						
Helburu espezifikoak	3.1	Herritarrak, herriko erakundeak eta gizarte-eragileak mobilizatzea eraiketa eta eraso matxisten aurrean.						
Helburu operatiboa	3.1.2	Indarkeria matxista publikoki salatzeke eta gaitzesteko kanpainak eta ekintzak sustatzea						
Ekintza	3.1.2.2	Herritarrei egindako deialdiak eta salaketa eta aldarrikapenak egiteko kontzentrazioak koordinatzea gaia indarkeria matxista denean A25ean, M8an eta E28an.						
Deskribapena	Aldarrikapen egunetarako deitutako mobilizazio eta kontzentrazioak koordinatuko dira, bai erakundetik antolatutakoak, baita bestelako egituretatik sortutakoak ere. Egia da A25ean gaia beti dela indarkeria matxista, baina M8a eta E28a ere gai horren bueltan egoten dira sarri. Proposamena herritarrekin transbertsalki lan egitea da, indarkeria matxista salatzeke eta gaitzesteko ekintzak diseinatzen eta aurrera eramaten. Hala eginez gero, biderkatu egingo dira komunikazio eta zabalkunde bideak, eta basauriar gehiagoren parte-hartze eta babesa lortuko da.							
Oinarriak	Indarkeria Matxistaren Aurkako Plan Lokalaren 2017-2020 printzipio gidarien artean, prebentzioa eta parte-hartzea aurreikusten dira. Basauriarren pentsamoldea eta jarrera aldatzea da Planak jasotako erronka garrantzitsuenetako bat. Parte-hartzea helburu eta metodologia gisa ulertzen dugu: eragindakoek prozesu osoan parte hartzea bilatzen du, abiarazi beharreko ekintzak zehaztetik hasi, eta horien ebaluazioa egin arte. Kasu honetan, herritarrek parte hartu dezaten behar dugu, aldatetaren aurkako diskurtsoei indarra kentzeko, indarkeriari aurrez aurre begiratzeko eta erantzun egokia emateko.							
Jasotzaileak	Herritarrak, oro har.							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	•Berdintasun Atala		•Basauriko elkarteak •Emakumeen elkarteak •Berdintasun Kontseilua		2017	2018	2019	2020
					•	•	•	•
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
Jatorria eta zenbatekoa	Berdintasuneko langileak: 15 ordu, 600 €.	Berdintasuneko langileak: 15 ordu, 600 €.	Berdintasuneko langileak: 15 ordu, 600 €.	Berdintasuneko langileak: 15 ordu, 600 €.				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> •Egindako deialdien kopurua. •Ekintzen kopurua eta motak. •Gonbidatutako egitura, elkarteak edo taldeak. •Zenbat bilera egin diren. •Bileretan parte hartu dutenen kopurua, sexuka eta lan-profilaren arabera. •Deialdietan parte hartu dutenen kopurua, sexuka eta taldeka/elkarteka/erakundeka. •Prozesurako landutako tresnak. •Ebaluazioa egiteko landutako tresnak. 							

Ildo estrategikoa	3	SALAKETA PUBLIKOA, MEMORIA ETA ERREPARAZIOA						
Helburu orokorra		Indarkeria matxistaren aurrean «0 tolerantzia» jarrera bultzatzea basauriarren artean						
Helburu espezifikoak	3.1	Herritarrak, herriko erakundeak eta gizarte-eragileak mobilizatzea eraiketa eta eraso matxisten aurrean.						
Helburu operatiboa	3.1.2	Indarkeria matxista publikoki salatzen eta gaitzesteko kanpainak eta ekintzak sustatzea						
Ekintza	3.1.2.3	Eraiketa matxistak salatzen Berdintasun Kontseiluak sustatutako protokoloa baloratzea eta berriz pentsatzea.						
Deskribapena	Plana egin behar zela-eta, eta azken urteotan emakumeen talde berriak sortu direla indarkeria matxistaren adiera desberdinak lantzeko aintzat hartuta, eraiketa matxistei aurre egiteko ezarritako protokoloarekin (eskelarekin) jarraitu ala ez baloratuko da. Halaber, egokia den ebaluatuko da, eta balizko aukerak proposatuko dira, zirrargarriagoak eta herritarrek gehiago kontzientzia hartzea ahalbidetzen dutenak. Prozesu horretarako, beste toki batzuetan aurrera eramandako antzeko ekintzei buruzko informazioa bilatuko da, eta esku hartzen duten taldeekin partekatuko da, beren iritzia eman dezaten.							
Oinarriak	Indarkeria Matxistaren Aurkako Plan Lokala 2017-2020 honen printzipio gidarien artean, prebentzioa eta parte-hartzea aurreikusten dira. Basauriarren pentsamoldea eta jarrera aldatzea da Planak jasotako erronka garrantzitsuenetako bat. Parte-hartzea bai helburu eta bai metodologiatzat ulertzen dugu. Eragindakoek prozesu osoan parte hartzea bilatzen du, abiarazi beharreko ekintzak zehaztetik hasi, eta horien ebaluazioa egin arte. Kasu honetan, herritarren parte hartzea behar dugu, aldaketaren aurkako diskurtsoei indarra kentzeko, indarkeriari aurrez aurre begiratzeko eta erantzun egokia emateko.							
Jasotzaileak	Herritarrak, oro har.							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	• Berdintasun Atala		• Emakumeen elkarteak • Berdintasun Kontseilua		2017	2018	2019	2020
						•	•	•
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
Jatorria eta zenbatekoa		Berdintasuneko langileak: 20 ordu, 800 €. €	Berdintasuneko langileak: 20 ordu, 800 €. €	Berdintasuneko langileak: 20 ordu, 800 €. €				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Indarreko salaketa-protokoloaren balorazioa. • Proposatutako alternatibak. • Hartutako erabakiak. • Zenbat bilera egin diren. • Zenbat parte-hartzaile egon diren, eta zein profila duten. 							

Ildo estrategikoa	3	SALAKETA PUBLIKOA, MEMORIA ETA ERREPARAZIOA							
Helburu orokorra		Indarkeria matxistaren aurrean «0 tolerantzia» jarrera bultzatzea basauria- rren artean							
Helburu espezifiko	3.2	Indarkeria matxistaren biktimen memoria berreskuratzea.							
Helburu operatiboa	3.2.1	Indarkeria matxista ikusgarri egitea udalerrian.							
Ekintza	3.2.1.1	Basaurin indarkeria matxista pairatu duten emakumeen omenezko Memoriaren Txokoa iden- tifikatzea.							
Deskribapena	<p>Memoriaren Txokoa identifikatzeko prozesu parte-hartzaileari ekingo zaio. Emaitza izan eta gero, koka- pen bat finkatuko da, indarkeria matxistari aurre egiten dieten emakumeei dagokien aitortza egiteko, haien memoria berreskuratzeke, eta udalerrian erailda izan diren emakumeei gorazarre egiteko. Eudelek Berdin- sarearen Indarkeria Batzordetik abiaraziko duen proiektu pilotuaren barruan koka daiteke prozesu hau.</p> <p>2020ko A25era begira, bestalde, prozesuaren ostean finkatutako Memoriaren Txokoa inauguratzeko eki- taldia egingo da (prozesua bera 2019an hasiko da). Txokoa, bestalde, Basauriko Emakumeen Aztarnen Mapan txertatuko da.</p>								
Oinarriak	<p>Emakumeen memoria berreskuratuta eta memoria horri forma emanda, emakume horiek denbora eta es- pazio desberdinetan zehar (materialak edota sinbolikoak) izandako parte-hartze eta esku-hartzea irudi- katu eta azalaratzen da, eta erraztu egiten da dagokien aitortza egitea eta haiek ere historia orokorreko protagonista izatea. Bestalde, indarkeria matxistaren biktimak ahanzturan erori ohi dira, ez ohi dute dagokien aitortza lortzen. Gauzak horrela, justizia sozialak eskatzen du indarkeria matxista pairatu duten edo pairatzen duten emakumeen memoria kolektiboa, eta eraildakoen memoria historikoa berreskuratzeke. Memoria indibidualetik kolektibora igarotzeak onura dakarkio memoria kolektiboari eta, beraz, herritarren sentiberatzeari eta kontzientzia harrarazteari ere bai.</p>								
Jasotzaileak	Herritarrak, oro har.								
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arloan eta pertsonak	Arduradunak	Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia					
	<ul style="list-style-type: none"> Berdintasun Atala Parte-hartze prozesua aurrera eramateko kontra- tatutako aholkularia 	<ul style="list-style-type: none"> Herritarrak, oro har Emakumeen elkarte eta Berdintasun Kontseilua Hirigintza Atala 		2017	2018	2019	2020		
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak				
Jatorria eta zenbatekoa		Berdintasu- neko langi- leak: 40 ordu, 1.600 €. Proiektua bultzatzeko, Eudelen funtsak erabiltzeko aukera	Berdin- tasuneko langileak: 40 ordu, 1.600 €. Proiektua bultzatze- ko, Eude- len funtsak erabiltze- ko aukera	Berdintasu- neko langi- leak: 40 ordu, 1.600 €. Proiektua bultzatze- ko, Eudelen funtsak erabiltzeko aukera					
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> Prozesu parte-hartzailea. Zenbat lagunek hartu duten parte prozesuan, sexuka eta kolektiboka. Zenbat prestakuntza-ekintza egin diren. Hirigintzarekin zenbat bilera egin diren. Memoriaren Txokorako identifikatutako kokapena. Ekitaldira etorritakoen kopurua. 								

Ildo estrategikoa	3	SALAKETA PUBLIKOA, MEMORIA ETA ERREPARAZIOA						
Helburu orokorra		Indarkeria matxistaren aurrean «0 tolerantzia» jarrera bultzatzea basauria- rren artean						
Helburu espezifiko	3.3	Indarkeria matxistaren biktimen erreparazio prozesuak sustatzea.						
Helburu operatiboa	3.3.1	Gizarteak biktimen aitortza egitea sustatzea, eta indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeak duin egitea.						
Ekintza	3.3.1.1	Indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeen memoria biltzea.						
Deskribapena	<p>Ekintza honen helburua ahanzturan erori ohi diren indarkeria matxistaren biktimei dagozkien izen-abizenak, aurpegia eta istorioa jartzea da.</p> <p>Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeak, eta suspertze zein ahalduntze prozesuetan daudenak (biktima izatetik aktibista izatera igaro direnak) ekintza hau zuzenduko dutenak izatea sustatuko da. Bestela, gutxienez, haien laguntzarekin antolatuko da. Azken finean, emakume batzuek beste emakume batzuei laguntzea beren ibilbide eta testigantzekin bilatzen da. Plan honek sustatutako laguntza psikologikoko taldean parte hartzen dutenak izango dira protagonistak.</p>							
Oinarriak	<p>Indarkeria matxistaren biktimek dagokien erreparazioa jasoko badute, beharrezkoa da biktima horiei aitortza egitea eta horren ondoriozko kalte-ordainak ematea. Hala jasotzen du Plan honen bigarren ildo estrategikoari buruzko 2.3.1.3 fitxak. Ezinbestekoa da, era berean, biktimei horri buruzko beharrezko informazioa bermatzea. Esandakoaz gain, erreparazio prozesuetan eragina dauka gizarteak, oro har, horrelako errealitate bat nola jorratzen duen. Gaur egun, beldurrarekin, pasibitatearekin, biktimismoarekin, lotsarekin eta erruarekin lotuta dago biktima estatusa. Beraz, ezinbestekoa da biktima estatus hori legitimatzea eta duin egitea, indarkeria matxista jasaten duten emakumeek beren beharrezko araberako erreparazio-prozesua egin dezaten.</p>							
Jasotzaileak	Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak.							
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak		Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	•Berdintasun Atala				2017	2018	2019	2020
					•	•	•	•
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak			
Jatorria eta zenbatekoa	Berdintasuneko langileak: 60 ordu, 2.400 €.€	Berdintasuneko langileak: 60 ordu, 2.400 €.€	Berdintasuneko langileak: 60 ordu, 2.400 €.€	Berdintasuneko langileak: 60 ordu, 2.400 €.€				
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> •Omenaldiak antolatzeko egindako koordinazio-bilerak. •A25 bakoitzean egindako omenaldiak. •Egintzen antolakuntza. •Biktima izan diren eta diren emakumeek egintza diseinatzen eta garatzen parte hartzea. •Ekitaldira etorritakoen kopurua. 							

EKINTZA OSAGARRIA 1							
Helburu espezifikoa	Plan honetan aurreikusitako ekintzen bideragarritasuna bermatzea.						
Helburu operatiboa	Plan honetan aurreikusitako ekintzak egiteko eta bertako helburuak erdiesteko beharrezko baliabideak eta finantzaketa izatea.						
Ekintza	Udalez gaindiko erakundeei diru-laguntzak eskatzea, ekintza zehatzak ezartzeko.						
Deskribapena	<p>Aurreikusita dago zenbait erakunderi diru-laguntzak eskatzea Planean aurreikusitako ekintza batzuk gauzatzeko, hain zuzen ere, indarkeria matxistaren biktimetarako arretari lotutakoak; esku hartzen duten zerbitzuen koordinazioari lotutakoak; udal arloetan transbertsalitatea bultzatzekoak; eta herritarrak indarkeria matxistaren gaiari buruz sentiberatzeko eta haiei konpromisoa harrarazteko prozesu parte-hartzaileak sustatzekoak. EBALUAZIOA ERE SARTU.</p> <p>Planaren indarraldiaren lehenengo urtean zehar (2017), berdintasun-agente bi kontratatuko dira Tokiko Enplegu Plana 2016 programaren bitartez, honako lan hauek egiteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Basaurin indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumei arreta emateko erakundearteko koordinazio protokoloa sustatu. • Udal arloetan gaiaren transbertsalitatea bultzatu. 						
Oinarriak	Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko baliabideak eta programak etengabe ari dira eraikitzen, beharrezkoa delako unean uneko errealtate eta beharizanei egokitzea. Istanbuleko Hitzarmenean jasotako helburuak eta Estatuko zein Autonomia Erkidegoko legeek ezarritakoak betetzeko, ezinbestekoa da kanpo-finantzaketa izatea (aipatutako helburuak betetzea ahalbidetuko duten ekintzak egin ahal izateko).						
Jasotzaileak	Plana aurrera eramateko ardura duten zerbitzu, arlo, atal eta adituak.						
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak	Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	• Berdintasun Atala	• Gizarte-ongizate Arloa • Giza Baliabideen Arloa. Giza Baliabideen arloa		2017	2018	2019	2020
				•	•	•	•
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak		
Jatorria eta zenbatekoa	Berdintasuneko langileak: 40 ordu, 1.600 €.	Berdintasuneko langileak: 40 ordu, 1.600 €.	Berdintasuneko langileak: 40 ordu, 1.600 €.	Berdintasuneko langileak: 40 ordu, 1.600 €.			
Prozesuaren adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Erakunde bakoitzak zenbat diru-laguntza eskatu dituen. • Erakunde bakoitzari zenbat diru-laguntza eman dizkioten. • Zenbat pertsona kontratatu diren, sexuka. • Diruz lagundutako proiektuak. • Udalez gaindiko diru-laguntzei esker ezarritako Planaren ekintzak 						

EKINTZA OSAGARRIA 2							
Helburu espezifikoa	Plan honetan finkatutako helburuen betetze-maila ezagutzea.						
Helburu operatiboa	Planean aurreikusitako ekintzen ezartze-maila, finkatutako helburuen betetze-maila eta Planak udalerrian izandako eragina ezagutzea.						
Ekintza	Plana sistematizatzeko eta ebaluatzeko prozesua ezartzea.						
Deskribapena	<p>Planaren ekintza bakoitzak erreminta kuantitatiboak eta kualitatiboak ditu (prozesuaren adierazleak), finkatutako helburuak zein mailatan bete diren ebaluatzeko. Oinarrizko tresna horiez gain, jarraipena, sistematizazioa eta ebaluazioa egiteko mekanismoak abiarazi behar dira. Horien bidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aurreikusitako ekintzetako bakoitzaren emaitzak eta eragina, eta Planaren helburu orokorra neurtzeko. • Herritarren (oro har) eta gizarte-eragileen (bereziki) parte-hartzearen, eta haiekin hitz egiteko bideen oinarriak finkatzeko. • Aurreikusitako emaitzak izan ez dituzten ekintzak berriro diseinatzeko eta berregituratzeko. 						
Oinarriak	<p>Diagnostikoa eta Plana egiteko prozesuan erabilitako ikerketa parte-hartzailearen metodologiak argi erakutsi du prozesua bera eta finkatutako ekintzak ebaluatu behar direla. Izan ere, ebaluazio-prozesuak oinarrizko lanabesa dira, indarkeria matxistari aurre egiteko politika publikoak doitzen joateko eta bermatzeko errealitate honetara bideratutako baliabide publikoak egokiro kudeatzen direla. Zentzu horretan, Emakundek (bera baita aukera-berdintasunaren alorreko organo eskumena) zera gomendatu zuen: datuak biltzea, eta urtero memoriak egitea, euskal botere publikoek alor horretan izandako jardueren inguruan.</p>						
Jasotzaileak	Plana aurrera eramateko ardura duten zerbitzu, arlo, atal eta adituak.						
Helburuak gauzatzeko parte hartu behar duten arlo eta pertsonak	Arduradunak	Laguntzaileak		Gauzatzeko aldia			
	• Berdintasun Atala	• Planean parte hartzen duten arlo, atal eta erakunde guztiak		2017	2018	2019	2020
						•	•
Aurrekontua:	2017	2018	2019	2020	Oharrak		
Jatorria eta zenbatekoa			Aholkulariak kontratatzea: 6.000 €.	Aholkulariak kontratatzea: 6.000 €.			

Kronograma

Ekintza	Gauzatzeko aldia			
	2017	2018	2019	2020
3.1.1.1 Emakume norbanakoak, elkarrekin eta udalerriko erakundeetakoak gonbidatzea Basaurin indarkeriaren aurkako prozesu parte-hartzaileak hasteko.	•			
3.1.1.2 Laguntza eta aholkularitza teknikoak ematea 3.1.1.1 ekintzan proposatutako prozesu parte-hartzaileekin bat egiten duten emakumeen taldeei.		•	•	•
3.1.2.1 Indarkeria matxista salatzeke eta gaitzesteko kanpainak diseinatzea, eragile sozialen laguntzarekin.		•	•	•
3.1.2.2 A25ean, M8an eta E28an gaia indarkeria matxista denean, herritarrei egindako deialdiak eta salaketa eta aldarrikapenak egiteko kontzentrazioak koordinatzea.	•	•	•	•
3.1.2.3 Erailketa matxistak salatzeke Berdintasun Kontseiluak sustatutako protokoloa baloratzea eta berriz pentsatzea.		•	•	•
3.2.1.1. Basaurin indarkeria matxista pairatu duten emakumeen omenezko Memoria-ren Txokoa identifikatzea.			•	•
3.3.1.1. Indarkeria matxistaren biktima izan diren eta diren emakumeen memoria biltzea.			•	•
JARDUERA OSAGARRIA 1. Udalez gaindiko erakundeei diru-laguntzak eskatzea, ekintza zehatzak ezartzeko.	•	•	•	•
JARDUERA OSAGARRIA 2. Planean aurreikusitako ekintzen aldizkako ebaluazioak egitea, helburuak betetzen ote diren egiaztatzeke eta berriro diseinatu behar direnak berriro diseinatzeke.			•	•

Bibliografia

- Giza Eskubideen Europako Agentzia (2014):** Violencia de género contra las mujeres: una encuesta a escala de la UE. Austria: Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentzia.
- Basuriko Udala, Berdintasun Atala: «1ERA 2KAIN» Memoria.** Hezkidetzan hezteko proiektua. (2013-2014 ikasturtea / 2014-2015 ikasturtea).
- Basuriko Udala, Berdintasun Atala (2015):** Basuriko Emakumeentzako Informazio Zentroaren Memoria.
- Basuriko Udala, Berdintasun Atala (2002):** Emakumeentzako Hiri Debekatuaren Mapa. Emakume gazteekin parte harteko saiakera.
- Valladolideko Udala (2014):** Il Plan Municipal contra la violencia de género 2014-2018. Gizarte-ongizate eta Familia zinegotzitza.
- Gizarte Barometroa (2015):** Percepción de la ciudadanía. 2015eko neguko txostena. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo.
- Bizkailab (2011):** Bizkaiko gazteek genero-berdintasunari buruz duten ezagutza-graduari, ezagutzei eta hautemateari buruzko azterlana. Bizkaiko Foru Aldundia eta Deustuko Unibertsitatea.
- Bonino, L. (2004).** Los micromachismos. La Cibeles, 2 zk., 1-6.
- CIS Ikerketa Soziologikoen Zentroa (2012):** Estudio 2.968, Percepción social de la Violencia de Género. 2012ko azaroa.
- Ioé Kolektiboa (2011):** Actitudes de la población frente a la violencia de género en España. Osasun, Gizarte-politika eta Berdintasun Ministerioa: Hemendik: <http://www.colectivoioe.org/uploads/eb118749ce9e3b51252b7ac47e3eb9eef68343c.pdf>
- Europako Kontseilua (2011):** Convenio del Consejo de Europa sobre Prevención y lucha contra la violencia contra las mujeres y la violencia doméstica, «Convenio de Estambul». Atzerriko Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioa. Europako Kontseiluaren Hitzarmenen bilduma, 210 zk., 1-34 or. 2014ko ekainaren 6ko EAO (137 zk.) argitaratua, 42946-42976 or.
- Espainiako 1978ko Konstituzioa.** 1978ko abenduaren 29ko EAO (311. zk.) argitaratua, hemen: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-1978-31229
- Urraren 6ko 185/2015 Dekretua,** Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio- eta zerbitzu-zorroari buruzkoa. 2015eko urriaren 29ko EHAA (206 zk.), 4561. or.
- Genero-indarkeriarako Gobernuaren Ordezkaritza (2013):** Percepción social de la violencia de género. Espainiako Gobernua: Madril.
- Genero-indarkeriarako Gobernuaren Ordezkaritza (2014):** Percepción de la Violencia de Género en la Adolescencia y la Juventud. Espainiako Gobernua: Madril.
- Díaz-Aguado, M.J. (2009):** Convivencia escolar & prevención de la violencia. Hezkuntza-teknologiaren institutua. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2013):** Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunerako II. Foru Plana (2012-2020).
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2014):** Indarkeria matxistari, Gipuzkoako Foru Aldundiak darabilen terminologiari eta haren oinarri den analisiari buruzko agiria. Berdintasun Zuzendaritza eta Gizarte-politika Arloa.
- Emakunde (2012):** Adierazleen sistema. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna EAEn. Emakunde Emakumearen Euskal Erakundea. Vitoria-Gasteiz.
- Emakunde (2014):** EAEn izandako emakumeenganako indarkeriaren estatistika-datuaren analisia eta interpretazioa. 2014ko estatistika-datuak. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea: Vitoria-Gasteiz.
- Emakunde (2014):** EAEn Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV Plana. Emakunde Emakumearen Euskal Erakundea: Vitoria-Gasteiz.
- Emakunde (2015):** EAEn Emakumeenganako Indarkeriagatikiko Biktimizazioak. Eusko Jaurlaritza: Vitoria-Gasteiz.
- Emakunde:** 2002-2014 bitartean emakumeenganako indarkeriagatik hildako emakumeak. Hemen: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_evaluacion_informes/es_def/adjuntos/victimas.2002.2014.pdf
- Fonseca, D. (2016ko urtarrilaren 8a).** «El 016 registra una cifra récord de llamadas: casi 82.000, sólo en 2015». El País.
- Eusko Jaurlaritza (2011):** Desparekotasun sozialak. 2011ko abendua. Prospekzio Soziologiko Kabinetea. Hemendik: http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informe_estudio/sociometro_vasco_47/es_soc47/adjuntos/11sv47_es.pdf
- Eusko Jaurlaritza (2012):** Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak: bizipenak eta aldarrikapenak. Vitoria Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritza (2012):** Euskal Gazteria. Gazteak Bilduma, 9. zk. Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritza (2012):** Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: hautematea, eragina eta segurtasuna. Herrizaingo Saila. Vitoria-Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritza (2013):** Genero-desberdintasuna eta sexismoa gizarte-sareetan. EAEn gazteen sare sozialen erabilpenaganako hurbilketa kualitatiboa. Gazteak Bilduma, 7. zk. Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritza (2014):** Euskal Gazteria. Gazteak Bilduma, 9. Zk. Hezkuntza, Hizkuntza-politika eta Kultura Saila. Vitoria-Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritza (2015):** Emakumeen aurkako indarkeria Euskadin: herritarren hautematea eta iritziak. 2015eko azaroa. Prospekzio Soziologiko Kabinetea. Hemendik: http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informe_estudio/o_15tef3/es_def/adjuntos/15tef3.pdf
- Krueger, Richard A. (1991):** El grupo de discusión: guía práctica para la investigación aplicada. Pirámide. Madril.
- 1/2004 Legea,** abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriari buruzkoa. 2015eko abenduaren 29ko EAO (313 zk.), 42166-42197 or.
- 12/2008 Legea,** abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 2011ko urriaren 7ko EAO (242 zk.), 105484 a 105537 or.
- 2/2016 Legea,** apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. 2016ko apirilaren 14ko EHAA (70 zk.), 1544 or.
- 4/2005. Legea,** otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa. 2005eko martxoaren 2ko EHAA (42 zk.), eta 2011ko azaroaren 14ko EAO (274 zk.), 117277-117315 or.

8/2015 Legea, uztailaren 22koa, Hautzaroari eta Nerabezaroari babesa emateko sistema aldatzeari buruzkoa. 2015eko uztailaren 23ko EAO (175 zk.), 2537-2550 or.

10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodearena. 1995eko azaroaren 24ko EAO (281 zk.), 33987-34058 or.

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.. 2007ko martxoaren 23ko EAO (71 zk.), 12611-12645 or.

MARIENEA Basauriko Emakumeen Etxea ELKARTEA (2014): Marienea-Basauriko Emakumeen Etxea: prestakuntza-jarduerak aurrera eramateko proposamen teknikoari buruzko Memoria. Basauriko Udala, Berdintasun Atala.

MARIENEA Basauriko Emakumeen Etxea ELKARTEA (2015): Marienea-Basauriko Emakumeen Etxea: prestakuntza-jarduerari buruzko Memoria. Marienea Elkarte.

Osasun eta Kontsumo Ministerioa (2003): Violencia doméstica. Osasunaren Prebentzio eta Sustapenerako Jarduera Programaren Osasun Mentalerako Taldeak (PAPPS) eta Familia- eta Komunitate-medikuntzako Espainiako Sozietateak (semFYC) egina.

Osasun, Gizarte-zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (2013): Estrategia Nacional para la Erradicación de la Violencia contra la Mujer (2013-2016). Genero-indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza. Espainiako Gobernu. Madril.

Osasun, Gizarte-zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (2014): Percepción Social de la Violencia de Género. Genero-indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza. Genero-indarkeriaren aurkako bilduma, 17. agiria. Espainiako Gobernu. Madril.

Osasun, Gizarte-zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (2015): Macroencuesta de la violencia contra la mujer 2015. Espainiako Gobernu. Madril.

Osasun, Gizarte-zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (2015): Percepción de la Violencia de Género en la adolescencia y la juventud. Genero Indarkeriarako Gobernu-ordezkaritza. Genero-indarkeriaren aurkako bilduma, 20. agiria. Espainiako Gobernu. Madril.

Osasun, Gizarte-zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (2016ko otsailak 8): Víctimas mortales por violencia de género. Espainiako Gobernu. Hemendik: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/victimasMortales/fichaMujeres/pdf/VMortales_2015_31_12_definitivo.pdf

Lan eta Gizarte-gaietarako Ministerioa (2007): Guía para Sensibilizar y Prevenir desde las Entidades Locales la Violencia contra la Mujer. Berdintasun-politiketarako Idazkaritza Orokorra eta Emakumearen Institutua.

Nazio Batuak (1993): Declaración sobre la eliminación de la violencia contra la mujer. NBE, 85. osoko bilkura. Hemendik: <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/ViolenceAgainstWomen.aspx>

Nazio Batuak (1995): Informe de la Cuarta Conferencia Mundial sobre la Mujer. 177. Hitzaldia. Hemen: <http://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/pdf/Beijing%20full%20report%20S.pdf>

Naredo, M. (2012): ¿Cumplen las instituciones públicas sus obligaciones de derechos humanos frente a la violencia machista? Gaur egungo erronkak, Genero Indarkeriari buruzko Estatuko Legearen 10. urteurrenean. 2014ko abenduaren 14an lortua. Basauri.

Etxeko eta genero-indarkeriaren Behatokia (2015): Datos de denuncias, procedimientos penales y civiles registrados, órdenes de protección y medidas de protección y seguridad solicitadas en los juzgados de violencia sobre la mujer y sentencias dictadas por los órganos jurisdiccionales en esta materia en el año 2015. Botere Judizialaren Kontseilu Orokorra.

Genero-indarkeriaren Bizkaiko Behatokia (2015): Jardueren Memoria.

Genero-indarkeriaren Bizkaiko Behatokia (2015): Txostena: Etxeko indarkeria eta sexu-indarkeria pairatzen duten emakumeak artatzeko baliabideak.

Biktimak Artatzeko Zerbitzua (2015): Biktimak Artatzeko Zerbitzua: Memoria 2015. Eusko Jaurlaritza.

Vidales, R. (2014ko irailaren 16a): «Colectivos de mujeres denuncian ante la ONU el retroceso en igualdad en España». El País.

Eztabaída- taldeetarako gidoiak

1. Taldea

Emakume gazteak

1. BLOKEA

Helburua: Espazio publikoari zein erabilera ematen diogun, nola bizi dugun espazio hori, eta bertan nola erlazionatzen garen

ZEIN ERABILERA EMATEN DIOGU ESPAZIO PUBLIKOARI?

Nola antolatzen gara, gauez edo parrandan irteten garenean? Eta etxera bueltatzean? Nola mugitzen gara kaletik, espazio publikoetatik, parkeetatik...?

Nola erlazionatzen gara parrandan irteten garenean? Lagunekin, bikotearekin... ateratzen gara? Beste pertsona batzuk ezagutzen ditugu? Nola hurbiltzen gara haiengana? (Harremanetan hasteko edota jendea ezagutzeko moduez hitz egin...)

NOLA SENTITZEN GARA ESPAZIO PUBLIKOA ERABILTZEN DUGUNEAN?

Nola sentitzen gara etxetik irteteen edota etxera bueltatzean? Nola moldatzen gara kaletik? Nola sentitzen gara? Zer motatako mezuak heltzen zaizkigu espazioaren erabileraren bat egiten dugunean? Bizipen deserosoren bat izan dugu? Nola bizi izan dugu? Nola sentitu gara? Zer motatako mezuak bidaltzen dizkigu ingurumenak? Nola kudeatzen dugu hori? Zein laguntza izan dugu, edo zer bota dugu faltan?

2. BLOKEA

Helburua: amodioaz, bikote harremanez, emakume eta gizonen arteko harremanez, eta abarrei buruz, zer uste dugun ezagutzea

ZER DA MAITASUNA?

Nola definituko zenukete maitasuna? Jatorrizko gauza da? Senezkoa? Nola bizi dugu? Zertan sus-traitua dago maitasuna? Zer uste duzue beharrezkoa dela, amodioa existitzeko? Emakumeak eta gizonak modu desberdinetan bizi dutela uste duzue? Zergatik? (maitasun erromantikoaren ereduak sakondu, harremanetan jartzeko moduen genero-aginduak, estereotipoak...)

ZER DIRA BIKOTE-HARREMANAK?

Zer ondorio ditu bikotea izateak? Nola eramaten dugu aurrera, aldi berean, gure bikotearekin dugun bizitza eta lagunekin eta familiarekin dugun harremana? Bikote-harremanetan emakumeen eta gizonen

arteko desberdintasuna igartzen dugu? Hau da, rol desberdinak izaten ditugu? Zergatik? Zuen ustez, nola eragiten digute rol horiek, bai emakumeei, bai gizonei?

Nola sentitzen zarete zuen bikote-harremanetan, gau bateko maite-kontuetan...? Zuen ohiturak aldatzen dituzue bikotea duzuenean? Zein modutan? Zer-nolako komunikazioa duzue zuen bikotearekin? Edo, nolakoa uste duzue izan beharko lukeela komunikazio horrek? Sare sozialak, deiak...

Egoera deserosoren bat bizi izan duzue noizbait? Taberna batean, zuen bikotearekin, gau batean ezagutzen duzuen mutiko batekin, etxerako bueltan, lagun batekin...

Zuen ingurukoek presioa egin dizuete, noizbait, bikote-harremanak izateko?

Zuen ustez, gizonek zein motatako emakumeak bilatzen dituzte? Eta, zuek, nola definitzen duzue zuen burua? Nola gustatuko litzaizueke izatea zuen bikotea/harremana?

3. BLOKEA

Helburua: Planaren lan-ildoetan parte hartzeko aukerak neurtzea

ZER DA INDARKERIA MATXISTA?

Hitz egin dezagun berdintasunik ezaz eta indarkeria matxistaz... (aurreko ataletan atera dena eta atera ez dena aztertu, eta indarkeriaz hitz egitera eramango gaituen informazioa batu)

Orain arte hitz egin dugun guztia kontuan hartuta, emakumeen eta gizonen artean berdintasunik eza dagoela uste duzue? Nola gaingitzen duzue berdintasunik eza hori? Zer lotura dago indarkeriaren eta berdintasunik ezaren artean? Egoera horien aurrean, zerbait egin daitekeela uste duzue? Azken denboraldian, egoera nabarmen aldatu dela uste duzue?

Nola definituko zenukete indarkeria matxista? (begiratu ea indarkeria mota desberdinak ateratzen diren). Eraso, indarkeria edota tratatu txarrak jasaten dituen emakumeren baten kasua ezagutu duzue? Badakizue zer egin zuen? Zer egingo zenukete, edo zer egin zenuten laguntza eskatu balizu/eskatu zizuenean?

Ezagutzen dituzue errealitate hori leuntzeko egiten diren gauza desberdinak? Eta indarkeria matxista jasaten duten emakumeei zuzendutako zerbitzuak? Zer esango zenukete tratatu txarrak jasaten dituela esaten dizun lagun, kide, arreba edo auzokideari?

Eta, zuek, antzeko egoeraren bat bizi izan duzue? Zer egin zenuten? Nola sentitu zineten? Zer-nolako laguntza jaso zenuten?

ZER EGIN DEZAKET INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN?

Nola sentitzen zarete indarkeria horren aurrean? Zerbait egin daitekeela uste duzue? Nork egin beharko luke zerbait? Nondik? Eta, guk, zerbait egin dezakegu? Parte-hartze moduak ezagutzen ditugu? (Begiratu ea ateratzen diren «Beldur Barik» programa, «1ERA 2KAIN», Marienean dauden baliabideak, Jaietako erasoan aurkako protokoloa, edota beste zerbitzu edota baliabideak).

Gure bizitzetan lehentasunezko gaia dela uste duzue? Eta zuek, zuen tokitik, zer uste duzue egin ahalko zenuketela arazo horren aurrean? Gehiago egitea gustatuko litzaizueke? Zer uste duzue egin litekeela hemen, Basaurin, eta ibiltzen zareten ingurunean? Zer uste duzue egin genezakeela? Gai horren inguruan gehiago jakitea gustatuko litzaizueke?

2. TALDEA

Mutil gazteak

1. BLOKEA

Helburua: Espazio publikoari zein erabilera ematen diogun, nola bizi dugun espazio hori, eta bertan nola erlazionatzen garen

ZEIN ERABILERA EMATEN DIOGU ESPAZIO PUBLIKOARI?

Etiketrik irtetea edo gabez, parrandatik bueltan... nondik ibiltzea pentsatu duzue noizbait? Nola mugitzen gara kaletik, espazio publikoetatik, parkeetatik...?

Nola erlazionatzen gara parrandan irteten garenean? Lagunekin, bikotearekin... ateratzen gara? Beste pertsona batzuk ezagutzen ditugu? Nola hurbiltzen gara haiengana? (Harremanetan hasteko edota jendea ezagutzeko moduez hitz egin...)

NOLA SENTITZEN GARA ESPAZIO PUBLIKOA ERABILTZEN DUGUNEAN?

Parrandatik bueltan, gurutzatzen zareten jendearekin, elkarri begiratzen diozue noizbait? Eta neska/emakumeekin? Uste duzue haientzako desberdina dela gabez bakarrik ibiltzea kaletik? Beldurra sentitzen duzue noizbehinka? Inoiz neska/emakume bat eragotzi duzuela sentitu duzue? Bai, ez... Eta, horrek, nola sentiarazi zaituzte?

Emakumeak kaletik nahiz espazio publikoetatik bakarrik joatean nola sentitu daitezkeen pentsatu duzue noizbait? Neska eta mutilek espazio publikoaz egiten duten erabilera desberdin ikusten dela uste duzue? Zergatik bai? Zergatik ez?

2. BLOKEA

Helburua: amodioaz, bikote harremanez, emakume eta gizonen arteko harremanez, eta abarrei buruz, zer uste duten ezagutzen dutela

ZER DA MAITASUNA?

Nola definituko zenukete maitasuna? Jatorrizko gauza da? Senezkoa? Nola bizi dugu? Zertan sus-traitua dago maitasuna? Zer uste duzue beharrezkoa dela, amodioa existitzeko? Emakumeak eta gizonak modu desberdinetan bizi dutela uste duzue? Zergatik? (maitasun erromantikoaren ereduak sakondu, harremanetan jartzeko moduen genero-aginduak, estereotipoak...)

ZER DIRA BIKOTE-HARREMANAK?

Zer ondorio ditu bikotea izateak? Nola eramaten dugu aurrera, aldi berean, gure bikotearekin dugun bizitza eta lagunekin eta familiarekin dugun harremana? Bikote-harremanetan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna igartzen dugu? Hau da, rol desberdinak izaten ditugu? Zergatik? Zuen ustez, nola eragiten digute rol horiek, bai emakumeei, bai gizonei?

Nola sentitzen zarete zuen bikote-harremanetan, gau bateko maite-kontuetan...? Zuen ohiturak aldatzen dituzue bikotea duzuenen? Zein modutan? Zer-nolako komunikazioa duzue zuen bikotearekin? Edo, nolako uste duzue izan beharko lukeela komunikazio horrek? Sare sozialak, deiak...

Mutikoren batekin deseroso sentitu diren nesken egoerak ezagutzen dituzue? Taberna batean, bere bikotearekin, gau batean ezagutzen duen mutiko batekin, etxerako bueltan, lagun batekin... Eta zuei, gertatu zaizue?

Zuen ingurukoek presioa egin dizuete, noizbait, bikote-erlazioak izateko?

Zuen ustez, emakumeek zein motatako gizonak bilatzen dituzte? Eta, zuek, nola definitzen duzue zuen burua? Nola gustatuko litzazueke izatea?

3. BLOKEA

Helburua: Planaren ildo estrategikoetara ekarri ahal ditugun hautematea

ZER DA INDARKERIA MATXISTA?

Hitz egin dezagun berdintasunik ezaz eta indarkeria matxistaz... (aurreko ataletan atera dena eta atera ez dena aztertu, eta indarkeriaz hitz egitera eramango gaituen informazioa batu).

Nola definituko zenukete indarkeria matxista? (begiratu ea indarkeria mota desberdinak ateratzen diren). Eraso, indarkeria edota tratatu txarrak jasan dituen emakumeren baten kasua ezagutu duzue? Badakizue zer egin zuen? Zer egingo zenukete, edo zer egin zenuten laguntza eskatu balizu/eskatu zizuenen? Ezagutzen dituzue errealitate hori leuntzeko egiten diren gauza desberdinak? Eta indarkeria matxista jasaten duten emakumei zuzendutako zerbitzuak? Zer esango zenukete tratatu txarrak jasaten dituela esaten dizun lagun, kide, arreba edo auzokideari?

ZER EGIN DEZAKET INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN?

Eta zuek, emakumeren bati bortxatu, eragotzi edo eraso egin dioten egoeraren bat ikusi duzue? (laguna, neskalaguna, hurbil zegoen emakumeren bat...) Zerbait egin duzue? Zer? Eta nola sentitu zineten jardutean/EZ-jardutean? Edo lagun, neskalagun, arreba, lehengusinarekin bat kontatu dizuete istorioren bat? Edota haien artean kontatu dute antzeko egoeraren bat? Nola sentitzen zarete errealitate honen aurrean? Gizonak izatean, erantzukizunen bat duzuela uste duzue?

Nola sentitzen zarete indarkeria honen aurrean? Zerbait egin daitekeela uste duzue? Nork egin beharko luke zerbait? Nondik? Eta guk, zerbait egin dezakegu? Parte-hartze moduak ezagutzen ditugu? (Beldur Barik programa, 1era 2kain, Marienean dauden errekurtsioak, erasoen aurkako jaialdietako protokoloa, edota beste zerbitzu eta errekurtsioak bezalako adibideak ateratzen diren begiratu). Ikusi ere bai bakoitzaren norbanako erantzukizuna nola atera daitekeen: matxismoaren aurrean zero tolerantzia, txiste matxistaz ez egitea barre, emakumeenganako tratatu txarrak eta diskriminazioa bultzatzen dituzten jokabideez gaizkideak ez izatea, egoera hau sustatzen dituzten pribilegioei uko egitea...

Gure bizitzetan lehentasunezko gaia dela uste duzue? Eta zuek, zuen tokitik, zer uste duzue egin ahal zenuketela arazo honen aurrean? Gehiago egitea gustatuko litzazueke? Zer uste duzue egin

litzatekeela hemen Basaurin eta, murgiltzen zareten inguruan? Zer uste duzue egin genezakeela? Indarkeria matxistarekin konprometitu behar bazinateke, nola egingo zenukete? Non edo nola ikusiko zinatekete zuen burua? Hemen Basaurin, eta murgiltzen zareten inguruetan, zer uste duzue egin genezakeela? Gai honen inguruan gehiago jakitea gustatuko litzaizueke?

3. Taldea

Emakume liderrak

1. BLOKEA

Helburua: berdintasunik ezari eta indarkeria matxistari buruz duten hautematea ezagutzea

HITZ EGIN DEZAGUN BERDINTASUNIK EZAZ... Zuen ustez, gaur egun genero-desberdinkeria existitzen dela uste duzue? Zeintzuk? Non identifikatzen dituzue? Eta, zuek, nola bizitzen dituzue desberdintasun horiek? Noizbait hunkituta sentitu zarete, arloren batean, emakume izateagatik?

Aisialdiari eta espazio publikori dagokionez, desberdintasunik ezak sentitzen dituzue emakume eta gizonen artean? Zertan? Adibidez: bizitza sozialaren eta familiarraren arteko kontziliazioak gehiago mugatzen al ditu emakumeak, gizonak baino?

Espazio publikoaren erabileraz hitz egiten dugunean, beldurraren gaia ateratzen da askotan. Zergatik izan ohi gara beldur? Zeri diogu beldur? Emakumeak izateagatik baldintzatuta ikusten duzue zuen burua, espazio publikoa erabiltzerakoan?

HITZ EGIN DEZAGUN INDARKERIAZ... Nola definituko zenukete indarkeria matxista? Zeri egiten diogu erreferentzia? Zein motatako indarkeriak identifikatzen dituzue? Genero-indarkeria bikotean ematen da bakarrik? (Eman tartetxo bat, hautemateei, ezagueri, iritziei eta definizioei buruz hausnar dezaten).

2. BLOKEA

Helburua: indarkeria matxistari buruzko haien ikuspuntua eta iritziak ezagutzea, eta aztertzea haien erakundeetatik nola jokatzeko dute

Indarkeria matxista, zehazki, lantzen duzue zuen kolektiboetatik? Nola?

Elkarte bezala, nola erreakzionatzen duzue errealitate horren aurrean? Protokoloren bat duzue? Basaurin edo inguruan eman daitezkeen kasuen jarraipena egiten duzue?

Eta, barrutian, egoeraren bat bizi izan duzue? Zuen erakundeetan ez bada, beste kolektiboren batean gertatutako kasuren bat ezagutzen duzue? Zein motatakoa?

Baiezkoan, nola tratatzen da kasu bakoitza (tokikotik hasita, erlazionatzen diren inguruetara). Nola lantzen da indarkeria matxista?

Noizbait zerbait egin duzue?

- Baiezkoan, zer? Norekin? Nortzuk? Nola? Zer gustatuko zitzaizuekeen?

- Ezezkoan, zergatik ez? Zailtasunak, konpromiso falta, adostasun falta, azkar eta modu eraginkorrean erantzuteko zailtasunak, barruko trabak...

Zuzenean tratu txarrak, indarkeria edo erasoak jasan duen emakumeren baten kasua ezagutzen duzue? Kolektibo bezala, laguntza edo informazioa eskatu dizue? Badakizue zer egin zuen? Zer egingo zenukete, edo zer egin zenuten laguntza eskatuko balizueke/eskatu zizuenean?

Ezagutzen dituzue errealitate hori leuntzeko egiten diren gauza desberdinak? Eta indarkeria matxista jasaten duten emakumeei zuzendutako zerbitzuak? Zer esango zenikete tratu txarrak jasaten dituela esaten dizun lagun, kide, arreba edo auzokideari?

Eta zuek, antzeko egoeraren bat bizi izan duzue? Zer egin zenuten? Nola sentitu zineten? Zuen erakundeetatik laguntza jaso zenuten? Ala ez da erreferentziazko lekua, indarkeria-egoeraren bat jasanez gero? Zergatik bai? Zergatik ez?

3. BLOKEA

Helburua: indarkeria matxistarekin duten konpromisoa ezagutzea, eta Planaren ildo estrategikoetara ekarri ahal ditugun hautematea

Gobernuak eta erakundeek gizartearen arazo horren kontra borrokatzeko eta emakumeak erantzuteko behar beste baliabide bideratzen dituztela uste duzue? Legea nahikoa da? Zer gehiago beharko litzateke? Gizartea kontzientziatua dagoela uste duzue (sentiberatze kanpainak...)?

Zuek, zaudeten lekutik, zer uste duzue egin dezakezuela arazo horren aurrean? Gehiago egitea gustatuko litzazueke? Eta Basaurin, mugitzen zareten inguruneetan?

Baliabideak izango bazenituzte, elkarre bezala nahiz bakarka zenbait konpromiso hartuko zenituzkete? Zeintzuk? Zein motatakoak? Zer izango litzateke lehentasunezkoa? Zer uste duzue landu beharko litzatekeela zuen erakundeetan? (bota ideiak: zigor-neurriak, salaketa-protokoloan parte-hartzea, eskelak, pankartak, auzo osoak parte hartzeko ekintzak...)

4. Taldea

Gizon konplizeak

1. BLOKEA

Helburua: berdintasunik ezari eta indarkeria matxistari buruz duten hautematea ezagutzea

Hitz egin dezagun berdintasunik ezari buruz... Zuen erakundeetan emakume eta gizonen arteko berdintasunik eza existitzen dela uste duzue? (galdetu parte-hartzearen inguruan, bileretako hitz-hartzeari buruz, erantzukizun handiagoko edo txikiagoko karguen banaketari buruz, etab.)

Nola bizi da berdintasunik eza hori zuen erakundeetan? Gai hori lantzen duzue? Hitz egiten duzuen gaia da? Egoera hori hobetzeko lan egiten duzue?

Hitz egin dezagun indarkeriaz... Nola definituko zenukete indarkeria matxista? Zeri egiten diogu erreferentzia? (tartetxo bat eman, ikuspuntuak, ezaguerak, iritziak eta definizioak hausnar ditzaten)

2. BLOKEA

Helburua: indarkeria matxistari buruzko haien ikuspuntua eta iritziak ezagutzea, eta aztertzea haien erakundeetatik nola jokatzeko duten

Indarkeria matxista, zehazki, lantzen duzue zuen kolektiboetatik? Nola?

Elkarte bezala, nola erreakzionatzen duzue errealitate horren aurrean? Protokoloren bat duzue? Basaurin edo inguruan eman daitezkeen kasuen jarraipena egiten duzue?

Eta, barrutian, egoeraren bat bizi izan duzue? Zuen erakundeetan ez bada, beste kolektiboren batean gertatutako kasuren bat ezagutzen duzue? Zein motatakoa?

Baiezkoan, nola tratatzen da kasu bakoitza (tokikotik hasita, erlazionatzen diren inguruetara). Nola lantzen da indarkeria matxista?

Noizbait zerbait egin duzue?

- Baiezkoan, zer? Norekin? Nortzuk? Nola? Zer gustatuko zitzaizuekeen?
- Ezezkoan, zergatik ez? Zailtasunak, konpromiso falta, adostasun falta, azkar eta modu eraginkorrean erantzuteko zailtasunak, barruko trabak...

Zuzenean tratatu txarrak, indarkeria edo erasoak jasari duen emakumeren baten kasua ezagutzen duzue? Kolektibo bezala, laguntza edo informazioa eskatu dizue? Badakizue zer egin zuten? Zer egingo zenukete, edo zer egin zenuen laguntza eskatuko balizueke/eskatu zizuenean?

Ezagutzen dituzue errealitate hori leuntzeko egiten diren gauza desberdinak? Eta indarkeria matxista jasaten duten emakumeei zuzendutako zerbitzuak? Zer esango zenioke tratu txarrak jasaten dituela esaten dizun lagun, kide, arreba edo auzokideari?

Zuen erakundea erreferentziazko leku bat izan daitekeela uste duzue, erasoren bat jasan, edo tratu txarren biktima diren neska nahiz emakumeentzako? Zergatik bai? Zergatik ez?

3. BLOKEA

Helburua: indarkeria matxistarekin duten konpromisoa ezagutzea, eta Planaren ildo estrategikoetara ekarri ahal ditugun hautematea

Gobernuak eta erakundeek gizartearen arazo horren kontra borrokatzeko eta emakumeak erantzuteko behar beste baliabide bideratzen dituztela uste duzue?

GIZON bezala, nola sentitzen zarete indarkeria matxistaren aurrean? Deseroso sentitzen naiz... eroso sentitzen naiz... Txiste, komentario edota jarrera matxisten konplizea izateaz hitz egin... Nola sentitzen zarete horrekin? Erantzuten duzue? Nola? Egin baldin baduzue, zer-nolako ondorioak izan ditu?

Zuek, zaudeten lekutik, zer uste duzue egin dezakezuela arazo horren aurrean? Gehiago egitea gustatuko litzazueke? Eta, Basaurin, mugitzen zareten inguruneetan?

Baliabideak izango bazenituzte, elkarte bezala nahiz bakarka zenbait konpromiso hartuko zenituzke? Zeintzuk? Zein motatakoak? Zer izango litzateke lehentasunezkoa? Zer uste duzue landu beharko litzatekeela zuen erakundeetan? (bota ideiak: zigor-neurriak, salaketa-protokoloan parte-hartzea, eskelak, pankartak, auzo osoak parte hartzeko ekintzak...)

5. Taldea

Jubilatuen etxeetako emakume erabiltzaile nagusiak

IRAGANEKO EGOERA VS ORAINALDIKO EGOERA

Gauzak aldatu dira? Bai? Ez? Nola? Zertan? Berdintasunik ezaren inguruko gaiak ateratzen diren ikusi.

AISIALDIA

Zertan ematen duzue? Aisialdirako denbora kentzen dizueten eginbeharrrik duzue? Nola moldatzen zarete biak aurrera eramateko? Zeintzuk dira zuen eginbeharrak? (Biloben zaintzaren gaia ateratzen den begiratu)

Nola antolatzen duzue biloben zaintza? Senarrarekiko/bikotearekiko desberdintasunak... Zer egiten du bakoitza?

HEZKUNTZA/ GENERO-ROLAK

Nola hezten ditugu gure seme-alabak eta bilobak? Berdintasunik eza ikusten dugu? Zein eremutan? Nola kudeatzen dituzue hezkuntzatik berdintasunik eza hori? (estereotipoak indartzen ditugu; horiek apurtzen saiatzen gara, baina zaila da; estereotipoak iraganeko kontua dira...)

GURI ERAGITEN DIGU?

Nola bizi dugu berdintasunik eza hori? Eragiten digu? Nola? (adibideak atera, eta begiratu ea espazio publikoaren gaia ateratzen den)

Nola sentitzen gara kaletik goazenean? Egunez ala gauez zenbait zonalde saihesten ditugu? ZERGATIK? Beldurraz hitz egiten dugu... beldurra zeri? Emakumea izateak eragina du? Desberdina ote da? Polizian edo beste eremuren batean, lapurreta kasuetan edo antzeko egoeretan nola jokatu jorratzeko hitzaldiak antolatu direnean, bereizketak egin dira? Genero ikuspuntua kontuan izaten da?

Irten denaren arabera, heztean beldur hori transmititzen dugu? Nori? Zein modutan? Ikusi ea zerbait ateratzen den neska gazteak eta espazio publikoaren inguruan, gazteen jarrerei buruz, atzoko eta gaurko bikote harremanen gainean... (indarkeria matxistaren gaia ateratzen den ikustea)

... INDARKERIA

Bikote-harremanetan indarkeria kasu asko ematen direla uste duzue? Normala den kontua dela uste duzue?

Indarkeria matxista gaur egungo gizarte-arazo garrantzitsu bat dela uste duzue? Tratu txarrak jasan dituen emakumeren bat ezagutzen duzue? Nola erantzun zenuten?

Eta zuek, zuen inguruan (familian, jubilatuen etxea,...), noizbait deseroso sentitu zarete? Nola? Nola definituko zenukete? Ateratzen dena ikusi eta, bestela, zuzenean galdetu...

Indarkeria matxistaren aurrean, zer uste duzue egin dezakezuela?

6. Taldea

Jubilatuen etxeetako gizon erabiltzaile nagusiak

IRAGANEKO EGOERA VS ORAINALDIKO EGOERA

Gauzak aldatu dira? Bai? Ez? Nola? Zertan? Berdintasunik ezaren inguruko gaiak ateratzen diren ikusi.

AISIALDIA

Zertan ematen duzue? Aisialdirako denbora kentzen dizueten eginbeharririk duzue? Nola moldatzen zarete biak uztartzeko? Zeintzuk dira zuen eginbeharrak? (Biloben zaintzaren gaia ateratzen den begiratu)

Nola antolatzen duzue biloben zaintza? Emaztearekiko/bikotearekiko desberdintasunak... Zer egiten du bakoitzak?

HEZKUNTZA/ GENERO ROLAK

Nola hezten ditugu seme-alabak eta bilobak? Berdintasunik eza ikusten dugu? Zein eremutan? Nola kudeatzen duzue hezkuntzatik berdintasunik eza hori? (estereotipoak indartzen ditugu; horiek apurtzen saiatzen gara, baina zaila da; estereotipoak iraganeko kontua dira...)

GURI ERAGITEN DIGU?

Nola bizi dugu berdintasunik eza hori? Eragiten digu? Nola? (adibideak atera, eta begiratu ea espazio publikoaren gaia ateratzen den)

Nola sentitzen zarete kaletik zoaztenean? Goizez ala gauzez, zonalde batzuk saihesten dituzue ordu jakin batzuetan? Emakumeak eta gizonak modu berean bizi dugula uste duzue? ZERGATIK? BELDURRAZ hitz egiten dugu... Zuentzako, zer da beldurra? Beldurra, zeri? Zergatik? Nola uste duzue bizi dutela emakumeek? Desberdina da? Polizian edo beste eremuren batean, lapurreta kasuetan edo antzeko egoeretan nola jokatu jorrazteko hitzaldiak antolatu direnean, bereizketak egin dira? Genero ikuspuntua kontuan izaten da?

Irten denaren arabera, heztean beldur hori transmititzen dugu? Nori? Zein modutan? Ikusi ea zerbait ateratzen den neska gazteak eta espazio publikoaren inguruan, gazteen jarrerei buruz, atzoko eta gaurko bikote harremanen gainean...

... INDARKERIA

Bikote-harremanetan indarkeria-kasu asko ematen direla uste duzue? Normala den gauza bat da?

Indarkeria matxista gaur egungo gizarte-arazo garrantzitsu bat dela uste duzue? Tratu txarrak jasan dituen emakumeren bat ezagutzen duzue? Nola erantzun zenuten?

Zer egin dezakezue zuek indarkeria matxistaren aurrean?

Sakoneko elkarrizketak: gidoiak

Berdintasuneko zinegotziari egindako elkarrizketa

Zure ustez, erakunde batek zer egin behar du, eta zein konpromiso hartu behar ditu, indarkeria matxistari dagokionez?

Zeintzuk dira, zure ustez, zailtasun handienak indarkeria matxistari aurre egiteko politika publikoak ezartzerakoan, eta zer proposamen dituzu zailtasun horiei aurre egiteko?

Basaurik, beste udalerrri batzuen aldean, ibilbide oparoa du berdintasunaren alorrean. Zelan jarraitu ahal dugu aurrera egiten?

Indarkeria matxistari aurre egiteko, hainbat esparrutatik heldu behar zaio arazoari, eta beharrezkoa da, gainera, gizarte osoa inplikatzeko.

Zer deritzozu alderdien arteko itunari, plangintzak eta programak ezartzeko? Zertan gauza liteke itun hori, zehazkiago?

Uste duzu garrantzitsua dela emakumeen elkartearen parte-hartzea? Zer lan egin beharko lukete?

Besterik esan nahi duzu?

Berdintasun-teknikariari egindako elkarrizketa

Berdintasunean izan duzun ibilbidea aintzat hartuta (hemen zaude Atala martxan jarri zenetik), noiz eta zergatik antzeman zenuen beharra udalerrian martxan jartzeko indarkeria matxistari, bereziki, aurre egiteko plana?

Basauri aitzindari izan da berdintasunaren alorrean, bai erakunde mailan, baita elkarte mailan ere. Eredugarria da emakumeek udalerrian izandako parte-hartzea eta antolaketa. Zentzu horretan, nola baloratzen duzu Basaurin egindako ibilbidea?

Zenbait neurri, zerbitzu, baliabide... ezarri eta gero, atzera begira, zure ustez, zeintzuk dira Basaurin, gaur egun, oraindik ere, indarkeria matxistaren arretan, prebentzioan eta antzematean dauden gabeziak?

Berdintasunaren alorreko azken lorpen eta aurrerapena izan da 2012an abiarazitako Marienea Basauriko Emakumeen Etxea. Nondik sortu zen beharrizan hori? 4 urte eta gero, zein balantze egingo zenuke?

Gizarte-politika Arloko arduradunari elkarrizketa

Zure ustez, diziplinarterko lana behar da indarkeria matxistari aurre egiteko? Zertan zehaztuko zenuke egin beharreko lan hori?

Tokiko protokoloa izan liteke gaiari heltzeko erreminta bat? Zure uste, zein dira protokolo horrek ez funtzionatzeko arrazoi nagusiak, bertan baliabide eta erakunde askok parte hartzen badute ere? Zelan konpon litezke akatsak?

Udalaren gizarte-zerbitzuek badaukate behar besteko baliabiderik, indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko? Zure ustez, zeintzuk dira arreta-beharrizan larrienak?

Urteetan zehar arreta ematen ibili eta gero, biktima eta erasotzaile berrerorleak aurkitzen dituzue, beste bikoteko batzuekin? Kasu horietan, zer egin?

Zer iritzi duzu indarkeriaren biktimek suspertzeko ibilbideei buruz? Uste duzu egokia dela taldekako esku-hartzeak egitea? Zure aburuz, «egoera horretan dauden emakumeei laguntzeko» ekintzaile bihurtzeak, sendatzen lagundu ahal die biktimei?

Zer iritzi duzu Berdintasun Atalak indarkeria matxistaren aurka sustatutako tokiko planari buruz? Egoera horretan dauden emakumeei laguntza emateak lagundu ahal die biktimei sendatzen? Eta zein da zure iritzia hautatutako ardatz estrategikoei buruz?

Emakumeentzako Informazio Zentroko abokatuari eta arduradunari elkarrizketa

Zer iruditzen zaizue Berdintasun Atalak Indarkeria Matxistaren Aurkako Tokiko Plana abiarazi izana? Beharrezko ikusten duzue? Erabilgarria izan daiteke, indarkeria pairatzen dutenei behar bezalako arreta emateko?

Erakundearen ikuspuntutik, eta Basauri abiapuntutzat hartuta, uste duzue behar besteko baliabideak bideratzen direla errealitate horri aurre egitera?

Zer balio ematen diozue 2012an Marienea Basauriko Emakumeen Etxea martxan jarri izanari?

Zerbitzuaren (EIZ) ibilbidea aintzat hartuta, zeintzuk dira, zuen ustez, indarkeria matxista pairatu duten emakumeei emandako arretak dituen gabeziak?

Udaltzaingoko sarjentuari elkarrizketa (bera da bere arloko arduraduna, indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloan)

Zein da Udaltzaingoaren esku-hartzea, indarkeria matxista kasuen aurrean? Zeintzuk dira, zehatz-mehatz, ematen dituzuen urratsak?

Zein beste zerbitzu edo baliabiderekin koordinatzen zarete? Zer-nolakoa da koordinazio hori? Zein arazo izaten dituzu?

Uste duzu zure Arloan dauden baliabideak aski direla indarkeriaren biktimei arreta emateko?

Zer botatzen duzu faltan?

Indarkeria matxistari aurre egiteko langile espezializatuak dituzue? Indarkeria matxistari buruzko prestakuntza espezializatu eta jarraia jasotzen duzue? Zer-nolako prestakuntza, zein gai zehatzi buruzkoa, beharko litzateke?

Zure ustez, zeintzuk dira Basauriko Udaltzaingoak dituen zailtasun handienak, indarkeria matxistaren alorreko kasuei/salaketei aurre egiterakoan? Zein beharrian antzematen dituzu?

Uste duzu Basaurin, indarkeria matxistaren gaiak garrantzia duela maila instituzionalean? Eta gizarte mailan?

